 - * Problematikoak: /h/ iparraldean gorde da, baina dardarkariekin arazoak daude. /hr/ > /h/. Talde hauek eterosilaboak dira eta hau aspalditik dakigu: “abisun.hari” (/n/ eta /h/).
- (5) Herskari leherkari hasperendunak (“ph”, “th”, “kh”). Ez dira etimologikoak, ez baitute sistema fonologikoaren berreraiketan unitate propiorik eskatzen. Hizkuntza gehienetan kontsonante hasperendunak ahoskabeak dira.

3. HASPERENAREN ETA AZENTUAREN ARTEKO LOTURARANTZ.

- XVI. mendetik egun arte...hasperena agertzeko baldintzak:

- (a) /h/ ez da ageri bigarren silabatik eskuinerago. Bi aukera: 1. edo 2. silaban.
- (b) Hitz bakoitzean /h/ bat bakarrik.
- (c) “*sh”, “*mh”.

- Hasperenketaren galera:

- (a) Bi egotetik > bat egotera: “*h.....h.....” > “Ø.....h.....”. “hilotz” > “ilhotz”.
- (b) Bat egotetik > ez egotera. /h/-aren galera Nafarroa Garaian hasi zen. Ez zuten segurtasun fonologikorik: “uarte” / “huarte” / “uharte”, “ualde” / “hualde” / “uhalde”.
- (c) Non? Lapurdiko kostaldea aipagarri. XVI-XVIII. mendeetako lekukotasunak ikusita, /h/ bazela ikusenez; XIX-XX. mendeetan galdu.

4. /H/-AREN BALIO ETIMOLOGIKOAZ ZENBAIT ARGUDIO.

- Hipotesia: Gaurko /h/, AE-n ere /h/.

- Mitxelenak /h/ etimologikorako lau kasu:

- (1) Hitz hasierako leherkari bortitzak > #h-. “Halsco” / “Talsco”, “Harri” / “*Kar”.
- (2) VnV > VhV: maileguekin eta jatorrizko hitzekin.
- (3) “f-” > “h-”. “forma” > “horma”, “*afotz” > “aihotz”. Zail da jakiten “f” > “h” euskararen eman den edo gaskoieratik horrela etorri zen.
- (4) “h” > “h”. AE-tik gorde den /h/: “hortz”, “behi”...

- Hauetaz gain badira...

- (a) Etimologikoak ez diren /h/-ak (batez ere leherkariei dagokienez). “harroka” = “harri” + “roca”, “hezkabia” = “hatz” + “scabi”.
- (b) Azalpenik gabeko /h/-ak. “arena” > “harea”: “-n-” > “-h-” eman izan balu “*areha” litzateke. Agian /h/ bazegoen eta ezkerretara mugitu zen: “arena” > “areha” > “harea”.
- (c) Maileguetako /h/-ak. Maileguetan hasperenketa gehitzeko jatorrizko formetan ere azalpena behar dugu, maileguak jatorrizko formetara egokitzen baitira eta ez alderantziz.

- Mitxelenaren hipotesia:

/h/ asko /n/-tik datoz. “arena” > “harea”, “offende” > “hoben”.

- Jatorrizko lexikora bueltatzean, gauzak interesgarri:

“harea”, “herio”, “hedoi” = h.VCV.V → Badira adibide gehiago eta ez dira maileguak.

- Grassmann-en legea: Hitz batean ezin dira bi hasperen egon, bat desagertu egiten da.

5. HASPERENKETAREN KOKALEKUA MAILEGUETAN.

- Hasperenketaren eta azentuaren arteko harremana: azentu osteko /h/ > Ø.
- Mitxelena: “badira zenbait /h/ arrazoi segmentalik gabe sortuak, batez ere hitz hasieran”.
 - (a) Gehienak maileguetan ematen dira, ez jatorrizko lexikoan. Ahulezia handia fenomenoaren azalpenean. /h/ gehitu bada maileguetan, zergatik ez jatorrizko lexikoan?
 - (b) “harea”, “horma”, “harroka”, “hezkabia”... /h/ hauek /n/ batetik datoz.
- Delako /h/ hauen ugaritasuna konparatibista maltzuraren artean erabilia izan da:
 - (a) Schuchardt: V > V₁hV₁. Edozein bokal geminatu bikoitza + tartean /h/ sartu. “len” > “leen” > “lehen”, “ate” > “aate” > “ahate”.
 - (b) Mitxelenak gogor kritikatu zituen Schuchardt-en saioak.
- Zergatik forma batzuk /h/ eta besteek ez?
 - (a) “i.ba.i” > “i.ba.hi” > “hibai”, “arena” > “areha” > “harea”. Hasperenketaren ezkererako mugida.
 - (b) “ballena” > “balena” > “balea”. Ez dago mugidarik, /h/-k ez bailuke ezkerreko mugitzeko lekua aurkituko. Eta “*baleha” ezin liteke izan, /h/ 3. silaban baitago.
 - (c) “leone” > “lehoi”. “*le.o.he” beharko luke, baina 3. silaban ezin liteke, lehenengoa okupatuta dago, eta aukera bakarra bigarren silaba da: “le.ho.i”.

6. `ARRAZOIGABEKO` HASPERENAZ.

6.1. Hitz hasieran.

- (1) “hogei”:
 - (a) Jendeak mailegu zeltiko gisa ikusi (“ugeint” > “hogei”).
 - (b) Arazoak ditu euskal fonemarekin alderatzeko.
 - (c) Erdi Aroan soilik aurkitzen da. Euskal forma kontaktu ostekoa da (1200 urte geroagokoa). “*wi-kinti” > “niginti” > “ugeint”.
 - (d) Euskal formaren bilakaera: “bor-geni” > “*bor gehi” > “*or gehi” > “*horgei” > “hogei”.
- (2) “hedoi”:

(a) “edoni” > “hedoi”. CVC-CVC.

(b) 1. Eskuineko eta ezkerreko C-ak erori: V-CVC

2. “n” > “h”

3. /h/ ezkerretara mugitu.

(3) “hezur”:

(a) “*enazur” > “*ehazur” > “*heazur” > “hezur” / “hazur”.

(4) “haitz”:

(a) “*anetz” / “anitz” > “*ahetz” / “ahitz” > “*haetz” / “haitz” > “haitz” / “haitz”

(b) Irigoyen: “enuskara” > “ehuskara” > “heuskara” > “euskara”.

(5) “heuragi”: “*eradunegi” > “*erauegi” > “heuragi”.

(6) “hagin”: “canicu” > “akihu” > “aihun” > “hagiun” > “hain” (ald. handiegia).

(7) “hoben”: “offendere” > “obehen” > “hoben”.

(8) “hautatu”: “adapta” > “hauta”.

(*) Hitz asko dira /h/ hirugarren silabatik bigarreneira / lehenengora mugitu dutenak. Bestalde, euskaraz bazen joera /h/ hitz hasieran agertzeko, mugimenduaren indarragatik. Bazen joera lehen silaban C-ak edukitzeko, ez zuten hitza biluzik utzi nahi.

6.2. Hitz barnean.

- Silaba zaharren egitura hobe mantendu da _h_ mantendu duten hitzetan. Adibidez, “auntz” vs. “a.huntz” = silaba zaharra bereizteko balio digu /h/-ak.

- Trask: /h/ sartu izan da...

(a) Silaba bereizteko.

(b) Hiatoak apurtzeko (“behar”, “bihur”...).

- Hiatoak apurtzeko, lehen /g/ baliatzen zen euskalki gehienetan. “-h-” etimologikoa da, eta “-g-” /h/ galera ostekoa.

7. HASPERENKETAREN JATORRIAZ OHAR BAT.

- Mitxelena: “Diptongo ondoko /h/-ak ugaldtu egin direla iruditzen zaio”. “Lehen /h/ horiek ez zeuden, gehitu egin dira”.

- Baina...

- (a) “Sa(i)hets”:
 - “Samur”, “sakon”, “samin”... /sa-/ da aurrizkia, ez /sai-/.
 - “sa(i)” + “hets” → ez da /h/ gehitu, /i/ baizik!
- (b) “eihar”: “enar” > “*ehar” > “eihar”. Hemen ere /i/ gehitu da.
- (c) “eiho”: “eno” > “eho” > “eiho”. Hemen ere.

8. HASPERENAREN KOKALEKUA.

- Hiru garai:

- (1) AE I. garaia: [hVC] → Egitura monosilabikoa.
- (2) AE II. garaia: [#__-n /h/-rik ez] → Garai silabikoa. “*haker”.
- (3) EA III. garaia: Grassmann-en legea. Lehenengoaren eraginez bigarrena disimilatu. “aker”.

9. AZENTUAREN ETA HASPERENAREN ARTEKO HARREMANA.

- Mitxelena: “azentuaren eta hasperenaren artean harremana dago”.

- (a) Hasperenaren garapenarekin erroaren garapena ikus daiteke.
- (b) Hasperenak erroetan daude soilik.
- (c) Erro batean ezin da hasperen bat baino gehiago egon. hasieran erro guztiak monosilabikoak. Bisilabiko izatera pasa zirenean ere, erro bakoitzean /h/ bakarra.

- Martinet vs. Mitxelena: azentuari buruzko iritzi desberdina.

- (a) Martinet: Euskal azentua lehen silaban dago.
- (b) Mitxelena: Euskal azentua bigarren silaban dago.

- Mitxelena:

- (a) Hasperenak erori egin dira azentuaren eskuinetara geratu direnean.

- (b) 4. silaban azenturik ez dagoenez, /h/-aren kokalekua mugatu. Azentua ezkerretarantz joan den heinean, hasperenaren kokalekua mugatu da; beti azentuaren ezkerrean, ez erortzeko. “ba.lé.a” (“ba.lé.ha” → /h/ galdu), “le.ho.í”, “ha.ré.a”...
- (c) Baziren hasperena 3. silaban ere, ez ordea 4. silaban: “herio” < “*e.ri.ho”, “jario” < “*e.da.li.no” (“n” > “h” ez zen gertatu).
- (d) Kontsonante hasperendunek ez digute balio berriak direlako.

ERRO MONOSILABIKOAREN TEORIA ETA AEZ-AREN BIRRERAIKETA

0. SARRERA.

- Erro zaharra monosilabikotzat zuen Azkuek ez bezala, Lafon-ek eta Uhlenbeck-ek (1942, 1947) euskal erro ñabarra eta anitza aurkeztu dute: aditz-erro gehienbat monosilabikoaren aldean, izenki-erro disilabikoa (nahiz eta monosilabo eta polisilaboekin) erakutsi digute, batzuen eta besteen barnean ere egitura fonematikoari dagokionez azpisail ugari direlarik.

- Trask-ek (1997) badu hainbat ohar interesgarri AE-ren fonotaktikaz eta morfema egituraz; euskarazko V- aniztasuna... Trask-en erro kanonikoaren formula [(C₁) V (C₂) C₃ V (C₄)] Uhlenbeck-en zerrendak baino murriztago bada ere, zabalegia dela.

- Meillet eta Sapir-ek erakusten diguten legez, anomalia historikoak (lehenagoko erregela eta baldintza zaharragoetarik abiatuaz azal daitezkeen neurrian) berreraiketan interesgarri direlarik, begibistakoa dugu euskarazko erroaren egiturak, historikoki dituen irregularitate guztiak kontuan izanik, iraganean urruti eraman gaitzakeela. Kontrako aukera, erro eredu sailkatze eta zerrendatze soila, metodologikoki erosoago, ustez seguruago eta are zehatzago bide da.

- Erro teoriak eta honen barnean erroaren forma kanonikoak eta horren bilakabideak edozein berreraiketa eta konparaketatan zein hizkuntzaren eboluzioan duen betebeharrak garrantzitsuaren aldarrikapenean datza. Erroaren bilakabidearen azterketak lehen baino urrutiago jotzea ahalmentzen eta zilegiztatzen digu.

1. AE-REN BERRERAIKETA ESTANDARRAZ.

- Gure artean hizkuntz konparaketa oso modu xelebrea burutu da gehienbat. Ez du aitzin hizkuntzaren berreraiketaren bitartez hizkuntz familiarren edo hizkuntza bakanaren bilakabidea eta egitura azaltzea lortu.

- Euskararen iraganaren ikerketan bi aro nagusi ditugu: Mitxelena aurrekoa eta ondokoa. 1950-1964 bitarteko haren lanek erabat aldatu zuten euskararen egitura zaharraz eta historian zein historiaurrean hizkuntzaren bilakabideaz genekiena. Geroztik, Mitxelenak berreraikitako AE-rekin beharko du kontaktu bide horretatik abiatu nahi duenak eta ez beste edozerekin.

- Mitxelenak bere jardunean hots aldaketei eta sistema fonologikoaren berreraiketari eman zien lehenak. Emaizta bezala dugu bost bokal, beste hainbat leherkari (ezpainkaria bakarrik baikenuen /p/), lau txistukari eta sei ozen, guztiak 'fortes' / 'lenes' oposaketaren bitartez lotuak biltzen dituen sistema ezaguna; fonema gisa, bederen, sabaikariak, /f/ edo /m/ kanpo geratzen zirelarik.

(a) Bortitzak: --- t k tz ts N L R

(b) Ahulak: b d g z s n l r + h + 5V

- Murriztapenak:

(a) “**/j/”, “**/w/.

(b) Ozen eta txistukarietako bortitz / ahul oposaketa hitz hasieran ahulen alde eta amaieran bortitzaren alde neutralizatu da.

(c) “**/m/”, “**/r-/”. “**/R-/”.

- Silabaren egitura [(C) V (W) (R) (S) (T)] eta konposatuena (bisilabo + bisilabo) proposatu zuen (Mitzelena 1979):

(a) (C) ezin izan zitekeen edozein kontsonante.

(b) “es extremadamente improbable que en algún momento hayan existido ejemplos de sílabas en que todas las casillas estuvieran cubiertas a la vez”.

- Watkins-ek zioen legez (1990) benetako hizkuntzalaritza historikoa etimologiaren garapenarekin hertsiki loturik da.

- Gurean horrelakorik Mitxelena lanean ikusten dugu: ehundaka eta are milaka hitz edo aldaeraren azalpenak aurreko ia beste hainbat azterketa, dozenaka etimologia eta aitzinforma zahar dira bere berreraiketaren oinarrian eta berreraiketaren emaitza gisa.

- Morfologia diakronikoan Schuchardt-en eta Lafon-en izenak ezinbestean aipatzekoak dira. Hain ezagun ez izan arren, badira Uhlenbeck-en 1942 eta 1947ko bi lan euskal lexikoaren sailkapena helburu dutenak.

- Berea da oraintsu arte izan dugun euskal erroen sailkapenik hoberena edo bakarra (Lafon-ek 1950ean ere gero jarraitua):

- Uhlenbeck-en sailkapena:

(a) Erro monosilabikoak:

(1) Bokalez amaituak: “khe”, “lo”...

(2) Diptongoz amaituak: “gau”, “gai”...

(3) Kontsonantez amaituak, ugariagoak: “hil” “lan”...

(4) Afrikatuz amaituak, ugariak: “antz”, “hats”...

(5) Erreduplikatuak, ez oso ugariak: “gogor”, “konkor”...

(b) Erro bisilabikoak:

(1) VCV eta CVCV, ohikoak eta berezkoak: “aho”, “begi”...

- (2) VCVC eta CVCVC, usukoak: “adin”, “gizon”...
- (3) VCCV eta CVCCV, usukoenak: “argi”, “zaldi”...
- (4) VCCVC eta CVCCVC, ohikoak: “argal”, “bazter”...
- (5) Diptongoarekin: “oihu”, “garai”...

(c) Erro trisilaboak: VCVV eta CVCVV, arraroak: “egia”, “herio”...

2. ARRAZOIAK ALDATZEKO.

- Mary Haas-ek zioenez (1969), hizkuntzalaritza historikoan lau arrazoi mota izan litezke aurreko berreraiketa bat aldatzeko:

- (1) Hizkuntza ahaide bat aurkitzea.
- (2) Aitzinhizkuntza ahaide bat aurkitzea.
- (3) Mailegu zahar aztertugabeak erabiltzea.
- (4) Lehendik ezagun ziren lanabesak modu ezberdin batean erabiliaz edo aztertuaz lekukotasunen interpretazio berri bat erdieste.

- Euskalaritzan (1) eta (2) ez dira gertatu azken 40-50 urteotan (Luchaire-k akitaniera euskararekin lotu zuenetik). (3)-ri dagokionez gutxi da aurreratu dena Mitxelenaren ondoren. (4) da, beraz, paradigma-aldaketarako bide eta arrazoi bakarra AE-ren ikerketan.

- Badira urte batzuk Mitxelenaren etimologia eta berreraiketaren paradigmaren morfemen forma kanonikoa ez zela oinarritzat hartzen.

- Benveniste maisuak 1935ean egin zuen bere IE-zko erroaren azterketaren aldeko aldarrikapena, Saussure-ren *Mémoire* eta bestelakoetarik 60 urtetara. Ikerketak oso aitzinaturik ziren ordurako eta Jakobson eta Trubetzkoy-rekin estrukturalismo diakronikoak bere hasikinak jarriak zituen.

- Benveniste-k Meillet-ez zioena hein handi batean ezar dakioke Mitxelenaren lanari. Haren etimologia bildumaren arazoa: horko aitzinformen artean bisilaboak nahiz monosilaboak eta are polisilaboren bat ere, halaber, kontsonantez zein bokalez hasiak, diptongodunak edo gaabeak, silaba ireki nahiz itxitan bukatuak, ia edozein fonema konbinaketa eta ordena... Erroarekiko ezaxola edo morfema mailako erregelekikoa argia da.

- Uhlenbeck-en sailkapenean ere zeresanik ez da falta:

- (1) Sail eta azpisail horien artean guztiek ez dute garrantzia ez kopuru bera.

(2) Nekez pentsa liteke erro eredu guztiak datozela AE-tik.

(3) Ez zaigu ezer esaten euskara historikoan eta AE-n ezin izan zitezkeenez.

- Zergatik ote euskara modernoan izan zitezkeen 900 TVTV-etarik benetan askozaz gutxiago lekukotzea eta horietarik guztiak bitan banatzea? Alegia:

(a) Maileguak: “bake”, “katu”...

(b) Eratorri-konposatuak: “begi”, “dago”...

- Zergatik silaba irekia unibertsal bakarra delarik eta bokalak eta leherkariak sistemako fonema-sailik ugariak? Monosilaboetan kontu hauetarako ez dugu ia ez V- ez -V, baina bai, aldiz, erruz, CVC: “hel”, “gor”, “lats”...

- Lehenago Artiagoitiak (1991) silabaren egiturarekin erakutsi legez, orain erro-sailen zerrenda mugatzerik bazen, partez bederen. Lakarra (1995)ean CVC erro monosilabikoa proposatu nuen AE-rako, zaharrerako bederen. Proposamen honek, ordea, azaltzen zituen, bai, orain arte aipatu murriztapen guztiak (**TVTV, *V-, *-V), baina ezinezko egiten zituen, noski (erro soil gisa) gainerako bisilabo eta polisilabo guztiak ere, direla kodadunak zein kodagabeak.

- AE-rako erro monosilabikoaren teoria berriaren lehen emaitzak:

(1) – Etimologia berriak eta CVC erro monosilabo artean ezezagunak atera ziren. Zenbat eta zehatzago jokatu, orduan eta CVC gehiago sortu: CVC izanik proposatutako erroa, orduan ezin onar zitezkeen “hortz” eta ez “pertz” ere erro zahar horien artean. Lehen kasuan “hor” `zakur handi` dugunez, zatiketa erraza dugu. Bigarrenean ez da horrelakorik, baina “-RS” onartezin hori ez denez erro-gai honek duen ezintasun bakarra (cf. “p-”), ez litzateke ideia txarra “pertz” mailegutzat hartu eta “percha”-rekin demagun erkatzea (cf. “motz” < “mocho”).

- CVC forma kanoniko horretatik gora direnak soilik eratorri-konposatu izan daitezkeenez, erro eta afijo zahar ihartuak ez eze maileguak ere agertzen dira. Mitxelenak (1964) arrazoi formalengatik zenbait hitz mailegu gisa azaldu zituela (“abadagaune”, “apukadu”, “dollar”...), orain bat edo beste (“zema”, “*ardano”...) zerrendari erans dakiogegu.

(2) Lexikoaz landa, forma kanonikoaren azterketak gramatika zaharra ere argitzeko laguntzerik ere eman zuen:

(a) Erreduplikazioak aurkitu genituen, lehen ezagut zitezkeenak baino ugariago: “odol”, “adar”, “zezen”... lehenagotik ezagutu “gogor” eta “gog”-ri gehituaz.

(b) “Samur”, “labur”, “sakon”, “samin”, “gibel”... hartzen baditugu, “sa”, “la” eta “gi” aurrizkiak ateratzen zaizkigu, “*bel”, “*bur”, “*zen”, “*bin” eta gainerako erro ezagun eta ezezagunen aldamenean. Hasiera batean, aurrizkien aurkako aurreiritzi batengatik funtsean,

“*sa-”, “*la-” eta “*gi-” ere erro gisa azaldu nituen. Alabaina, erroen tamainarik ez dutelarik eta -C erorketarik ezin onar genezakeelarik, batetik, eta bestetik, benetako erroen autonomia ez esanahirik ez izaki, hor aurrizkiak ditugu ezer izatekotan, artean IS-an inork aurkitu ez dituenak.

- (3) CVC erro monosilabikoak euskara eta edozein hizkuntzaren artean egin litekeen edozein erkaketa zehazten, mugatzen eta oinarritzen du. Erroaren forma kanonikoa benetan epe luzeko ezaugarria baita argiro. Kontuan badugu semitikoz erroa [C-C-C] azken 5000 urtetan dela horrela edota aitzinkartvelikoz [CCCCVCC] posible zela, aitzinfamilia batak nahiz besteak aukera gutxi emango bide digute euskararen ahaide izateko (Lakarra 1998).

3. ERROA ETA ETIMOLOGIA FORMALA.

- AEZ-erako CVC erro kanonikoa proposatzeak ez soilik maileguetan edo eratorrietan aurkitzen dugun **TVTV, baizik eta gainerako bisilabo eta polisilabo guztiak bilakatzen ditu ezinezko, hots, mailegu edo konposatu-eratori lexemak izatekotan. Oso emaitza desegokia dirudi, asko baitira euskara historikoan bisilaboak eta polisilaboak eta egitura askotarikoak eta baita CVC ez diren hainbat monosilabo ere. Trask-ek (1997) adierazi zuenez Lakarra (1995)ean izandako emaitzak gorabehera beste anitz beharko zela, batetik, eta honela berreraiktako aitzinhizkuntza Mitxelenaren k. a.-ko 1. milurtean akabukoa baino anitzez zaharragoa, bestetik.

- Uhlenbeck-ek proposatu bidetik ez etimologia edo erroak eurak, baizik eta erro-sailak direla ikergai nagusi: “je recherche non pas de étymologies, mais des types”.

- Ondoko bost multzootan koka genitzake euskara modernoko edozein erro-sailtako hitzak:

- (1) Maileguak.
- (2) Aldaerak.
- (3) Eratorri-konposatuak.
- (4) Fonosinbolismoak.
- (5) Etimologia ezezagunekoak.

- Edozein jabe litekeenez, soilik (5)ekoek dute aukeraren bat AE-ko (hobe, beharbada, EBZ-eko) izateko; alabaina, aukera duten arre, ez da oraindik segurtasunik. Etimologia gabe geratu direnak, horiek EBZ-eko izango dira. Badira bi iragazki, bederen, gainditu beharreko: fonotaktikoa eta geografikoa. Lehendabizikoari dagokionez, edozeinek onartuko bide luke (egitura horrekin, bederen) ez direla AE-rako hautagai /m/-z hasiak edo /m/ bat beren baitan dutenak, edota leherkariz amaitzen direnak.

- Bigarrenari dagokionez, gaur aislatuen dauden aldaerak aukera gehiago dute noizbait orokorrak eta lehenago EBZ-eko eta AE-rako izan daitezen. Iragazkiak gainditu ondoren, ezin seguru izan hondar guztiak AE-ko diren.

- Ohartzekoa da erro eredu monosilabikoaren eta gainerakoen arteko ezberdintasuna: lehendabizikoak izan zitezkeen erroetarik %-eko aipagarria lekukoturik du, lekukotasun horietarik mailegu gutxi eta etimologia ezezagun asko, eta azken hauen artean ia guztiek gainditzten dituzte irizpide fonotaktiko eta geografikoak; bisilabo gehienek oso lekukotasun-portzentai eskasak dituzte eta portzentaiak izan zitezkeen erroen osokoa txikia denean igotzen dira soilik.

- Bestalde, mailegaketa portzentai altuak dituzte, batez ere bokalez, kodagabe, amaitzen direnen artean. Beren fosilak (hau da, iragazki fonotaktiko zein geografikoak gainditzten dituztenak etimologia gabeen artean) eta beren portzentaiak oso urriak dira.

- Orain arte, erkaketarako corpusean inongo berreraiketarik gabeko euskara historikoko morfemak erabili ditugu. Edozeinek daki berreraiketarik axalekoenean ere hainbat monosilabo sortzen dela. Beraz, CVC erro monosilabo historikoen zerrendan ez soilik “gor”, “hel”, “har” edo “gal” baizik eta “*kus”, “*thor”, “*bil”, “*ban”, “*gon”, “*bel” estandarrak ere gehituko bagenitu bikoiztu egingo litzateke monosilabo gauzatuen portzentaia, erdira edo gutxiagotara jaitsiko bertako maileguena, bikoiztu etimologia ezezagunekoa eta irizpideak gainditzten dituztenak, nabarmena baita monosilabo gehienak orokorrak direla eta ez dialektalak bisilabo asko bezala.

- Eta oraindik ez dugu berreraiketa berriaren emaitzarik erabili: “*han”, “*ger”, “*dar”, “*dol”, “*der”, “*din”, “*zen” eta, seguruenik, “*khats”, “*khotz”, “*thal”...

- Ikergai garrantzitsu dugu erro-eredu monosilabo horren eraldaketa eta monosilaboen hedadura, itxuraz garai aski modernoetan, hots, itxura guztien arabera EBZ-a baino beranduago data bat ematekotan.

4. BEHIN-BEHINEKO ONDORIOAK.

(1) - Lan honetan 1995ean argitaraturiko batean lehendabizikoz markatutako erro-hertsapen baten (**TVTV) formula orkor eta esaguratsuagoaren (**CVCV) eta horren hurbileko eta urrutiagoko etorkiez eta ondokoez aritu gara. 1995ean erro-eredu honen falta (gauzatzen diren hitzak askorekin gehienik mailegu (“bake”, “bike”...) edo eratorri-konposatu (“bada”, “begi”...) zahar edo berri izaki) lehenagoko erro bisilabo guztienarekin lotzen nuen zuzenean, Uhlenbeck-engandik, euskal erro zaharrak gehienbat bisilaboak zirela zioen ustearen aurka.

- Geroztik ez dut ikusten arrazoirik azken ondorio hau aldatzeko aitzineuskara zaharrenarentzat: etimologia-lanak hasixeak baino ez badira ere, lehen bisilabotzat genituenak orain monosilabo konbinaketaren bitartez edo mailegu gisa (“*ardano”, “*gaztana”) azaldu ahal bide ditugu.

- Ez dut aurkitu eta inork ez du deskribatu aurreko bibliografian, bisilabo > monosilabo aldaketa prozesu orokor zahar eta zabalik; badira, bai, “bat” < “barda”, “dut” < “*duda” eta beste zenbait baina gutxiegi eta garbiegi, eta

modernoegi ezertarako itxura guztien arabera. Areago dena, leherkariak dituzte amaieran monosilabo moderno horiek, -T ezinezkoa dugularik AE-z. Ez dirudi, orobat, “ke” ≈ “eke” eta beste zenbait bikotek ere bisilaboen lehentasuna ezartzen lagun bide gaitzakeenik: kasuak gutxi dira, (Nafarroako) esparru are urriagokoak eta azentu mota jakin bat lotutako arrazoi ezezagunekoak ditugu. “torri”, “kusi”... ezin, bada, bisilabo ≈ monosilabo alternantziatzat aurkeztu, are gutxiago euskalki guztiak edo gehienak ukitzen dituen alternantzia orokortzat.

- (2) - Hainbat dira erro-eredu bisilabiko horietan berrikuntza (mailegu, aldaera zein eratorpen-konposatu gisa) zaldu ahal ditugunak eta gehiago ere izango bide dira horretara jarriz gero eredu horietarik ezagutuko ditugun (5)eko kideak.

- Lehendik susmatzen genuen bezala, TVTV-ren ezintasunak eta monosilabismoak jatorrizko lexema-erroek (hots, partikula gramatikalak, onomatopeiak, mailegu eta gainerakoez at) silaba-buru zein silaba-buztan -T saileko hotsez landakoa beharrezko zutela erakutsi uste dut. CVC zen, dirudenez, AEZ-ren erro kanonikoa, C-, -V- zein -C horien aldaera eta ugalketa ugariekin. 1995eko lanean ere nahikoa argi geratu zen C- horren beharra are monosilabo modernoetan eta, zehaztasun gutxiagorekin, orduan -CC bikoitza ere onartzen baikenuen, isatsekoarena ere. Gogotan badugu -T ezinezko dela, horrenbestez edozein -TV (bai TVTV eta baita RVTV, SVTV zein hVTV ere) ezinezko dira -V atzizkiarekin; izan litezke, ordea, CVR-V eta CVS-V, “*barr-u” eta agian “*larr-u” zein “hez-i” edo “gaz-i” bezalakoak, -V horiek moztetakoan dakusagunez. Baldin eta -TV atzizkia proposatzen bada, orduan erro monosilabikoak CV, silaba ireki hutsez osatua beharko du izan. Ez da horrelakorik ordea, euskara modernoan ere eta ez da ikusten kontrakoa zergatik berreraiki goragoko garaietarako.

- Badira arrazoi zehatz eta garrantzitsuak CVC erro-eredu hori (eta ez besterik) zela esateko AEZ-eko lexemena:

- (1) CV erako zenbait morfema (“lo” eta “ke” adibidez), CVC zaharrago baten aldaera ez diren neurrian, onomatopeia edo fonosinbolismo fenomenoekin lotuak direla nago, beste hizkuntza batzuetan bezala.
- (2) CVCC erroetan (“hortz”, “bortz”, dagoeneko ezagunetan, esaterako) -CC horiek (kasu guztietan “Rtz”) hitzaren izaera ez soila baina atzizkidunaren seinale izan behar dute. “*hor-tz” (cf. “can-ino”, “*bor-tz” (cf. “borobil” eta “*pen-que”)... Horrela zatika ezin direnean gogoan izan beharko dugu inoiz -CC mailegu-ezaugarri ere (bakar edo beste aztarrenen baten kide, cf. “pertz”) izan litekeela: gogora antzeko aztarna ezagunetarako “baradizu” / “paraiso” edo “zekürü” / “sekula” famatuak.
- (3) CVC baino eredu txikiagoak (CV-, demagun) ez direla lexemetako erro-eredu onargarri uste badugu, “*la-gun”, “*la-bur”, “*sa-bel”, “*sa-kon”, “*sa-mur”, “*gi-zen”, “*gi-bel”... ez lirateke konposatu arruntak, `aurrizki-erro´ konbinaketak baizik. Aurkako aukera CV-lehenagoko CVC higitu bat dela suposatzea litzateke, baina -C > Ø aldaketa ez da konposaketa-eratorpenean ez bestetan Erdi Aroa baino lehen lekukotzen.

(4) Oraingoan bederen, **CV eta **VC erro hertsapenak lotuak bide dira konposatu bisilabo kodagabeen (goiko **CVCV haren eta baita **CVCVC nahiz **CVCCV lagunen) ezintasunarekin ere.

Honek guztiak, bada, ez soilik **TDTV eta **bisilabo / polisilabo hertsapenak baizik eta baita **CVCV, **V- eta **-V ere, eta are **CC ezartzera garamatza, lehenagotik ezagutzen genituen **CC- eta **-T kanpo.

(3) - Gehienok izan gaitzke ados erro-eredu batek mailegaketa ugaria, hitz eratorpen-konposaketa eskasa eta (5) saileko etimologia ezezaguneko kide gutxi baditu erro-eredu horrek ez duela aukera handirik oso zaharra izateko. Orobat, baldin eta beste erro-eredu batek puntu hauetan juxtu kontrakoa erakusten badu, orduan ere ez bide genuke zalantzarik bere zahartasuna aldarrikatzeko.

- Mailegu portzentaiena da erizpide negatibo bakarra: hots, CVfV ereduak % 60 mailegurekin lekukotutako erroen artean ez dirudi AE-rako ez beranduagoko garaietarako oso hautagai ona; orobat TDTV % 42'18-rekin. Hobexegoak CVC-renak % 7'8-rekin; are gehiago, zifra hau % 6'2-ra jaisten da dagoeneko 'biluztutako monosilaboak' kontuan harturik eta etorkizunean, gutxi edo asko, proportzio hori jaitsi egingo da itxura guztien arabera, polisilaboen etimologiak aurrera egiten duen neurrian. Ezin itxaron daiteke horrelakorik, noski, eredu bisilaboetan.

(4) - (C)VCVC-k bai CVCV eta baita (C)VCCV eta (C)VCCVC baino zaharrago dirudi bi taula hauek gogoan; hau honela frogatuko balitz, monosilabo zaharraren hazkundera hasiera batean ez atzizkien (-(C)V) bitartez eta ez konposatuaren ildotik (CVC + CVC) baizik eta aurrizki eta zatikako erreduplikazioarenetik izan zela ondorioztatu beharko genuke.

EBZ: ZERGATIAK, OINARRIAK, HELBURUA

1. SARRERA. METODOAREN MUGEZ.

- “Euskara nondik datorren”: beti egongo da iritsi garena baino lehenagoko egoera bat, giza hizkuntzaren hasierara heldu arte, eta hori urrutiegi da berreraikitzeke.
- Izendatze arazoa: gaztelania une batetik aurrera “latina” deitzen da. Euskara beti “euskara”, baina ezberdintasun asko: orduko jendeak eta guk ez dugu hizkuntza berean hitz egiten.
- Lekukotasuna urri eta berankorrek dira, familiako hizkuntzarik ez, berreraiketa teknika estandarrak boteretsuago eta gure ikersailari egokituagoak behar genituzke.
- Halere, lehen baino urrutiago jo.
- Egun munduan diren hizkuntza naturalak, denak datoz duela 100.000 eta 200.000 urte bitartean Afrikan bizi zen arbaso hark, bere giza taldeak eta aldamenekoek hitz egiten zuten lehen hizkuntza horretatik (edo horietatik).
- Orain lantzen ari den hipotesia: duela 100.000 eta 20.000 urte bitartean gertatutako mutazio genetiko baten eraginez sortu omen zen giza hizkuntza, lehenagoko gizakien mintzamina errotik aldatuta (lehen animalien hizkuntzatik gertuago egongo zen).
- Duela 5.000 urtetako lekukotasun idatziak ditugu hizkuntza edo hizkuntza familia gutxitan:
 - (a) Suomiera, egiptoera, txinera: k. a. 3. milurtekoan.
 - (b) Hititera: k. a. 2. milurtekoan.
 - (c) Greko zaharra: k. a. 1. milurtekoan.
 - (d) Maia: k. o. 250 urte g. g. b.
- Aztarnarik utzi gabe hil diren hizkuntzak berreraikitzea ezinezkoa da.
- Metodoak baditu bere mugak:
 - (1) Datuek ematen diotenetik atzerago ezin eginga. Euskararen historian, Mitxelenaren lanarekin duela 2.000 urteko euskara baino ez genuen berreskuratu, eta ikuspegi berriagoan ere (Lakarra 1995) beste 2 edo 3.000 urte baino ez bide ditugu irabazi.
 - (2) Ez dago datazio zehatzik ematerik; datazio erlatiboak soilik. Datazio zehatzak ematekotan, gertakari historikoetara jo. Hori da Mitxelenak EBZ-a kokatzeko erabili zuen metodoa.

2. KRONOLOGIA ERLATIBOAK ETA PERIODIZAZIOA.

- Historiurrean garai ezberdinak bereizteko modua aurkitu da.

- IE-ren garai ezberdinak (Adrados 1988):

- (1) IE flexiourrekoa: ez da inon gorde.
- (2) IE flexiodun monotematikoa: anatolieran gorde.
- (3) IE flexiodun politematikoa: anatolieraz beste hizkuntzena.

- Euskararen garai ezberdinak:

(1) AE: ditugun datuekin berreraiki dezakegun garaietan gugandik antzinakoena.

- (a) AEZ: Lakarra (1995) berreraikitzen ari dena, CVC erako silaba bakarreko erroak zituena; aurrizkiak, aditza hasieran...
- (b) AEB: Martinet-ek eta, bereziki Mitxelenak berreraiki zuena, 'lenis' / 'fortis' oposaketakoa. Erromatarrekin kontaktua hastean (k. a. 2. mendea) eta aurretik.

(2) EBZ: ditugun datuekin berreraiki dezakegun garaietan gugandik hurbilena, euskalki historikoen ama-hizkuntza (k. o. 5-6 mendeak, Mitxelenaren arabera).

- Birpasa ditzakegu:

(1) AEZ:

- (a) Lakarrak ez zuen datatu, baina Trask-ek (1997) dioenez, Mitxelenaren AEB baino askoz ere zaharragoa izan behar du: "long, long before...some 2.000 years". Beste 2.000 urte lehenagokoa? Historian kokatzeko baliagarri izan daitezkeen datuak.
- (b) Edozein eragin IE baino lehenagoko euskara batez ari gara.
- (c) Iberierak euskararekin nolabaiteko kontaktu historikorik izan bazuen (eztabaidatua da), baliteke garai honen bukaeran hastea (Brontze Aroa, k. a. 2. milurtekoa).

(2) AEB:

- (d) Martinet-ek (1955) k. a. 2. mendean erromatarrekin kontaktua hastean zegoen hizkuntz egoerarako ematen du 'lenis' / 'fortis' sistema. Mitxelenak: erromatarrek etorri zirenean aurkitu zuten euskara litzateke.

- (e) Erromatarrak k. a. 2. mendearen erdialdean iritsi ziren gure ondora Hispaniatik, eta k. a. 1. mendearen erdialdean Julio Zesarrek Galia osoa konkistatu zuen. Kantabriar eta asturiarrak ondoko urteetan (k. a. 29-19).
- (f) IE-ren eragina agian bai zelten bitartez, eta iberierarena ere, baina latinarena oraindik ez.

(3) AE-ren bilakaera latinarekiko ukipenaren azpian:

- (a) Akitanierazko lekukotasunak (k. o. 1-3).
- (b) Martinet-ek (1955) uste du leherkari hasperendunen soiltzea (“*Th-” > “h-”) latina eta euskara harremanetan hasi eta gero gertatuko zela.
- (c) `lenis'-en ahostuntzea + `fortis'-en galera: garai honetan hasiko zen (cf. “Talsco” vs. “Halsco”).
- (d) Neutralizazio sistema: badirudi EBZ-ra iritsi baino lehenagoko direla “*Th-” > “h-” eta “T-” > “D-”, hots leherkari bortitzen espirantizazioa eta ahulen ahostuntzea.

(e) Leherkariak:	<u>AEZ</u>	<u>AEB</u>	<u>EBZ</u>
	?	Th- -T-	-T
		d- -d-	d- (-T)
	?	“Karratua”	“Erronboa”

- (f) Bereizi behar dira EBZ eta “euskara komuna”: euskara komuna ez da garai zehatz bat, baizik eta ezaugarri multzo bat = euskalkietan ditugun batetortzeak. Denak ez dira EBZ-tik etorriak:

(1) Arkaismo gordeak (EBZ-tik datozenak), euskalki guztiak etorki berekoak direla erakutsi.

(2) Berrikuntza konpartituak: harremanak oso estuak direla erakusten dute; artikulua eta deklinabide historikoa, adibidez.

(i) Fonologian:

-Ozenen tratamendua: “n” > “h”, “l” > “r”, “ll” > “l”.

- Hitz hasierako herskariaren ahostuntzea.

- Hitz eraketan 1. osagaiaren aldaketak.

* X. menderako burututa zeuden aldaketok, baina Akitanieran (I-III), ez.

(ii) Morfologian:

- Artikulu sistema, Europako beste hizkuntzen bateratsu sortu.

- Aditz perifrastikoak hedatzea, Europako beste hizkuntzen antzera.

- Hiru perifrasi nagusiak iragangaitzetara mugatuz: `Ø + edin´, `-i / -tu + izan´, `-te / -tze + izan´, jatorri eta garai ezberdinetakoak.

- Plurala ere aski berria da, erromantze garaikoa (erakuslearekin lotua).

(4) Euskara Batu Zaharra (k. o. 5-6 mendeak):

(a) Ordurako erronboa genuen leherkarietan (lehenagotik ozen eta txistukarietan). Deklinabide urria, kasu gutxiagorekin eta mugatu singular ez pluralik gabe, artikulua bera ere falta. Espainiako erromantzeetan 8. mendean sortzen da artikulua; euskaraz beranduago. Erakusgarri dugu 11. mendean hirugarren graduko oraindik “-ha” zenbait gordetzea.

(b) Aditzeko zenbait perifrasi (perfektukoa [-i / -tu] bereziki) garai honetakoak bide dira.

(c) Beharbada “euskara komuna” izan arren ez dira EBZ-ekoak, baizik beranduagokoak, eratorpenean eta konposaketan lehen osagaien aldaketak: “idi” + “aurre” > “itaurre”...

3. EBZ-AREN SORRERAZ.

- Gizarte egitura batua behar zen. Noiz gertatu zen euskalkien bereizketa?

(a) /h/-ren galera 10. menderako nabarmena da Nafarroa Garaian.

(b) “barri” / “berri” txandakatzeak 10-11. mendeetan.

(*) Hortaz, 10. mendea baino lehenago izan behar zuen.

- Meillet-ek (1925): hizkuntza batuak zibilizazio batua behar du.

- Mitxelenaren ondorioa: euskaldunak bisigodoen aurka bildu ziren (5-6 mendeetan), orduantxe izan zitekeen halako egoera bat.

- Arazoa: eredu historiko zaharkitu batean oinarritu zen (Barbero & Vigil, 1965).

- Euskal Herria monarkia franko eta bisigodoaren arteko tirabira-puntu batean egonik, baliteke 6-7 mendeetan bertako tokian-tokiko agintariek, Inperioaren gainbeheraren ondoko egoera berrian euren lekua aurkitu nahian, batzuetan frankoen kontra, bestetan bisigodoen kontra aritzea, eta ziurrenik bestetan elkarren lehian ere (Azkarate 2004).

- Garai hartako lurperatzeko moduek adierazten dute kontinentalak zirela, euskaldunak 'iparrera begira' zeudela, frankoen aldera: "pudo ser un agente reactivador de ciertos procesos de etnogénesis (batasun etnikoa sortzea)".

- Ondorioak: zenbat eta zaharragoa egiten dugun EBZ, orduan eta euskalkien arteko ezberdintasun handiagoak itzarongo genituzke, eta ez dirudi hori gertatzen denik. Komeniko litzateke, ahalik eta EBZ berankorrena proposatzea, diferentzia horiek txikiagoak bailirateke. Kontua da historialariek hain beranduko batasunik, eragile politiko eta ekonomikorik onartuko luketen.

4.EBZ-AREN ZATIKETA ETA DIALEKTOEN SORRERAZ.

- Euskara ez da hizkuntza 'bateratua'; dialekto eta hizkeratan banatuta egon da eta dago.

- Egoera normala da hizkuntzetan. Euskararen berezitasuna, bi ezaugarriok batera agertzea da:

(1) Banaketa izugarria hain eremu txikian.

(2) Araupeko hizkera estandarrik ez egotea.

- Araupeko barietateak izan badira, baina aukeran gehiegi eta berankorrak: bat ere ez da Euskal Herri osora hedatu: literatur euskalkiak (G, B, L, Z).

- Euskalkien zatiketari buruzko bi iritzi nagusi:

(1) Euskalkiak hizkuntz egoera batu batetik datoz (Vogt 1955); euren egitura fonologiko eta morfologikoa funtsean berbera da; mailegu ugariak gora behera, hiztegi nahiko bateratua ere badute. Vogt-en ondorioa: EBZ (euren jatorria) ezin da eurentariko oso aspaldikoa, ezberdina izan.

(2) Bestelako iritzia dute Lacombe-k eta Gorostiagak: bi euskalki, B eta gainerakoak (B/G mugan etena vs. gainerakoaren arteko mailakatze leunak). Sailkapen bitarra:

Euskara = A (Bizkaiera) + B (Gipuzkera, Lapurtera,...)

- Bertsio gogorragoa Uhlenbeck-ek (1947): jatorriz bi hizkuntza desberdin ziren, eta kontaktu luze baten ondorioz hurbiltzen joan dira:

Mendebaldeko hizkerak = Bizkaiera

Ekialdeko hizkerak = Gipuzkera, Lapurtera,...

- Hizkuntzek bat egitea gerta daiteke, baina horren ondorioa hirugarren hizkuntza bat izatean da, ez A ez B dena (pidgin eta kreolerak). Hau ez da gertatu.

- Banaketa bitarraren kritika sendoena Mitxelenak (1964, 1981). Argudioak kontra:

- (1) Argudio subjektiboa: bizkaiera, norentzat da hain desberdina? Gipuzkoar batentzat, B ala Z bitxiago, urrunago?
- (2) B/G arteko muga bortitza, non? Agian Oñati eta Brinkola artean, baina ez hainbestekoa Eibar eta Elgoibar artean.
- (3) Bizkaierazkotzat hartutako ezaugarri asko G-ren barruan sartzen dira:
 - (a) “aa” > “ea”.
 - (b) `egin´ laguntzailea, `*ezan´-en orde.
 - (c) B “urten dau”, G “erten du” (ekialderago “atera” edo “jalk(h)i”).
 - (d) “-kin” B-n sartzen da (“-gaz” ez da bakarra).
- (4) Arabako euskara: hegoaldean ez zen izango jauzirik, B eta G artean uste bezala. Mitxelenak zubi-hizkeratzat jo zuen.

- Hortaz, B euskalki bat baino ez da:

- (1) Bazterreko dialekto guztiek ezaugarri bereziak:
 - (a) Arkaismoak gordetzeko joera.
 - (b) Berrikuntza ugari hizkuntza kontaktuagatik.
- (2) B ≠ Hiperbizkaiera, G ≠ erdi-gipuzkera.
- (3) Testuak aztertuz gero, B/G arteko aldea gero eta handiagoa. 10. mendean, txikiagoa.

5. GOGOETAK EBZ-Z ETA EUSKALKI SAILKAPENAZ.

- Euskalkien ohiko sailkapenak (Bonaparte-rena (1869) eta Zuazorena (1998)) soil-soilik sinkronia bat irudikatzeko asmoarekin eginak izan arren, ikuspegi diakroniko batetik interpretatuak izan ohi dira.

- Ikertzaileen ikusmolde dialektologikoa ezer gutxi bereizten da kaleko jendearenetik, zeharo pankronikoa baita: itxuraz, Euskal Herrian ezer gutxi aldatu da antzinako euskaratik hona.

- Inori ez zaio bururatu, bizkaierak eta gipuzkerak, esaterako, kronologia ezberdinak izan ditzaketela. Ez dirudi kontuan hartu denik bizkaierak ez duela “-gaz” betidanik, ez gipuzkerak “zera”, ez zubererak “ü” ere.

- Euskalkien arteko ezberdintasunak azaltzeko bizirik eta indarrean dago aspaldiko hipotesia, hau da, lehenik erromatarren aurreko tribuek eta gero eliz barrutiek euskalkien mugak xeheki markatzen dituztelakoa, hots, euskalkien ispilu direlakoa, ez jakin tribuak eta elizbarrutiak euskalkien kausa diren, edo haien ondorio.

- Pankronismoaren ideia: karistiera eta bizkaiera bat lirateke funtsean, baita barduliera eta gipuzkera, baskoiera eta nafarrera, eta akitaniera eta Iparraldeko euskara ere.

- Euskalkien izenek ere ez dute laguntzen: euskalkiak eta probintziak identifikatu dira Bonapartez geroztik, baina diakronian ezinezkoa da; bai hizkuntzaren historiaren aldetik, baita historiaren aldetik ere (probintziak ez dira betierekoak, eta muga asko 1850. geroztikoak baino ez dira).

- Historizismo faltsu eta dialektologilatriaren itsaso hondargabe honetatik ezer urruntzekotan Mitxelenaren lana dugu.

- Hasteko, gai izan zen 1958 bezain data goiztar batean, artean zeharo ezezaguna zen euskalki berria aurkitu eta ezaugarritzatzeko bestek mesprezatutako bigarren mailako testu batean, Landucci-ren hiztegian, testuak aurkezten dituen ezaugarri linguistikoen oinarri soilarekin. Araberarekin behin betiko konpondu zuen aspalditik zetorren bizkaieraren auzia, honen datuek argi uzten baitute B ez dela besteak ez bezalako euskalkia, denen adar beretik datorrena baizik: denborak Araban egindako galera ikaragarriak itxuratutako ilusioa baino ez zen B-ren ustezko apartekotasuna.

- Mitxelenak bi hizkuntz garai historiko ezberdin proposatu zituen argiki: “aitzineuskara” eta “euskara batu zaharra”.

- Datu historikoek bat etorri behar dute datu linguistikoekin, bai honetan, baita periodizazio lanetan, eta ezin dituzte datu linguistikoak ordezkatu: ez dute ezer ere balio hauen laguntzan agertzen ez badira.

EUSKAL ADITZ SINTETIKOEN URRITASUN ETA MODERNOTASUNAZ

- Aditz jokatuena zerrenda (cf. Lafon 1943, Mounole 2006) inoiz ez da luzeegi izan (75 edo). Gelditu zaigun erro soil jokatuena kopurua bi dozenatik hirutik baino gertuago dela ikus liteke Lakarra 2007-n.

- Euskarak historikoki salbuespen urri direnak ditu jokatzen eta “*e-” aurrizkia izan zuten erro soil guztiek forma sintetikoak izan zituztela onartuko bagenu ere (askotxo onartzea dela dirudi) hiru bat dozenatako salbuespena genuke gehienez ere. Ohar bedi ez naizela sartu ere egiten adizki jokatuak izan arren sintetikorik aberatsenek ere ez dituzten denbora, aspektu eta aldi sintetikoaren kontuan.

- Urrutixeko joaz, ordea, dela Ipar-Ameriketara, dela Ginea Berrira edota, batez ere, Australiara, ugari dira aditz jokatuena saila euskararena bezain murriz edota are murrizago duten hizkuntzak.

- Kopuruarekin batera, formari lotzen bagatzaizkio orain, aski nabarmena begitartzen zaigu adizki sintetikoak jokatu gabeen gainean eratuak direla eta, beraz, haien ondoko (vs. Scuchardt):

- (1) Bokala harmonia eta erreduplikazioa izan, adjektibo eta aditz jokatu gabeetan ematen da, baina ez aditz jokatuetan.
- (2) [____́] → [´____] gertatzen da azentuan eta, ondorioz, [h__h__h__**h] → [h__h__**h] hasperenan. “*ethor-”, “ekhar-”... baina “dator”, “dakar”...
- (3) Zenbait ezaugarri edo aldaketa berezi lehenik erroetan eta gero handik forma sintetikoetan jaso dira, hala nola: metatesia “*janon” > “*johan”, eta hortik “doha” (ez “**dao”).
- (4) “da-” aditz lokatibo gisa eta hortik > `inperfektibo´, `bukatu gabe´: “jausi”, “jakin”...
- (5) “d-” > “l-”, gehi “-l-” > “-r-” eta, beraz, “*e-da-duz-i” > “jauzi”, baina “*da-la-non” > “daroa” / “darama”, eta ez “**dahao” / “**daho”.
- (6) “-ki” / “-tsi” partizipio marken garapena ere forma jokatuena orokortasun eta zahartasunaren aurka doa (Lakarra 2006):
 - (a) “-gi” aurrizki batetik dator, eta, gainera, forma jokaturik gabeko aditzetan izateaz landa, askozaz zabal eta orokorrago da forma jokatu gabeetan hauetan baino.
 - (b) “-tsi” adjektiboak egiteko “-tz” marka zaharrak leherkari aurrean pairatu aldaketa baten morfologizaziora “-i” eranstetik dator; soilik adizki jokatu gabeetan eman zen baina ez besteetan.

- Gómez-ek (1994) Trask (1977) jarraiki laburki aipatu zuen euskal aditzaren garai inpersonala ongi dator hizkuntzaren egitura analitikoagoa eta isolatzaileagoarekin. Ezkerreko pertsona komuntadurak ez ziren hor `betidanik´ eta eskubiko berriagoak askozaz gutxiago, jakina: orain, gainera, modua, aspektua edo denbora markatzeko hizkiak ere ez direla betidaniko baizik eta multzo-aditzen gramatikalizazioaren ondorioz eta ondoren.

- Gertakari ezaguna da sintetikorik ez dela maileguen artean, baina hortik abiatuaz latin-erromantzearen eraginaren bitartez azaltzea aditz sintetikoen galera gehi perifrasiaren sorrera eta hedadura guztiz zail bide dugu. Ez da ikusten zergatik hondatu behar zuen latin-erromantzearen eraginak euskarazko aditz sintetikoa, batez ere lehenago oso aberats eta sendoa izan balitz.

- Perifrasiak ez zirela lehendabizikoz osatu latinak eta erromantzeak zituenaren arabera argi beharko luke. Dagoeneko Céline Mounole-k erakutsi du perifrasi guztiak ez direla garaikide: nekez izan zitezkeen “etor zedin” eta “etorri zen” edo “etortzen zen”. Azkenengoa, aditz izena inesiboan + copula mundu osoan zehar zabalduko perifrasi dugu eta inguruko erdaren laguntza gutxi zuen (ezta beharrik ere) euskarak hori sortzeko.

- Australiako hizkuntzetan aditz jokatuak urriak izateaz landa, ikusi izan da horien erro bisilaboetako zenbait silaba errepikatu egiten direla aditz eta hizkuntza ezberdinetan. Hots, hasiera batean erro monosilabikoak bide ziren izen nahiz aditzetan (hitzak eurak bisilabo zirelarik), gero baldintza fonotaktikoa hitzetik errora igaroaz. Bestelako fenomenoak (asimilazio, erorketak...) gora behera, aditzetan australiar hizkuntzalaritzan hain famatua den `tamaina aldaketa´ horren arrazoi garrantzitsuenetariko bat lehenago aditz laguntzaile batzuk konjugazio marka bilakatzea izan zen.

- Badirudi pama-nyunga hizkuntzetan ere aditz bisilaboetako silaba bat askea zela, laguntzaileari baitzegokion.

- Beste hizkuntza batzuetan multzo-aditzak izan litezke aditzak `loditzeko´ joera, gero MA horiek ezabatzen direlarik, dela lexikora igaro diren multzo-aditz simetrikoen, dela gramatikalizazioa pairatu ohi duten asimetrikoen bitartez.

- Bada antzekorik (nahiz eta AS-ko atzizkiekin) tani hizkuntzetan ere, monosilabismotik bisilabismorako deribaren barnean.

- Erakutsi gogo dut badela arrazoirik pentsatzeko AE-k, geroago euskarak ez bezala, MA egiturak izan zituela, batez ere asimetrikoak, eta hor dutela beren jatorria hainbat gramatikalizazioak.

- Orain lehen baino datu eta frogia gehiago ditugu aditz sintetikoen eta perifrastikoen antzinatasunaren dena ezagunean iritzi sendoagoak eta hipotesi oinarrituagoak plazaratzeko.

- Batetik, forma aldaketen ekonomia: ez al da errazago pentsatzea aditz jokatuabeak jasan zituela hainbat aldaketa (“*e-ra-lun” > “*erarun” > “*edurun” > “*edurin” > “iduri”; “*e-da-non” > “*janon” > “*jahon” > “johan”...) eta behin horiek pairatu ondoren sortu zirela “doha”, “zihoan” eta bestelakoak, eta ez alderantziz?

- Bada ustekizun bat ezabatzea komeni dena: azken bost mendeetan 60 bat aditz jokatu izatetik dozena edo dozena t´erdira igaroak ez dakar bost mende atzerago jo eta eboluzio eta proportzio berberak izan behar zutela aldarrikatzerik, nahita nahiez, ezta noizbait aditz guztiak edo gehienak jokatu egiten zirela.

- Nik, halere, sintetikoa azterketan bertan sakondu nahi dut. Ezin onar liteke AE-k inoiz 240 bat aditz sintetiko baino gehiago izan zuenik; are gehiago, ezta horiek ere, frango “*e-Ø-” / “*e-da-” / “-ra-” aurrizkien gonbinaketatik baitator: “e-bil-i” / “e-ra-bil-i”, “*e-gon” / “*e-da-gon”... Eta beste asko are atzizki berriagoen bitartez sortuak: “*edun” / “*edun-ts-i”, “*e-ban-i” / “*e-ban-ts-i”...

- Egia esan, erro soil jokatuena zerrenda hurbilago da bi dozenetarik berrehunetarik baino. Kontua da, bada, guk antzeman genezakeen neurrian, euskarak aditz-sail (aditz jokatuena saila) mugatua izan duela hizkuntza erromanikoen, germanikoen eta beste dutenaren kontrara, baina yurokaren eta Ipar Ameriketako eta, batez ere, Australia eta Ginea Berriko askoren edo gehienen antzera.

- Marka dezadan latin-erromantzeetatiko mailegaketan izan dugula beti, bestetara jo gabe, garai zaharragoetako sintetikoen urritasunaren froga, ez alderantziz. Zerk azal lezake handik hartutakoen artean segurtasun osoz sintetiko bakar bat ere ez izatea? Ez ote eredu horren falta edo eskasiak egin zuela guztiak partizipio bezala hartzea?

- Noa pixkat atzera. Ikusi dugu Trask-ek “da-” aurrizkia ezagutu zuela aditz jokatuena adizkietan eta aspektu markatzat azaldu ere. Horrezaz landa, “da-” hori lehenago aurrizki nahiz laguntzaile ere izan zitekeela zioen, baina bigarren aukera hori ez zuela garatuko. Batera zein bestera “da-” horrek lehenago aditz oso edo nagusi behar zuen eta, hortaz, “daC” behar zuen izan aditz erroen forma kanonikora iristeko.

- Bada, goian aipatu ditugun aditz australiarrak miatzen direnean, Merlan-ek (1979) dioskunez, bisilaboen zatiren bat (lehena zein bigarrena) hizkuntza bereko aditz gehiagotan eta are beste hizkuntza batzuetan ere errepikatzen omen dira, morfema aske zein lotu gisa.

- Hots, oraingo erro bisilabiko horiek lehen monosilabo konbinaketak ziren, dela [Nag + Lag], dela [Lag + Nag] aditz multzoena. Gramatikalizazioaren aztertzaileek dioskutenez, “lie” `etzan´, “stand” `egon´ eta, batez ere, “sit” `jarri´ dira mundu mailan era honetako perifrasiak egiteko erabilienak.

- Euskaraz, -C betetzeko aditzaren forma kanonikoak bost aukera baino uzten ez dizkigunez (“*e-dal”, “*e-dan”, “*e-daR”, “*e-dats”, “*e-datz”) zein izango ote lehendabizi multzo-aditz asimetrico bateko elementu bigarrenkari menpeko bilakatua, gero perifrasiako laguntzaile gisa eta azkenik aditzaren aurrizki moduan gramatikalizatua? Galdera erantzuteko lagungarri ezagun zela “*dar” – “adar” – “larr(i)” – “jarri” hitz-familia, “*dats” – “adats” – “lats” – “jaitsi”-ren antzera ere.

Aditz jokatu-gabeak eta perifrasiak: egitura eta historia

- Zein da zaharrago?

Aditz perifrasiak trinkoen menpe daude. Beraz, pentsatzekoa da trinkoak zaharragoak direla. Oihenart trinkoen jatorriaren kontra ageri da. Larramendiren iritziz perifrasiak dira zaharrenak. Lafonen ustez trinkoak zaharragoak dira eta perifrasiak latinaren eraginez sartu dira.

Aditzen aspektu, modua... perifrasiaren bitartez eraikiak dira. Trask-ek, berriz, “e-tor”, “da-tor”... aspektu markatzaletzat jotzen ditu. Lakarrak (2013) dio euskara adizki jokatu gutxiak hizkuntza dela.

Zahartasuna honen eztabaidan, bi hipotesi daude:

1. Euskara trinko askoko hizkuntza zen. Gaur egun 12 adizki trinko ditu, XVI. mendean 60 zituen. Honen arabera, duela mila urte 120 zituen... Gaztelaniak, adibidez, trinko asko; guztiak trinkotu daitezke.
2. Euskara trinko gutxiak, eta aditz perifrastikodun hizkuntza zen (hizkuntza iraniarrak bezala). Aditz bat mailegatzean, partizipioak mailegatuak ditu, ez infinitiboak. Honela, ez ditu maileguak trinkotzen. Esan beharra da perifrastikoak trinkoen gainean sortuak direla.

- Aditz perifrastikoak:

1. Aditz oina + *edin / *ezan:

Perifrasi zaharrenentzat jotzen dira. Gainera, perifrasi hauek badituzte gaur egun desagertuak diren balioak. Adibidez, “etor nendin”, XVI. mendean aoristo zahar bat izango balitz bezala itzuliko genuen, baina gaur egun, “etorri nintzen” esanahia hartu du.

2. Partizipioa + izan / *edun:

Honen sorrerak besteari lekua kendu dio. Aditzei dagokienez, adierazten duten aspektu, moduaren... arabera bi taldetan banatzen dira: a) Aditz atelikoak: Bukatzen ez den ekintza bat adierazten du, hala nola “ikusi”. b) Aditz telikoak: Adierazten duten ekintza muga bat da, adibidez “etorri”.

“Aprobaturiko dut” bezalako adizki perifrastikoak maileguak dira eta latinezko perifrasi jakin batetik hartutako egitura dute. Emaizta bat adierazten duen perifrasi bada, jatorrizko balioa “erresultatiboa” da. Gaur egun euskarazko erresultatibo ohikoak “etorria da” bezalakoak dira.

3. Partizipio + joan / *eroan:

Euskal Herri osoan aurkitzen dira, eta horregatik (argudio dialektala) perifrasi zahartzat jo. Joan / eraman aspektua adierazteko erabiltzen dira, ohikoa den bezala beste hizkuntzetan.

4. Aditz izena + izan / *edun:

“egiten naiz”, “egiten dut”-etik dator. Aditz izena + inesioa + aditz kopulatiboa. Inesibozkoek aditz iragangaitza eskatzen dute munduko hizkuntzetan, eta horregatik pentsatzen da horrela gertatu dela euskaraz.

5. Partizipioa + -ko / -en:

Partizipio genitibodunak dira, gaztelaniazko “he de venir” bezalakoak.

6. Ari izan:

“egiten ari naiz” / “egiten ari dut” bezalakoak sartzen ari dira gaur egun. Aditz nagusiak erabakitzen du zein hartu.

- Aditz trinkoak (barne-morfologia):

Erdi Aroko datuak garrantzitsuak dira euskararen historia jakiteko. Euskarazko lehenengo esaldi dokumentatuetan ikus dezakegu aditz trinkoak ageri direla: “...dugu” (Donemiliaga, X-XI), “...Garidario” (goitizena da, baina adizki trinkoa da, 1366, Nafarroa), “...Badarraigu” (1366, Nafarroa), “Yladaçancelaya” (1460, Aramaio)...

- Adizki trinkoak nola berreraiki:

34. Zenbat bokal, diptongo eta irristari?

5; au, eu, oi, ai, ei; ez ziren fonema gisa (azken hau ezto apuntetan aurkitu)

35-37. Ondoko formak ezinezkoak dira AE-n. Zergatik?

Tarrat: bukaera herskaria, hasiera herskari ahoskabe greba: ???

basalore: o>a -> Akitaniera ondoko fenomenoak.

38. Zein da zaharrago, zelü/zeru ala gela? Zergatik?

3,2,1 EZTAKIT

39. Definitu aitzineuskara zaharra.

Berreraikitzea lortu den euskararen egoerarik zaharrena.

40. Emazu AEZ-ren ezaugarri fonologiko eta morfologiko bana.

D hasierakoa CVC egitura / diptongorik ez; aurrizkiak zituzten/erreduplikazioak (eztot apuntetan aurkitu)

Eman ezazu AEZ-ren ezaugarri fonologiko eta morfologiko bana.

- Fonologiko: CVC egitura
- Morfologiko: aurrizkiak zituen
- diptongorik ez (gutxi)

Zer da eta noizkoa Euskara Batu Zaharra?

Euskalkiak banatu aurretiko euskararen batasun egoera da. Mitxelenak eta Zuazok V-VI mendeetan kokatzen dute.

Nork proposatu zuen eta zergatik/zertarako?

Mitxelenak. Urruti gelditzen zirelako hizkera modernoak AEtik.

Zer zioen Lacombe euskalkiez?

Bizkaiera eta gainerakoak. Hau egiteko argudio morfologikoak eman zituen.

Eta Uhlenbeckek?

Bi jatorri ezberdin zituztela bizkaiera eta gainerakoek.

Mitxelenak emandako EBZ ondoko berrikuntza fonologiko bat.

m-aren galdera, ahoskabeak hitz horietan berrezartzea, diptongoen ugaltzea

Mitxelenak emandako EBZ ondoko berrikuntza morfologiko bat.

Artikulua, deklinabide-aditza

Zergatik euskalkiak ez datoz leinuen hizkera zaharretatik?

21. Proposatzen zen garairako leinuak ez ziren existitzen
22. Leinuak ez datoz guztiz bat gaur egungo euskalkien mapekin, ez dakigu orduan zein euskalki mapa zuten.

BZ-ren arkaismoek balio ote dute hura gainerako euskalkietarik bereizteko?

Ez. Arkaismoak izanik bere garaian euskalki guztiek eduki zituztelako.

Zergatik IE, austronesioan eta beste hainbatetan dira adarkatze bitarrak dialekto banaketa diakroniakoan?

Edozein banaketa linguistikotan binaidsmoak hori markatzen duelako.

Zer eratako berrikuntzak dira garrantzitsuenak adarkatze bitarrerako?Zergatik?

Berrikuntza zahar bereizleak. Bestela ezin direlako hizkuntzak edo hizkerak banatu.

Ezagutzen duzun ezaugarriren bat EBZ-ren banaketan garrantzitsu litzatekeena lehen adarkatzen bitarrerako?

Herskarien portaera, l eta n ondoko ozenen portaera ahoskabe eta ahostunaren alde

Mendebaleko euskara zaharraren berrikuntza fonologiko bat.

Deklinabideko a enborretan -a+a=ea

Eta berrikuntza morfologiko bat?

Egin laguntzailea, -gaz deklinabide marka, ablatibo arkaikoa (-rean)

Gipuzkera goian ala behean litzateke horrelako banaketa batean?Zergatik?

Behean. Gipuzkerak berrikuntza zahar propio gutxi dituelako.

***ezan laguntzailea Z-n: arkaismo ala berrikuntza?Zergatik?**

Arkaismoa. Noizbait euskara osoan eman delako.

***eutsi laguntzailea B eta A-n: arkaismo ala berrikuntza?Zergatik?**

Berrikuntza komun garrantzitsuenetakoa.

u-/i- txandakatzea: AE, EBZ, dialektala? Zergatik?

EBZ baino berriagoa, beranduagokoa.

-h>o ala *h₃ > h₁ : zein zaharrago eta zergatik?

h>o zaharragoa.

h₃ > h₁:bi adibide

Euskara

Erronkariaren zenbait berrikuntza berantiar.

A gisako formak (gra, zra)

Hurbani
Huhbahi > hibai

La langue basque parmi les autres : influences, comparaisons

*Actes du Colloque international de l'URA 1055 du C.N.R.S.
(Bayonne 27-28 septembre 1993)*

réunis par

Jean-Baptiste ORPUSTAN

Professeur à l'Université Michel de Montaigne - Bordeaux III

**Actes publiés avec le concours du C.N.R.S. (URA1055),
du Centre Régional des Lettres d'Aquitaine,
et du Conseil Général des Pyrénées Atlantiques**

Editions IZPEGI

VIII

Euskal aditz morfologia eta hitzordena: VSO-tik SOV-ra ?

0. Sarrera

Gaiari ekin baino lehen*, bi gauza adierazi behar ditut : lehenik, ondoren datorrena, neurri haundi batean, zenbait lankide eta adiskiderekin izandako elkarrizketen ondorioa da. Horregatik, ez nuke jarraitu nahi Agurtzane Elorduik, Joseba Lakarrak eta Koldo Sainzek egin dizkidaten oharrak, iradokizunak eta kritikak eskertu gabe. Zer esanik ez, oker guztiak (eta ziur nago ugari direla) nireak dira (1).

Bigarrenik, nire asmoa euskararen antzinako aditz sistemaren inguruko berreraikitze saio bat egitea da. Eta, berreraikitze lan guztiak bezala, nirea ere behin-behinekoa da ; are behin-behinekoagoa hitzordena motaren aldaketa bat tartean sartzen delarik.

* Lan hau Eusko Jaurlaritzak emandako bi dirulaguntzari esker burutu ahal izan da, PGV9107 eta PI9399 ikerketa proiektuei dagozkienak alegia.

Hasteko, garatu nahi ditudan hipotesiak aurkeztuko ditut laburki eta ondoren banan bana azaltzen saiatuko naiz. Azkenik, nik neuk hipotesi hauei, azkenari bereziki, aurkitu dizkiedan arazo batzuk aurkeztuko ditut.

1. Hipotesiak

1.1. Pertsona-komunztadura markak jatorrizko izenordain askeak ziren, klitiko mailatik igaro ondoren aditzerroari uztartu zitzaizkionak. Hipotesi hau, jakina, ez da berria eta euskalari askok adierazi dute.

1.2. Pertsona bakoitzeko komunztadura-markak berdinak dira absolutibo, datibo eta ergatibo kasuetarako. Hirugarren pertsonaren marka \emptyset da beti.

1.3. Pertsona-marken ordena azaltzeko hitzordena aldaketa bat gertatu zela proposatuko dut. Izan ere, SOV hizkuntza batean nekez uler daiteke horrelako pertsona-markak aditzerroaren atzetik agertzea. Beraz, nire ustez, izenordainak aditzari uztartu zitzaizkion garaian euskarak perpaus hasierako aditza zuen, hots, VSO edo VOS hizkuntza zen.

Halere, aditza hasieran kokatzen duten hizkuntza anitzetan gertatzen den bezala aditzak ezin zuen perpaus hasierako erabateko lekua hartu.

1.4. Aurreko guztian oinarriturik, eskuharki *split ergativity* fenomenotzat hartu dena, hots, *dut / nuen* adizkiek erakusten duten marken ordena desberdina, ez litzateke halakorik eta, besterik gabe, hitzordena zaharraren eta aipatu murriztapenaren ondorioz sortuko zen desberdintasuna.

2. Azalpena

2.1. Pertsona-markak izenordain uztartuak dira

2.1.1. Munduko hainbat hizkuntzatarako proposatu da aditz inflexioan agertzen diren komunztadura-markak jatorrizko izenordainak direla; izenordain hauek, klitiko bilakatu ondoren, azkenik aditzari uztartu zaizkio komunztadura adierazteko hizki bihurtuz. Horrelako hizkuntzen artean, Iparrameriketako hizkuntza gehienak — berrogeitamar bat hizkuntz familia: mayak, uto-aztekak, algonkinoak, irokesak — (Mithun 1988; Steele 1977), hizkuntza uralikoak (Radics 1985), mongolikoak (Comrie 1980), zeltikoak (McCone 1987), etab. ditugu. Hizkuntza hauetan izenordain aske azentugabeak klitiko bihurtu dira eta, azkenik, gehienetan aditzari uztartu zaizkio. (1-3)-n zenbait adibide aurkezten ditut:

(1) Finesa (Comrie 1980) : *me* 'gu'
laula-mme 'kantatzen dugu'

(2) Buryat (Comrie 1980) :

	pertsona- markak	izenordainak (nomin.)
1sg.	-b	bi
2sg.	-š	ši
1pl.	-bdi	bide
2pl.	-t	ta

(3) Huichol, Mexikoko iparraldekoa (Steele 1977) (2) :

izenordain proklitikoak (suj.)		izenordain askeak	
1. ne	te	nee	taame
2. pe	ze	?eeki	zeeme
3. \emptyset	we/me	?iiki (hurbila)	?iime
		miiki (urruna)	?miimi
		?iya (orokorra)	

Garbi azaltzen denez, persona-marka hauek izenordain osoen forma fonologikoki laburtuak baino ez dira. Hizkuntza indieuropar gehienen komuntadura-hizkiek ez bezala, aldiz, pertsona-marka hauek benetako erreferentziadun izenordainak izan ohi dira, aditzak berez predikazio osoa betetzen duelarik (Mithun 1988).

Hizkuntza askotan izenordain uztartu hauek pertsona batzuekin baizik ez dira gertatzen. Izan ere, gehienetan lehen eta bigarren pertsonetako izenordain uztartuak soilik agertzen dira, hirugarren pertsona \emptyset markaren bitartez adierazten delarik. Hizkuntza hauetan (eta beste anitzetan ere) ez dago hirugarren pertsonako izenordain askerik eta batzutan honen lekua erakusleek betetzen dute.

2.1.2. Euskararen kasuan, hainbat euskalarik azaldu edo iradoki dute, modu batera edo bestera, euskal aditzeko pertsona-marken izenordain jatorria (Schuchardt 1947 [1923], 1972 [1893] ; Azkue 1923-25 ; Lafon 1943 ; Oregi 1974 ; Heath 1977 ; Trask 1977, etabar luze bat).

Hona euskararen izenordain askeen eta pertsona-marken paradigma. Euskalariak protoeuskararako onartu dituzten berreraiketak eransten ditut bestelako eztabaidarik gabe (3) :

(4) Euskara :

a.		sing.	pl.
	1	ni	gu
	2	hi	zu
	3	\emptyset	\emptyset

b.	ABS/ERG	DAT	ERG
1s	n-	-da	-da
2s	h-	*-ga/-na-	*-ga/-na
3s	\emptyset -	-o, -a	- \emptyset
1p	g-	-gu	-gu
2p	z-	-zu	-zu
3p	\emptyset -	-e	- \emptyset

Pluralak ez du zailtasunik aurkezten. Areago, ez dugu izenordain uztartu hauetarako *ni-*, *bi-*, *gu-*, *zu-* forma osoak proposatu beharrik ere, eta **na-*, **ba-*, **ga-*, **za-* izan zitezkeen izenordain klitiko formak, gero aditzari uztartuko zitzaizkionak (Trask 1977) :

- (5) i. *garamatza* < *g-a-rama-tza* < **gw-da-rama-tza* (4)
 daramatzagu < *da-rama-tza-gu*
 ii. *gaituzu* < *g-a-it-u-zu* < **gw-da-it-du-zu*
 iii. *zaitugu* < *z-a-it-u-gu* < **zw-da-it-du-gu*

Arazo bat dakarte, ostera, singularreko lehen eta bigarren pertsonen markek, (6)-n erakusten den alternantzia aurkezten bait dute :

- (6) i. *n-* / *-da*
 ii. *h-* / **-ga, -na*

Schuchardt-ek eta Lafonek zail zeritzoten azalpen egokia emateari. Schuchardtek (1972 [1893]) bigarren pertsonako izenordainak hasierako **k-* zuela uste zuen eta horrela maskulinoaren marka azaldu ahal zuen. Lafonek (1943) *n / d* alternantzia esplikatzeko oso atzera jo behar dela uste du, bere eritzien barnean, are euskara eta kaukasikoa banandu baino lehenago ere.

Martinetek (1974 [1955] : 550) sudurkari horzkarria proposatu zuen lehen pertsona eratortzeko ; hitz hasieran sudurkaritasuna nagusituko zen, hitz amaieran horzkaritasuna, (7)-n adierazi bezala :

- (7) **n^d* > *n-* / *-d*

Traskek (1977 : 209) proposatu du, bestalde, antzina pertsona hauetan izenordainek erro desberdinak zituztela. Hau normala da hizkuntza batzutan, esan nahi baitut, erro desberdinak singularrean bakarrik izatea, eta ez pluralean.

Jacobsenek (1975), azkenik, **-naga* proposatu du bigarren pertsonako femeninorako, azentuan oinarriturik (*-nā*). Hau onartzeak *-na* bakarrik femeninoa markatzen zuela pentsatzera eramaten gaitu, hots, genero marka hutsa zela.

2.1.3. Ondorioak

Ondorioz, singularreko aurrizki/atzizki alternantzia gorabehera, uste dut aski erraz onar daitekeela lehen eta bigarren pertsonen markak izenordainetatik datozela, gaurko izenordain askeekin harremanetan jartzea ere gehienetan guztiz garbia gertatzen delarik.

Jarraian, hirugarren pertsonaren markak izenordainetatik ez datozela erakutsi nahi dut. Haien jatorria numero-markekin eta bestelako partikulekin lotzeko asmoa dut.

2.2. Hirugarren pertsonaren arazoa

2.2.1. Pluralgileak

Oraingoan albo batera utziko ditut *-it-*, *-tza-*, *-z-*, *zi* eta *-zki-* pluralgileak eta zuzenean zenbaitek pertsona-markatzat hartu dituzten *-e*, *-de* eta *-te* atzizkiei buruz zerbait esatera mugatuko naiz. Jacobsenek (1975) zenbait forma berreraikitzeke euskararen tonu-azentuak duen garrantzia aldarrikatu du. Honetan oinarriturik, besteak beste, plurala markatzeko hizkiak aztertu ditu, bereizi dituen aldaera azentudun guztiak **-ee*, **-dee* eta **-tee* protoformetatik eratorriaz eta, hauek guztiok, azkenik,

**-dee-tik*. Haren aburuz, bizkaierazko forma batzuk *-ee* bikoitzaren ebidentzia erakutsiko lukete:

(8) Jacobsen (1975): **daudee* > *-dee*: deudie, daurie, dubie, da(u)bie / *-de*: deude, daure, dube, dabe

Bestalde, **-d-* diptongo baten ondoren agertzen da ; bokal silabagile baten ondoren **-d-* erori egiten da eskuharki.

(9) Jacobsen (1975) :

- i. **daudee* > deude, deudie, deure, daure, daurie
- ii. **daudee* > daudé (edo **dauee*) > deue, due, dui, dei, die, dai
- iii. *-w-* > *-b-*: dabe, dabie, dube, dubie, daubie

Kontsonante ondoko *-e-*dun aldaerak beranduagokoak dira, hedapen analogiko baten ondorio alegia: *zagoze*.

Jacobsenen ustez (1975 : 19), **-tee* aldaera, bestalde, txistukari ondoko inguruneetan sortu zen, eta gero analogikoki hedatu. Objektu plurala markatzen duen *-z* aurretik agertzen den euskalkietan (G, GN, L, BN) *-te* aldaera baizik ez dugu aurkitzen:

(10) Jacobsen (1975) :

- i. dituzte vs. B dabez, dituez
- ii. G dittue, Z (dū)tie

Azkenik, **dee* **d+ee* banatzen du; benetako pluralgilea **-ee* litzateke. **-D*, aldiz, antzinako hirugarren pertsonako izenordain galdua dela proposatzen du, geroztik plurala markatzeko beste pertsonetara hedatu dena. Zehazkiago, **do* izenordaina berreraikitzen du hirugarren pertsonarako. Jacobsenek orainaldiko *d-* aurrizkiarekin lotzen du hau, erlatibozko konplementatzailea hartzean agertzen diren forma ezberdinetan oinarriturik :

(11) Jacobsen (1975) :

- i. dugun < *dugu-en
- ii. duen < *duCen, daki < *dakiCen

Bokalarteko kontsonantea hirugarren pertsona markatzen zuen *-d izenordaina, atzizki gisa ezarria, izango zen. Hortik (12)-ko eratorpena :

(12) Jacobsen (1975) : duen < *da-du-do-en

Hiru dira hipotesi honi aurkitzen dizkiodan oztopo nagusiak :

a) D- orainaldian bakarrik agertzen da. Gero (§2.2.2.) ikusiko dugu de Rijk-ek (1992) horretarako proposatu duena.

b) Traskek bestelako eritzia du -en konplementatzailea adizkiari lotzean nabari den -n / -en, -an alternantziari buruz. Izan ere, 1990eko artikulu oso interesgarri batean Traskek proposatzen du — pisuzko arrazoiz horniturik ene ustez — euskal aditz batzuk agertzen duten -n amaiera ez dela partizipio-marka eta aditzerroaren barruan sartzen dela. Horrela, Jacobsenek proposatzen duen (11)-ko kontsonantea -n hori litzateke, erroaren zati bat alegia. Beraz, bokal baten ondoren-en edo-an aurkitzen dugunean, ziur egon gaitezke aditz horren erroa -n-z amaitzen dela (cf. *egon-dagoen*, *jakin-dakien*, etab.). Horrela :

(13) Trask (1990) : duen < *da-dun-en

c) Azkenik, Jacobsenek ezin du bete-beteaz azaldu zergatik galtzen diren *-d- hauek bokal artean, lehen pertsonakoak ez bezala: cf. *didazu* / *diozu* edo *dizut* / *dizu* (< *dizudo, Jacobsenentzat).

Ez dut uste, beraz, nahiko arrazoi daudenik protoeuskaran hirugarren pertsonako izenordain bat zegoela proposatzeko. Pluralgileei dagokienez, numero komunztadura markatzen dute, inola ere ez pertsona komunztadura.

2.2.2. Absolutibo singularraren markak

Argumentu absolutiboa hirugarren pertsonakoa denean, adizkiak marka bat baino gehiago har dezake aurrizki gisa: *d-*, *z-* / *ø-*, *l-*, *b-*. Euskalari asko arduratu dira ustezko hirugarren pertsonaren marka hauetaz, eta badirudi gaur egun erabateko adostasuna lor dezakegula jatorrizko pertsona-markak ez direla baieztatzeko. Ez naiz hemen luzatuko bakoitzari buruz Schuchardtek, Lafonek eta beste askok eman dituzten etorki desberdinen azalpena ematen.

Azken urteotako ekarpen interesgarrienetako bat, nire ustez, de Rijk-ena (1992) da. Hizkuntzalari holandarrak frogatu nahi du *da* hitzak 'orain' esan nahi zuela eta horren arrastoak bai deklinabidean (*oraindanik*, *gaurdaino*, etab.) eta bai aditz-jokoan ere bilatzen ditu. (14)-n aurrizki hauetarako egokien iruditzen zaizkidan jatorriak biltzen ditut :

- (14) i. *d-* < *da*
- ii. *z-* < *ez(en)* edo *agian ze*
- iii. *l-* < *a(h)al*
- iv. *b-* < *ba*

Schuchardtek, Lafonek, Traskek eta bestek tenpus, modu eta aspektuarekin lotu dituzte partikula hauek, inoiz sistema bateraturik lortu gabe. Guztiarekin ere, baliteke marka guztiok garai batean tenpusari egokitzea, bakoitzean tenpusak honako tasunak hartuko zituzkeelarik :

- (15) *da* > *d-* : [+oraina, -iragana]
ez(en) > *z- (/ ø-)* : [-oraina, +iragana]
a(h)al > *l-* : [-oraina, -iragana]
ba- > *b-* : tenpusik ez

Honekin guztiarekin, orduan, badugu hirugarren pertsonaren marka \emptyset dela beti absolutibo eta ergatiboan. Aldiz, datiboan beste marka hauek aurkitzen ditugu :

- (16) 3s -o / 3p -e

Argi ikus daiteke pluraleko hirugarren pertsonan ere pluralgile bat azaltzen dela, ez pertsona-marka (cf. *diote* 'hark haiei' eta antzeko aldaerak).

Zein da, orduan, singularraren markaren jatorria ?

2.2.3. Datiboa : -o- jatorriz erakuslea

Lehentxeago esan dudanez, Jacobsenek (1975) protoeuskarak hirugarren pertsonako izenordain bat zuela proposatu du, **do*. Atzizki moduan datiboan eta ergatiboan kokatu du berak :

- (17) Jacobsen (1975) :
- i. diot < **didoda*
 - ii. dio < **didodo*

Schuchardtek (1972 [1893]) proposatu zuen espreski lehen aldiz, nik dakidala, datiboarekiko komunztadura-marka hauen jatorria erakusleetan bilatzea (5). Singularreko bi aldaerak (-o, -a) hartu zituen kontuan. Ideia honi jarraiki, (18)-n honako jatorriak proposatu dira :

- (18) i. -o < (h)au-, (h)on-, (h)or
 ii. -a < (h)ar-

De Rijkek (1981) ere -o eta -a, zuzenean ez bada ere, badirudi erakusleekin erlazionatzen dituela, esaten baitu antzinako formak **bark dua*, bainan *horrek duo* eta *honek duo* zirela. Euskalki gehienek *dua* adizkia hedatuko zuten eta erronkarieraz bakarrik aurki daiteke, beti ere de Rijken ustez, ergatiborako -o markaren aztarnarik : erlatibozko *dion*, *dakion* adizkietan hain zuzen ere.

Guztiarekin ere, hirugarren pertsona markatzen duena erakuslea bada, arazorik gabe jarrai dezakegu esanez hirugarren pertsonaren marka beti \emptyset dela :

- (19) i. diot < di- \emptyset -o-t < **deuot* < **da-du- \emptyset -o-da*
 ii. diet < di- \emptyset -e-t < **deuoet* < **da-du- \emptyset -e-da*
 iii. diotet < di- \emptyset -o-te-t < **deuotet* < **da-du- \emptyset -o-(t)e-da*

2.3. Euskara VSO hizkuntza zen

Givón (1971), Vennemann (1973, 1974) eta Lehman (1978) bezalako autoreek uste dute hizkuntza batean izenordain klitikoan edo-ta komunztadura-marken egonguneak jatorrizko izenordain askeen egongunea islatzen duela eta, beraz, haietarik antzinako hitzordena-aldaketa bat erator daitekeela batzutan. Beste batzuk, aldiz, — Steele (1977), Comrie (1980) eta Anderson (1992) esaterako — eritzi honen kontra azaldu dira.

Nire ustez, denek dute arrazoia. Arazoa da izenordainen gramatikaltze prozesu horren zein mailatan kokatzen garen. Izan ere, izenordain askeak, azentudunak, izen sintagma lexikalen leku berberetan agertu ohi dira. Baina klitiko bihurtzen direnean diferentziak gerta daitezke. Kontua litzateke klitiko horiek zergatik lekuz aldatzen diren jakitea, zein ote den aldaketa hori eragiten duen araua.

Susan Steele-ek (1977) argi erakutsi du hizkuntza uto-azteken kasuan izenordain subjektuek, klitiko bihurtzen direnean, perpausaren bigarren lekua hartzen dutela. Hizkuntza hauetan klitikoek hartzen dituzten bestelako ordenak honetatik eratorzen ditu.

(20) Yaqui (Steele 1977) :

tuká=ne antónyta bičak
atzo=ni Andoni ikusi:irag.
'Atzo Andoni ikusi nuen'

Klitikoen kokatze hau oso ohizkoa da ; hizkuntza asko eta oso desberdinetan gertatzen da. *Wackernagel-en egongune* ezaguna da.

Ildo honetatik, euskarazko adizki jokatueta antzeman dezakegun pertsona-marken hurrenkerak euskararen horrelako hitzordena mota aldaketarik gertatu ote zen ala ez pentsatzeko bide eman zidan. Beste alde batetik, ez nau inoiz asebate *dut / nuen* alternantzia azaltzeko erabili izan den *split ergativity* edo ergatibotasun hautsia dagoelako erizpideak.

Bi arazo hauek azaltzeko asmoz — marken ordena eta honen aldaketa zenbait testuingurutan —, uste dut abia gaitzkeela euskara oso aspaldiko garai batean VSO (edo VOS) hizkuntza izan zela pentsatzetik. Beraz, oraingo egoeraren aitzia aditza perpausaren hasieran kokatzen zen. Horrela errazago uler daiteke, nire ustez, pertsona-markak (antzinako izenordainak, ez ahaztu) gehienetan aditz erroaren atzetik agertzea.

Oso antzeko hipotesia proposatu du Katalin Radics-ek (1985) hizkuntza uralikoen kasuan (kontuan hartu behar da hizkuntza uralikoetan izenordainak posesiboetan ere uztartzen direla eta honegatik Radics-en hipotesiak beste zenbait arazo ere

konpondu behar ditu). Hauek dira, laburki, haren hipotesiaren puntu nagusietarik nirearekin pareka daitezkeenak :

1) Hizkuntza uralikoetan bazen VSX mota bat berreraiki den protouraliko baina lehenago (azken hau SOV bait da).

2) Izenordainen klitikatze eta (zatika bederen) uztartzea VSX garai hartan gertatu zen.

3) Bai subjektuetarako eta bai objektuetarako pertsona-markak klitikatze-uztartze garai hartan sortu ziren.

4) Aipatu uztartze garai hartarako jadanik aditz paradigmeak eredu akusatiboari jarraitzen zioten.

5) Azkenik, lehen garai hartan hirugarren pertsona ez zen markatzen aditz paradigmetan.

Puntu hauek guztiok bere horretan utz daitezke, nire eritziz, euskarari dagokionez (laugarren puntuan akusatiboaren orde "ergatiboa" badiogu).

Hala ere, ez dira pertsona-marka guztiak atzizki moduan azaltzen. Aurrizki egongunean agertzen diren markak esplikatzeko proposatzen dut euskaraz bazela erregela bat aditza perpaus hasierako erabateko lekuan egotea eragozten zuena. Horrela, bada, leku hori beste elementu batek bete behar zuen: klitiko batek edo partikula batek alegia. Hau ohizkoa da aditza hasieran duten hizkuntzetan :

(21) #X-V-...

Euskal aditzak aurkezten duen pertsona-marken ordena azaltzeko proposatzen dudana hau da : aditza lehen egongune horretatik babesteko, nonbait, argumentu absolutiboa

mugitzen zen perpaus hasierako lekura, ohizko hurrenkera gertatuz :

(22) ABS-V(-DAT)-ERG

Absolutiboa hirugarren pertsonakoa zenean, \emptyset - marka alegia, bestelako partikulek hartzen zuten leku hura:

- (23) i. *da-du-da
part.-*edun-1E
ii. da-tor
part.-etorri

Absolutiboko hirugarren pertsonaren markatzat hartu direnak (*d-*, *z-/ø-*, *l-*, *b-* (6)), ikusi dugunez, beste zerbaiten marka dira. Onartuko dut, autore gehienek kontra, iraganeko formarik zaharrena *z-* dela eta *ø-* berantagoa dela, honek dakarren testuekiko atxikimendua bide batez lortuz (cf. Mitxelena 1981) (7).

2.4. Gauzak horrela, bada kasu bat non pertsona izenordainik ez dagoen eta, dirudienez, partikula eskuragarriker ere ez zegoen (edo \emptyset - zen). Hau iraganaldian (eta beronekin erlazionaturiko adizkietan) absolutiboko hirugarren pertsona singularra dugunean gertatzen da :

- (24) \emptyset - \emptyset -V(-DAT)-ERG
3sA- irag-...

Kasu horietan klitiko ergatiboa da lehen lekua hartu behar duena, hainbatek *ergatibotasun hautsia*-rekin identifikatu duten pertsona-marken ordena ez ohizkoa gertatuz :

- (25) ERG-V

- (26) *n-du-en > *n-e-du-en > *neuen > neban / nuen

Hortaz, orainaldiko formen eta gainerako formen arteko komunztadura-marken ordena ezberdintasuna ez letorke arrazoi sintaktikoetarik (*split ergativity*), arrazoi prosodikoetarik baizik. Zerbaitek bete behar du aditzaren aurreko egongunea eta adizki hauetan eskura dagoen elementu bakarra klitiko ergatiboa da, partikularik eta klitiko absolutiborik ez bait dago.

3. Arazoak

3.1. Nola azaldu orainaldiko pertsona guztietan *-a-* agertzea ? Trasken (1977) ustez pertsona-izenordainak hirugarren pertsonako formari uztartuko zitzaizkion :

- (27) Trask (1977) : *na-da-go, *ha-da-go, da-go, etabar.

De Rijk (1992), aldiz, aldaketa bat proposatzen du, *n-k d-* ordezkatzeko duela uste bait du.

- (28) de Rijk (1992) : ni + dago —> nago

Bi eritzietan, nik uste, onetsi behar da hasiera batean pertsona guztietarako adizki bakarra zegoela eta beranduago uztartu zitzaizkiola adizkiari pertsona-markak, aurkeztu dudana hipotesiari aldaketa bat egitea eskatuko lukeena. Esan beharko bait genuke lehenik partikulak agertu zirela aditzaren babesgarri eta bigarrenik, partikularen aurretik, absolutiboaren marka.

Trasken proposamenari bidezkoago deritzot, ez duelako ohizko aldaketa fonologikoetatik kanpoko beste ezer eskatzen. Beraz, (29)-n zehazten ditudan ondoko bi garai hauek bereizi beharko lirarteke :

- (29) i. *dago (pertsona guztietarako)
ii. *ni+dago, *hi+dago,...

3.2. Zergatik ezin du datiboak lehen lekua bete ? Hau da, *nizun* bezalako adizki batek, adibidez, zergatik ez du “zuk niri” adierazten? Hemen proposatu beharko genuke datiboa adierazten duten izenordainak oraindik beranduago uztartuko zirela, eta orduko partikulak, absolutiboak edo ergatiboak hartua zuela, zein bere kasuan, aditzaren aurreko lekua. Hau jadanik Schuchardt-ek iradoki zuen (1972 [1893] : 298) eta ez dirudi oso bitxia klitiko datiboa ergatiboa eta absolutiboa baino beranduago uztartu zela pentsatzeak. Halaber, forma alokutiboak ere beranduagokoak izango lirateke.

3.3. Noiz eta nola uztartu ziren pluralgileak ? Joera oso zabaldua da numeroa pertsona baino beranduago gramatikaltzea. Adibidez, hizkuntza algonkinoetan lehen eta bigarren pertsonen markak aurrizkiak dira; numero-markak, aldiz, hirugarren pertsonaren marka bezala, atzizkiak dira eta hau, dirudienez, beranduago uztartuak direlako gertatu da (Mithun 1988). Ondoko taulan *ni-* lehen pertsonaren komunztadura-marka da, *ki-* bigarren pertsonakoa, biak aurrizkiak ; hirugarren pertsonako komunztadura-markak, aldiz, atzizkiak dira (*-eu*):

(30) Cree, algonkinoa (Mithun 1988):

<i>ninēhiyawān</i>	<i>nik</i> cree-z hitzegiten dut
<i>kinēhiyawān</i>	<i>zuk</i> cree-z hitzegiten duzu
<i>nēhiyawēw</i>	<i>hark</i> cree-z hitzegiten du
<i>ninēhiyawānānaw</i>	<i>hark</i> eta <i>nik</i> cree-z hitzegiten dugu
<i>kinēhiyawānān</i>	<i>zuk</i> eta <i>nik</i> cree-z hitzegiten dugu
<i>kinēhiyawānāwaw</i>	<i>zuek</i> guztiok cree-z hitzegiten duzue
<i>nēhiyawēycik</i>	<i>haiek</i> biek cree-z hitzegiten dute
<i>nēhiyawēywak</i>	<i>haiek</i> guztiek cree-z hitzegiten dute

Erreferentzia gurutzatadun markak:

<i>zuzena</i>		<i>alderantzizkoa</i>	
1-3	aw	3-1	ik
1-3p	awak	3p-1	ikwak
1p-3	anan	3-1p	ikonan
1p-3p	ananak	3p-1p	ikonanak
3-3'	ew	3'-3	ik

Euskaraz ere numero-markak pertsona-izenordain guztiak baino beranduago uztartuko ziren. Horrela errazago uler daiteke — eta honetaz euskalariak ados daude — pluralgileek erakusten duten kokatzeko askatasun handiagoa : cf. *dauzka* vs. *B daukaz*, etab.

3.4. Zer da iraganeko adizkietan agertzen den tarteko *-n-* (*-en-*/*-in-*) hori ? Hasteko hizki (?) horren banaketa ikusi behar da: Iragankorretan absolutiboaren markaren ondoren (*ninduzun*, *zintudan*) eta ergatibo pluralaren markaren ondoren (*gen(d)uen* vs. *nuen*) azaltzen da ; halaber, zenbait euskalkitan subjektu iragangaitza ere markatzen du (*nindoan*, *nindatorren*, *nindagoen*, etab.). Azken hauek, dena den, oso berriak bide dira eta dudarik gabe analogiaren emaitza dira.

Oregik (1974) genitiboarekin lotu du. Trasken (1977) ustez, berriz, pasiboaren markaren aztarna izango litzateke.

Nire ustez, *-n-* (edo *-en-*) morfema honek iragankorretako objektua markatzen zuen. Honelako markak badaude beste hizkuntza batzuetan ere objektua egiletasun hierarkian subjektua baino gorago dagoenean (ohar bedi euskaraz hirugarren pertsonan ez dela erabiltzen) edo objektu guztiak markatzeko komunztadura-marken ordena pertsona hierarkia baten arabera antolatzen denean. Adibidez, gunwinguu, Australiako iparraldeko hizkuntzan *-n-* objektuaren ondoren agertzen da :

(31) Gunwinguu (Mallinson & Blake 1981) :

- i. η a-be-n-bun
ni-haiek-akus.-fut:jo
'(Nik haiek) joko ditut'
- ii. η a-n-di-bun
ni-akus.-haiek-fut:jo
'(Haiek ni) joko naute'

Pentsa genezake euskaraz ere *-(e)n-* hizkiak horrelako eginkizuna izan zuela eta gero lehen eta bigarren pertsonetako objektu guztietara hedatu zela analogiaz (*ninduzun*, *hinduen* eta gero *hindudan*) edo, besterik gabe, objektu guztiak markatzen zituela hasieratik, nonbait *nuen* eta *ninduen* bezalako formak bereiztearren. Gainerako testuinguruetara —eta honetan Traskekin bat nator— analogiari esker hedatuko litzateke beranduago.

3.5. Ez ditut hemen, noski, aurkez litezkeen arazo batzuk baino azaleratu. VSO hipotesi hau ez dago oraindik guztiz landurik eta osaturik eta arazo gehiago daude, jakina, hipotesiaren barnean konpontzekoak edo-ta hipotesia aldarazi edo baztertu ahalko dutenak.

Dena dela, uste dut aurkeztu dudan hipotesi honek, bere egiantzekotasun maila gorabehera, ikerbide berri bat jorra dezakeela euskal morfologia historikoari buruzko azterketetan. Hizkuntzalariek arazo haiek eta beste aztertu ondoren, pozik geldi ninteke berdin hipotesia erabat frogaturik edo erabat errefusaturik gera baledi. Nolanahi ere den, horrek esan nahi luke ikerketak aurrera egiten duela eta euskal aditz sistema zaharra hobeto ezagutzeko aukera galdu ez dugula.

Bibliografía :

- Anderson, S. R., 1992, *A-Morphous Morphology*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Azkue, R. M^a, 1923-25, *Morfología vasca*, Euskaltzaindia, Bilbo. Berrarg. LGEV, Bilbo, 1969.
- , 1935, «Evolución de la lengua vasca», *Euskera* 16, 57-124. Berrarg. Gaubeka, Bermeo, 1935.
- Bonaparte, L.-L., 1869, *Le verbe basque en tableaux*, Strangeways & Walden, Londres.
- Comrie, B., 1980, «Morphology and word order reconstruction: problems and prospects», in J. Fisiak (arg.), *Historical Morphology*, 83-96, Mouton, The Hague-Paris-New York.
- Douglass, W. A., R. Etulain & W. H. Jacobsen (arg.), 1977, *Anglo-American Contributions to Basque Studies. Essays in Honor of Jon Bilbao*, Univ. of Nevada, Reno.
- Heath, J., 1977, «Remarks on Basque Verbal Morphology», in Douglass et al. (arg.) 1977, 163-168.
- Jacobsen, W. H., Jr., 1975, «Historical Implications of the Western Basque Tonal Accent», eskuizkribu argitaragabea, University of Nevada, Reno.
- Lafon, R., 1943, *Le système du verbe basque au xv^e siècle*, (Publications de la Université de Bordeaux, 5), Delmas, Bordeaux. Berrarg. Elkar, Donostia, 1980.
- , 1955, «Remarques complémentaires sur la structure du verbe basque», *BSL* 51, 148-175.
- Laka, I., 1993, «The Structure of Inflection: A case study in X⁰ syntax», in J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics*, 21-70, John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia.
- Mallinson, G. & B. J. Blake, 1981, *Language Typology*, North-Holland, Amsterdam-New York-London.
- Martinet, A., 1974 [1955], *Economía de los cambios fonéticos*, Gredos, Madrid.
- McCone, K., 1987, *The Early Irish Verb*, An Sagart, Maynooth.
- Mithun, M., 1988, «The Development of Bound Pronominal Paradigms», in W. P. Lehmann & H.-J. Jakusz Hewitt (arg.), *Language Typology 1988*, 85-104, John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia.

- Mitxelena, K., 1981 [1987], «Lengua común y dialectos vascos», *ASJU* 15, 291-313. [= *Palabras y textos* 35-55].
- Omaechevarría, Fr. I., O.F.M., 1959, *Euskera. Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco*, Icharopena, Zarautz.
- Oregi, J., 1974, «Euskal-aditzaz zenbait gogoeta», *FLV* 17, 265-283.
- Radics, K., 1985, *Typology and Historical Linguistics. Affixed Person-Marking Paradigms*, (Studia Uralo-Altaica, 24), Universitas Szegediensis, Szeged.
- de Rijk, R. P. G., 1981, «Euskal morfologiaren zenbait gorabehera», in *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, 83-101, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- _____, 1992, «'Nunc' Vasconice», *ASJU* 26:3, 695-724.
- Schuchardt, H., 1947 [1923], *Primitiae Linguae Vasconum*, Colegio Trilingüe-CSIC, Salamanca. A. Irigarayren gazt. itz.
- _____, 1972 [1893], «Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco», *BAP* 28:2/3, 217-337. A. Goenagaren gazt. itz.
- Steele, S., 1977, «Clisis and Diachrony», in Ch. N. Li (arg.), *Mechanisms of Syntactic Change*, 539-579, University of Texas, Austin-London.
- Trask, R. L., 1977, «Historical Syntax and Basque Verbal Morphology: Two Hypotheses», in Douglass et al. (arg.) 1977, 203-217.
- _____, 1981, «Basque Verbal Morphology», in *Euskalarien Naztoarteko Jardunaldiak. Iker-1*, 285-304, Euskaltzaindia, Bilbo.
- _____, 1990, «The -n class of verbs in Basque», *Transactions of the Philological Society* 88:1, 111-128.
- Vennemann, Th., 1973, «Explanation in Syntax», in J. P. Kimball (arg.), *Syntax and Semantics*, 2, 1-50, Seminar Press, New York-London.
- _____, 1974, «Topics, Subjects and Word Order: From SXV to SVX via TVS», in J. M. Anderson & Ch. Jones (arg.), *Historical Linguistics*, 339-376, North-Holland, Amsterdam.
- Watkins, C., 1963, «Preliminaries to a Historical and Comparative Analysis of the Syntax of the Old Irish Verb», *Celtica* 6, 1-49.

Notes

- (1) Orobat Xabier Artiagoitiari, Agurtzane Elorduiri, Beñat Oyharçabali eta Koldo Zuazori neure esker ona erakutsi nahi diet azken zirriborroari egindako ohar lagungarriengatik.
- (2) Proto-uto-aztekan *mi pluralgilea da; **pi (> ?i) hirugarren pertsonako erakuslea.
- (3) Adibidez, ez dut *zuek* kontuan hartzen eta zuzenean *hi* singularizat eta *zu* pluralizat hartzen ditut, guztiz onartua den bezala.
- (4) *Da-ri* buruz, ik. aurrerago §2.2.2. eta 3.1.
- (5) Bonapartek lehenago (1869) -o- markaren jatorria *koni* erakuslean zegoela iradoki zuen, haren ustez erakusleen forma zaharrek *k-* bait zuten.
- (6) Beñat Oyharçabalek iradoki didanez, aginterazko *b-* gainerakoetarik bereiz tratatu beharko litzateke. Izan ere, *b-* hau ziurrenik konplementatzailea bait da, ez adizkiaren atala. Horrela azal daiteke zergatik aginterazko forma hauek ez duten alokutiborik onartzen, gainerako konplementatzailedun adizkiek bezalaxe jokatzan dute alegia.
- (7) Bizkaierazko *eban* motako adizkiak, menturaz, ezezko formen birranalizatzearen ondorio izan litezke: *ez + zeban* —> *ez + eban*.

Résumé

Morphologie verbale et ordre des constituants : passage de VSO à SOV ?

*Le but de la présente communication est d'exposer une tentative de reconstruction du verbe basque. Partant de l'origine pronominale des marques d'accord personnel, et des positions que celles-ci occupent au sein du complexe verbal, il est proposé qu'à une certaine époque le verbe basque était placé en tête des constituants. Par ce biais, je souhaiterais rendre compte du contraste entre la forme **dut** du présent, et la forme **nuen** du non-présent. Développant cette hypothèse, j'examinerai la question des formes de 1^{ère} et 2^{ème} personnes du singulier (**n- vs da, h- vs- ga / -na**). Des arguments seront donnés indiquant que les marques considérées comme personnelles du verbe basque actuel (marqueurs de pluriel, **d-, z- / Ø-, l- et b-** ; **-o-** datif) ont une origine différente, et il sera conclu que certaines de ces marques se sont jointes au verbe à une époque postérieure par rapport à celle pour laquelle la reconstruction est envisagée. Tenant compte des positions occupées par les marques d'accord d'ergatif, de datif et d'absolutif, je soutiendrai que le basque dans le passé avait un ordre VSO, même si, comme il advient dans de nombreuses langues, le verbe ne pouvait être directement placé en tête de phrase. Le déplacement de certaines têtes empêchait le verbe d'occuper cette dernière position : mouvement des particules et des pronoms clitiques. Le résultat de ces mouvements fut la distribution des marques personnelles telle qu'elle apparaît actuellement. Pour terminer, divers problèmes encore non résolus seront présentés.*

Ricardo GÓMEZ
Université du Pays Basque (UPV-EHU)
Vitoria-Gasteiz

2. PARTZIALA

1. Zer eta noizkoa da Euskara Batu Zaharra?

Egun ezagutzen ditugun euskalkiak sortu baino lehenagoko euskara da V-VI. Mende ingurukoa. Gugandik hurbilen egon daitekeen aitzin hizkuntza komuna baliatzea da EBZ berreraikitzea.

2. Zer zioen Lacombek euskalkiez?

Euskalkiak bitan banatu zituen argudio morfologikoak eskainiz: bizkaiera (bere ustez lexiko zabalagoa eta 'egin' aditz erroa desberdina) eta gainerakoak.

3. Eta Uhlenbeckek?

Bere ustez euskalki bizkaitarrak eta gainerakoak jatorri ezberdinekoak ziren, bi hizkuntza ezberdin kontsideratzen zituen.

4. Mitxelenak emandako EBZ ondoko berrikuntza morfologiko bat.

Deklinabide aditza, artikulua. *egin erroa.

5. Zergatik euskalkiak ez datoz leinuen hizkera zaharretatik?

Aspaldiko hitpotesia da. Lehenik erromatarren aurreko tribuak eta elizbarrutiak euskalkien mugak xeheki markatzen zituztelako. Garai bateko leinuen egiazkotasuna dudan egoteaz gainera, euren banaketa eta euskalkienak ez dute bat egiten, hain zaharrak balira, euskalkiak elkarrengandik urrunago leudekeelako.

6. BZ-ren arkaismoek balio ote dute hura gainerako euskalkietarik bereizteko?

EZ. Arkaismoak dira, beraz, garai batean euskalki guztiek izan zituztela pentsatu behar dugu, hortaz, zerbait egitekotan batasun zaharra islatzen dute.

7. Zergatik IE, austronesioan eta veste hainbatetan dira adarkatze bitarrak dialekto banaketa diakronikoan?

8. Ze eratako berrikuntzak dira garrantzitsuenak adarkate bitarrerako? Zergatik?

9. Ezagutzen duzu ezaugarriren bat EBZ-ren banaketan garrantzitsu litzatekeena lehen adarkatze bitarrerako?

10. Mendebaldeko euskara zaharraren berrikuntza fonologiko bat.

Berrikuntza fonologikoa: -a+a = ea ; 'r' eta 'l' ren aurreko bokalaren irekitzea: txarri, barri...

11. Eta berrikuntza morfologiko bat?

Berrikuntza morfologikoa: -gaz sozietibo marka

12. Gipuzkera goian ala behean litzateke horrelako banaketa bitar batean? Zergatik?

Behean litzateke. Berrikuntza zahar propio gutxi dituelako gipuzkerak, eta dituenak ez direlako oso zaharrak.

13. *ezan laguntzailea Z-n: hautua ala berrikuntza? Zergatik?

Hautua (arkaismoa), noizbait euskalki guztietan izan delako.

14. *eutsi laguntzailea B eta A-n: arkaismo ala hautua? Zergatik?

Berrikuntza. *eradun-etik datorrelako eta soilik A eta B-en delako.

15. u-/i- txandakatzea: AE,EBZ, dialektala... Zergatik?

Dialektakla da. Bizkaierak gainerako euskalkien fonologian duen bereizgarri zaharra da, ‘*eu-’ diptongo zenbaiten emaitzak dira, ez beti koherenteak.

16. Erronkariaren zenbait berrikuntza berantiar.

Erakusleetako herskariak.

17. AEZ-ren bi aurrizki; ba ote zuen gero galdu den beste hitz-eraketarako biderik?

gi- eta sa- // Bai, erreduplikazioa

18. Taula:

	Prep.	IA	IG	ID
I (= VSO) Bereberea				
III (= SOV) Kitxuera				
III (= SOV) Euskara	-	+	-	+

19. Zer dakigu fonosinbolismoen erro-egiturez? Eta partikula gramatikalenez?

CVctik ahalik eta urrutien dagoena dela. Erro lexikoen antitetikoak dira, ahalik eta urrutien daudenak; partikula gramatikalak antzeko zerbait dira, baina horrenbestera iritsi gabe.

20. Noiztsu agortu zen erreduplikazioa? Pare bat frogatu.

Disimilazioaren ondorioz galdu zen, hitz hasierako *d- galdu zenean zenean. Adibidez: *dodol > odol, *dadar > adar

21. Arrazoiak euskararik zaharrenak Adjektibo kategorian askerik ez zuela esateko.

Alde batetik, euskarak lehen mailako adjektibo asko eratorriak zituen. Bestetik, koloreetan ez zegoen lehen mailako alorrik eta azkenik, Dixonek markatutako lau sorbideetatik (eratorpena, maileguta, erlatiboak, partizipioak) kanpo ez zegoen ezerrez.

22. Zein dira adjektibo kategoriaren hierarkian maila goreneko bi alor semantiko?

Balioa: on, txar

Kolorea: urdin, beltz

23. zu (eta antzeko vos...) izenordainen jatorria.

Aditz inflexioan agertzen diren komunztadura-markak, jatorriz izenordainak. Pertsona-markak, izenordain osoen forma fonologiko laburtuak. Pertsona-marka hauek benetako erreferentziadun izenordainak, aditzak berez predikazio osoa bete.

24. Zein da deklinabide mugatuaren jatorria? Zerk pentsarazten digu hori?

Postposizioak eta horren aurretik aditzak. Aurrizkietatik atzizietara emandako deribagarik. Ni mendi da-joan > ni mendila (> mendira) joan

25. Noizkoa da artikulua? Zergatik?

Akitanieraz ez dago arrastorik. Litekeena da erromantze eta hizkera germanikoen agertzearekin batera sortzea: VIII-X mende bitartean

26. Zeren menpe dago euskal deklinabideko numero morfologikoa, hots, sing./pl. bereizketa?

27. -eta < lat. -etum: kontrako argudioak.

28. -garren-en etimologia:

x- barren > x-∅ arren > x-garren

29. hiru-ren etimologia:

Hirur < her + bur

30. eta hamar-ena?

Hamar < han*+ bor(tz)

31. Zer atera daiteke GUDUA DEISDEA iberiar idazkizunetik euskal artikuluaen diakroniaz?

Gauza gutxi atera daiteke; izan ere, "gudua deisdea" artikulua gehiegi da euskara izateko. Euskaraz IS-ak hartzen duelako artikulua, ez IS-ko elementu bakoitzak. Artikulua euskaraz EBZ ondokoa da VIII-X mende artekoa.

32. Zein da zaharragoa -(r)e ala -(r)en? Zergatik?

-(r)e da zaharragoa; izenordainetak nire, hire, zure ditugulako. Horregatik eta horrekin bezalako formetan ere agertzen da. Ablatibo zaharra -(r)e genitiboaren gainean eraikita dago.

33. Zenbat ozen eta txistukari fonologiko ziren AEM-en? Eta AEZ-ean?

Ozenak:

Txistukariak:

- AEM: 6

- AEM: 6

-AEZ: 3

- AEZ: 3

34. gatz/gazi, orratz/orrazi... Zein da alomorfo zaharragoa? Nola azaltzen bikotea?

Afrikatua ezin da zaharrena izan. Frikaria zaharragoa da eta afrikatuak berriagoak. Hitz bukaerako bokala galtzean frikaria > afrikatu bihurtu zen.

35. sazon> sasoi,solaz > solas, zinhetsi > sinetsi: zer ateraten da honetatik?

Hitz berean bi txistukari egon direnean apikariaren aldeko asimilazioa gertatu da. Sazon, solaz eta zinhetsi zaharragoak dira.

36. Zergatik hire baina eure?

Eure analogikoa da (Grassman).

hi-heur-e: Garssmanen legeari jarraiki lehenengo h-a galdu, erro batean ezin baita hasperenik joan.

37. *h₂/*h₃ > h-: bina adibide.

-*enazur > *ehazur > hezur

-*arena > areha > harea

-* enaitz > haitz

38. Ba ote /h/-aren jatorri etimologiko gehiago Mitxelenak aipatuez landa? Zein?

Bai;

· -r- >h konposaketan

· Gaskoiko maileguetan

· *hVR- > VRh- metatesia

39. saihets/sahets/saiets: /h/ etimologikoa ote? Eta hor,hon-en? Zergatik edo nola?

40. onherran, ilhun: zergatik -h- ez da halabeharrezko edo erantzia?

Hil + un < ulhun metatesia.

41. Gaskoiaren lekukotasuna /h/-aren balio etimologikoaz.

Gaskoieran hVR > VRh euskaraz: hala > alha...

42. Zein da bateragarriago hizkuntza eransle batekin: lehen silabako azentua alaazkenekoa? Zergatik?

Lehen silabakoa. Latinez adibidez azentua ez da azkeneko silaban jartzen.

43. Euskal silabaren egitura Mitxelenaren arabera. Eta Artiagoitiaren arabera?

Mitxelenaren arabera: (C) V (W) (R) (S) (T)

Artiagoitiaren arabera:

44. T/n-l_ -D/n-l_ : zein da zaharrago eta zergatik?

45. Frogak frik./ n-l_ -aren alde.

46. **TDTV: datuak eta garrantzia.

AEko erroak monosilabikoak zirelako eta C hasi eta bukatzen zirelako. Gainera, **TDTV soilik maileguetan edo eratorrietan aurkitu.

47. Erro monosilabikoa AEZ-en: hiru ondorio nagusi.

Lexikoak: erro berriak, mailegu berriak, lehendik ezagutzen genituen erro familiak zabaldu

48. Nola sailka litezke erro ereduak bertako hitzen jatorriaren arabera? Zein da sail garrantzitsuena euskara zaharrena aztertzeko? Zergatik?

5 sail: maileguak, aldaera modernoak, konposatu deribatua, fonosinbolismoak eta etimologia ezezagunekoak (iragazki fonologikoak alde batetik eta geografikoak bestetik).

49. Ze iragazki ezarri ahal zaie erro erduei beren zahartasuna ikertzeko?

Fonologikoa eta geografikoa.

50. Ikerketa aitzinatu ahala zer gertatzen da erro monosilabikoekin? Eta bisilabikoekin? Zergatik?

Munda: erro bisilabikoa/ atzizkiak/ azentua ezkerrean/ aditza bukaeran/ eranslea.

Monkhemer: erro monosilabikoa aurrizkiak/ azentua eskuinean/ aditza erdian edo hadsieran / isolatzailea

51. Hizkuntza eransleek nolako erro ereduak izan ohi dituzte?

-Bisilabikoak

-Bisilaba irekiak dituzte

52. Definitu aitzineuskara zaharra.

Berreraiki daitekeen euskararik zaharrena da. Berreraiketaren metodoaren bidez lortu den euskara zahar baten erdua da eta euskararen berreraiketaren sorturiko hizkuntza egoera da.

53. Emazu AEZ-ren ezaugarri fonologiko eta morfologiko bana.

-Morfologikoa: aurrizkiak zituzten

-Fonologikoa: CVC egitura zuten

2. PARTZIALA

1. Zer eta noizkoa da Euskara Batu Zaharra?

Egun ezagutzen ditugun euskalkiak sortu baino lehenagoko euskara da V-VI. Mende ingurukoa. Gugandik hurbilen egon daitekeen aitzin hizkuntza komuna baliatzea da EBZ berreraikitzea.

2. Zer zioen Lacombek euskalkiez?

Euskalkiak bitan banatu zituen argudio morfologikoak eskainiz: bizkaiera (bere ustez lexiko zabalagoa eta 'egin' aditz erroa desberdina) eta gainerakoak.

3. Eta Uhlenbeckek?

Bere ustez euskalki bizkaitarrak eta gainerakoak jatorri ezberdinekoak ziren, bi hizkuntza ezberdin kontsideratzen zituen.

4. Mitxelenak emandako EBZ ondoko berrikuntza morfologiko bat.

Deklinabide aditza, artikulua. *egin erroa.

5. Zergatik euskalkiak ez datoz leinuen hizkera zaharretatik?

Aspaldiko hitpotesia da. Lehenik erromatarren aurreko tribuak eta elizbarrutiak euskalkien mugak xeheki markatzen zituztelako. Garai bateko leinuen egiazkotasuna dudan egoteaz gainera, euren banaketa eta euskalkienak ez dute bat egiten, hain zaharrak balira, euskalkiak elkarrengandik urrunago leudekeelako.

6. BZ-ren arkaismoek balio ote dute hura gainerako euskalkietarik bereizteko?

EZ. Arkaismoak dira, beraz, garai batean euskalki guztiek izan zituztela pentsatu behar dugu, hortaz, zerbait egitekotan batasun zaharra islatzen dute.

7. Zergatik IE, austronesioan eta veste hainbatetan dira adarkatze bitarrak dialekto banaketa diakronikoan?

8. Ze eratako berrikuntzak dira garrantzitsuenak adarkate bitarrerako? Zergatik?

9. Ezagutzen duzu ezaugarriren bat EBZ-ren banaketan garrantzitsu litzatekeena lehen adarkatze bitarrerako?

10. Mendebaldeko euskara zaharraren berrikuntza fonologiko bat.

Berrikuntza fonologikoa: -a+a = ea ; 'r' eta 'l' ren aurreko bokalaren irekitzea: txarri, barri...

11. Eta berrikuntza morfologiko bat?

Berrikuntza morfologikoa: -gaz soziatibo marka

12. Gipuzkera goian ala behean litzateke horrelako banaketa bitar batean? Zergatik?

Behean litzateke. Berrikuntza zahar propio gutxi dituelako gipuzkerak, eta dituenak ez direlako oso zaharrak.

13. *ezan laguntzailea Z-n: hautua ala berrikuntza? Zergatik?

Hautua (arkaismoa), noizbait euskalki guztietan izan delako.

14. *eutsi laguntzailea B eta A-n: arkaismo ala hautua? Zergatik?

Berrikuntza. *eradun-etik datorrelako eta soilik A eta B-en delako.

15. u-/i- txandakatzea: AE,EBZ, dialektala... Zergatik?

Dialektakla da. Bizkaierak gainerako euskalkien fonologian duen bereizgarri zaharra da, ‘*eu-‘ diptongo zenbaiten emaitzak dira, ez beti koherenteak.

16. Errokarieraren zenbait berrikuntza berantiar.

Erakusleetako herskariak.

17. AEZ-ren bi aurrizki; ba ote zuen gero galdu den beste hitz-eraketarako biderik?

gi- eta sa- // Bai, erreduplikazioa

18. Taula:

	Prep.	IA	IG	ID
I (= VSO) Bereberea				
III (= SOV) Kitxuera				
III (= SOV) Euskara	-	+	-	+

19. Zer dakigu fonosinbolismoen erro-egiturez? Eta partikula gramatikalenez?

CVctik ahalik eta urrutien dagoena dela. Erro lexikoen antitetikoak dira, ahalik eta urrutien daudenak; partikula gramatikalak antzeko zerbait dira, baina horrenbestera iritsi gabe.

20. Noiztsu agortu zen erreduplikazioa? Pare bat frogatu.

Disimilazioaren ondorioz galdu zen, hitz hasierako *d- galdu zenean zenean. Adibidez: *dodol > odol, *dadar > adar

21. Arrazoiak euskararik zaharrenak Adjektibo kategorian askerik ez zuela esateko.

Alde batetik, euskarak lehen mailako adjektibo asko eratorriak zituen. Bestetik, koloreetan ez zegoen lehen mailako alorrik eta azkenik, Dixonek markatutako lau sorbideetatik (eratorpena, mailegutzua, erlatiboak, partizipioak) kanpo ez zegoen ezerrez.

22. Zein dira adjektibo kategoriaren hierarkian maila goreneko bi alor semantiko?

Balioa: on, txar

Kolorea: urdin, beltz

23. zu (eta antzeko vos...) izenordainen jatorria.

Aditz inflexioan agertzen diren komunztadura-markak, jatorriz izenordainak. Pertsona-markak, izenordain osoen forma fonologiko laburtuak. Pertsona-marka hauek benetako erreferentziadun izenordainak, aditzak berez predikazio osoa bete.

24. Zein da deklinabide mugatuaren jatorria? Zerk pentsarazten digu hori?

Postposizioak eta horren aurretik aditzak. Aurrizkietatik atzizietara emandako deribagarik. Ni mendi da-joan > ni mendila (> mendira) joan

25. Noizkoa da artikulua? Zergatik?

Akitanieraz ez dago arrastorik. Litekeena da erromantze eta hizkera germanikoen agertzearekin batera sortzea: VIII-X mende bitartean

26. Zeren menpe dago euskal deklinabideko numero morfologikoa, hots, sing./pl. bereizketa?

27. -eta < lat. -etum: kontrako argudioak.

28. -garren-en etimologia:

x- barren > x-∅ arren > x-garren

29. hiru-ren etimologia:

Hirur < her + bur

30. eta hamar-ena?

Hamar < han*+ bor(tz)

31. Zer atera daiteke GUDUA DEISDEA iberiar idazkizunetik euskal artikuluaen diakroniaz?

Gauza gutxi atera daiteke; izan ere, "gudua deisdea" artikulua gehiegi da euskara izateko. Euskaraz IS-ak hartzen duelako artikulua, ez IS-ko elementu bakoitzak. Artikulua euskaraz EBZ ondokoa da VIII-X mende artekoa.

32. Zein da zaharragoa -(r)e ala -(r)en? Zergatik?

-(r)e da zaharragoa; izenordainetak nire, hire, zure ditugulako. Horregatik eta horrekin bezalako formetan ere agertzen da. Ablatibo zaharra -(r)e genitiboaren gainean eraikita dago.

33. Zenbat ozen eta txistukari fonologiko ziren AEM-en? Eta AEZ-ean?

Ozenak:

Txistukariak:

- AEM: 6

- AEM: 6

-AEZ: 3

- AEZ: 3

34. gatz/gazi, orratz/orrazi... Zein da alomorfo zaharragoa? Nola azaltzen bikotea?

Afrikatua ezin da zaharrena izan. Frikaria zaharragoa da eta afrikatuak berriagoak. Hitz bukaerako bokala galtzean frikaria > afrikatu bihurtu zen.

35. sazon> sasoi,solaz > solas, zinhetsi > sinetsi: zer ateraten da honetatik?

Hitz berean bi txistukari egon direnean apikariaren aldeko asimilazioa gertatu da. Sazon, solaz eta zinhetsi zaharragoak dira.

36. Zergatik hire baina eure?

Eure analogikoa da (Grassman).

hi-heur-e: Garssmanen legeari jarraiki lehenengo h-a galdu, erro batean ezin baita hasperenik joan.

37. *h₂/*h₃ > h-: bina adibide.

-*enazur > *ehazur > hezur

-*arena > areha > harea

-* enaitz > haitz

38. Ba ote /h/-aren jatorri etimologiko gehiago Mitxelenak aipatuez landa? Zein?

Bai;

· -r- >h konposaketan

· Gaskoiko maileguetan

· *hVR- > VRh- metatesia

39. saihets/sahets/saiets: /h/ etimologikoa ote? Eta hor,hon-en? Zergatik edo nola?

40. onherran, ilhun: zergatik -h- ez da halabeharrezko edo erantzia?

Hil + un < ulhun metatesia.

41. Gaskoiaren lekukotasuna /h/-aren balio etimologikoaz.

Gaskoieran hVR > VRh euskaraz: hala > alha...

42. Zein da bateragarriago hizkuntza eransle batekin: lehen silabako azentua alaazkenekoa? Zergatik?

Lehen silabakoa. Latinez adibidez azentua ez da azkeneko silaban jartzen.

43. Euskal silabaren egitura Mitxelenaren arabera. Eta Artiagoitiaren arabera?

Mitxelenaren arabera: (C) V (W) (R) (S) (T)

Artiagoitiaren arabera:

44. T/n-l_ -D/n-l_ : zein da zaharrago eta zergatik?

45. Frogak frik./ n-l_ -aren alde.

46. **TDTV: datuak eta garrantzia.

AEko erroak monosilabikoak zirelako eta C hasi eta bukatzen zirelako. Gainera, **TDTV soilik maileguetan edo eratorrietan aurkitu.

47. Erro monosilabikoa AEZ-en: hiru ondorio nagusi.

Lexikoak: erro berriak, mailegu berriak, lehendik ezagutzen genituen erro familiak zabaldu

48. Nola sailka litezke erro ereduak bertako hitzen jatorriaren arabera? Zein da sail garrantzitsuena euskara zaharrena aztertzeko? Zergatik?

5 sail: maileguak, aldaera modernoak, konposatu deribatua, fonosinbolismoak eta etimologia ezezagunekoak (iragazki fonologikoak alde batetik eta geografikoak bestetik).

49. Ze iragazki ezarri ahal zaie erro erduei beren zahartasuna ikertzeko?

Fonologikoa eta geografikoa.

50. Ikerketa aitzinatu ahala zer gertatzen da erro monosilabikoekin? Eta bisilabikoekin? Zergatik?

Munda: erro bisilabikoa/ atzizkiak/ azentua ezkerrean/ aditza bukaeran/ eranslea.

Monkhemer: erro monosilabikoa aurrizkiak/ azentua eskuinean/ aditza erdian edo hadsieran / isolatzailea

51. Hizkuntza eransleek nolako erro ereduak izan ohi dituzte?

-Bisilabikoak

-Bisilaba irekiak dituzte

52. Definitu aitzineuskara zaharra.

Berreraiki daitekeen euskararik zaharrena da. Berreraiketaren metodoaren bidez lortu den euskara zahar baten erdua da eta euskararen berreraiketaren sorturiko hizkuntza egoera da.

53. Emazu AEZ-ren ezaugarri fonologiko eta morfologiko bana.

-Morfologikoa: aurrizkiak zituzten

-Fonologikoa: CVC egitura zuten

Larramendiren hiztezigintzaren inguruan

Joseba Andoni Lakarra

LARRAMENDIREN HIZTEGIGINTZAREN INGURUAN

JOSEBA ANDONI LAKARRA

1. *Sarrera*¹

Ezer baino lehen konpli da hona ekar ditzadan Ormaetxea'tar Nikolak 1929an Larramendiren hiztegiak Andoainen egin zuen hitzaldiaren hasierako hitzak, hein handi batetan ene lan honi ere ezar dakizkiokela uste bait dut:

Gaur zuen aurrean itzegiteko aukeratu dedan gai au al-perra ta parra garria irudituko zaio jakintsuren bati. Larramendiren iztegi orretaz ezer onik esan al daiteke? Furfuriaka ta aize-poteka asiko dira noski. Bai nai ba dute. Orrako gaurko jakintsu arro oiek esan dutena irakurrita ere, Larramendik zerbait erakutsi dit, neri beintzat («Larramendiren Iztegia», 253).

Berrogeita hamabost urteren buruan hitzok garai hartan zuten ia balio bertsua gordetzen ez ote duten nago; nolnahi ere, geroztik ez dirudi Larramendiren alderdi hau, hiztegi-gintzari dagokiona

(1) Lan hau, oharrak eta atal gehienetan egindako aldaketak kanpo, E.H.U.aren Donostiako III. Udako ikastaroetan irakurri nuen (1984-9-7). Blanca Urgelli eskertu behar diot Larramendiz izan ditugun eztabaidetan zehar egin didan ohar eta zehaztasun mordoa. Ez dut J. Caro Barojak Euskaltzaindian, aurkeztu txostena irakurtzerik izan, eta soilik lan hau erdi bukatua nularik K. Mitxelena-ren «Mendiburu eta Larramendi», «Euskara eta euskararekiko ikerlanak (1700-1800)» eta I. Sarasolaren hiztegiari egin dion «Aurkezpena». Guztietan aurkituko ahal du irakurleak anitz ohar interesgarri ene lanean aztertu puntu gehienez. Horrenbestez, testuan ia beren aipamenik sartu ez arren progotxatu naiz haiez ahal nuen neurrian zenbait oharretan. Ezin interesgarriago iruditzen zait «Aurkezpen»ean (15) irakur daitekeen hurrengo pasartea, hiztegiaren 240 urte betetzen direnean Larramendiren berbalorapen zuzenago bat iragartzen digula uste bait dut: «Labur eta zehazkiago aitortuz: Larramendi izan da, lehenbiziko aldiz eta erabat [baina ik. gero Etxeberri] hizkuntza larrekua noranahiko bihurtu izan nahi duena».

alegia, begi berriz ikustera iritsi garenik. Neurri handi batetan andoaindarrak, Azkue² eta Aranaz geroztik, pairatzen zuen meziprezu eta gutiespenean jarraitu du, eskasak bait dira Orixek bezala begi-kotasun eta zuhurtziaz ikusi dutenak.

1936an *Genio y Lenguan* egokitu zitzaion epaiketa latza eta gogorra izan zen:

Desgraciadamente el P. Larramendi malogró su gigantesco esfuerzo extraviando el movimiento literario por los derroteros de la polémica estéril y de la diatriba ociosa (op. cit., 120).

eta garrantzi handia izan du Ibarren iritzi honek ondoko azterketetan, hainbat non, Villasanteren hitzez esateko, «y como suele suceder, con el desengaño y la reacción, ha quedado rebajado en exceso, de modo que para los hombres de nuestra generación el P. Larramendi resulta casi una figura ridícula».

Haatik, segidan doazen orriotan ikusi ahalko den bezala, ene Larramendirenganako hurbilketa Orixerenetik gertuago dagoke Ibarrenetik baino. Ene ustez Larramendiren hizkuntzazko idazkiak irakurketa berri eta zuzenagoen premian daude eta saio honetan, tainak eta egokierak ematen duten izarian, zenbait puntu aztertzen saiatuko naiz.

2. *Larramendi eta Etxeberri*

Gogoetan nengoelarican egun batez, cer perpaus hautatuco nuen gure gazteriarri aipatceco, gogora citçaitan, hei guehienic agrada ahal daquioqueten gauça dela guerla: ceren gende gazteac, eta bereciqui Escualdunac bere baitharic emanac baitira gudura, eta gathazcara; eta nola gaztei eman behar baitçaje hequien disposicinuari dagoacan emplegua, hargatic bada nic-ere hautatu dut hei hemen aipatceco guerla.

(2) Behar lukeen bezain ezaguna ez bada ere Azkue ere izan zen garbizale (ik. orain I. Pagolaren lana, baita ASJU honetako I. Lakarena ere haren *Parnasorako bidearen* edizoaz) eta lehen garai batetan (cf. *Euskal Izkindea*, 1891) are larramendizale ere.

Honelako *captatio*arekin hasten du Etxeberri mirikuak bere *Escuararen hatsapenetako* «Escual-Herrico gazteriari» eskeini atala, dudarik gabe bere obrako zatirik garrantzitsuena eta saratarra-
ren asmoak argienik erakusten dizkiguna. Ikus, bestela, nola jarrai-
tzen duen.

Ordea behar bada boztuco dira, ustez ecen gombidatcen tudala Marteren suzco eta kharrezco jocco, eta habarrots icigarrietara. Ez; ceren nihorc gombidatu gabe berac baitira hartara asco emanac. Baina deitzen tut Minervaren dosteta ezti, eta canta-alosien bidez enorantciaren contra eguiten den guerla ohorezcora.

Gerla honetarako gonbitea eta deia egiteaz gain iskiluak presta-
tzen ere saiatu zen Etxeberri, euskara-latina-frantsesa-gaztelera-
zko hiztegiaren eta latina ikasteko gramatikaren bitartez.

Alabaina, dakigunez, gerla aldarrikatze huts eta bakartian geratu
zen ordukotz; ez zen piztu, hortarako boterea zuena —Lapurdiko
Biltzarrea— ez bait zen Joanesen burrukakide eta gogaide atera,
kanpainarako behar zuen laguntza ukatuaz³.

Bere lurraldean falta zitzaion gogaidea Azkoitia aldean, non bere
mirikuntza lanak betetzen bait zituen, eriden bide zuen, 1734 ge-
roztik Loilara erretiraturik dugun Larramendi baitan, hain zuzen⁴.

3. Ik. Urkixok bere edizioari jarri hitzaurrea, Villasanteren «Joanes Etxeberri (1668-1749)», honen eta Mitxelenaren literatur historiak, eta azke-
naren *Estudioa*. Erreferentzia osoetarako ik. Bibliografia. 1676an Nafarroako
Estatuek ere ezezkoa eman zioten Bidegarai frantziskotarrari bere 20 ur-
teko lana euskara-frantsesa-latina-gaztelera hiztegia, eta euskararen hastape-
nak argitaratzeko asmoan. Ik. V. Dubarat «Le Dictionnaire basque et les Rudi-
ments du P. Dominique Bidégaray» RIEV VIII (1914) 6-16. Oso interesgar-
ria *gloire et utilité* nola elkartzen dituen Bidegaraik (aip. lana 12) baita
bere iritziak euskara eta hebraierari buruz. Bidenabar esan dezadan ez du-
dala Tovarren liburuan horren aipamenik erideiten; *Euskeraren berrionak*
ere aipabeharrezkoa iruditzen zait haren liburua bezalako lan orokor batean.

(4) Marka bedi *gogaide* diodala eta ez *jarraitzaile*, jarraitzaile huts, be-
deren. Beren arteko hartuemanak ez dira oraindik zehaztu ez ikertu ere
sakonki. Hortarako ezinbestekoa da duda gabe Etxeberriren hiztegia be-
rreskuratzea, argitaratzea eta aztertzea, zorren norabidea (ik. L. Mitxelena
Estudio 29-30) eta kopurua finkatzeko. Bestalde, lotsagarria izan arren, ez
dugu Etxeberriren lan eta hizkuntz ideiei buruzko monografia on bat (To-
varrek ez du aipatu ere egiten bere liburuan). Zorigaitzez nik ezin dut he-
men Larramendirekin dituen antzekotasun batzu erakutsi baino. Hauek hain
dira ugari eta garrantzizko non ongi merezi bait dute azterketa zehatzagoa.

3. *Larramendi eta apologistak*

Ez da hori Larramendiz egin diren aurreko azterketetarik atera dezakegun ondorioa, ordea. Hari buruz idatzi duten gehienek Axular eta Etxeberriren zuhurtzia eta praktikotasuna goraiatu ondoren «apologistatzat», hitz honek gure artean duen adiera gaiztoarekin, jo izan dute: «El P. Larramendi es, ante todo, un apologeta del euskera» (Villasante «El P. Larramendi...», 171), «carácter puramente teórico y apologetico de la obra de Larramendi» (Sarasola HSLV 55), «su finalidad principal, como la de los apologetas anteriores y posteriores a él, fue la de defender y justificar la lengua ante los extraños, no la de aficionarla para uso de los propios» (Mitzelena, HLV 87).

Horrenbestez epaitua, kondenatua eta zigortua —isiltasunera eta iragan aipaezin batera zigortua— dakusagu⁵ ondorengo askorentzat.

Larramendi apologista *ere* bazela aitortuaz (ukaezina bait litzateke) hori baino zerbait gehixeago —eta egungo egunetik behatuaz zerbait garrantzitsuago— ere bazen, ordea. Haatik, ez dut *beste* horretara igaro nahi gure artean *apologista* izenak hartu duen *anatemata* adiera eta itxuraz zer edo zer esan gabe.

Adjektibu hori erantsiz geroz kasuan kasuko idazlea *ipso facto* gera daiteke Euskal Parnasotik at, edo atetik oso hurbil bederen, nahiz eta idazle gutxik egin duen meriturik toki hortan sartzeko Larramendik adina.

Ez naiz hemen apologisten apologiarik egiten saiatuko; alabaina esan behar dut ez deritzodala zilegi gaur egungo usadioen, aurrerapenen eta ikuspuntuen arabera haiek epaitzeari, batez ere usadio, aurrerapen eta ikuspuntu horietara «gure aurretikoen sorbaldan» jarririk iritsi garela gogoratzen badugu. Ez du gainera inongo zentzurik gaur egun oraindik Larramendi, Astarloa eta besteren etimologiak zuzen ala oker emanak diren eztabaidatzeak, Tovarrek esan bezala (MILV 93) jadanik ordurako ere zaharkituak bait ziren; zentzu eta garrantzi gehiago du, aldiz (ik. aurrerago) etimologia horien bitartez zer erdietsi nahi zen, eta azken finean, apologien funtzioa zein ote zen ikertzeak. Ezikusiarena egiten du-

(5) Astarloari ere ez zaizkio (ik. L. Mitxelena «Euskara...» 246) bere merezimenduak aitortu hizkuntz azterketan, bere xelebrekeriek estali eta zokoratu bait dituzte.

tenei Mitxelenak gogoratu dienez «las discusiones [apologisten eta kontrakoen arteko eztabaidek], por lo general, poco tuvieron de desinteresadas. Ya en el siglo XVI... se manifiesta clara entre nosotros la necesidad de apologías, lingüísticas e históricas, que entonces y más adelante, aparecen como respuestas a posibles amenazas que, por el momento, no parecen ser amenazas a la lengua, sino al régimen propio del País» (MILVen erreseina 123).

Alde batetik hizkuntzaren historia, hedadura eta etorkia, bestetik Euskal Herriko erakundeen etorkia, boterea eta geroa ziren bada, lotzen zirenak eta ezin jarrai daiteke holako edo halako mitoak⁶ (ber)gezurtatzen eta bere oinarri eskasia (ber)erakusten mito horiek ez bait dute berezko garrantzirik beren testuinguru horretan ikertu ezean.

Bestalde, apologiak *ezinbestezkoak* ziren orduan eta aurrerago ere, eta ez Euskal Herrian soilik; Brunotek esan bezala (ik. Calvet, *Lingüística y colonialismo* Madrid, 1981, 153) errepublikazale izateko frantsesez mintzatu behar zen. Besteek ez zuten *hizkuntza* baina *jerga* erabiltzen eta holakoek pairatu behar zuten zortea aurreerabakirik (*hizkuntzaz* mintzo zirenek erabakirik) zegoen: heriotza, inoiz inork —Unamuno kasu— ehorzketa onak agindu arren.

Hortik eta ez bestetik dator apologista belaunaldiek (eta are sagek) hainbat lan egitea beren hizkuntza, hemen euskara, besteak bezain on, aberats eta konplutua zela erakusten, edota besteak bezain noble eta zahar, Babel ostean sortua eta lehenago Espainia osoan mintzatua; jokorako arauak aurretiaz inposatuak zituzten.

Hara hor, esate baterako, Larramendik Gandarari idatzi zion gutuneko zati hau non bere garaitiak sortu arraitasuna antzeman bait diezaiokegu:

Trevouxco Memoria famatuetan anche datoz atereac eta isuriac Euzqueraren alde esan ditudan guciac aitortzen didatela gucietan arrazoia, baita gure hizcuntza dala besteac baño ederrago, obeago, gozoago, eta ona non gure etsai cital guciac arrituric isildu diran Madriden ta Parisen.

(6) Ik. J. Juaristiren tesina eta tesi (Gasteiz 1985) argitaragabeak, *Euskararen Ideologiak* (I) (Haranburu Altuna editorea) eta *La leyenda de Jaun Zuria* (Caja de Aho. Vizcaina), Juaristik bere tesiaren hitzaurrean «materia de Vasconia» deitu duen ohizko mito sortaren azterketarako. Aranzadiren *Milenarismo Vascon* ere bada horiei buruzkorik.

Hizkuntz eztabaidok interesatuak dirateke oraindik XIX. mendean ere, are honen bukaerarantz jadanik hizkuntzalaritza modernoa sortua bazen ere⁷. Sinpleegia, guztiz okerra ez esatearren, iruditzen zait «La desmitologización» deitzea Unamonori dagokion atalari, Tovarrek bere liburuan egin bezala. Egia da Unamunok bere 1884ko tesian⁸ aurrekoen tubalismu, kantabrismu eta beste honelako euskaldunen eta euskararen etorki eta historiari buruzko mito gehienak suntsitu zituela. Alabaina, zientziaren izenean bada ere, berak ere badarabiltza zenbait mito berri: «norabide bakarreko» hizkuntz tipologia («un idioma aglutinante no puede nunca ser tan perfecto y claro como uno de flexión»)⁹ eta herrien historia eboluzionista lotuaz, euskara Euskal Herriak aurrera egiteko galdu behar duen oztopo bat dela aldarrikatuko du behin eta berriz. Zientziasun oso interesatua, beraz; are interesatuagoa aldarrikapen horiek ozenagoak bait dira 1901etik —hiru urte Cuba eta Filipinasekoetatik— aurrera, begi bistan dagoen bezala haren hizkuntzazko testuak irakur ditzanarentzat¹⁰.

Gainera, eboluzionismo sozialaren oinarriak ez dira linguistikoa-renak (marrismoa eta beste) baino askoz sendoagoak, eta teoria beraren etorkiak dira oso susmagarri, ez apologistenak baino gutxiago inola ere. Zeren eta, Lévi-Straussek ohartu duenez: «Los dos fundadores del evolucionismo social, Spencer y Tylor, elaboran y publican su doctrina antes del *Origen de las especies* o sin haber leído esta obra. Anterior al evolucionismo biológico, teoría científica,

(7) 8. oharrean aipatu liburuaren 105. orrian «Siglo de la Filología» deitzen du Unamunok XIX.a.

(8) *Crítica del problema sobre el Origen y prehistoria de la raza vasca*, ik. 9. oharra.

(9) «Más sobre el vascence», Revista de Vizcaya, I, 12 zba. 1886-4-15, 422-426 eta orain nik aipatzen ditudan Aguilar-eko *Obras Completaseko La Raza y la lengua* 142an. J. Aranzadik dioen bezala «hay que evitar la tentación de identificar Mito con «error» y Ciencia con «verdad» así como la de «explicar» aquél por su función social presuponiendo la neutralidad, imparcialidad y objetividad de ésta: la carga mítica de muchas desmitificaciones científicas no siempre es menor que la existente en el objeto de crítica» (*Milenarismo vasco*, Taurus, Madrid 1981).

(10) Gonbara adibidez «Individualmente cultivo el idioma vasco; no me empeño en propagarlo, porque tengo otras cosas que hacer y porque considero esta propaganda infructuosa e inútil» op. cit. 9. oharrean 43-44 or.) eta «La historia española se ha desquiciado o trasquiciado más bien: ha de cambiar de goznes. Ha sido durante siglos centrífuga; tiene que ser ahora centrípeta» (190leko Lore Jokoetako hitzaldian, in *Obras* 241) nondik datozen «Tenemos que olvidarlo [euskara] y irrumpir en el castellano, contribuyendo a hacer de él, como de núcleo germinal, el español o hispanoamericano» (op. cit. 242) bezalakoak.

el evolucionismo social no es, con demasiada frecuencia, sino el maquillaje falsamente científico de un viejo problema filosófico» (*Antropología estructural* 312). Eta, ez da zer esanik, «teoria» horrek arazo askozaz praktikoagoak eta helburu konfesaezinagoak estali ohí dituela ¹¹.

Bestalde eta apologistengana bihurtuaz, hauen artean bereizkuntzak egin beharra dugu; ezin dira talde berean sartu Garibai eta Poza, Erro eta Etxeberri, Larramendi eta Astarloa. Beren ezberdintasunak handiegiak dira, ez soilik «taktikan» —erabiltzen dituzten mito eta *topoieta*n— baina baita «estrategian» —lortu nahi dituzten helburuetan— ere. Guztiak «teorikotzat» eta alferlanen egile nagizat baditugu ere, ez da hori egia osoa, ez eta gutxiagorik.

Aipatu dugu jadanik Etxeberriren helburua atzerritarren irainei aitzit egiteaz gainerakoa zela. Mitxelenak «tentativa tan bien razonada como entusiasta para convertir la lengua vasca en el instrumento principal de la enseñanza que podemos llamar secundaria en el País» definitu zuen. Ikusi dugu halaber, proiektu hortarako behar zen latina euskararen bitartez eta bitarteko gehiagorik gabe, ikas ledin lanabesak landu zituela erosta hutsean mantendu gabe; ez dut uste, beraz, gehiegi esatea litzatekeenik Etxeberri mirikuarena kultur proiektu argi eta garbi bat dugula, euskal proiekturik zahar eta zuhurrenetarikoa.

4. *Hiztegia zertarako? Apologia zertarako?*

Larramendi ere ez zen izan ustezko edertasunen soan eta haien bilketa alferrean soilik aritu ziren horietakoa, gorago esan bezala «obra puramente teórica» deitua izan bada ere.

El impulso que me hizo empeñar en estudio tan espinoso, no fue sólo la pasión de ennoblecer e ilustrar nuestra lengua, y por este lado acreditar a la Patria. Fue otro mayor, y más propio de mi carácter, y consiste en el gran bien, y utilidad que espero se ha de seguir a todo

(11) Ik. adibidez Calveten liburuan delako glotofagiaren historia eta taktika ugarietz. Puntu konkretu honetaz 5. atalburua «El discurso colonial sobre la lengua», 113-123.

el País del Bascuence. Allí es necesaria esta lengua, sirviendo muy poco el Romance para el común de la gente. (Gramatikaren sarreran).

Gramatika eta Hiztegiaren hitzaurreetan garbi asko uzten du go-goan duena zera dela, euskara «goren gradora» igotzea, bai kanpo-koentzat (apologiaren bitartez) eta baita etxe-koentzat ere, landuaz eta egokituaz. Batez ere —*nork bere opilari ikatza*— erlijio zabal-kunderako aipatuarren, eskola eta gainerakoak ez ditu ahanzten, eta seglarren eskuetan ere berebiziko tresnak dirateke, zeinnahi mezu moeta zabaltzeko, Iturriaga eta Iztueta-ren, Egiategi eta Uli-barriren eta beste hainbat eta hainbaten obrak (ik. 7. atala) leku-ko. Ez dugu zertan dudan jarri iparrizartzat praktikotasuna zuela honelako lekukotasunak urriak (ezezagunegiak hobe) izan arren. Ikus bestela zer dioen hiztegia euskara-erdara zergatik ez den azal-tzean:

Mi primer pensamiento fue poner primero la voz bascongada y después la correspondiente castellana y latina; pues así se llamaría al parecer con más oportunidad diccionario del bascuence. Pero mudé la idea atendiendo a la utilidad de este género de obras. (Dic. Tril. Pról. XXXVIII) ¹².

Izan ere ez zuen gehiegitarako balio lehendabizi euskal berba-jarriz geroz, baldin eta helburua euskara ikastea bazen; Espainian nahiz Euskal Herrian hiztegia erabili behar zutenek bazekiten ja-danik gaztelera, eta zekiten gaztelera hortaz baliatu beharra zuten euskara (gehiago) ikasteko. Gainera, eta ohar bedi honetaz, euskaraz ez zen bospasei dotrina baino; gaztelera, aldiz, baziren argi-taraturik hainbat liburu ia kultur arlo guztietan, eta kultura hori zen eskuratu eta euskararatu behar zena.

Por el contrario, hay mucho escrito en castellano en las más de las artes y ciencias, especialmente en lo doctrinal y moral. Para entender estos libros y traducirlos al bascuence en todo o en parte, sólo puede servir, como es claro, un diccionario en que vayan antes las voces castellanas y se sigan las bascongadas, que de otra suerte no se sabrán sino por casualidad (ibidem).

(12) Ik. gainera 15. oharra.

Baliteke oraindik norbaitek pentsatzea lan hori (eta egitura horretan) «para no envidiar a otras lenguas alguno de sus ornamentos y curiosidades» burutu zuela, Larramendi beraren hitzak erabili-az. Haatik ez zuen zertako. Jadanik egina zuen horrelakorik bere *De la antigüedad* edota *Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabrian*; aski zuen zerbait gehiago erantsi nahi bazuen hiztegiaren hitzaurrearekin, baina ez zuen zertan egin 800 orri handitik gorako hiztegirik. Ohar gaitezen gainera, bere ustez arrotzekin jotzen ari zen partida (Arakistainen harako *Pillotan abiatu dira/ Un Mayans y Armesto/ Oec ateratzen dabee/ Un Bascongado al resto hura*)¹³ irabazia zuela eta tanto askogatik, gainera (*ezta asco necatzen/ Nuestro Bascongado/ isterpetic ere/ les tiene ganado*)¹⁴. Burukomin gehiago ematen zion, ordea, euskaldunen epeltasunak eta behin eta berriz inarrostean zien:

Beste ainbeste, ta alaco cutunic zurea [Gandararena] bezalacoric, iñorc ere eztit eguin Bizcai alde ortatic; Guipuzetatic ere guichic: lo daude erne bear duten guciac, sorrac ta gorrac, otzac eta motzac, motelac eta gatzic-bagueac dirade. Madridtic, Paristic eta beste erri aietatic, Jaincoac daqui jaquintzu andietatic cembat alabanza izandu dituzten [liburuek]... Baña Euscaldunai egoqui edo arriari aimbat dezu, eta onechec sumindua nauca ecin geiagorafiaño (Telletxea-Lekuona «Gabon Kanta...» 161-2).

Era berean, erdal testuetako euskarazko zatiak ez dira beti arrotzak iraintzeko edota haietaz irri egiteko; *Corografian* esate baterako euskaldunen batasun faltaz eta alferkeriaz, eta horietatik datozkeen arriskuez, mintzo da:

Baldin elcar artzen baguendu gucioc, nor bere sallari dichecala, Francian icaratuco guntuque franciar guciac, ta Españian españiar guciac. Non da ordea elcarte ori? Nagoan isillic. Nere min garratzena da, are eztacuzcula onetatic darraizcun calteac eta gaitzac; eta dirudienez, ezagutuco ere eztitugula, ditugun on piscac galdu ditzagun artean. (*Coro.* 300).

(13) Ik. F. Fita «Suplementos al Diccionario Trilingüe del P. Larramendi, escritos en 1746 por el P. Fr. José de María Carmelita Descalzo» in *Revista de Ciencias Históricas*, Barcelona 1880-1881, 87. or.

(14) *Ibidem*.

Ez dut uste, beraz, kanpotarrentzat eta ez etxe koentzat idazten zuela (Cf. Villasante «La obra lex.» 173) mantentzen jarrai dezakegunik, ez eta bere hiztegia arrotzentzat eginago dela euskaldunen-tzat baino (Villasante op. cit., 480)¹⁵.

Ohar bedi, halaber, apologistek «apologista huts» diren neurrian bederen, ez dutela hiztegirik egin ohi, Etxeberri eta Larramendiren alderantziz, hain zuzen.

Bestalde apologien premia eta arrazoia ez da behar bezala ulertu izan, ene ustez. Etxeberrik, beste zeinnahi bezain zuhur eta praktikotzat dugun egile batek, euskararen apologia (baita zerbait gehiago ere, jakina) ematen digu bere *Escuararen hatsapenac latina ikhasteco* gramatikaren aitzinean eta honen sarrera bezala; irakur dezagun azkeneraino Larramendiren lehen obraren titulua: *De la antigüedad y universalidad del bascuence en España: de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas lenguas*. Gehienetan hemen egin ohi da planto, honaino heltzen denean behintzat; haatik, bada oraindik guretzat hemen garrantzizkoa dena: *Demonstración previa al Arte que se dará a luz desta lengua*. Hots, bai Etxeberrik eta bai Larramendik beharrezko, nahi ta nahiezko dituzte apologiak, gogoz kontra eginak direla ere ezin esan arren, batez ere bigarrenaren kasuan. Gramatika bat edota hiztegi bat «gauza serioegia» zen oraindik zeinnahi hizkuntzari buruz egiteko; merezi egin behar zuen hizkuntza horrek. Zehazkiago, frogatu egin behar zen deskribakizuna hizkuntza bat zela eta ez erdipurdiko ahuntzerdara edota zarata nahasi eta itsusizko sorta bat. Soilik hori egin ondoren jaitsi zitekeen praktikara eta gramatika edo hiztegia argitaratu edo argitaratzen saiatu, beti —gogora Etxeberri— argia ikustera ez bait ziren iristen^{15 bis}.

Apologista gehienek, «teorikoek», ez zuten bigarren urrats hori ematen, noski. Lehen esan legez beren egiazko helburua eta xedea ez bait zetzan hizkuntzan bertan, hizkuntzaren atzean edota —gehienentzat— gainean baino.

(15) Ez dakit duen garrantzia aitortu zaion P. Altunak argitaratu Larramendiren euskara-gaztelera hiztegiari. Bere *Hirukoitza* atzekoz aurrera jartzeko saio honek froga garbia damaigu, oraindik gehiago behar bagenu, hiztegia atzerritar etsaiei ihardesteko aterea dela pentsatzearen kontra; soilik Larramendiren heriotzak eta hark usu salatu (ik. Dic. Tril. XXVIII eta hur. eta P. Altuna Euskera 1967, 139) euskaldunen ezaxola eta zabarkeriak azal dezakete andoaindarraren euskara-gaztelera hiztegi hori lehenago eta gehiago ez ezagutua eta, horrenbestez, Larramendiren hiztegi-gintza lanak beste begiz ez ikusia.

(15 bis) Ik. eraskina.

Etxeberri eta Larramendi bezalako «praktikoek», ostera, lehenengo saioa armatzat, ezkutu eta gezitzat, erabili ohi zuten bigarrena heltzeko asmoz.

Bakarrik modu honetan ez ulertzeak azal dezake Azkue eta Aranaz geroztik Larramendik pairatu duen beherapen eta hondamena, Villasantek dioen bezala ia ia meziprezura iritsi dena: «para los hombres de nuestra generación el P. Larramendi resulta casi una figura ridícula» (ik. 1.ko atala).

5. *Hitzberriak*

Baina Larramendiren zuhurtasuna nonnahi eta nondiknahi nabaitzen da, begiak itxi nahi ez badizkiogu, bederen. Har ditzagun oraingoan Azkuez geroz hain ospe eta omen txarra duten hitzberriak, «neologismoak». Usu azaldu ohi da idatzirik hiztegiko erdal egokitzapenak betetzeko asmoz asmatuak direla, *pour épater* azken finean. Baina ez da horrelakorik; berak bait du aitortzen, aldarrikatzen hobe, —eta gazteleraz aldarrikatu ere, etsaiek ulertzeko moduan— «voces facultativas», hots, orain «hitz teknikoak» deituko genituzkeen horiek, guztiak asmatu dituela eta baita hizkera arrunteko beste bi edo hiru ere.

Hori, dirudienez, garai hartan gero baino hobekiago ikusia bide zegoen; hona bestela, bide berdintsutik abiatu zen Etxeberrik zer zioen:

cilhegui bada erraitea *Gueçurtatcea* cergatic ezta erranen
Eguiztatcea? eta *handiztatcea?*

edota pixkat aurrerago, orokorki hitzegiten duelarik, hitzberriak sortzeko ahalmena, hain zuzen, hizkuntzaren askatasuna lortzeko eta morrointza apurtzeko beharrezkotzat edukiaz:

[Bada jendea hitz berriak gaitzesten dituenaz ez ezagutzearen; baina ezin dira guztiak ezagutu]. Ordea cer erraiteco da noiz-eta-ere halaco hitçac eta icenac baitirateque berez escuarazcoac, eta escuararen erreguelen eredura moldatuac? edo erran behar da, hainec escuara nahi luquetela eguin den baino gathibuago eta lothuago? (Etx. 102)

eta hurrengo orrian

manera berean escuarac ere, arroçoinaren bidez bilha ahal ditezquen gaucaen causitceco eta eçagutçeco erran behar da baduela arguitasun eta libertate bera baldin orai-ere nahiago ezpaduçu erran hitzcuntça guztietaric hunc nec galdu duela centçua eta libertatea, bathere eztelarican centçua hambat seguitcen duenic eta libertateagatic hambat odol issuri duenic. (Etx. 103).

«Se piensa *a priori* que Etcheberri —admirador, seguidor, imitador y hasta transcriptor literal de Axular— es el autor menos indicado para recurrir a neologismos que, además de ajenos, eran de discutible calidad» dio K. Mitxelena (*Estudio 29*) Etcheberri Larramendiren neologismorik hartu zuen ala ez aztertzean. Baina arazo horretan, lanabes faltaz (ik. 4. oharra), sartu gabe, garbi dago Etcheberri teoriar zilegitzat jo zituen hitz berriak praktikan ere erabili zituela; hor dira bere gramatikazko *komunztadura*, *komunztatu*, *izenordain*, *laburdura* (=«syncopa»), *etorki*, *berretkailu*, etab. Bestalde ez ote zuten hitz berriak erabili XVI eta XVII. mendeetako lapurtarrek? Ez dut uste galdera alperrikoa denik ihardesten erraza ez badateke ere¹⁶.

Alabaina, hor ditugu Leizarragaren *zerbitzarikide* «consiervo» Larramendik bere alde aipatua (*Dic. Tril. XLV*) —eta erabil zitzakeen *burgeskide*, *konpункide*, *presonerikide*, *langile-kide*, *heredero-kide*, *soldado-kide*— eta *aitasaindutasun*, *aitatasun*, *aitzinaramendu*, *aniztasun*, *apazegagarri*, *anaietasun*, *apostolutasun*, *barnatasun*, *bezalakatu*, *bere-buruentar*, *targoa*, *tabernaklegile*, *txipitasun*, *kristinotasun*, *konpligarri*, *diszipulutze*, *doktrinagarri*, *ema-alhargun*, *enbaxadoregoa*, *enparagarri*, *ezeztazale*, *gogagarri*, *gorte-iaun*, *giza-peskadore*, *hautenetate*, *izengilatuki*, *itsu-aitzineko*, *lotgarri*, *mandatalgoa*, *reboltamendu*, *sabbathgoa*, *tenpletxogille*, *variabletasun*, eta beste, eta hor dira, halaber, Axularren *abantaillatuki*, *abenikoa*, *aitzinatzaille*, *arartekotasun*, *beheratzapen*, *bekaizkoa*, *desgogara(ko)*, *desohoragarri*, *edergaillu*, *emendaillu*, *eragotzkarri*, *erremediakizun*, *ethorkor*, *ezoren*, *eztheustasun*, *hilkizun*, *irakidura*, *iratzarpenta-*

(16) Hurrengo ahapaldietarako ik. G. Aresti «Léxico empleado por Leizarraga de Briscous», FLV 1973, 61-128, Fr. L. Villasante *Axularren Hiztegia*, Arantzazu 1973, K. Mitxelena «Euskal iztegiikeak...» 18 eta «Mendiburu eta Larramendi» 22.

sun, izendatuki, kontrapozoin, laboraritasuna, luthertasun, malenkoniagarri, manaiukortu, manukortu, minberadura, mugakide, nahastekamendu, sabeldarraiotasun, etab. hizkuntz landu eta ez-herrikoiairen lekukoak; ez ote da beren artean hitzberririk?

Ez dira gauza bera, jakina, Larramendi bezala, hiztegi orokor bat egitean kultur berbak oro asmatzen ihardutea premiak berdintzeko eta, noizean behin, bat edo beste sortzea mementuzko beharri aurre emateko euskaraz idatzi zutenek —trebetasun ezberdinez— egin legez; alabaina, bi joerak ditugu, azken finean, hizkuntz maila landu baten eraikuntzaren lekuko.

Badirudi gainera hiztegegile zaharrak ere, Pouvreau kasurako aritu zirela Larramendi baino lehen beren hiztegiatarako hitz berriak asmatzen hitz arruntei atzizki edo aurrizki emankorrek ezarriaz¹⁷. Ez da, beraz, Larramendi bide honetatik abiatu zen bakarra, inor baino urrutiago joan bazen ere bertan barrena.

Larramendi eta Etxeberri iritzkide ditugu:

El bascuence ha conservado la virtud de fabricar voces nuevas, compuestas de sus fecundísimas raíces, y el derecho de apropiarse y adoptar como suyas otras muchas de diferentes lenguas para significar nuevos objetos y ser riquísima entre todas (Dic. Tril. Pról. XXIX)¹⁸.

Saratarrarekin bat datorrela honetan ere, ez du onartzen hiztun arrunt eta landugabearen usadioa hitzberrien epailtzat; izan ere ez dira harentzat sortuak eta gainera, pixkanaka pixkanaka ezagutuko ere ditu^{18 bis}.

(17) Oihenartez ik. 36. oharra.

(18) Bai bataren eta bai bestearen idazkietako baieztapenetan geuk bereizi behar dugu, beraiek ez bait dute hori beti oihartzun, noiz ari diren euskararen *botereaz* eta noiz *egoeraz*. Argi dago azken finean 2. hau 1. koari egokitu nahi diotela hortarako euskaldunak zeutzan lozorro eta trebetasun faltatik ailtxatuaz: ik. gorago Gandarari egin gutuneko eta *Corografiako* aipatu pasarteak eta *Arteko* 389-90 orriak. Gogora bedi atalaren izena, «De la poesía de que es capaz el Bascuence». Aizpitarre eta RSBAPen hiztegiaren asmoa —gero Azkuerena bezala— soilik historikoa, «zientifikoa» izaki (ik. «Del fin del Diccionario Bascongado y medios generales para su formación» in *Colección de documentos inéditos para la historia de Guipúzcoa* VI, 100 eta 105) ulergarria da hitzberrietan *Hirukoitza* ez jarraitzea, beste hainbat gauzatan bere oihartzuna nabaitzen bazaio ere Mitxelena (*Colección...* VI, 125) oihartu legez.

(18 bis) Gonbara bedi Mendibururi egin Sarrera-gutuna, batez ere harako «Eztaitzátela tóntotzarren eráusiác ozpindú, ta icaratú: ez dirade gendártecoac, ez contuzcoac... Guizon zuhúr, cintzó, ménac eta jaquintsuac guré alde ditugunean, eztegiú béste gendála horiei jarámon bear, ez eta áyen esan mezánaz ajolaric artú», in *Autobiografía* 280. or.

Dirán que esas voces no se entienden. Lo 1.º no son voces del vulgo, sino facultativas, y basta que las entiendan los profesores de las ciencias, y es también lo que sucede a las voces griegas y latinas correspondientes. Lo 2.º importa poco que no se entiendan al principio, porque con el tiempo y la repetición se entenderán fácilmente. Lo 3.º aun para el vulgo son más perceptibles estas voces bascongadas, *jaincoquindea*, *izarquindea*, *ceruquindea*, *eraquindea*, que no las correspondientes *teología*, *astrología*, *uranología*, *cronología*, porque en estas nada le suena a bascuence y en aquellas sí (Dic. Tril. Pról. XLIV) ¹⁹.

Arrazoiok ez dira meziprezagarriak eta Larramendiren proiektuaren, kultur proiektuaren, aldeko lekukoak ditugu dudarik gabe. Egun Larramendiren asmakizunak gauza bitxi eta xelebrik egiten bazaizkigu ez da zilegi bitxitasun eta xelebretasun hori XVIII. mendeko hiztegiek gogoz bilatu zituela pentsatzea. Dugun irudia tarteko 240 urteen poderioz eman diren gertakarietako taitua da; eman zitezkeen baina jazo ez ziren iraganak asmatzen ihardun gabe, uste dut, dena den, kontutan izan behar dugula Larramendiren neologismoak epaitzeko orduan ezen Arana eta Azkuerekin galtzaile ateratzean bere obra suntsitu bazen ere, historia beste era batera gerta zitezkeela; orduan, onarturik eta hedaturik bere neologismok, Larramendi ez litzaiguke barregarria baina zuhur eta aurreratua irudituko. Ezagunegia da *ikurriña*, *aberri*, *abesti*, *Euskaltzaindi* eta *Euskadi* bezalako hainbat hitzek ez duela, berez, hark asmatuek baino merezimendu gehiago aurrera irauteko, baina begi bistan dago lortu duten atxekimendu eta bizia; gogora bedi egun literatur euskaran kultur gaietarako greziar berbak erabili arren badirela horietarako ere bere baitarik sortu dituzten hizkuntzak eta, urrutiago joan gabe, oraindik gure artean *urrutizkin* eta *berebil* ez direla guztiz ezezagunak.

Larramendiren helburua hizkuntza guztiek jakintza eta teknologiaren aurrerapenen oihartzun eta isladapenik agertu nahi edo ahal duten neurrian sentitu ohi duten beharra eta premia, hots, hitzberriena, asetzea dugu.

(19) Ematen duen azken arrazoa (4.a) 3.aren antzekoa da: «ninguno hay que esplicada una vez la voz bascongada no se quede con ella, y esa su significación, v. gr. *jaincoquindea* deritza *janicoaz*, ta *jaincoaren* gauzaz *hitzeguiten* duen *jaquindeari*...».

El bascuence no necesita de voces [berba teknikoez ari da] propias ni agenas porque ninguno ha hablado ni escrito en bascuence de las facultades y ciencias ni ha pensado que sea lengua oportuna para hablar en ella. Ahora está en otra disposición el bascuence y en punto para hablarse en cualquier ciencia y facultad, y es la ocasión de buscar las voces oportunas que hasta ahora no ha tenido o tomándolas de otras lenguas o inventándolas o formándolas de sus fecundas raíces (Dic. Tril. Pról. XLII-XLIII) ²⁰.

Hau jakina, ezin da betikotz asetu, *Fenixa* bezala suntsitzen ez den izaki horietakoa baita; alabaina mende eta garai batzuetan bes-teetan baino gorriago da, hain zuzen ere hizkuntzan isladatu nahi diren aurrerapenak edo aldaketak larriago diren neurrian. Esan beharrik ez dago nolakoak izan zitezkeen kultur gaietan berri eta arrotz zen Larramendiren garaiko euskaran.

Beharrian horri eman zion aurre Larramendik, bere erara eta bere ahalara, eta hor dute beren oinarri eta azalpen haren neologismoak.

Larramendiren hiztegiak mintzatzean hitzetik hortzera azkar, azkarregi, etorri ohi denez gero hitzberrien aipua ²¹, konpli da noiz, nola eta zertarako asmatzen eta sartzan dituen hitzberri horiek ikustea. Bere hiztegian lehenik onartzen dituen hitzak ezagutzen

(20) Euskararen kultur gaietako tradizioezaren kexua, jakina, goragotik zetorren, Etxepareren («nola batere ezten asaiatu bere lengoaje propioaren faboretan heuskaraz zerbait obra egitera») eta Axularren («Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu nola egin baita latinez...») eta kontrajarri ohi zaion Tartasen «hanko euskarak dü oguena, eta ez euskaldünak») obrak berme. Etxeberrik Axularren hitzak errepikatzen ditu ia oso osoan (ik. aurrerago) eta bere aldetik eransten du ezen «hainitz gauça hitzcuntça arrotcen itçalaren azpian guretçat ehortciric ceudecinac, Sarac escuaraz arguitara emanic, eraguin tuela Escual-herrico-tçat: non arroçoinequin erran baiteçaquet, Escual-herrico Athenas Sara lau-uridin» (Etx. 152).

(21) Ikerketa faltaz edo, ahaztu edo gutxietsi egin da *Hiztegi Hirukoitzak* garai hartako eta lehenagoko euskarari buruz eman diezaigukeen lekukotasuna, Mitxelenak (ik. *Estudio* eta «Euskal-Iztegigilleak...») aztertu eranskinez kanpo. Alabaina —eta hau garbiago agertzen da euskara-gaztelera hiztegia dazagunetik— *Hirukoitzean* gutxiena da asmatua eta gehiena herrik eta autoreetatik bildua. Jadanik J. C. Barojak (*Los vascos y el mar*, Donostia 1981, 49) markatu du bere aberastasuna itsas gaietaz dagozkien hitzetan; ez dut uste beste sailetan ere urriagoa datekenik eta oparoa dugu arkaismu (ik. ASJU XVII eta XVIII-2) eta are (ik. ASJU XVI 218 sv. *Kaltxapot*) *hapaxetan*. Guzti hau nabarmenago dateke hiztegiaren hitz altxorra euskara-gaztelera ordenan aurki argitara dadinean.

zituen liburuetan irakurriak eta herritik jasoak dira; bi sailotan, gainera, euskalki guztietarik hartuak, batekoak bestekoaren osagarri izan litezen eta erdarara alperrik eta berba jatorren kaltetan jo beharrik izan ez ledin (Dic. Tril. Pról. XXVIII-XLVIII). Hemen ere Etxeberrirekin bat dator:

baldin bertce hitzcuntcetā beçala içan balira lehenagotic liburuac escuaraz isquiribatuac, hetan beguiratuac eta altchatuac egonen ciren gaucen icenac eta mintçatceco hitz eta manera escuarazcoac; eta guisa hunetan baliatu guinaquean hetaz mintçatceco. Bainan nola içan baitira hain appurrac eta gutiac escuaraz arguitarat ilki diren liburuac hargatic alde batetacoac ecin jaquin cetçaquen bertce alderdico hitz guztiac eta gaucen icenac: eta hala demborarequin edocein lekhutan joan içan dira hitçac eta gaucen icenac appur bana emequi-emequi bertce gauça guztiac beçala truccatuz, eroriz eta ahantciz. (Etx. 399).

eta Larramendik

El guipuzcoano no tiene noticias si no es de la porción de voces que se estilan en Guipúzcoa, o aunque la tenga no quiere valerse de las que hay en Vizcaya, y lo mismo sucede al vizcaíno con la porción de sus voces respecto de las de Guipúzcoa; y como cada una de estas porciones no alcanzan para la universalidad de los objetos vulgares, se califica, pero sin razón, de pobre al bascuence (Dic. Tril. Pról. XL).

Egoera hau gainditzeko jartzen ditu hiztegian, inolako euskalki bereiztasunik gabe, bildu ahal izan dituen euskarazko hitz guztiak, Euskal Herri guztietara zabal litezen eta denetan ezagut.

Hauen ondoren erderatiko mailebu bertakotuak sartzen ditu (ik. aurrerago) eta, azkenik, soilik zientzia eta tekniketarako, berbak asmatzen. Hauek bai, guztiak asmatzen ditu, euskara gai horietan oraindik saiatu eta trebatu gabe bait dago: «El bascuence no ha necesitado...».

6. *Hitzberriak Larramendiren euskaran* ^{21 bis}.

Komenigarria iruditzen zait zerbait esatea asmatutako hitzberrien etorkizunaz eta, hasteko, Larramendik bere euskarazko idazkietan egiten duen erabileraz, erabilera hau dela kausa zalantzan jarri izan bait da Larramendiren «seriotasuna»; beste hitzez, idatzi izan da hitzberriak Hiztegiaren egiturak (erdara-euskara) jartzen zuen atekatik bere burua ateratzeko baliabide maltzurra baino ez zirela. Iritzi horri jarraikiz, ateka horretatik kanpo izan zenean Hiztegia osatu ondoren, eta honenbestez etsaien irainak suntsitu ondoren, asmaketok ez zuketen arrazoirik eta Larramendik bertan behera utziko omen zituen bere euskal idazkietan:

como ciertos médicos que vacilan en aplicarse a sí mismos los remedios que recomiendan a sus pacientes, no usaba sino con la más extrema medida de los neologismos que forjó con tanta facilidad y no se cansó de recomendar expresamente a todos esta moderación. (Mitzelena, HLV 98) ²².

Era berean, jarraitzaileak ez omen zitzaizkion itsuki jarraiki neologismoen praktikan:

La docena larga de escritores que surgen en Guipúzcoa y Vizcaya en la segunda mitad del siglo XVIII y la primera del XIX llevan el sello del influjo ejercido por el P. Larramendi. Por fortuna estos prácticos del idioma, aunque en teoría admiren al P. Larramendi, no le siguen a ciegas. Su fino instinto, su conocimiento del vascuence popular y del público concreto a quien dirigen sus obras, les preserva de incurrir por lo general en los neologismos que a manos llenas introdujo aquel en el *Diccionario Trilingüe*. (Villasante HLV 144).

(21 bis) Bidenabar, ez dut hurrengo lau ataletan Mitxelenak (Euskera 1984, «Gamiz aurkeztatzean») eskatu Larramendiren eraginaren azterketa zabalik egiteko asmorik; pozik nintzateke hemengo oharrek hortara norbait bultzatzea eta bere lanean lagundu.

(22) Berdintsu Sarasola HSLV 55, A. Sagarna «Euskara XVIII. mendean» in *Hizkuntza eta literatura* 3, 17-115, Eusko Ikaskuntza 1984 eta L. M. Mujikaren *Historia de la literatura euskérica*, Donostia 1979; azken honetaz ik. J. Kortazar, J. Etxezarraga «Flore Sorta Spirituala» in *Pott Tropikala*.

Arazo hau zehazketa faltan dago, ordea. Larramendik erabilzen zituen hitzberriak bere euskarazko zatietan eta hori berak dioskunez baita Hiztegia argitarara baino lehen ere:

Solo tres voces del lenguaje vulgar son de mi invención y de que estoy usando muchos años há, y son *sutumpa* por cañón de artillería, *godaria* por chocolate y *surrautsa* por polvo de tabaco. (Dic. Tril. Pról. XLI).

Har dezagun, adibidez, ezagutzen dugun egilearen lehendabiziko euskarazko testua, *Artearen* 391. orritik aurrerantz ezarri zituen poesiak, alegia.

Hor ditugu, besteak beste, *onesgun* «amor», *icigun* «susto», *escutagai* «hecho escudo», *hilgun* «desmayo», *bostgun* «lustro», *esangi* «refrán». Bada, *escutagai* salbu, guztiak aurkitzen ditugu geroago Hiztegian, bakoitza bere lekuan bildurik.

*San Agustiñen Doanditzan*²³ honako hitz berri hauek irakur ditzaiegu: *donkidatu* «dedicado», *doanditza* «santidad», *guzierako* «católico, universal», *eginkizuna* «hacedero», *ezinkizun* «imposibilidad», *arge* «eclipse», *izkunde* «manera de hablar», *noratu* «llevar a dónde»; Telletxeak argitaratu (ASJU IX (1975) 179-184) *Santo Tomasen* otoitzean eta *San Kasimirorean* iragancor «pasajero, provisional», *maitarri* «digno de ser amado», *ongite*, *jaiera* «devoción», *garaitasun* «superioridad», *oarti* «atentado, cuerdo, prudente», *birakor* «vulnerable»; *eskuskribatua*, *usteketa*, *lilluramendu*, *antuste*, *jaiera*, *itsumende*, *gezurtamen*, *hizkunde*, *ikusbide* «demostración», *jakinbide* «doctrina», *esakari* «mensaje, discurso», *txarlari*, *egikari* «quehaceres», *eskukoi* «que está a mano», *ballera* «congregación», etab. Mendibururi bidali hitzaurre-gutunean, eta *beardanezco*, *aldagarria*, *mindun*, *beargaya*, *guciaquicoac*, *gaitzbagueena*, *ongille*, *lauridiquituac*, *hizcunderen*, *erremediaquizun*, *abarraqituac*, *sinistaquizuna*, *gozagarri*, *pecataritasunean*, *jaiera* eta beste ASJUren ale honetan argitaratu 1737ko sermoian.

Lekuko hauen aurrean ezin da esan euskarazko zatien eta bere asmo edota deklarazioen artean kontraesanik denik. Ezin espero

(23) Euskal-Erria 1885, 161 eta hur. Hitzaldia «1738-1760» fetxatua dator, ez dakit J. I. Aranaren ala egilearen beraren eskutik; orobat suposatu nahi dut ezen argitaratzailearen aldaketak soilik grafiaren aldetikoak izan direla.

dezakegu, ez eta gutxiagorik ere, *Hiztegi Hirukoitzeko* hitzberri oro Larramendiren testu laburregietan agertzea; ez du lekurik, betarik ez beharrik. Bihur gaitezen berriro egilearen asmoetara eta gogora dezagun hitzberriak soilik teknika eta zientzi gaietakoak («facultativas») direla; ez ditugu, beraz, hortik kanpo zertan espero eta hau ez Larramendiren ez besteren testutan.

7. *Hitzberriak eta kultur edukinak.*

Hitzberriak ez ziren oso premiazko dotrina labur eta sinpleak egiteko; batez ere euskara idatzian tradizioz bada erlijiozkoa izanik, hain zuzen. Alabaina, liburuak luzatuaz eta gaiak ugarituaz eta jaikiago eginaz joanez gero, lehen ukitu gabeko gauzak ateratzen ziren eta horiekin batera gauzok deitzeko berben beharra sortzen ²⁴.

Bizkaian, badu A. B. Moglek beste zenbait euskarazko lan, *Ipuin Onak* famatuenez at; horien artekoa dugu Luis de Borbon kardenalaren itzulpena (1820). Honela argitzen ditu J. Urkixok (ik. RIEV 25, 682) itzulpen honetako eta alegietako hizkeraren arteko ezberdintasunak:

Entre el vascuence empleado por doña Vicenta en estas fábulas y el que usa en la citada Pastoral hay bastante diferencia, porque, dada la naturaleza de este último escrito, y deseando huir de las palabras castellanas, recurrió a los neologismos [Larramendirenak] que, a decir verdad, son bastante transparentes ^{24 bis}.

Berak baino lehen bere osabak ere badarabiltza *bialgiñai*, *euntarija*, *ekautubak*, *suauts*, *sutunpa* eta beste halako zenbait, parentesi batez erdal ordaina emanik bada ere ²⁵; ez ditu nonnahi erabil-

(24) Cf. Mitxelena «Aurkezpena» 15. Gainera fenomeno hau 1.ko larramenditarren idaztietan ere kausi dezakegu. I. Sarasolak ohartu zidan bezala Kardaberatzen obra guztia bi zati guztiz ezberdinetan sailka dezakegu hitz berrien erabilerari dagokionez: *Euskeraren berri onak* eta beste guztia. Kultur edukinak badu hortan, noski, garrantzirik.

(24 bis) Markatzekoa da «edo taktika» darabilela usu: *baquida edo general*, *arimazain edo curei*, *siniste edo fediaz, onerechi edo caridadia*, *jajoterri edo nacinoe...* Urkixok orri baten facsimila baino ez du ematen eta aurki osoa ASJUn berrargitaratzeko asmoa dut.

(25) Ik. adibidez J. Kortazar «¿Fábulas inéditas de A. Moguel?», FLV XII (1980) 261. or.

tzen, ordea. *Peru Abarkako* guztiak, adibidez, latinetik itzultako zatietan aurkitzen dira.

Gipuzkoan, hitzberriak ugarien erabili zituztenengana igaro baino lehen, Mitxelenak (ik. «Aurkezpena») aipatu J. B. Agirrerren bana-kei J. B. Etxegarairrenak gehi dakizkieke: *euskaritxoa*, *premileizan*, *doikerra*, *asmegitari*, *artzaigokia*, *otsastetxoa*, *jardinzayen*, *sarartea*, etab.^{25 a}; hemen ere erabilera ez da itsumustukoa: neologismo gehienak, ia guztiak, poesien titulu edo azpituluetan ageri dira.

Iturriagak sarri darabiltza Larramendiren hitzberriak bere el-karrizketetan: *oscaitako* (=«remedio»), *ezadea* (=«jugo»), *ganbusia* (=«tinte»), *omanea* (=«fino»), *ganbusitzeko*, *altistearekin* (=«perla»), *legardatzen* (=«se les preserva»), *likurtatuak* (=«barnizadas»), *atakidak* (=«compuertas»), *sutautsa* (=«pólvara»), *sutunpada* (=«cañonazo»)^{25 bis}.

Haren adiskide eta lankide zen Iztuetaren obrari dagokionez —nahiz eta zaldibiarraren hizkuntza hitzberri gehiegikoz josia dela errepikatu *Genio y Lengua* ondoren— *Gipuzkoako Dantzak* eta, bereiziki, *Gipuzkoako Kondairaren* izenak berak pentsarazi behar liguke «gehiegikeria» horien atzetik ez ote dagoen gai jaikiagoen erabilera eta euskararen barrutian erlijioaz kanpoko kultur gaien tradizio falta; areago ezagunak izanik itzultako pasarteen eta bere kasa ari denen arteko hizkuntz ezberdintasunak²⁶.

Mendearen bukaerarantz eta arrazoi bertsuengatik aurkitu ahalko dira hitzberriak (Larramendirenak eta harenen antzera asmatuak) Lore Jokoetan eta Donostiako Teatro belaunaldian:

La influencia de Larramendi en el terreno léxico nunca ha sido tan fuerte como en los Juegos Florales. Alrededor de ellos surge un espíritu nuevo que transformará en muchos aspectos las características de la literatura anterior. Es ahora cuando comienza el teatro vasco moderno, se desarrolla una producción poética importante y la prosa

(25a) *Festara*, Auspoa 1969, A. Zavalaren edizoa.

(25 bis) Uriarte, Duvoisin eta Intxauspek ez dute, horrelakorrik ez baitziren Bonaparteren helburuetara egokitzen.

(26) I. Pagolak (ASJU XVIII-1 (1984) 58, Consistorioko dokumentuez ari delarik) egin duen «hizkuntz landua = hizkuntz larramenditarra» berdinketa baieztatu daiteke dokumentu ofizialetarik kanpo ere, cf. adibidez Uli-barriren *Gutun Liburua*. Ik. eraskina.

deja de ser predominantemente religiosa. Se trata de buscar a la lengua nuevos campos de cultivo y en este intento se recurre, con una profusión hasta entonces desconocida, al Diccionario Trilingüe... De Larramendi no sólo se toman sus neologismos; también se extrapolan a otras categorías gramaticales... se imitan sus procedimientos para crear voces nuevas... ²⁷.

8. *Larramendi eta euskal tradizioa.*

Txomin Peillenek eskuetara berri digun Josef Egiategi zubero-tarraren *Lehen liburua edo filosofo huskaldunaren ekheiak* (1785) ²⁸ Larramendiren hitzberrien (eta hiztegi osoaren) eragina berrera-kustez gain, eragin eta arrakasta hortaz hitzegiteko beta ematen dit.

Usu aipatu izan da, *Genio y Lenguaz* geroztik, gutxienez, Iparaldeko eta Hegoaldeko literatur eta hizteigigintzaren historien «martxa bereziak» direla eta, Iparra eta Hegoaren arteko muga; muga honek azalduko luke bi aldeen arteko harreman falta eta, azken finean, bakoitzaren izaera ezberdina (hangoak «praktikoago eta errealistago», hemengoak «idealista eta tematiago»).

Egia da hartuemanak ez direla askok nahiko genituzkeen bezain bortitzak izan; alabaina ez dira meziprezatzekoak ere eta ikerketak aitzina ahala nabarmentzen eta handitzen doaz: Larramendik hiztegiaren hitzaurrean dioskunez ezagunak eta irakurriak ziren bere aldiko Nafarroa Garaian lapurtar liburuak; Larramendik berak Bizkaiko eta Nafarroako zenbait liburuxkaren alboan Leizarraga, Haranburu, Etxeberri Ziburuko, Axular, Harriet, Xurio, Etxeberri Sarako eta besterenak dakartza hiztegian ematen duen aurreko euskal literaturaren zerrendan. Hor egiten dizkien laudorio eta gorazarreak aski ez balira, Gramatikan poesiari eman ataleko aipuetan eta, batez ere, hiztegian egin zuen haien erabilera daku-

(27) Ines Pagolaren «Neologismos en los Juegos Florales» 55. «Aurkezpen»eko 15-16 orrietan Mitxelenak ere aztertzen du Iztueta, teatrogile eta Lore Jokoetako egileen neologismoekiko jokaera. Azkuek bere *Izkindean* eta bestetan egin zuen *Hirukoitzaren* erabilera hain esanguratsuaz ik. I. Pagolak EHU-ko Udako III. ikusturtean emandako hitzaldia.

(28) «Euskararen Lekukoak» Saila, Euskaltzaindia, Bilbo 1983.

sagu haienganako zorra eta haiekin lotzen duen katea; katea honek Añibarrarekin jarraitu zuen, bere maisuaren bitartez ezagutu bait zuen Harriet gramatikalaria —hurrengo mendeko Harriet hiztegigileak bizkaitarra ezagutuko legez— eta, batez ere, Axular, zeina Larra mendiren goresmenen eraginez bizkaieraz ere jarri zuen²⁹; dakigunez, ez zen izan Axularrengan edan zuen andoaindarraren ikasle bakarra, Ubillos berme³⁰.

Loturak ez dira hortara mugatzen: Duvoisinek Kardaberatz lapurteratzen du; Mogelek —nola ongi ez badakigu ere—³¹ ezagutzen zuen Oihenart, *Peru Abarkan* erakutsi bezala. Oihenart bera ere Hegoaldekoeki adi zegoen: edolaere ezagutzen zituen 1596ko errefrauak eta bere *Arte poétique* Bizkaiko poesiak ere irakur daitezke adibide gisa; Isastik Detxeparerenak aipatzen ditu...

Ez dira hartueman gehiegi³², agian, bai adierazgarriak, ordea. Euskal literatura zaharraren *ranking* bat eraiki nahi bageneza izen gutxi bide legoke aipatuen aurretik. Arrazoiak ez dira zailak antzematen: herrixka edo bailara nimiño baterako dotrina llabur bat, usu enkarguz, idatzi behar zuenak ez zuen hortarako bere egunoroko bizitza arrunt eta hertsitik burua zertan jaikirik eta gainerako idazleek beste lurraldeetan zer egiten zuten ikasirik. Horren ondorioak ezagunak dira: euskal liburu gehienak oraintsu arte ezezagunak ziren, usu beren euskalkiaren mugetatik ateratzeke, are estatu mugarik ez zenean ere; soilik honi euskal literaturaren historiaren ezagutza falta gehituaz uler genezake *a novo* behin eta berriz hasteko ohitura hain zabaldua, baita ehundaka aldiz itzulitako *Kempisa* bezalako liburuekin ere^{32 bis}.

Baina baziren gehiengo honetatik ateratzen zirenak gainerakoen berri ikasteko, gorago izendatuen mailara iristen ez badira ere.

(29) Ik. «Iracurleari» RIEV XIV (1925) 297.

(30) Ik. Mitxelenaren (*Linguistika eta literatura bide berriak*, Bilbo 1981, 276.or.) ohar interesgarria, Ubillosek lapurtarrarengandik mailebatu pasarte batekin.

(31) Ik. Mitxelenaren, «El texto de Peru Abarca», ASJU XII-XIII (1978-79) 201-224, eta batez ere 209.or. Ik. eraskina ere.

(32) Ohar bedi hemen soilik Ipar eta Hegoaldearen arteko harremanez ari naizela; horrenbestez ez ditut ukitzen Oihenart eta Pouvreauren artekoak (eta honek erabili aurreko idazleen arazoa, ik. Urkixo eta Vinsonen RIEV 1909 eta 1910eko lanak) edota Iztuetak, Iturriagak, Zabalak, Ulibarrik, A. B. Mogelek eta bestek beren artean izandakoak. Garbi dago, ordea, besteen osagarri eta testuan segidan defendatuaren indargarri direla.

(32 bis) Villasantek (HLV 18) kontatzen duen *Kempisaren* aurreko itzulpenik zenik ere ez zekien apaizarena oso adierazgarria da.

Hori da, adibidez, ezagutu berri dugun Etxeberrri Luzaidekoren kasua³³.

Honela azaltzen du Etxeberrrik bere lana Iruñera baimen eske bidali gutunean:

He traducido la Doctrina del P. Astete al bascuence, añadiendo algunas cosas muy utiles, valiendome p.^a esto de los dialectos y palabras q.^e son mas usuales en este pueblo y otros varios, como también de *libros bascongados, q.^e ciertamente han merecido la aprob.ⁿ del P. Larramendi, memorable p.^r haber lo invencible vencido*, y de otros versados en el idioma³⁴.

Segurolak ohar batean dioenez «inolako dudarik gabe esan baitaiteke Larramendiren euskarazko liburuen katalogoan lehen lekuan datorren 1733ko Lavieuxville Apezpikuaren manuz argitaratutako dotrina bederen irakurria zuela».

Etxeberrri Luzaidekok ez eze atal hau ireki duen Egiategik ere Hiztegiaren hitzaurrean ikasi zuen euskal literaturaren historiari buruzko guztia³⁵, euskal tradizioaren jarraipenean Larramendik izan zuen berebiziko garrantzia berretsiz.

Ez zen mugatu, ordea, asko izanik, lehendik genuena biltzera eta besteren eskutan jartzera; aurretik euskarak ez zituen maila eta tokietan sartzeko behar zuen hitz altxorra sortzen saiatu zen. Hitz altxor horren erabileran oinarriturik —eta andoaindarraren obraren bitartez aurkitu zuten tradizio kateari loturik, hoberenak bederen— idazle andana luze bat eman zen mende t'erdi batez.

Orain arte hango hiztegiatara (Hiribarren eta Harriet eta hauen zordunetara) mugatu ohi da *Hiztegi Hirukoitzak* Iparraldean izan zuen eragina; baina bada gehiagorik.

(33) Ik. ASJU-ko ale honetako I. Segurolaren lana.

(34) Azpimarra neurea. Grafia orijinala mantentzen dut Segurolak bere edizioan egin moduan.

(35) Irakurri, aldiz, ez dirudi Oihenartez kanpo bere liburuan Larramendirengandik hartutako zerrendatik asko egin zuenik besterik uste badu ere J. Casenave-Harigilek (Euskera 1981, 700), Peillenek hitzaurrean erakutsi legez.

Alde batetik, Txomin Peilleni esker badazagugu orain XVIII. mende bereko Belako zaldunaren hiztegia ³⁶, jada hartaz goragokook baino ia mende bat lehenago baliatu zena; bestetik, Vinsoni esker-rrak, ezagutzen dugu —izenez behintzat— Robinek mende horren bukaerarantz kopiatutako *Birjinia* nobelatzar (lau liburuki) eskuizkribatua. Villasantek dioskunez «particularidad notable de esta obra es la introducción masiva de neologismos, sea de origen larramendiano o sea de propia invención» (HLV 116).

Egiategiren *Filosofo Huskaldunaren Ekheian* ere jesuitaren lanak Iparraldean izan zuen eraginaren lekuko franko aurki genezake, bai ideietan, eta baita hainbat eta hainbat hitzetan: *zeiakinen, dierri, banaitiak, akadoikeria, altistak, posmagarri, berezitan, ekidar, zekidora, ongondiaz, iripediaz, megopia, irudestia, otsandikia, eripeturik*, etab.

Azterketa berri eta sakonagoak eragin hori handitzera datozke seguru asko, Peillenek, Seguroiak eta bestek egin aurkikuntzek argiro erakusten bait digute badirela oraindik Larramendiren obraren arrakasta neurtzeko eta bere papera behar bezala ulertzeko testu ezezagun edo erabiligabe guztiz garrantzitsuak; ezagunak ere behar bezala miatu ote dira? Ezezkotan nago ^{36 bis}.

9. Larramendi eta gerokoak neologismoei buruz.

Badirudi usuegi hurbildu garela Larramendiren obrara bestegandik sortu aurreritziak harengan frogatzera ³⁷. Ez dakit esate baterako nola ez den gehiago zehazten Larramendi eta zenbait la-

(36) Ik. Txomin Peillen, «Bela-ko zaldunaren zuberotar hiztegia XVIII. mendean», FLV 1983, 127-146. Ipartar laiko ikasi eta hitzberrizaleen tradizioa gutxienez XVII. mendean geroztikoa dugu Oihenart ere barne bait dugu. Oihenart, gainera, ez zen izen berriak sortzera mugatu, geroago (eta zabalago) Elizalde bezala aditz sintetikoak ere sortu bait zituen.

(36 bis) Cf. Mitxelenaen iritzi berdintsua 21bis oharrean aipatu pasarteetan eta ik. halaber eraskina.

(37) Eta historikoki bidegabekoak diren salaketak egitera: «sus indiscretos procedimientos dejaron expedito el camino a las aventuras de Astarloa y de las ulteriores escuelas reformistas». Ibar, *Genio y Lengua* 120. Astarloa, Erro eta besteren saio eta teoriak zein bere egileari gaineratu beharko litzaizkioke kontu garbiketan ari bagara, Larramendi ez bait zen izan, ez gutxiago ere, haien sortzaile ez zabaltzaile (ik. Castañós 209 eta Tovar 112). Ibarren liburua bere garaian onuragarria zelarik ere txit, ez da batere zuzena, ene ustez, Larramendirekin.

rramenditar eta Sabino Arana eta zenbait sabindar beste aldetik gonbaratzean. Egia da bai batzuk eta bai besteek hitzberriak erabiltzen dituztela nahiz eta, bide batez, esan behar den ez dituztela hitzberri berdinak erabiltzen. Haatik bi taldeek oso iritzi eta jokamolde ezberdinak dituzte euskal hitzen altxorraz: zein diren hitzok, zer egin behar den erdaratiko hitzekin, euskal literatura zaharragoak merezi duen begiramenaz eta honelako arazoei lotu beste hainbat galderetan beren ihardesprenak maiz dira kontrakoak eta are guztiz kontrakoak ere.

Larramenditarrek *halabeharrez* sortzen dituzte berba berriak, ez erdaratiko euskal hitzen ordekotzat baina erdal hitz ordaingabeak itzuli ahal izateko: *txadona*, *jaupa*, *donoki* eta *gabeuki* ez dira larramenditarrek, bai aldiz *izarjakinde*, *neurkidagarri*, *zenbatiera* eta *berterosi*; halaber Larramendiri ez zitzaion burutik pasa bere aurrekoren baten sermoirik «euskara garbian» ematea Sabinok Mogeekin egin legez eta hori badazagularik zer nolako iritziak zituen bere garaiko sermoi eta sermoilari gehienez. Ezin pentsatuzkoa litzateke Larramendirengan «Jelalde»k (*Lecciones de Ortografía del Euzkera Bizkainoren* autore berak) «Geure Atta Goikua» izenaren pean atera zuen *Pater nosterraren* itzulpen zuzendua: «Geure Aita Goikoa, zeure izena donetsi bedi; zeure ala belkigu; zeurea gurea egin bedi, donokian lez ludian be, etab.».

Ez zait hemen axola Sabinok Mogeli egiten dizkion zuzenketak gehienbat gramatikazkoak izatea eta ez hitzen garbitasunari dagozkionak, baina gertaera horrek tradizioari buruz suposatzen duen jarrerera. Jakina da (cf. E. Ibarzabal, *Koldo Mitxelena*, 25-26) honetan ere «maisuaeren» jarraitzailetzat beren buruak aurkezten zituztenek Sabino baino aurrerago jo zutela usu. Horrela, adibidez, euskal zenbakera «jatorraren» arazoan: Sabinok kontraesan bat zela markatu zuen hitzezko hogeirako zenbakerearen eta hamarreko idatzizkoaren artean. Alabaina, azkenean amore eman zuen eta kontraesan hori onartu; ez ordea bere eskolako guztiek: ikus adibidez *Zenbakizti lengaien ikastia*, *ikaslearen idastia* *Eusko Ikaskuntzak baietsia* (1933) non 11. orrian *berramar* (=20), *iruramar* (=30), *laramar* (=40), *bostamar* (=50), *seiramar* (=60), *zazpiramar* (=70), *zortziramar* (=80), *beatziramar* (=90) bezalako pitxiak irakur daitezkeen.

Ez dut buru hau bukatu nahi delako Ayengiz'tar Iñaki Aba Txoñoduna batek 1922an Euskera aldizkariko «batasunerako asmo-lehiaketan» argitaratu (eta I. Sarasolak bere HSLVn gogoratu) zuen «proposamena» hona ekarri gabe:

Euzkerarik eztakigulako biar dan beste, eta ganera ixen oker batzuk daukoguzelako, iparran itz batek gauza bat dikur, eta Gipuzkuen beste bat, Bizkayen be ostera beste bat, auxegaitik uste dot ixen gustijen azterketie ein biar geunkela: Adibidez, Sein (infante) bada «Senar» (sein x ar) (infante varón) beraz «hijo» ta ez (marido) orretarako baidago «ezkona» ta.

Alaba, seme, emazte eta emakume ere aldatzeko proposatu ondoren beste honako honekin bukatzen du:

Ona bada emen Babel txagaraiko nastie: Euzkeldunek «Ama» (madre) Tagalotarrek (Manila ugartekue) (padre) guk «anai» (hermano) eurek barriz (nana=madre) guk «andrea» (Señora) gerkarrek (hombre) guk «Senar» orain (marido) len (hijo) Txiaña'rrek (engendrar varon); aztertu ta orraztu daigun ba lenbailen lortzeko «Euskel batazune». (26-27).

«Ezjakin eta atzenengo euzkeltzalia» zela ezagutuaz hasi arren Aba txotifodunaren aurrean argitaratu bere lana, «erdel usaindun itz oro kendu, ta garbitu Euzkera, eta kenduen orde besterik ezpadago euzko-sustraidunak azterketa zuzenagaz eraldu» behar zela proposatzen zuen Gaubeka'tar Bitor irarkijak. Ohar bedi ez direla erdarakadak ezabatu nahi baina «erdel usaindun itz oro» eta, soilik ondoren, ikusi euskal ordain jatorrik duten ³⁸.

Seguru asko (cf. Mitxelena MILVen erreseinan) egia bide da *erudito energumenoen* edota *energumeno eruditoen* taldeak, Jerjesen harmadaren dardoen gisa, eguzkia ilunduko lukela denak batera hegaldaka eginez geroz; ene ustez, ordea, Larramendik ez luke txori aldra horrekin hegan egingo ^{38 bis}.

(38) Larramendirengandik ezin urrutiago dagoen iritzi honekin gonbaratzeko ikus hurrengo atalean aurkeztu testuak.

(38 bis) Bai, aldiz, Urkixorekin izan zuen eztabaidan (Euzkadi 1914-VIII-17 eta RIEV) erdarakada asko alegia «orrelako idaztirik (libururik) iñun aurkituko baneu, apurtu egingo neuke ta iñok ez leuke jakingo, lotsagarriak diralako» bota zuen Kirikiñok. Urkixoren arrazoizko «... soy partidario de la purificación (relativa claro está) del léxico vasco. Lo que desapruebo es que ejerzan de *purificadores* y de etimólogos, los que carecen de preparación suficiente para tan difícil labor»aren erantzunean Arana eta Arriandiagaren «itz eder egokiak» defendatu ondoren honelako forma lotsagabe (eta lotsagarrian) bukatzen zuen: «Eta «lo que desapruebo»... Zer gero? Nor zara ba zu erdira urteteko esaten ontzat ala txartzat artzen do»

10. *Mailebuez*

Eta «sabindarrekin» dituen ezberdintasunak ez dira soilik hitzberrietara mugatzen, esan bezala. Garbizale zen Larramendi noski, eta behin eta berriz iharrosi ohi zituen halako ahuntzerdara, euskara, gaztelera eta beste hizkuntzen nahaste mordoiloak, lehenago Etxeberrik egin bezala.

mintçatceco manera astrugaitz nahasi maneragabecoa, hitz bat latinez, bertcea francesez, bertcea gastelaniaz, edo italianoz, eta bertce gaineraco ahotic atheratcen tuzten hitcez jar çatezque dudatcen ala diren Antipodetacoac, ala Barbariacoac; guisa hunetan eguiten dute saltsa bat hambat saltsacari diferentez appaindua, eta hain çappore gaitcetacoa, non munduan den sabeldarrajoric handienari-ere eman baiteçoque higuintça, edo goragalea. (Etx. 167).

Horrelatsukoak anitz eriden daitezke, ez soilik hiztegiaren hitzaurrean, baina baita *Corografian* edota Mendibururi egin hitzaurre-gutunean ere:

Alabañan [sermolari] guchic daqui bere jayeterrico Eusqueraren erdiá, eta alpérrac diradén bézala, eztute icasi nai gueiago, ta éztie nai béren burúai atsecabéric emán. Baña onetatic cer guertatzen dá? Daquiten pisca arequin, hitz molcho, escúmen baten diña eztán arequin nola ecifi adierázo dituztén beren esacariac, badarasáte púlpituan hitzera naasi bat, beñ Eusquéra, beñ Erdéra, beñ Latiñera, gucia leudatuá, ciquinduá, baraustuá: ceñean dirudién, igo diralá gaiñ artará enzúle[ei] burlá eguitera. (Mendibururi egin gutuna, *Autobiografía* 279).

zula ori? Idatzi zar barregarri batzu idoro dozuzala or-emen, eta naikoa diru daukozula *Revista Internacional de Estudios Vascos* zeure lepotik argitatzeko ta zatoz burua nagusi egiten? Ez gero iñori barrerik eragin gizona! Zuk ontzat emon naiz txartzat emon... parra; euskeraz noraiñoko mutilla zarean ikusteko gagoz ondiño ta. Zer diñot? euskeraz mutilla zarean be ondiño ez dozu erakutsi ta. Billatu egizuz, billatu, artarako garra daukozu ta, idatzi zarrok; baiña euskereatzaz *maisukeriak* egiten etzakiguz etorri, gizona, Jainkoarren!» Aipamenak *Edo geuk edo iñok* ezen (X. Perea eta A. Arejitaren ed. 51-56.or) arabera; Itziar Laka adiskideari zor diot «altiste» hau.

(39) Cf. «después acá [Gramatika eta Hiztegiak geroz] se predica la palabra de Dios con fruto, limpieza y decencia, y es lo que no había antes». Larramendi, *Autobiografía*, 40 (Telletxearen edizioako 28.or.).

Haatik, ezin har dezakegu bere pensamoldea eta jokaera garbizalekeriaren lekukotzat.

Mitxelenak idatzi legez («Mendiburu eta Larramendi» 20) «Neke-rik gabe ager daiteke zer nahi izan zuen Larramendik euskarari, euskara idatziari, buruz. Euskarak burua jasoko bazuen... premiazkoa iruditzen zitzaion... artean ez bezalako euskal prosa erabiltzea: garbiagoa, jatorragoa, apainagoa». Gure artean garbizaleek azken boladan arrakasta eta begiramen handirik izan ez dutenez gero, komeniko da garbitasuna eta garbizalekeria bereizten hasia Larramendik —lehenago Etxeberrik bezala— ez bait du ezer bigarrenetik. Mitxelenak (aip. lan. 21) ohartarazi duenez, Akademien garaian bizirik halabeharrez zatekeen garbizale euskara hizkuntza landuen sailean sartzeko. Bestalde, Larramendi ez da mutur-zale mailebuekin:

«Pero ni tanto ni tan poco para nuestro vascuence. Ni tanto como los ingleses, pues eso es hacer poco aprecio de su lengua y abrir camino al olvido de los voces propias; ni tampoco como los franceses, porque eso es tener cautivo el entendimiento, que por penuria de voces desvirtúa cien pensamientos brillantes. Se debe guardar el medio que hemos propuesto» (*Corografía* 294ean).

Pasarte ezin garrantzitsuagoa iruditzen zait Larramendiren asmoz jabetzeko; beldur naiz, ordea, ezezagunegia ez ote den eta ausnartugabea.

Garbitasun nahiean ez zen bakarrik; hara zertarako ondu nahi zuen M. Harrietek gehigarri bat: «berce parte da escualdunec berce hitzcuncetariac hartuac dituzten hitcen khenceco, hala nola *intencionea, inclinacionea, inquietatcea, ingrata / chedea, pendura, khechatcea, esquergabea, &c.* Lehenbicoac berce hitzcuncetariac dire eta berceac escuaraz dire» (*Gramatica escuaraz eta francesez*, Baiona 1741, 507) ^{39 bis}.

Ongi zekien *estandarte, ibero* eta beste hainbat eta hainbat hitzi euskal etimologia eman arren latinetik eta erromantzeetarik berba anitz zuela euskarak; pentsatzekoa da gainera euskal etimologia ez ote zien emango taktika maltzur bezain eraginkor batez, «zorrak

(39 bis) Dakigunez (ik. hiztegiaren hitzaurrea eta Altunaren artikulua *Mugan* Larramendiren bibliotekaz) andoaindarrak ezagutzen zuen Harrieten liburua.

hartzeko bihurtuaz» Mitxelenak («Mendiburu eta Larramendi» 22, «Aurkezpena» 14) definitu legez, euskaldunek beren lanetan erabil zitzaten haien etorkiez axolatu gabe; bada honen aldeko frogarik bere jarraitzaileengan (Egiategi, Lore Jokoetakoak, Iztueta, etab.)⁴⁰. Nolanahi ere, kontu honetan agertzen duen jarrera ezinago garbia da eta lekukotasunak ugariak: har dezagun esate baterako Mogelek luzaz eta hitzez hitz bere lehen liburuan —eta Orixek bere hitzaldian— aipatuarren zorigaitzez ezagunegi ez den testu batetik, Mendibururi hitzaurre-gutun bezala bidali zion testu hain eder zein interesgarritik. Hor, mordoiloak ongi jorratu ondoren, honela jarraitzen du:

Beste bátzuec dituzu, guré Eusquéran nai ez luquéenac beste hizcúndeetatic hizcho bátere: eta onén bidéz epáiten, ta ciatzen bézala dira jolaseán. Bédereco erguelqueria! Etzaiteala zu malmeti. Eusquérari erachi záizca Gaztelaniatic, Latifñetic, edó beste hitzcúndeetatic, hitz ascó; baña adituáz, ta oituáz, Eusquéraoac bézaiñ ongui, aditzen diranac, eta óyec utzi bear eztitúgu: Ta bearbada noiz edo berriz obéco da, onélacoac usátzea, Eusquéraoac baño: batezere Eliz-gauzetan ta guré árimen salvacioári dagoztén eguicarietan. Lájatuco ditugu erbésteco hitz horiec, nai badegú gure Eusquérenac, piscabana usatuáz ta erabilliaz, escúcoi ta jaquiñac eguingo diradénean. (*Autobiografía* 279 eta cf. *Corografía* 293-4)

Ez dut uste inola mezipreza daitekeenik honelako aldarrikapenik; kontutan hartu, gainera, belaunaldi hortako idazlerik garrantzitsuenaren lehen obraren aitzinean eta belaunaldiaren aita pontekoak egina dugula.

Gai berbera ukitua zuen jadanik, bi aldiz gutxienez Hiztegiaren hitzaurrean; bata Hiztegiko hitz arrunten berri ematean:

Entre las voces vulgares del bascuence, pongo muchas que en propiedad no son bascongadas ni de origen suyo, pero que las ha hecho propias suyas por el uso y por la virtud

(40) Ik. Peillen eta Pagolaren aip. lanak; bigarrenaren artikuluko 55. orrian, «Esta fidelidad a Larramendi permite además utilizar con toda tranquilidad palabras castellanas legitimadas por él, cuyo uso en purismos posteriores sería impensable» irakur daiteke.

que como lengua viva tiene de apropiárselas y adoptarlas⁴¹.

Hauen artean, ordea, bereizketak egiten ditu, eta oso zuhur egin ere: guztiz onartzen ditu beste hizkuntzetan bezala gauza berri edota kanpotik etorriei dagozkienak, baita *santu*, *pena* eta hola-koak, hots, beren euskal ordaina izan arren jadanik hura baino hedatuago eta ezagunago direnak; haatik, kanpo uzten ditu sermolarari txarren eta elebidun baino euskaldun gaiztoago ziren mihietan entzun ohi erdarakadak.

Hitzaurrearen aitzinean ere, hiztegiaren eskaintzan, ukitzen du erdaratiko hitzen kontua:

Esta incorrupción o inmortalidad del bascuence no nace de estar el sitio escondido a los ojos humanos, como el del paraíso... Pero ni aun ellos mismos [los guipuzcoanos] aunque suelen volver a su patria imbuidos de otros idiomas, aciertan a alterar la constancia de su nativa lengua. Si algunos vocablos forasteros se han introducido en el bascuence, sólo es en la forma y ritualidad, con que tal vez algunas personas extranjeras obtienen naturaleza en esta provincia, probando hidalguía y sujetándose a las leyes del país en un todo: al modo que en otro tiempo los romanos dieron naturaleza a varios nombres griegos y de otras naciones, sujetándolos á la inflexión latina y enriqueciendo su lengua sin mudarla.

Dotrina bera azaltzen zuen zeinbat urte lehenago Etxeberrik latinaren historia ere aipatuaz baina gizarte metaforarik gabe, gauzak hizkuntzaren arloan mantenduaz:

5. Ordea berriz-ere erranen dugu, Escuarac bertce hitz-cuntcetari errecibitu tuela cembait hitz?
6. Nahi dut hori hala den... halarican ere gaineraco hitçac, icenen declinacinoac, eta verboen conjugacinoac,

(41) Gogora bedi Mendibururi egin gutuna eta gonbara bitez Ibarren epaiketa zorrotzegiarekin: «Preocupado él mismo [Larramendi] por el «aspecto visual» de las palabras —único perceptible a los *inquisidores extraños* que interesaba confundir— no sólo supeditó a esta preocupación el *Diccionario*, su obra más trascendental, sino que por el ascendente de su autoridad dejó enquistado el funesto prejuicio en las inteligencias de una infinidad de discípulos» (120). Orixe ongi konturatu zen, aldiz, Mendibururi egin gutunak zuen garrantziaz eta bai Larramendiri buruzko hitzaldian eta bai «Euskal literaturaren atze edo edesti laburrean» aipatzen du.

eta mintzatceco manerac, Escuararenac dira, eta hauc huna dela direnaz gueroztican, ecin erran diteque bertcetaric duela bere ethorquia; ceren hautan baitago hitzcuntçaren gora behera guztia: cembait hitz arrotcen errecibitcea ezta asqui hizcuntçari ethorquiaren emaiteco, ez eta-ere içaiterearen gambiarazteco. (Etx. 128).

11. *Hitzak, gramatika eta literatur euskalkiak.*

Baditugu aztarnak susmatzeko Larramendi, bi mende beranduago Seber Altubé bezala, ez ote zen gehiago arduratzen gramatikaren erabileraz ezen ez delako hitz bat edo besterenaz; nolana ere ez gutxiago. Sermolari txarrei, esate baterako, aurpegiatzen diena zera da gazteleraz pentsatzea eta gero gazteleraren arauera euskaraz erdipurdika aritzea, euskararen jitea mantendu gabe:

no tienen conocimiento reflejo al carácter y primores particulares del bascuence ni de la gran diferencia de su sintaxis y del romance... El bascuence tiene su construcción pospositiva y con harta gracia y elegancia; y ellos se la dan prepositiva, trastornando el genio de su lengua por seguir la construcción castellana. Lo que en castellano se dice en conjugación absoluta, cien veces se dice con más aire en bascuence en conjugación transitiva; pero casi siempre hablan en la absoluta, por no saber las transitivas y defraudan al bascuence de gracia. Todo ésto lo pudiera aclarar con ejemplos que dejo por evitar prolijidad. (Pról. XXXVI).

Bere jarraitzailerik hoberenek ere ez zioten gramatikari hiztegiari baino garrantzi gutxiago eman; ikus, adisbidez, nola lotzen dituen Ubillosek hitzaurrean, maisuaren oihartzuna ozenki dantzularik bere mintzoan.

Eusqueraz darausquizunean, eusquerazco hitzac ez bada-rabiltzatzu, zure erausia hitzunea, edo *barbarismoa* dala esango dizue; ta hitz bacoitza, dagocan toquian sartzen ez-padezu, zure hitz-jarioari araututsa, edo *Solecismoa* deituko dioe; Bost onelaco enzuten degu eusquerazco sermoietan! Ala baña, zori gaiztoan dacuscun bezala, euscaldun guichic necatu nai du eusquerazco hitzac billatzen, ta bacoitza bere toquian ipintzen.

Edota gogora goragoko «[el] P. Larramendi, memorable p.^r haber lo invencible vencido» Etxeberri Luzaidekorena^{41 bis}.

Mayansek euskara ikasketa faltaz kirastua eta galdua zegoela bota zuen; Larramendik onartzen du flakatu dela eta ahuldu, alabaina, bere antze eta arima gorderik, ez da galdu:

corromperse una lengua es acabarse su alma y forma, crezca o se disminuya su cuerpo. Mientras dura el arte y la armonía de una lengua que es su alma y forma, sean más o menos las voces que son su cuerpo, no se corrompe la lengua, ni deja de ser la misma. (Pról. CLXIV).

Nolanahi ere den Altuberekin egin gonbaraketa hau (guztiak bezain «herragarri» eta are istilutsuago bi menderen ondoren) badirudi ez zaiola arta gehiegirik eman Larramendi gramatikalaria, nahiz eta bere *El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Bascongada* oso ona izan garairako eta are geroago ere:

La Gramática del P. Larramendi es francamente buena, incluso muy buena. No deja de sorprender que la primera Gramática Vasca saliera tan perfecta y completa en lo que cabe. (Villasante HLV 132).

Hor edan zuten eta hori erabili zuten, hain zuzen, mende hartako idazle gehienek eta, zer da —esate baterako— Kardaberatzen *Eusqueraren berri onac* hortik ateratako erretorika llaburra besterik?

Ta lengo aitzakiaric orañ edolaric ezdute ascoc: bada AITA MANUEL LARRAMENDIC, neque gogor, ta estudio, esan albaño andiogoarequin, ecin izango, ta ecin eguin-gozana, bere Artean eguiñik... A. Larramendic Artean, ta Izteguian gucia, edo gueiena bestec ez bezala, Erregla seguruaquin eracustendu... (10-11.or.).

Urrutiago joanik, esango nuke Larramendiren euskal lanak ez direla behar bezala ulertuak izan biak batera, gramatika eta hizte-

(41 bis) Kanpotarren artean izan zuen arrakasta ere ez bide zen ahulgoa gramatikagatik hiztegiagatik baino 1854ean atera *Grammaire de la langue Basque, d'après celle du P. Manuel de Larramendi* itzulpenak (gazteleraz 1853 eta 1886an oraindik berrargitaratu zen) adierazi bezala. Azkuek erakutsi zuen («Manuscritos vascos en Inglaterra», Euskera 1928, 222) Urteren Bibliaren kopia batean Artetik hartutako oharrak zirela. Honelako beste datu asko dira barreiatuak, seguruenik, eta interesgarria litzateke guztiak biltzea liburuaren eragina hobeki ezagutzeko.

gia, —eta orain noski *Corografía* eta *Discursoak*— aztertu ez direlako. Biak dira elkarren osagarri, batak bestea eskatzen du helburua —hizkuntza bere osoan agertzea eta kultur lanabes eta bitarteko izan zedin lantzea— beteko bazen; horrela usteko bide zuen Larramendik *Artea* 1729an argitara ateratzean 16 urte beranduago arte ilki ez zen *Trilingüea* agindu zuenean.

Ohargarria da, esate baterako, Irazuaren dotrinak 1739ko 1.ko argitalpenetik 1784kora bitartean pairatzen dituen aldaketak aztertzea. Prestatzen ari naizen argitalpenerako utziaz azterketa xeheagoak, esan dezadan erratak kanpo, *esklabitude*→*mende*, *pekadore*→*pekatari*, *valle*→*leku* eta horrelako besteren bat kenduz gero ere, badirela oraindik aldaketa esanguratsuak: berrikuntzak (*Eutzi*→*utzi*, *belar*→*bekoki*, *ohostu*→*ostu*, *-in*→*-iñ*) eta gehiengoa diren gramatikazkoak (*dana*→*dala*, *eman* *eguiguzu*→*iguzu*, *diuztegun*→*diegun*, *diuzkun*→*dizkigun*...). Esan gabe doa azken hauek eta, oro har, literatur gipuzkeraren eraikuntza azaltzeko *Arteak* duen garrantzia ⁴².

Lardizabalen gramatikak Larramendirenarekin duen zorraz mintzatu da inoiz K. Mitxelena, azkenengoz E.H.U.aren Udako III.ikas-taroko hitzaldian; Lardizabalek ez eze gainerakoek ere bazuten hari zer eskertu. Ezin esanguratsuagoa iruditzen zait alde honetatik —eta ez gutxiago inprenta baimenen aldetik— Iturriagak Iztuetari bidalitako gutun bateko (ik. J. Garmendia, *Obras inéditas de Iztueta*, Bilbao 1968, 186) hurrengo zati hau:

Llevo adelante mi gramática que tendrá por título *Compendio fraseológico de la Gramática del Padre Larramendi* o cosa semejante. De este modo se conseguirá más fácilmente la licencia de imprimirla, y nosotros conseguiremos una equivalencia de la reimpresión del *imposible vencido*.

Ez zait iruditzen inola ere paradoxaren bat edota hitz joko hutsa denik gramatika hau hiztegiaren berme izatera datorrela, haren oinarriak sendotzera eta balorea areagotzera esatea, eta zenbait «kri-tikok», zaharrek esango luketen bezala, hartan ikusi nahi izan duten txantxetako jostailu itxura (800 orri! zenbat urte?) arras suntsitzera eta ezabatzerara.

(42) «El guipuzcoano no parece presentar una personalidad definida y estructurada hasta que Larramendi, tomando como base la variedad de Betterri, lo tipificara en su gramática casi a mediados del siglo XVIII» dio Ibon Sarasolak ASJU XVII (1983) 81.or.

Izan zituen ondorioak gora mintzo dira Ibon Sarasolak duela zenbait urte prestatu zituen euskal literatura zaharraren produkzio kopuruen taulek erakutsi legez.

Lehen taula: kopuru orokorra

	XVIb	XVIIa	XVIIb	XVIIIa	XVIIIb	XIXa	XIXb	orotara
B.	-	-	-	2	9	38	27	76
G.	-	-	-	8	45	46	96	195
L.	3	11	21	18	36	81	89	259
Z.	-	-	4	6	13	21	13	57
orotara	3	11	25	34	103	186	225	587

Zenbakiak erabat adierazgarriak dira; marka bedi G.k. XVIII. mendearen bigarren partean, Larramendik gramatika eta hiztegia argitaratu ondoren, alegia, ematen duen jauzi nabarmena. Eta jauzi hori are nabarmenago da birrargitalpenak eta itzulpenak albo utziaz geroriz ere:

Bigarren taula (Soilik lehen argitalpenak)

	XVIb	XVIIa	XVIIb	XVIIIa	XVIIIb	XIXa	XIXb	orotara
B.	-	-	-	2	4	16	4	26
G.	-	-	-	7	23	17	29	76
L.	3	7	9	6	12	13	28	78
Z.	-	-	4	2	4	1	3	14
orotara	3	7	13	17	43	47	64	194

Hirugarren taula (Soilik orijinalak)

	XVIb	XVIIa	XVIIb	XVIIIa	XVIIIb	XIXa	XIXb	orotara
B.	-	-	-	1	1	12	-	14
G.	-	-	-	3	19	9	16	47
L.	1	6	4	1	3	4	15	34
Z.	-	-	2	-	1	1	2	6
orotara	1	6	6	5	24	26	33	101

Gipuzkera 7 liburutik 23ra igotzen da (%328'5eko igoera) berrietan, 3tik 19ra (%633'3) orijinaletan. Gainera hazkunde honen poderioz gipuzkera hegoaldeko literatur *euskalkia* bilakatuko da lapurtera lehenagotik iparraldekoa zen bezala: Mogelek bere lehen obra gipuzkeraz idazten du, bizkaitarrek sermoilarien gipuzkera hobetsi dute XVIIIaren erdialdeaz geroztik (Cf. *Euskeraren Berri Onak*) gutxienez...

Gipuzkeraren literatur euskalki bilakatze hori oso azkarra da: 1745 baino lehen soilik Otxoa (1713) eta Irazustaren (1737) dotrinak ditugu⁴³; 50 urtetan gauzak oso bestela dira. Gainera Larramendiri ez zaio zor soilik hortarako behar zen «masa kritikoa» posibleztatzea baina baita masa horren kalitatea, hizkuntz kalitatea, igotzea, Mogelek (*Peru Abarka* 40-41) eta bestek jada aitortu zutena; gonbara bestela Otxoa eta Ubillos, Irazuzta eta Mendiburu.

Are bigarren mailako idazleengan (Agirre Oikiako, Lariz)^{43 a} ere nabari da bere eragina. Larramendiren hitzberri gutxi erabiliarren eta, beharbada, inoiz beren kasa aritu bestu batzuk sortzen, garbitasun nahia antzeman dakieke nahiz eta behin baino gehiagotan estiloa itsusten duten bikoteetan (*diligencia edo lasterera, gula edo gueieguizalea...* Agirrerenak) gauzatu gura hori.

Bizkaierari, bi mende lehenagoko lekukoak izan arren, mendi erdi gehiago kostako zaio literatur euskalki bilakatzen Mogel eta Añibarroekin^{43 bis}. Eta orduan ere, beren arteko ezberdintasunak gora behera, Larramendiri hurbildik edo urrutitik jarraikiz; gogora bitez bigarrenaren hiztegia eta gramatika Larramendirenei hainbat, edota gehiena, zor diotenak, gogora bedi Axularren bizkaieratzea⁴⁴, gogora bedi Mogelek lehen liburuan Larramendik Mendibururi egin hitzaurrean hizkuntzaz dioena (ik. 10. atala) jartzen duela bere eredutzat, liburua bera gipuzkeraz idazten saiatzeaz gainera, etab., etab.

(43) Bere garaian argitaratuez ari naiz, noski. Gainerakoetarako ik. K. Mitxelenaen *Textos Arcaicos Vascos*, Madrid 1964, I. Sarasolaren ASJU XVII (1983)ko lana, FLV XIV (1982)an argitaratu «Misererea», ASJU XVIII-2 (1984)an Ondarrak eman 1741 baino lehenagoko Zegamako dotrina eta IKER-2ko Satrustegiren lana.

(43a) *Christavaren Doctrina* [1759], J. Urkixoren ed. RLPhC 1905-1906 eta *Cristau dotrinaren esplicacioa / Explicación de la doctrina cristiana*², Madrillen 1773. Peñafloidaz ik. ASJU honetako beste lan batetan egin oharrak.

(43 bis) Hemen sakonago aztertzerik ez izan arren esan beharra da badea Bizkaian Larramendiren eraginik 1800 baino lehen Gandara, eta besterengan. Ik. eraskina.

(44) Arazo hauetarako ik. B. Urgellen lana ale honetan.

12. Bukatzeko.

Amaitzen. Aurreko orriotan Larramendiren lexikografi lanari lotu zenbait puntu (Larramendiren helburua, hitzberri eta mailebuen gorabehera, apologien zergatia, gramatika eta hiztegiaren osagarritasuna, jarraitzaileak...) ukitu dit, puntu horientzat irakurketa orokor eta —ene ustez— apropos bat aurkezten saiatuaz. Alabaina, esan gabe doa, Larramendiren lexikografi lan eskergak sortzen dituen arazoak larriegiak dira holako saio labur batez arintzeko; aski nuke hemen horren beharra eta hortarako bide zuzen edo erdi-zuzenen bat erakutsi banu. Larramendiren obraren garrantzia goregi jartzeko arrisku gutxi dugu, mende t'erdi batez bera izan bait zen euskal literaturaren eta euskal lexikografiaren bultzagile eta ardatz. Honenbestez, bere ezagutza sakonagoa ezinbestekoa da sail horiek argitzen saiatzen diren filologo eta hizkuntz historialarientzat, horrek suposatzen dituen aurrelan luze eta zehatzekin. Haiei arreta eta azterketa gehiago eskatzen badie, areago bere lan izugarrian euskaldunik zuhur eta suharrenetarikoa agurtuaz, Orixek bezala, Larramendirengandik oraindik ere zerbait ikasten jarrai dezakegula uste dugunoi⁴⁵.

(45) Ez zaizkit guztiz zuzenak iruditzen (ez eta beren egileari ere orain) Claveriaren harako «Burlatzen naiz Garibaiez» en oihartzunak diruditen honako epaiketa gogor hau bezalakoak: «La obra de Larramendi está escrita, salvo algunos breves fragmentos, en castellano. En lugar de predicar con el ejemplo escribiendo en euskera, como correspondía al carácter de su actividad, nos legó una gramática y un diccionario». «El trabajo de escribir en euskera lo realizarían Cardaberaz, Mendiburu y otros seguidores», Sarasola HSLV 55 (eta berdintsu X. Kintana, *Linguística orain arte* 14). Dударik gabe haren hiztegi eta gramatikak askoz mesede gehiago egin zion euskal literaturari ondu zezakeen beste zeinnahi liburuk baino. Mitxelena esan bezala («Mendiburu eta Larramendi» 19) «azpimarkatu behar genuke agian nabari dela erdaraz ugari bezain euskeraz urri mintzatu zen Larramendik ondorio ageria izan baldin bazuen, eta euskerari zegokionez izan ere, erdarazkoak ez direla nahi eta ez kaltegarri euskerazkoentzat. Probetxuzko ere gerta daitezke, agi denean». Cf. orain Añibarrok bere gramatikaz dioena, Villasantek (Euskera XXVIII 404) argitaratu gutun batetan. Bestalde, Larramendiren euskerazko zatiak eta testuak ugarituaz joan dira azken urteotan eta haietako zeinnahi orrik balio du Kardaberatz eta Mendibururen liburuetakoa askok eta askok baino gehiago, nahiz eta ustezko euskal literaturaren historiaren batetan «su producción en euskera es esporádica, por cuanto se reduce a una carta a Antonio Gandara, un sermón sobre San Agustín, algunas poesías (de poco valor) y alguno que otro escrito breve» esanaz dena kitatu. ASJU-ko ale honetan irakur daiteke bere testu ezezagun bat (Azkoitian 1737an eman sermoi bat) eta dakidanez Telletxeak ere badu oraindik ahalik eta lasterren argitan nahi genukeen beste bat. Gogora bedi, gainera, Fitak bere euskarazko gutunak aipatu zituela (ik. K. Mitxelena, «La correspondencia del P. Larramendi», BAP 1959, 440-442); benaz ote horren eskasa?

13. Bibliografia

Hemen bakarrik bibliografia orokorra aipatzen da; xehetasun gehiago testuan eta oharretan, Jon Bilbaoren *Bibliografian*, Larramendiri buruzko *Mugaren* ale berezian eta *Sobre los Fueros de Guipúzcoa*ri Telletxeak Ci orrian jarri 2. oharrean eman iturrietan.

CASTAÑOS, F. «Apologistas Vascos», Euskera VIII-IX (1963-64), 197-212.

ETXEBERRI, Joannes = Julio de Urquijo, *Obras Vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712) con una introducción y notas por —*, Paris, Paul Geuthner 1907 (LGEV 1967ko facsimilaren araber aipatua).

H(S)LV = *Historia (Social) de la Literatura Vasca*.

IBAR, *Genio y lengua*, Tolosa 1936.

LAKARRA, Joseba Andoni, «Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiako sermoia», ASJU XIX-1 (1985).

LARRAMENDI, Manuel, *De la antigüedad y universalidad del bascuence en España*, Salamanca 1728 (facsimila Ediciones Vascas 1978).

—, *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*. Salamanca 1729 (facsimila Hordago 1979).

—, *Diccionario Trilingüe del castellano, bascuence y latín*, Donostia 1745 eta (hitzaurrea) 2.a, 1853.

—, *Corografía de Guipúzcoa*, J. Telletxea Idigorasen edizioa, Donostia 1969.

—, *Autobiografía y otros escritos*, J. Telletxea Idigorasen edizioa, Donostia 1973.

—, *Sobre los fueros de Guipúzcoa*, J. Telletxea Idigorasen edizioa, Donostia 1983.

—, *Discurso histórico sobre la antigua Cantabria*, Madrid 1736.

—, *Diccionario Vasco-castellano*, P. Altunaren edizioa, Euskera XII (1967) 139-300; ik. halaber Telletxea.

MILV = Tovar.

MITXELENA, Koldo, *Historia de la literatura vasca*, Minotauro, Madrid 1960.

—, *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, Bilbo 1970.

—, «La obra del P. Manuel de Larramendi (1690-1766)», Cuadernos de la Cátedra Feijoo, Oviedo 1959.

—, «Euskal-Iztegigilleak XVII-XVIIIgarren mendeetan», Euskera VI (1961) 7-22.

—, «Mitología e ideología sobre la lengua vasca» (Tovarren erreseina), Muga 10 (1980) 122-128.

—, «Euskara eta euskararekiko ikerlanak (1700-1800)», IX Congreso de Estudios Vascos, Donostia 1984, 237-250.or.

- , «Mendiburu eta Larramendi», *Euskera* XXVIII (1983) 19-23.
- , «Aurkezpena» in Ibon Sarasola, *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*, I, 11-23.
- ORMAETXEA, Nikolas (= «Orixe»), «Euskal literaturaren atze edo edesti laburra», *Euskal Esnalea* 1927, 148 eta hur.
- , «Larramendiren iztegia», *Euskera* 1930, 252-261.
- , «El Imposible Vencido», *Euskal Esnalea* 1930, 189-193.
- PAGOLA, Inés, «Neologismos en los Juegos Florales», *ASJU* XVIII-1 (1984), 53-160.
- , «Arana eta Azkueren neologismoez», lan argitaragabea (EHU-ko Udako III. Ikastaroan eman hitzaldia).
- SARASOLA, Ibon, *Historia Social de la Literatura Vasca*, Akal, Madrid 1976.
- SEGUROLA, Iñaki, «Etxeberri Luzaideko bikarioaren dotrina argitaragabea», *ASJU* XIX-1 (1985).
- TELLETXEA IDIGORAS, José Ignacio, LEKUONA, Manuel, «Gabon-Kanta de Guernica (1764)», *BAP* 1966, 157-171. Ik. halaber LARRAMENDI.
- TOVAR, Antonio, *Mitología e Ideología sobre la Lengua Vasca*, Madrid 1980.
- URGELL, Blanka, «Larramendiren neologismoez» lan argitaragabea.
- , «Literatur bizkaieraz: Añibarroren *Esku Liburua*», *ASJU* XIX-1 (1985).
- VILLASANTE, Fr. Luis, *Historia de la Literatura Vasca*, Arantzazu 1979.
- , «El P. Larramendi y su obra lexicográfica», *La Gran Enciclopedia Vasca*, II, 169-174 eta 479-483, Bilbao 1974.
- , «Joanes Etxeberri (1668-1794)», *BAP* IX (1953) 231-243.

14. *Eraskina.*

3. eta 4. ataletan aipatu zenbait arazotarako interesgarriak izan daitezke soilik lan hau burutu ondoren lortu ditudan F. Lázaro Carreter *Las ideas lingüísticas en España durante el siglo XVIII*, anejo XLVIII de la RFE, CSIC Madrid 1949 (2. argit. ed. Crítica Barcelona 1985) eta W. Bahner *La lingüística española del siglo de oro*, ed. Ciencia Nueva, Madrid 1966. Gonbara bitez 40-41. orrietan ezarri dudan Etxeberriren pasarte eta Lázaroren liburuko 125-129. orrietan aztertu morfologiaren eta sintasiaren hitzekiko lehentasunari buruzkoa. Markatzekoa da Etxeberriren testua horko lehendabizikoa (Armestorena) baino 20 bat urte lehenagokoa dela; Lázarok esan bezala, ordea, «El texto de Larramendi y la frase de Armesto, en que se refiere al *distintivo formal de las lenguas*, nos guía a la fuente remota de estas ideas: se trata en su origen, de la distinción que hace la lógica tradicional entre materia y forma en la oración» eta, beraz, lan pixka batekin nahi adina aitzindari eriden bide daitezke; bat esatearren, Bahnerrek aztertzen duen López Madera. Bestalde, honek eta bere jarraitzaileek (eta ez dira nolanhikoak: Gonzalo Correas, Luis de Cueva, Tomás Tamayo de Vargas, Ximénez Patón, Viana, Pellicer y Tovar...) gaztelera latinetik zetorrela nola ukatzen zuten eta hura baino zaharrago egiten (baita 72 haietarikoa ere!) areago gogoratzeko Bahnerren liburuko 6. atalean («La teoría del castellano primitivo») irakur dezanak errazago ulertuko bide ditu euskal apologisten jokaerak eta bekatu arinagotzat duke harako izkribu zahar baten Larramendiren (*Hiztegia LXXIII*) irakurketa Granadan «aurkitutakoez» zerbait dakikeenean. Bada orain J. Godoy Alcántararen *Historia crítica de los falsos cronicones* argitalpen facsimila ere, Madrid 1981 (1.koa 1868). Bahnerren liburuko 111. orriko hurrengo zati honek aski argi egin dezake 20. orrian erakutsi nahi izan dudana apologien beharraz: «Sobre el portugués y el catalán apenas habla Madera. Trata a ambas lenguas como idiomas secundarios, que tenían más o menos la misma estructura gramatical que el castellano, pero con grandes divergencias en el vocabulario. *Madera considera que no vale la pena tomarse el trabajo de estudiar una lengua que no pertenece a las 72 lenguas originarias y que debe su existencia a mezclas posteriores*»; azpimarra neurea da. Gaiotan ikertzailearen iritziek duten garrantzia ezaguna da eta ia ez da harritzekoa «El padre Larramendi no desmiente la tradición del vasquismo, condenado fatalmente a admitir en su seno las afirmaciones más decoyuntadas» (Lázaro 112) irakurri ondoren «...la teoría de Madera es un capítulo interesante de la his-

toria de la filología española. Junto a la obra de Aldrete, que marcó una época en la historia de la lingüística en la España del siglo XVII, Madera se merece en la historia de la conciencia lingüística española, si no una apreciación positiva, sí por lo menos una mención» irakurtze (Bahner 103).

8. atalean ukitzen diren iparraldeko eta hegoaldeko idazleen arteko harremanei erants bekie orain Mogelek bizkaieratu zuen Lavieuxville-Harosteguyren *Bayonaco diocesaco bigarren catichima* zeinaren argitalpena agindu duen A. L. Villasantek «Euskararen Lekukoak» sailerako; lapurterazko orijinalarena eman berri du sail berean. Seguru nago bizkaieratze horren argitalpenak lagunduko digula alde bateko eta bestekoen arteko loturak argitzen eta horietan Larramendik izan eragina zehazten.

Atal honetan diodanaren alde dator orain dakusadanez J. Urquijo ere bere «De paremiología vasca. Oihenart conoció los «Refranes y Sentencias en vascuence» de 1596» ASJU I (1967) 3-10 artikuluan eta bestetan; ik. hor 4. orrian.

24bis oharraz. Ik. X. Altzibar «Bizenta Antonia Mogelen biziaz zenbait argibide» Euskera XXVII(1982-2 457-494. Lan horretan, 470-474. or., aurki daiteke aipatu testuaren azterketa bat ere.

26. oharraz eta 39. orriaz. Pairatu zuen argitalpen eskasagatik, beharbada, Ulibarriren gutuneria ez da behar adina ezagutu eta aztertua izan interes nabarmena duen arren garaiko literatura eta historiaren hainbat arlo «barnetik» ikusteko. Bere euskaran Larramendiren eragina begibistakoa da hemen exenplurik aurkezten iharduteko; ez dakit, ordea, horren ezaguna diratekeen beste baterako uzten dudan 65. orriko Iztuetaren gutuna eta bere iturria (Larramendik Mendibururi egin Sarrera-gutuna).

43bis oharraz. Ik. orain J. A. Arana Martijaren «Sebastián Antonio de la Gandara Bizkaiko idazlea» Euskera XXIX (1984, 2) 499-510 3 poesi berriekin, gernikarraren euskal obra ezaguna osatuaz, eta gainerakoen argitalpenen aipamenarekin. Larramendiri zuzendu gutuneko «neure mexhu gustizcoa», «Mexhu chito arguiti», etab., aski adierazgarriak dira andoaindarraren arrakastaz. Zorigaitzez XVIII. mendearen 2. zatiko testurik handienak (De la Quadra eta besterenak) argitaratzeke eta aztertzeke dautza.

Azken oharra. Lan hau kaleratzeaz dudanean P. Altunak adiztera ematen dit Azpitarteren hiztegiari buruzko lan batetan aritu dela Larramendiz ere. Badirudi beraz, oraingoan 1.ko atalean aipatu dudan Larramendirenganako meziprezu eta ezaxolak ez duela jagoitik iraungo.

Gogoetak aitzineuskararen berreraiketaz: konparaketa eta barneberreraiketa

JOSEBA A. LAKARRA
(EHU)

Abstract: Reflections on proto-Basque reconstruction: comparison and internal reconstruction

Since Basque is a language not genetically related to its neighbours in historic nor prehistoric times, the study of its prehistory has been and still is a matter of considerable interest and debate amongst linguists and amateurs both locally and elsewhere. In this work I propose some reflections on the two classic techniques for the study of language prehistory (comparison and internal reconstruction) and I review some relevant applications that have come about since 1950.

The first part deals with the basic notions on which Historical Linguistics is based (comparison, reconstruction, phonetic laws and above all the arbitrary nature of linguistic signs, which makes us reject chance as the basis for our discussions). I then review (1) Martinet's and Mixelena's classic (internal) reconstruction, (2) the application of glottochronology (Tovar) to the study of Basque's relationships, (3) macrocomparison (Greenberg) and its supposed consequences for Basque prehistory and (4) the (internal) reconstruction of the proto-Basque canonical root (Lakarra 1995, etc.)

It seems obvious that whereas comparison —regularly performed by amateurs and effected without following Historical Linguistics' general criteria— has turned out to be unfruitful, internal Historical reconstruction, on the other hand, has shown substantial evidence of its explanatory validity and its capability to face the numerous problems still remaining in this area of study.

0. Laburpena:

1. Hizkuntzen historiaurreaz eta berreraiketaz;
2. Lehen barneberreraiketaz: eredu klasikorantz;
3. Glotokronologiaren laguntzaz;
4. Makrokonparaketa eta euskara;
5. Bigarren barneberreraiketa: erro egitura;
6. Aitzineuskara zaharraren erro egituraren berreraiketaren ondorioak;
7. Azken gogoetak;
8. Bibliografia.

1. Hizkuntzen historiaurreaz eta berreraiketaz

En otras lenguas se han escrito la *Iliada*, el *Quijote*, la *Divina Comedia*, pero la lengua vasca tiene una epopeya propia: la de su conservación desde los tiempos prehistóricos y ser el archivo del pueblo vasco. Esta epopeya, misteriosa e implícita en los vocablos, se manifiesta en las etimologías (Tovar 1959: 116).

1.1. Hizkuntzalaritzaren barnean eta beronen historian berreraiketak duen tokia bitxia da: Saussure *Memoire*-eko berreraikitzailearen bitartez bertatik atera delarik hizkuntzalaritza osoa, egungo egunean ez da ikerketa alor zabal horren zati anitzetarik bat baizik, enborretik urrutien den txikietarik gainera Haudry-ren ustez (1990: 35).¹ Jatorrizko hizkuntza, zeinetarik sortu diren hizkuntzen edo dialektoen sorburua eskuratzeko —zati bat bederen— azterketa diakronikoa dugu berreraiketa. Hasiera batetik oraindik izankizun zen zientzia baten ariketa gisa ulertu zen berreraiketa; hizkuntzalaritzaren sorreraz geroz, berreraiketa hizkuntzalaritza diakronikoren ariketetarik dugu. Bertan fonologian eta morfosintaxian hizkuntz-esparruan gordetzen bada ere lexikoan, *realia*-ren azterketaren bitartez hortik aldentzen delarik. Izan ere “paleontologia linguistikoak” [‘linguistic archeology’ deritzo Haas-ek (1969: 14)] berreraikitako hizkuntzaren hitzunen zibilizazio materiala, erakundeak eta kultura aztertzen du, hitzunez, amankomuneko garaiaren datazioaz edota aitzinaberriaren kokaguneaz hipotesiak eraikiaz (Haudry 1990: 33-34).² “The usual technical term for this method is simply the ‘comparative method’ and the usual technical term for what can be reconstructed of the ancestor language is ‘protolanguage’ laburtzen du Haas-ek (1969: 14).³

Hizkuntzen historiaurrea ezagutzeko bide honen barnean, bada, bi gailu edo bi bide ditugu: konparaketa eta barneberreraiketa.⁴ Lehendabizikoa, noski, delako hizkuntzarekin erka daite(z)keena(k) eskarzen d(it)u; bigarrena hizkuntza bat bakarra edo bakartua denean erabili beharra dago, batez ere.

(1) “Paradoxe de l’histoire de la linguistique, c’est par sa forme la plus complexe, la plus élaborée, qu’elle a commencé: par celle qui se fonde sur plusieurs autres, et qui n’en fonde aucune” gehitzen du Haudryk (ibid.).

(2) “Bien entendu, la recherche prend alors un caractère pluridisciplinaire, mais le linguiste en reste le maître d’oeuvre, puisque la notion de base, celle de “communauté linguistique” relève uniquement de sa discipline” (ibid.). Haudryk (cf. 1990: 54) eta zentzuzko edozein berreraikitzailek ez du ametsik egiten “bigarren graduko” (berreraikitako lexikoaren gainean eraikitako) hipotesi horiei buruz. Hara Dixonek Renfrewz diokuna: “A similar date [aintzinindoeuropearen fetxaketaz ari da] is suggested by the archaeologist Renfrew (1987) in a work which has received wide publicity; the author has an agile mind but lacks an appropriate training in the methodology of historical linguistics for his work to constitute a linguistically significant contribution to the debate” (1997: 48, 15. oh.).

(3) Proto- konparaketaz eta pre-language barneberreraiketaz lortutakoari deitu ohi zaio (cf. Crowley 1992: 90-91 eta 122; Fox 1995: 150; Campbell 1998: 202).

(4) “The ‘prehistory of languages’ is not to be confused with a different topic which might be called the ‘prehistory of language’. Among other things, the latter would inevitably involve us in the problem of the origin of language” diosku Haasek (1969: 14) eta famatua da Parisko Hizkuntzalaritza Elkartekak gai honetaz hartu zuen aspaldiko erabaki hura. Haasek, bidenabar, gizakiak bi milioi urte edo izaki, “This means that language may very well have been slowly evolving over hundreds of thousands of years” uste du; Dixonek (1997: 2), aldiz, ehun bat mila urtetan edo.

XIX. mendean aintzinindoeuoperarekin lortutako garaipenaren ondoren, norbaitek pentsa zezakeen hizkuntzalariak ez zirela geldituko munduko hizkuntza guztien historiaurrea argitu arte. Alabaina, aitzinhizkuntza horren ikerketan ondoko hizkuntzen lekukotasun ugari eta aberatsak garrantzia handia izan zuen, inoiz lekukotasun idatzirik ez zuen edo urri zuen hizkuntzaren historiaurrea egiterik ez zela pentsatzera ere iritsiaz,⁵ hizkuntza idatzia *hizkuntza* jator bakartzat hartuaz;⁶ hau, ordea, zuzendu da dagoeneko, horietan ere ikertzaile berriek alor zahar eta garatua-goetan landutako metodoak ezartzean kalitate bereko emaitzak erdietsi dituztelarik. Berreraiketa eta metodo konparatuaren erabilerak hedadura orokorra izateko pairatu zuen esames garrantzitsuena, halere, besterik genuen: delako "hizkuntza primitibotetan" lege fonetikoek ez zutela indarririk zioen, alegia; lehenago Sapir eta Bloomfield-ek⁷ egin bezala, horrelako bereizkuntzarik ez dela oraindik orain aldarrikatu beharra dute hizkuntza eta familia ezezagunagoetako berezilariek (hara Baldi 1990ko zenbait esaterako) eta gure artean Mitxelena *Fonética histórica vasca*-ren hitzaurrean [1961] sineskeria hori espresuki eraso beharra ikusi zuen:

Como alguien podría dudar de que tal regularidad sea observable en una lengua "primitiva" como la nuestra —siempre quedan por ahí gentes así—, aduciré, por más que sea innecesaria, la autoridad incontrastable de Sapir: "Is there any reason to believe that the process of regular phonetic change is any less applicable to the languages of primitive people than to the languages of the more civilized nations? This question must be answered in the negative. Rapidly accumulating evidence shows that this process is just as easily and abundantly illustrated in the languages of the American Indian or of the Negro tribes as in Latin or Greek or English" (*FHV*, 15, 5. oh.).

Besteren ariketa edo aplikazio den bezainbatean, berreraiketa linguistika teorikoren morroi bilakatzen da eta honen eta linguistika deskriptiboaren aurrerapenen zordun dira datu aurkikuntza eraldatzailerik izan ez duten familietan, 1917tik eza gutzen den hititaz geroztik gauza berri handirik izan ez duen indoeuoparrean, esaterako (cf. Haudry 1990: 38).⁸ Inon egitekotan, menpekotasun hau berreraiketarako tipologiarenaganako izan behar duen arduraren nabarmentzen da, dela hizkuntzen egi-

(5) Horrezaz gain, jakina, konparazioa lanabes bakartzat hartzean historiari izateko aukerarik ere iragartzen ez zaien isolatu ugarien kasua genduke, euskararekin berarekin inoiz gertatu bezala; ikus Lakarra 1997 laburpen baterako.

(6) Lakarra 1997a-n aritu naiz idazkerak aurkezten dituen zenbait arazoz (eta ematen dituen zenbait aukeraz); bertan Campbell (1990) jarraituaz erakusten denez inoiz (hizkuntza mayekin, esaterako) Europako hizkuntzekin bezalako filologi lana egin liteke. Ikus orobat Haas (1969: 21, 8. oh.) eta, batez ere, Goddard (1973 eta 1990) hizkuntza algonkinoen lekukotasun idatziatarako.

(7) "I hope, also, to help dispose of the notion that the usual processes of linguistic change are suspended on the American continent (Meillet and Cohen, *Les langues du monde*, Paris 1924, p. 9). If there exists anywhere a language in which these processes do not occur (sound-change independent of meaning, analogic change, etc.), then they will not explain the history of Indo-European or any other language. A principle such as the regularity of phonetic change is not part of the specific tradition handed on to each new speaker of a given language, but is either a universal trait of human speech or nothing at all, an error" zioen erdialdeko algonkinoari buruzko bere lanean (apud Haas 1969: 23).

(8) Cf. Lakarra 1997a (§ 2.2. "Datu gehiketa eta ulerpen hobekuntza") eta hor aipatzen den Schmidt 1992.

turaz dela haien aldaketaz erakusten duena jarraiki, hizkuntza naturaletan kausi litekeenaren aurka ez doazen egiturak eta bilakabideak proposatuaz.

Bai barneberreraiketa eta bai konparaketazko berreraiketa metodo enpirikoak dira, ez metafisikoak (cf. Mitxelena 1963:):⁹ alde batetik, benetako hizkuntzetako benetako datuetan oinarritu behar dutelako eta beren balioa hizkuntza horietako formak azaltzean ikusten delako hain zuzen; bestetik, guxkienetan bada ere, inoiz berreraiketa zuzenean erdiets daitekeen edo ezagut daitezkeen gertakariekin pareka daitekeelako. Hori da latina eta aitzin-erromantzearekin jazotzen dena. Beste zenbait kasutan hori ez da gertatzen, euskaraz adibidez. Halere, ondoko hizkuntza hauetarikoko batzutan datu berri esanguratsuak sor daitezke, bihar-etzi aurreko berreraiketen alde edo kontra lehen jazo bidetik; aski izan bitez, bi adibiderik klasikoena: hititarren lekukotasuna Saussureren indoeuroperazko “coefficient sonantiques” direlakoez, edota Ventries-en desziframenduaren ondoren mizeniko irakurriberriak mende honen erdialdera emandakoa hura gabe berreraikitako aitzingrekeraz.

Honelako kasu zoriotsuetan lehenago burututako berreraiketen egokitasun orokorraren alde etorri direnez eta etorri diren neurrian lekukotasun berriok, izan gaitzke seguru edo pozik berreraiketa metodo eta irizpideen balioaz.¹⁰ Pena da, nola ez!, linguistika diakronikoari falta zaion hainbat datu jasogabe galtzea; halere, honek ez du ukatzen zientzia honen zilegitasun eta enpirikotasuna, hain zuzen ere datuen morroi baita eta ez asmakerien menpeko.¹¹

1.2. Konparaketarako baldintzak. Hizkuntz zeinua Konparaketaren oinarri

“Gramatika konparatua” deritzogun zientzi-sailaren helburua hizkuntza ezberdinen arteko erkaketen bitartez hizkuntz aldaketen historia egitea da. Konparatzaileak kasu bakoitzean miaturiko gertakarien artean kausitu behar du zer den antzinako hizkuntza bat eta bakarra nahita nahiez suposatzen edo eskatzen duena, hots, zer den areagotuz joan den desberdinketa baten ondorio gisa antzina hizkuntza soil gisa mintzatzen zenaren zatikatzetik datorrena. Hau da, alorrari axola zaizkion fenomenoak ezinbestez beren buruak azaltzeko etorki bera eskatzen dutenak dira.

Meilletek zioenez bi eratako konparaketak dira: a) lege unibertsalak bilatzen dituztenak; b) ondorio historikoen xerka doazenak. Bata eta bestea bereizteko berak

(9) Euskal linguistika diakronikoan bi garai bereizten dituen obra Mitxelenarena dugu (*FHV* eta 1950-64 bitartekoez batez ere), noski, Trasken berrikitan zenbait makrokonparaketa-zaleri gogoratu behar izan dien bezala; hemen ere, bestetan bezala, legea ez ezagutzeak (edo ezagutu nahi ez izateak) ez bide ditu erruak zurrizten, jakina. *Linguas y protolinguas*-ek, bestalde, argiro erakusten du edozein zientzia alorretan ariketa eta teoriaren artean den ezinsaihestuzko lotura; ikus § 2-ko hasierako aipua aitzineuskara berreraikiaren eredutasunaz.

(10) Cf. “Les méthodes ne valent que par rapport à leur objet, et les formes appliquées d’une science par leurs résultats” (Haudry 1990: 54).

(11) Haudryk egoki burututako berreraiketen segurtasunaz ez du zalantzarik, bai aldiz aitzinformen garaikidetasunaz: “Mais cette certitude se limite à l’existence de la forme elle même; elle ne s’étend pas à ses rapports chronologiques avec d’autres formes reconstruites” (1990: 39). Honetaz landa, berreraiketan *argumentum ex silentio* delakoa erabiltzerik ez dela markatzen du; izan ere, ez da sinesteko (ez onartzeko, cf. haren “Une illusion de la reconstruction”, *BSL* 1975) aitzinhizkuntzan esaldi motaren bat edo paradigman bat falta zela gu ez garelako gai berreraikitzeke datu edo trebetasun faltaz.

honako adibideok dakartza *La méthode comparative* klasiko ezinutzizkoan (19__):¹² mundu osoan dira animaliak gizakiak bailiran jokaten duten animalia ipuinak. Kontu hauek beren artean konpara daitezke formak, izaerak, erabilera eta, oro har, animalia ipuinen teoria orokorra lantzeko; Propp-ek (*Ipuinaren morfologia*-n) dakizuenez erakutsi zuen munduko ipuin harrigarri guztietan pertsonaien funtzioak behin eta berriz errepikatzen direla eta beren kopurua 31koa dela: hurruntze, debeku, galdeketa... gaiztakeria... heroiaren erreakzioa, itxuraldaketa, zigorra, ezkontza. Guztiak ez dira beti batera agertzen baina agertzen direnean ordena horretantxe agertzen dira. Pertsonaien paperak ere berdin muga litezke: kontrakoa, emailea, laguntzailea, printzesa, agintaria, heroea, sasi-heroea, zazpi, hain juxtu. Eskema antzekotasunak gorabehera, bi ipuin ez dira, besterik gabe, etorki berekoak. Alabaina, indoeuopar mitoak azter bagenitza, batez ere betierekotasunari dagozkionak, bestelako ondorio-etara iristen gara. Beharbada edari batez hori jaresteak ez du ezer berezirik; baina horrekin batera herri indoeuopar guztietan dupin handi batean egin behar dela (gogora *Asterix*), jainkoen eta deabruen arteko borroak eta beste hainbat xehetasun bat datozenean, orduan hau ez da halabehar hutsa.

Meilleti eta alorreko tradizio hoberenari jarraiki, Touratierek (1990: 16hh) “la comparaison génétique ou historique ne se fait pas n’importe comment” gogoratzen digu, erregela zehatz horiek osatzen dutelarik metodo konparatu historikoa.¹³

Lehen araua, oinarrizkoa, ez gutxi-gora-beherako antzekotasunak baizik eta forma eta esanahizko korrespondentziak bilatzea dugu. Izan ere, ofizioko ez denak beti ulertu ez arren, korrespondentzia erregelez dihardu konparatistak eta ez antzekotasunez. Honela, lat. *fero* “nik daramat”, sanskr. *bhārami*, gr. *pbero*, esl.zah. *bero* eta gainerakoekin doa, ez nolabaiteko antza dutelako hasierako kontsonanteek (ezpainkariak dira

(12) Bidenabar, komeniko litzateke ahalik eta lasterren argitaratzea aspalditik Mari Jose Kerejeta eta Blanca Urgellek burutua duten euskal itzulpena.

(13) Ross-ek eta Durie-k (1996: 6-7) honela formalizatzen dituzte metodo konparatuaren urratsak: “1. Determine on the strenght of diagnostic evidence that a set of languages are genetically related, that is, that they constitute a ‘family’; 2. Collect putative cognate sets for the family (both morphological paradigms and lexical items); 3. Work out the sound correspondences from the cognate sets, putting ‘irregular’ cognate sets on one side; 4. Reconstruct the protolanguage of the family as follows: a. Reconstruct the protophonology from the sound correspondences worked in (3), using conventional wisdom regarding the directions of sound changes, b. Reconstruct protomorphemes (both morphological paradigms and lexical items) from the cognate sets collected in (2), using the protophonology reconstructed in (4a); 5. Establish innovations (phonological, lexical, semantic, morphological, morphosyntactic) shared by groups of languages within the family relative to the reconstructed protolanguage; 6. Tabulate the innovations established in (5) to arrive at an internal classification of the family, a ‘family tree’; 7. Construct an etymological dictionary, tracing borrowings, semantic change, and so forth, for the lexicon of the family (or of one language of the family)”. Beraiek aitortzen dutenez, bestek bestela laburtu arren guztiek antzera batean burutzen dute ariketa.

Bost “misunderstandgs” ere aipatzen dituzte (1996: 4-6) metodo konparatuaren inguruan: 1) meto-
doak hizkuntza indoeuoparretan izan duen aplikazioarekin identifikatzea (Szémerenyi-ren liburu ezagu-
nean gertatu bezala); 2) metodo konparatua lexikoestatistika eta glotokronologiarekin nahastea; 3)
“mass comparison” delakoarekin nahastea (nahaste hau “a more dangerous one” dela dioskute); 4) meto-
do konparatua eta fonologia eta gainerako alorretako konparaketa tipologikoak nahastea eta 5) hizkun-
tzalaritza diakronikoan eta antropologian edo arkeologian “metodo konparatuak” duen esanahia
berdintzea.

guztiak) baizik eta esanahi bera izateaz gain, latinezko *f-* bati sanskrito *bb-*, grekeraz *pb-* eta eslabiera zaharrea *b* dagozkiolako enparatutako hitzetan. Are gehiago, inoiz itxuraz anomaliaren bat denean (lat. *nebula*-n *b* dakusagu, sanskr. *bb* eta grek. *pb*-ren aitzinean) erakutsi izan da hainbat aldiz hor ere korrespondentzia formula heresia dugula, hitz barneko eta ez hasierako ingurune horri dagokiona, alegia.¹⁴

Arau honen garrantziaz jabetzeko hara Meilletek famatu egindako indoeuropearazko “bi”-arekin gertatua:

SKR	GR	LAT	ARM	
d(u)va	dyo	duo	erku	“bi”

Itxura batean, antzekotasun hutsez arituaz, sanskrito, grekeraz eta latinez ez da arazo larriarik ez hasierako kontsonanteetan ez gainerako soinuetan, berberak edota oso hurbilekoak baitira; armenieraz, ordea, gauzak oso bestela dira eta antzekotasunen arabera epaitu beharko bagenu morfema hori (eta hizkuntza bera!) ez dela gainerako kide eta ahaide esango bide genuke. Alabaina, *erku*-n lehen bokala protesi erregularra dela, hizkuntza horretan eta armenierako formaren eta gainerako hizkuntzetako arteko diferentziak beste hainbat hitzetan (cf. Touratier 1990: 18) aurkitutako berberak direla jakinik, ondorioak oso bestelakoak dira: morfema horiek kognadoak ditugu eta hizkuntzak eurak ahaide. Alderantziz, euskarazko *hoge*i eta bere ustezko ordain zeltekin (gal. *ugeint*, korn. *ugens*, bret. *ugent*) jazotakoa ere ez da ahaztekoa: Tovar eta “eskuzabal” zenbaitek horien antzean (eta herri zeltek hedatu omen duten hogeinakako kontaketan) oinarriturik euskarazkoa mailegutzat jo zuten; kontua da *hoge*i-rekin antzen bat duten formak oso berriak direla (Erdiarokoak), berriegiak 1.000 edota 1.500 urte lehenago euskarak aitzinzeltetik (**wi-kenti*) har zitzakeenean horrelatsu izateko: zorigaitzez, antzekotasunak behar ez direnean (garai modernoetan) eta diferentziak haiek beharko liratekenean (aitzineuskara eta aitzinzeltan) gertatzen dira.¹⁵

Bigarren araua ere Meilletengandik datorkigu: “La différence de sens entre les mots rapprochés doit être expliquée par des raisons précises” (Touratier 1990: 19) eta, gainera, arrazoi horiek paralelo ongi lekukotuak beharko dituzte, semantikan ez bai-

(14) Analogia eta mailegaketaren eragina korrespondentzia erregularrekin ez nahastea izan da neogramatikoek konparatzaileei ezarritako helburu nagusietarik; salbuespenak ondoren azaldu behar ziren lege meharrago bezala tratatzeak eta ez eta lege zabalagoen edota metodoaren beraren deuseztatze gisa (cf. Mitxelena 1963 Adradosen aurka) ekarri du ez soilik lege fonetikoaren garapena (Grimm-en legetik Verner-enera dagoena, demagun) edo metodoaren finkatze eta sendotzea baizik eta analogiaren eta mailegaketaren azterketaren aurrerapena ere. Hala izan da neogramatikoen ikerketa asmoa hedatu den tradizioetan; gurean, Schuchardtek “Euskal Herrian zorionez ez da lege fonetikorik” behin eta berriz aldarrikatu ondoren, ez erregularitasun fonologikoaren, ez analogiaren, ez maileguen bilakabide estrukturalaren ikerketa aitzinatu zen gehiegi Mitxelenaren lanen aurretik (cf. hemen § 2). Bidenabar, logikak eta historiografiak agiantzen zuen legez, analogia ez zen izan Mitxelenak berariaz tratatu zuen alorra eta orain ere ezin esan asko jorratzen denik, hizkuntza eransle batean zeresana izan lezakela pentsatzea-ri zilegi baderitzor ere.

(15) Ikus Mitxelena 1964: 49 (eta gero De Hoz 1981 eta Gorrochategui 1987) zelta hizkuntzetako formek, soilik euskararekin izandako edozein kontakturen ondoren, pairatu dituzten aldaketa ugari eza-gunetarako.

tira beti erdietsi ahal forman lortutako erregela hertsia (cf. Benveniste 1959a eta 1969, Blust 1987, 1988, etab.).

Lehen ipuinen ikerketan bezala, hizkuntzak begiratzean ere horietariko batzuen artean adierazleen gertuagoko edo urrutiagoko konkordantziak ediren daitezke; konkordantziotarik zenbait ezin azal daitezke noizbait izan ez balitz hizkuntza guztiok jarraitzen duten forma bakarra. Demagun hizkuntza erromanikoetako izenordain sujetoen kasua:

	NI	HI
errumaniera	eo	tu
espainiera	yo	tu
frantses zaharra	jo	tu
italiera	io	tu

Ez da inongo arrazoi orokorrik hitzegiten duen pertsonak eta hizkuntza talde oso batek bere buruari *eo*, *io*, *jo* edo *yo* bezalako deituez deitzeko; urrutiegi *jo* gabe *ich* da alemanieraz, *ja* errusieraz edo *ni* euskaraz; beste hainbeste entzulea *tu* deitzeko. Izan ere, errumanieraren, italieraren, frantses zaharraren eta espainieraren fonologi sistemetan diren elementuak ugari dira eta beren arteko ia ezin kontaahala konbinaketa onartzen dute. Esanahi bera adierazteko hizkuntza batek baino gehiagok konbinaketa berera (edota etorki beraren bitartez azal daitezkeenetara) jotzen badute, gertakari honek azalpena behar du.¹⁶ Oro har, hotsen naturaren arabera hitzen zentzua azaldu nahi izan dutenen saioek (Astarloa eta Errorenak gure artean) ez dute ezer erdietsi (cf. Gomez 1997a eta hango bibliografia). Izan ere 1) esanahi bera giza-hizkuntza anitzetan soinu eta soinu bilkura anitzez adierazten da, 2) hitzen soinuak mantenduaz esanahiak alda daitezke, 3) esanahiak mantenduaz hotsak alda daitezke. Alde honetatik ezin ezer espero, beraz, naturalismotik abiatutako azalpen historikotarako.

Bestalde, esperientziaz dakigu hizkuntza bat era aski ezberdinez hitzegiten dela; are era ezberdinagoak eremu zabalean hitzegiten bada eta areago kontuan harturik erabili izan deneko garaiak oro, ezberdintasun hauek gainera beti gehitzera baitoaz. Hortaz, bi hiztun taldek modu berean edo itxuraldaketaz modu bakarrera eraman daitezkeen eretan hitzegiten dutela aurki bageneza, bi hiztun talde horiek hitzegiteko forma bakar baten tradizioa jarraitzen dutela ondorioztatu beharko dugu.¹⁷

Zentzua eta soinuak elkarri naturazko loturaz atxikiak balira eta ez tradizioz, hitzarmenez edo egiunez, orduan hizkuntzalariak Meilleten 1.ko konparaketa mota

(16) Hurbilketa hau funtsezkoa da alorrean eta azken urteotako eztabaida interesgarrienen iker-tzaileek berriz hartu behar izan dute mintzagai; ikus Nichols 1992, 1996 (eranskina), Ringe 1995, 1996, 1998 (eta honen lanei Manaster Ramer, eta Greenbergegek egindako erantzunak) eta, hurbilago eta egokiro Igartua 1996a. Lehenagoko oihartzunetarako ikus hemen § 3 osoa eta Bender 1969 eta Campbell 1973 bereziki.

(17) Goiko hizkuntza erromanikotako adibideetara bihurtuaz, halabeharrez ezin azal lau hizkuntzatan *yo*-ren antzeko formak agertzea; askozaz nekezago horri bigarren pertsonako batasuna ere erantsirik.

(lege unibertsalak bilatzen dituen) baino ezingo luke egin. Baina hain zuzen ere, horrela gertatzen ez delako, eta hizkuntz zeinua arbitrarioa delako du bere lekua hizkuntzalaritza historikoan metodo konparatuak.

Meilleten beste adibide klasiko batekin jarraitzeko, har bitez zenbakien izenak frantsesez, italieraz eta espainieraz:

FR.	IT.	ESP.	EUSK.
un, une	uno, uno	uno, una	bat
deux	due	dos	bi
trois	tre	tres	hirur
quatre	quattro	cuatro	laur
cinq	cinque	cinco	bortz
six	sei	seis	sei ¹⁸
sept	sette	siete	zazpi
huit	otto	ocho	zortzi
neuf	nuove	nueve	bederatzi
dix	dieci	diez	hamar

Era honetako antzekotasunak ezin izan daitezke halabeharrez, kasualitatez. Are gutxiago lehen hiru hizkuntzen arteko ezberdintasunak beti korrespondentzia eredu tinko batzuetan sar daitezkeenean, haien eta laugarrenaren artean gertatuaren aurka: *huit / otto / ocho*-ren alboan *nuit / notte / noche, lait / latte / leche* eta beste asko ditugu. Lehendabiziko mementutik hemen garbi dago zein den bide zuzena konkordantziok azaltzeko, baina soilik fonetikazko korrespondentziak dira fruituak ematen dizkigutenak.¹⁹ Xehetasun apartek birretsi egiten dute segurtasuna edota susmo sendoak sortu, hobe: esanguratsua da hiru hizkuntzek bereiztea mas. / fem. 1.ko zenbakian eta ez beste inon.

Honen guzti honen ondoren esan beharko genuke frantsesezko, italierazko eta espainolezko (nahiz familia horretako este hizkuntza askotako) zenbaki izenak tradizio beretik datozela. Bi eratakoak izan daitezke tradizio horiek: a) hiru hizkuntzak datoz etorki beretik (hiruretarik bat ere ez delarik etorki hori) edo b) bi hizkuntzak hirugarrenetik mailebatu du. Nola kasu honetan hau ez den egia ezin baitira hizkuntza batekoak ere besteetarik sortu, (a)-ko azalpena beharko dute.

Eman diren adibideetan konkordantziak ugariak eta korrespondentziak errazak eta osoak ziren eta ez da beharrezko hizkuntzalari trebätua izatea hortaz ohartzeko. Alabaina, norbaitek pentsa lezake arrazoi osoz, gauzak ez direla hain begibistako hizkuntzek denboran eta eremuen aldetik urruti izaki. Hara kasurako:

(18) Oinarri-oinarriko zenbakietarik izan ezarren honen mailegu izaera ez da *bake* edo *domeka*-rena bezain arazogabea: zaharra izatera ***zek* edo ***zetz* behar luke eta berria izatera ez dakit zergatik galdu duen azken txistukaria.

(19) Campbellek (1998: 146-7) ondoko laurok ematen ditu eskuliburuetan zerrendatu ohi diren metodo konparatuaren hasarritzat: (1) "The proto-language was uniform, with no dialect (or social) variation", (2) "Language splits are sudden", (3) "After the split-up of the proto-language, there is no subsequent contact among the related languages" eta (4) "Sound change is regular". Alabaina, iruditzen zait azken hau ez dela soilik "extremely valuable" baizik eta metodoaren beraren oinarri.

SKR	GR	LAT	ARM	EUSK
d(u)va	dyo	duo	erku	bi
tráyah	tres	tres	erek	hirur
catvárah	téttares	quattuor	cork'	laur
páñca	pénte	quinque	hing	bortz
sát	heks	sex	vec	sei
saptá	heptá	septem	ewt'n	zazpi
ásta	ókto	octo	ut'n	zortzi
náva	ennéa	nouem	iun	bederatzi
dáça	déka	decem	tasn	hamar

Izan ere, lehen aipatu kasuetan —italiera, espainiera, frantsesa, errumaniera, etab.— konkordantziak erraz azal daitezke: hizkuntzok mende luzez latina hizkuntza zuen erromar inperioaren parte ziren lurraldeak populatzen izan dituzten herrienak dira. Latinak, dakigunez, lekukotasun abondo du, eta oso ezaguna da. Esan dezakegu, bada, lehengo forma guztien arteko konkordantzia guztiak latinezko *ego* eta *tu*-tik datozelako azaltzen direla. Konparazioz lortu dugun etorki beraren frogantza bermatzera dator honela azalpen historikoa. Alabaina, horrek ez dio hizkuntzazko frogari ezer gehitzen. Alde batetik, hori gabe ere hizkuntzek jatorri berbera zutela frogatua genuen; bestetik, hizkuntza horietariko bat erromanikoa ez izatea gerta zitekeen, lehen erromar inperioa eman zen zenbait eremutan (Grezian, Ekialde hurbilean, Afrika iparraldean, Britania Handian) horrela agitzen baita; orobat kontrakoa ere: hizkuntza erromanikoak hitzegiten (izan) dira inoiz erromatar inperiorik izan ez zen eremu zabaletan Ameriketa, Afrika eta Asian. Beraz, hizkuntzen ahaidetasuna frogatzeko aski da metodo konparatzailearekin eta soilik berak segurta lezake.

Paradigmaren bigarren adibidera bihurtuaz, ikusi dugu, lat., gr. eta sk-ren arteko erlazioak argiak eta armenierarekikoak erabat ilunak izan arren —ia hau eta euskararen artekoak adina—,²⁰ azken honen zutabe arretaz miatuaz konkordantzien froga balioa areagotu egiten dela. Gertakari horri orain gehi geniezaioke “3”-an eta “4”-an grekerak eta sanskritoak plural marka arrunt eta familian hedatuak (-s) dituzten bitartean, armenieraz horien kognadoek -k' daramatela, hizkuntza horretan burutu den lege fonetiko partikular batek hala eskaturik. Areago dena: armenieraz nahiz gainerakoetan “5”-etik aurrera pluralerako nahiz genero moziarako aldaezinak dira; berriz ere, ez euskarazkoak.

Hizkuntza batzuen artean baldintza anatomiko, fisiologiko, psikologiko orokorrek azaltzen ez dituzten edota historiak eta kulturak eragin ez dituzten berdintasunak izatea da etorki bera erakusten duena. Metodoaren arabera, gramatika konparatuan gertakari bereziak dira ahaidetasuna probatzen dutenak, arrazoi orokorren batek azal ezin ditzakeenak. Proba garbiak izaten dira bat datozenean morfologiako ablaut, alternantzia eta enparatuko bariazioak: fr. *est* / *sunt*, gazt. *es* / *son*, it. *é* / *sono* (< *est* / *sunt*; cf. alem. *ist* / *sind*). Hizkuntza i.e. guztietan “izan” aditzean *es-* / *s-* alternantzia da erroan eta *-ti* (s.) / *-enti*, *-onti* (pl.). Hortik at ez da horrelakorik inon kausitzen. Gertakari

(20) Vs. Harkisian.

hauek eta era honetan ezin eman daitezke halaberharrez bi hizkuntzatan batera; hortaz, guztiak dira mementu batean delako hizkuntza batek hartu zituen forma ezberdinak. Honako probak dira —eta ez egitura berdintasun hutsak—²¹ hizkuntz ahaidetasunak ezartzen dituztenak. Hots, bi hizkuntza ez daude genetikoki loturik esaterako soilik bietan SOV ordena azaltzen delako, edota ergatibo morfologikoa nahiz sintaktikoa dutelako edota morfologia eranslea zein isolatzailea izateagatik; bai aldiz x: x', y: y', z: z' ematen bada beren hotsen artean sistematikoki mailegatugabeko morfemetan eta paradigma gramatikaletan.²²

1.5. Barneberreraiketaz

Ikusi dugunez barneberreraiketa hizkuntza bat bakarra edo bakartua denean erabili ohi da, batez ere. Egia esan, ahaideak dituen hizkuntzarekin ere erabil daiteke eta erabili beharra izaten da inoiz barneberreraiketa:

Gaztelania.....> latina, alemaniera.....> aitzingerman., etab.

Zehatzago hitzeginaz, barneberreraiketa eta konparaketazko berreraiketa funtsean berdinarak dira eta bata bestearen eskutik joan ohi dira. Barneberreraiketara besteak ezin duenean jotzen da (zerekin erka ez denean) eta baita konparazioak ahal zuen guztia egin duenean ere. Horrela, ahaide gabeko hizkuntzez landa, barneberreraiketa erabili ohi da bi hizkuntzaren arteko eten luzea ematzeko edo, orobat, laburtzeko hizkuntzaren baten eta aitzin-hizkuntzaren artekoa edota bi aitzin-hizkuntzaren arteko jauzia.

Barneberreraiketak kronologia erlatiboak egiteko ere balio du:

- | | | |
|--|--------|--------|
| 1) ovus > huevo, ferrum > hierro | > | cuelgo |
| | coloco | |
| 2) compárare > comprar, tábula > tabla | > | coloco |

Fox-ek (1995: 145hh) eta hark baino lehen beste askok teoriarik eta praktikan erakutsi bezala, bere langileen artean Saussure gaztea (*Memoire*-eko hogeitabatekoa) duen barne berreraiketa hizkuntzen egitura ereduaren (*patterned*) zordun dugu, egitura horren zenbait alderdi hizkuntzen historiaren iraganeko garaiak zehazteko balia daitezkeen neurrian:²³

(21) Ezaguna da argudio tipologikoen pisua euskarari buruz egindako proposamen genetikotik; ikus Gómez 1989 eta Trask 1997. Ipar-Ameriketara ere gauzak antzera batean ibili direla diosku Mit-hunek (1992).

(22) Cf. "Thus principle, which came to be known as 'the regularity of sound change' is one of the truly great discoveries in the history of linguistics" (Haas 1969: 14). Ohar bedi honen gainean eraikitako metodo konparatuak eman diola hizkuntzalaritza historikoari bere "goren gradoa": "In a survey of scientific method it should serve as a model of one type of investigation, since no other historical discipline has equalled it" zioen Bloomfield-ek eta "In the course of their detailed researches Indo-European linguists have gradually developed a technique which is more nearly perfect than that of any other science dealing with man's institutions" (apud Haas 1969, *ibidem*).

(23) Gai klasikoa da, noski, berreraikia ixuraz bateratua dela, barneko dialekto eta kronologia bereizkuntzarik gabea... hots, benetako hizkuntzek berezko dituzten tasun funtsezkoak peitu dituelarik; askoren artean ikus bedi Dyen 1969.

The principles of Internal Reconstruction can be applied to phonological systems, and also to the structure of morphemes. This can, in a sense, be seen as an extension of the standard methodology of Internal Reconstruction presented earlier, which consists in the elimination of alternation by the reconstruction of a single non-alternating source. Here it is variations within systems and between different morpheme structures that are eliminated in favour of uniform patterns, and the consistent application of this principle results in considerable regularization and simplification (Fox 1995: 178).

Barne berreraiketaren izaeran bertan dugu beste hizkuntzetara jo gabe hizkuntza baten barneko eredu zenbaitetan, hizkuntza horren lehenagoko garaien bati buruzko frogak aurkitu ahal izatea. Egia osoa dio Foxek gertakari hau gauza ezagun eta berrikuntza gutxikotzat aurkeztean, hizkuntz hondarrak eta anomaliak hor baitira beti hizkuntz aldaketaren lekuko. Halaber, arrazoi du aipatzean barne berreraiketaren boterea anomaliak modu sistematikoan erabiltzetik datorrela eta ez dugu bere ondorioarekin ados izatea baino: "The principle is that regular changes within a language will result in systematic alternations between forms, and that examination of these alternations will allow us to recover the original state of affairs" (Fox 1995: 147).

Euskaran beste gutxitan adinako garrantzia duen mailegaketa eta ahaztu nahi ez ditudan lekukotasun akitaniarrak alde batera utzirik ere, badugu atzerago jotzerik benetako ahaideez²⁴ eskas izan arren. Metodo konparatua ez da hertsia hertsian hizkuntzen historiaurrea egiteko bakarra, erabiliena, boteretsuena edo ezagunena bada ere. Isolaturik diren hizkuntzetan batez ere, —baina baita beren lehen lekukotasunetarik familiaren aitzinhizkuntzarako bidai luze edo laburra egin nahi duten gainerakoetan— barneberreraiketa ezinbartzeko lanabes dugu, are historia barneko lekukotasun gabeko garaietarako: zer egin, esaterako 1545az geroz urte-tan lekukotasun haboro ez duen ekialdeko baxenafarrerarekin? Edota Amilletaren dotrinatik (1678) 1825ekora bitartean lekukotasunik ez duen Antzuolako hizkera-ekin?

Erkatzen diren hizkuntzetan, gainera, barneberreraiketa nahiz konparaketaren aurretik nahiz ondoren egin ahal da.²⁵

Mitxelenaren metafora batez esatearren (eta berak ohartu legez, agian ez da metafora hutsa) "todo estado de lengua es un sistema ordenado que por su misma ordenación conserva registrado un mensaje que el paso del tiempo vuelve borroso e ilegible. Esta degradación, si no es necesariamente rápida, es continua y se prosigue incesantemente a medida que las unidades y la ordenación correspondiente a las nuevas estructuras van suplantando a las unidades y a la ordenación antigua" (1963: 11). Izan ere, hizkuntza batek, bere historiaren edozein garai eta egoeratan, komunikazio sistema izateaz gain bere iraganaren berri ere ematen digu.

(24) Hots, guztientzako aitzinhizkuntza berreraikitzen zein batabestearen arazoak konpontzen lagun dezaketenez.

(25) Ikus BIBLIO eta Campbell 1998 finougriozko adibide interesgarri baterako.

1.6. Aitzinhizkuntzaz

Edozein hizkuntza izan liteke besteren aitzinhizkuntza. Izan ere, denbora aski iragan ondoren hain hizkuntzaren ondokoak beren artean aski aldeniak izan litezke haiek erkatu eta guztien jatorrian dugun hizkuntza berreraikitzeke; bestalde, berreraiketa horren emaitzak ondokoetan ezagut litekeen materiala bil lezake. Hori bai, delako ondoko hizkuntzen bitartez berreraiki dezakegun aitzinhizkuntza ez da inoiz ere hizkuntza horren lekukotasun idatzietan kausitzen dugun berbera aitzinerromantzearen eta latinaren erkaketaren adibide famatu eta esanguratsuak dioskunez: forma eta ezaugarri asko, bereizkuntza garrantzitsu ugari, galdu egin dira ondoko hizkuntzetan eta, beraz, ezin berreskura litezke aitzinhizkuntzarako, ama hizkuntzan izan zirela segurtasun osoz jakin arren lekukotasun askeen bitartez: gogora latinaren deklinabidea izen morfologian edota hainbat denbora eta modu aditz sintetikoaren morfologian. Halere, egungo eguneko lekukotasun idatziak ahozko hizkerarekin eta hizkuntzaren osotasunarekin erka bagenitza, erraz ohartuko ginatete lekukotasun idatziek ere ez digutela ematen hizkuntza osoaren (dialekto ezberdintasunen, lexiko aldaketen, erregistroen...) berri. Gainera, kontuan izan bedi berreraiketak inoiz idatzi ez dena berreskuratzeko aukera ematen digula; izan ere, hori da bere helburu nagusia historiaurrea argitzera abiatutako ikersail legez.

Aitzinhizkuntza ondoko hizkuntz(ar)en lekukotasunean oinarrituaz berreraikitzen da, hasieran lekukotasun horretan kontraesanik gabeko alderdiak, garbienak, bilduak eta gero berreraiketa finduak analogiak eta bestelako etsaiek sortutako irregularitatea deseginaz ezkutukoagoa. Egin litezkeen konparaketa eta berreraiketa arazoizko guztiak egin ondoren eskuratua ondoko hizkuntzen eredu prototipikoa genuke, hots, aitzinhizkuntza deitu ohi duguna (Haas 1969: 31-33).

Orain aitzinhizkuntza eta ondoko hizkuntzak erka bagenitza ikusiko genuke azkenak beren artean ezberdin izateaz landa, berezi egin direla aitzinhizkuntzatik ere; bereizkuntza honi deitu ohi zaio "hizkuntz aldaketa". Aldaketa honetan fonologiak erregulartasun handia erakusten du, usuenik hizkuntzalariak gai direlarik hori gobernatzen duten "lege fonetikoak" antzeman eta zehazteko. Lege fonetiko horiek duten ahalmen jakingarria dugu aurreikuspenarena; ez dute, ez, etorkizuna aurreikusten korrespondentzia fonetiko ezagunak dituen hizkuntza bateko edozein kognadoren forma fonetikoa baizen. Gramatikaren enparatuko alderdiek (inflexioa, gainerako morfologia, lexikoa, sintaxia) ez dute erakusten fonologiaren erregulartasun berbera, edota gu ez gara antzemateko gai oraindik, hobe: "But since it has not yet become possible to make predictable statements about any of these kinds of changes, the verifiable regularity of sound correspondences is seen to be even more precious than it may have seemed at first" (Haas 1969: 33).

1.7. Berreraiketaz

Berreraiketa bat egiterakoan, dela konparatua, dela barneberreraiketa, pausu eta arau batzuk bete ohi dira:

1. Baldin eta H-tik atera badira H' eta H" eta H-ko *a*-ri H' eta H"-ean *b* eta *c* badagozkio, orduan $a = b = c$ berdintzen dira; alderantziz, H' eta H"-tik abiatzen

baga $b = c$ berdinketak aitzinhizkuntzako unitate bat, $*a$, definitzen du. Ohar bedi $*a$ ez dela a baina haren ordez dagoela; postulatutako aitzinformak kasu askotan hizkuntzaren estatu batean ezagutzen ditugun egiazko formekin propietate homologoak dauzkate, ikusi bezala —horrela hititaren laringalekin edo grekeraren ezpainbelareekin— baina ez gehienetan (cf. latina eta aitzinerromantzea).

2. Hurrengo pausua estrapolazioaren bidez ematen da: H, hizkuntzaren delako estatu bat, ezagutzen ez dugunean, bakarrik H' eta H'' (hizkuntzaren ondoko egoe-rak) ezagutzen ditugunean eta H' eta H'' hauen formetan egokitasun erregularrak nabaritzen direnean, $*H$ aitzinhizkuntzaren aitzinformak postula ditzakegu.²⁶

Berreraiketari oinarrikoa da suposatzea fonema bat ezin zatika daitekeela edozein testuingurutan bi edo gehiagotan. Hau da, ezin esan daiteke lat. $a >$ gazt. a , e edo aitzineuskara $*o >$ zuberera o , u . Izan beharko du lat. $a >$ gazt. a / x_y eta lat. $a >$ gazt. e / x'_y' gehi AE $*o > Z o / w_z$ eta $*o > Z u / w_z$.²⁷

Bestalde, hizkuntza batean aitzinhizkuntzako bi fonema erabat batu badira —latinaren a luzea eta a laburra, demagun— testuinguru guztietan, ezin berreraiki daitezke harentzat biak, bat bakarra baizik. Gainera, berreraiketari sinpletasunaren postulatuarekin dihardu: $b > f$ bezalako hots lege batek prozesu baten bi muturrak baino ez ditu adierazten; litekeena da, bada, batetik bestera oso bide ezberdinetatik iristea. Gerta daiteke ere zah. $b >$ berri b bezalako lege baten atzean $b > p > \dots > b$ ego-tea. Alabaina, inor ez da horrelakoak proposatzen hasiko bestelako argudio oso bortitzak ez baditu.²⁸

Oro har, soinuen arteko egokitasunek —hizkuntza bateko testuinguru artean nahiz konparazioan— garai zaharrago bateko fonemak definitzen dituzte: zenbat korrespondentzia hainbat unitate. Halere, batzutan egokitasun bakoitzagatik mekanikoki unitate bat berreraikitzen bada aitzinhizkuntzarako absurdoetara iritz gaitzke: gogora (cf. Mitxelena 1964) hizkuntza kartvelikoetan bost bokal edo gutxiagoko sistematarik hamarreko latinaren antzeko bat eraikitzeke Polack-en saioak. Euskaraz ere hotskidetasun irregularrak ditugu ondokoetan baina inork ez

(26) Bideabar, ez dira nahasi behar $>$ eta $<$ ikurrak. Lehendabizikoa kalkulu erregela bezalako da. Baldin eta badakigu lat. $o >$ fr. o (silaba azentudunetan), orduan *fortem*, *mortem*, *portum*, *sortem*-etik *fort*, *mort*, *port*, *sort* aterako dira. Berdin euskararentzat VnV $>$ VøV proposatzen bada, *ballena*, *arena*, $*gazta$ -na, $*ardano$ -tik nahi eta ez *balea*, *area*, *gaztae*, *ardao* aterako dira. Alderantziz ez da egia: hots, soilik *balea*, *area*, *gaztae*, *ardao* baditugu, horietarik ez da automatikoa aitzinformetara iristea, beste hainbat gauza segurtatu gabe. Egia esan, nahiz eta euskaraz VnV $>$ VøV eman dela jakin eta formok euki, etor zitezkeen fenomeno hori pairatu ez zuketean, $*baLea$, $*alea$, $*gazdae$ eta (disimilazioz) $*ardado$ -tik, demagun. Hemendik ikusten da aitzinformen interes bakarra benetako formak ahalik eta egokien eta errazen azaltzea dela; cf. Mitxelena 1963.

(27) Hemendik Boudak ezin erabilia euskarazko $b > m$ erregela *abeto > ametz* justifikatzeko (cf. Mitxelena 1950), erregela hori hitz hasierakoa baita funtsean; hitz amaierarako euskarazkoarentzat suposatu beharko lirakeen aldaketek ere ez zuten laguntzen, jakina.

(28) "Onarpen postuluak" (cf. Mitxelena 1963:) dioskuna zera da, hizkuntza bateko hots batek beste hizkuntza batean egokitasun bat baino gehiago badu, konparatzaileak berak hautatu behar dituela kide egokiak bestelako arrazoietan (semantikoetan, esaterako) oinarrituaz: cf. gr. *sákos*: ind.zah. *tvacas* baina gr. *sebo*: ind.zah. *ryab-* eta are gr. *seúo*: ind.zah. *cyav-*. Marka bedi hemen ez dela inongo tranparik: metodoak eskatzen diguna ez da hizkuntza batek beste ahaide batean egokitasun bakarra izatea, aitzinhizkuntza ondoko bateko testuinguru jakin batean hori izatea baizik.

du aitzin fonema ezezagunik edo berririk postulatu behar izan horietarako: B *lo*: G, etab. *lo*, baina B *narru*: G, etab., *larru* edota B *izter*: G, etab. *izter*, baina B *ule* / Gain. *ile*.

Izan ere, horrelakoak gutxi dira eta ez dira oinarririk sendoena konparaziorako. Uler bedi metodoaren indarra erregulartasunak kasualitate hutsez ezin gertatzen datzala; hobeko dugu, beraz, lekukotasun ugari berresten dituzten egokitasunetan oinarritu, ez besteetan.²⁹

Egokitasun edo korrespondentziak ezarri ditugunean hurrengo pausua aitzinhizkuntzako unitate abstraktoei sustantzia fonetiko eta forma fonologikoa ematea da. Horretarako hizkuntza edo hizkera erkatuetako gehienetan agertzen dena izan daiteke erizpide bat, geografi distribuzioa beste bat, hots aldaketan joera ohikoena ere hor da, etab. (ik. Crowley 1992: 90hh eta hemen beheaxeago)

Berreraikitzen diren fonemek eta, oro har, formek, benetako hizkuntzetakoek betetzen dituzten baldintzak bete beharko dituzte eta sistema bat osatuko ezagutzen diren hizkuntzek bezalaxe: gogora, adibide famatuena bide den indoeuropearen kontsonantismoari buruz Jacobsonek sortu eta beste hainbatek garatutako eztabaida (cf. Bernabé 1988 eta Igartua 1996b).

Bestalde, aitzinhizkuntzaren fonemen ezaugarri bereizleak zehaztea errazago izango da hura hizkuntzetarik gertu bada; bestela abstrakzio handiak egin beharko dira eta ilunago gertatuko. Mítxelenak (1963) markatu bezala, ez da indoeuroparlarrien berreraiketak eta erromantzelarrienak erkatzea baizik: bigarrenak erraz asma daitezke nola ahoska baina ez besteak askotan.

Pausu oinarrizko hauetarik aurrera berreraiketean zailtasun eta arrisku ugari da: analogiaren eragina, alternatzen testuingu eta arrazoiak asmatzea, esanahiak zehaztea, kategoria gramatikalen ezarketa, sintaxia... Mailegaketak inoiz korrespondentzia faltsuak eta hortik etimologia faltsuak sor litzake eta baita jatorriko lexikoan gordetako benetakoak estali ere; arazoa ez da txikia ohartzen bagara frantsesaren hiztegian gutxiena dela haren aitzinhizkuntzatik, latin arruntetik, datorrena eta gehiena liburu-tako latinetik, alemanieratik, arabetik, gaztelanatik eta beste hainbat hizkuntzatik (cf. Meillet apud Touratier 1990: 21).

Berrikuntza paraleloek ere aitzinhizkuntzan han inoiz izan ez den ezaugarriren bat kokatzera eraman lezakete hizkuntzalaria: sabaikariak latinez, euskalki guztiek diferentzia txikiekin duten artikulua aitzineuskaran, esaterako (cf. Lakarra 1996:).

Korrespondentzia faltak ere burukomin eta kalapitarik sor lezake: "s'il n'y a rien à comparer, il est bien évident que la méthode comparative est désarmée et n'a plus rien à dire" (Touratier 1990: 23). Alabaina, hortik ez da jarraitzen aitzinhizkuntzan delako elementu hori ez zenik. Huts honen adibide nabarmena izan da (cf. 11. oh.) indoeuropearak soilik paratxia zuela pentsatzea, ondoko hizkuntzetan subordinazioa

(29) Hau idatzi eta gero ikusi dut, harriduraz egia esan, Rebuschik (1999:) *i* eta *u*-ren bitarteko bokal bat proposatzen duela; alabaina, kognado gehienek ez dute lehen ezagutzen ez genuen oposakerik (ez aitzinhizkuntzako) unitate berririk erakusten: *ile* / *ule* < **eule*, *utzi* / *itxi* < *eutzi*, *urten* / *irten* < *egorten*, etab.

modu diferentez egiten zela aurkitzean aitzinhizkuntzarako ezer ezin berreraikiaz. Baina ez da hizkuntza naturalik subordinaziorik gabe...³⁰

Analogiaren arriskuak ikus litezke *ene* eta *dauz* adibide ezagunak (cf. Lakarra 1997a, Mitxelena 1964) aztertzean. Oro har, aldaketa fonetikoak irregulartasunak dakartzkion bitartean sistemari, analogiak berdindu egiten ditu ezberdintasun zaharagoak. Berreraiketean ari denak kontuan izan behar du hots aldaketa bat gertatzen denean, hots hori agertzen zen kasu guztietan agitzen dela (testuingurua kontuan !) ez, aldiz, analogiaren kasuan. Hau fenomeno morfologikoa da eta hitz klase batzutan ematen da, baina ez besteetan. Ondorioak ezberdinak dira eta berreraiketarako balioa edo oztopoa ere bai.

Alternantziak, hots aitzinhizkuntzaren fonologi sistemako unitateak ezagutu ondoren formetan zuten distribuzioa atera behar da oraindik (ik. Mitxelena 1963). Alegia, jakin behar da zergatik batzutan *cerrar*, *cerradura*, *pedregal*, *pedrea*, *portal*, *portero* eta besteetan *cierra*, *pedra*, *puerta*, etab. Kasu honetan eta beste askotan azentuaren arabera batzutan bat eta besteetan bestea, baina asmatu beharra dago aitzinhizkuntzan hotsek zuten distribuzioa eta baldintza multzoa. Hemen ere zenbat eta urrutiagokoa zen alternatziaren atzean zen legea, zailagoa asmatzen.

Esanahiaz zer esan! Benetako hizkuntzen propietateak izaki aitzinhizkuntzek, beren adierazleak ere esanahi zehatzak edota benetako hizkuntzetakoak bezain zehatzak beharko dituzte. Askotan hain ezbedinak dira ondoko hizkuntzetako forma kideen esanahiak non aitzinhizkuntzarako haien intersekzio moduko esanahia berreikitzean hau oso ilun eta zehaztasun gabea izan ohi den. Gramatika kategoriak eta sintaxiaren aldetiko bereraketak oso zailak direla garbi gelditu da aitzinindoeuropearaz egindako saioetan; aitzin-aitzineuskarazkoak ez dira oraindik ia hasi eta hemen ere ez bide dira gauzak errazegi izango.³¹

Aipatu ditugun zailtasunak eta beste zenbait nolazpait ematzeko berreraikitzaileak baditu zenbait erizpide lagungarri (inoiz ere erabat seguru gertatu ez arren).³²

1) aldaketa ohikoagoen irizpidea: baldin eta H-n *s* eta H'-n *b* baditugu, *b* > *s* baino naturalagoa da *s* > *b* eta hau hautatuko dugu hainbaterik hainbatean; orobat *n* > *b* edo *n* > \emptyset eta ez alderantzizkoak.

(30) Argudio tipologiko honetaz landa eman daiteke beste bat familia horretatik atera gabe: subordinazioa (erlatiboa, demagun) hizkuntza i.e. guztietan agertzea, nahiz eta modu diferentean, ezin azal liteke aitzinhizkuntzan horrelakorik ez izaki. Funtzioa eta forma berezi beharra dugu.

(31) Mitxelenak (1964: __) *gose* (iz.) / *gose* (adj.), *ilun* (iz.), / *ilun* (adj.) / *ilun* / (adlag.), etab. jatorrizko lexiko zaharrekoak direla eta antzekorik maileguetan ez dela aurkiturik aitzineuskaraz kategoria berezikuntzak inguruko hizkuntzetan bezain argiak ez zirela atera zuten. Dixonen (19__) analisia aplikatuaz aitzineuskararik zaharrenean adjetibo kategoria berezirik ba ote?

(32) Ahapaldi hauetarako ikus Mitxelena 1963. Haasek (1969: 51-52) erakusten duenez, berreraiketa zaildu egiten da morfologian: paradigma osoak soilten dira batzutan eta ñabarragoak sortzen besteetan, lege fonetikoak aldatzera doazen (edo haiei aurre egiten dieten) aldaketa analogikoak abiatzen dira... "If the analogical leveling has been extensive enough, it will not be possible to find the solution by making a conventional phonological reconstruction of each term in a paradigm. Instead it may be necessary to make a series of hypotheses about the structure of the paradigm as a whole until a model is arrived at which comest nearest to explaining what is actually found in each of the daughter languages".

2) hitzak laburtzeko joera: Konposaketaren bat ez bada tartean, zaharragoak dira forma luzeenak, berriagoak laburrenak: *edo* > *o*, *deu* > *do*, *abate* > *ate*, *leben* > *len* eta *mahats* > *mats*, nahiz eta Schuchardt eta Boudari ez gustatu (cf. Mitxelena 1950).

3) Hitzen luzeraren erizpidea: Hitzen luzera hizkuntza baten forma kanonikotik gorakoa bada bi aterabide ditugu: a) maileguak dira, b) konposatuak (edo eratorriak), nahiz eta guk zatitzen jakin ez; erizpide honen garapenak dira, demagun Lakarra 1995 eta ondoko lanetan aitzineuskararen erroaren inguruan (cf. § XX).³³

	172. ori	S. aurag	R. awareʕ
	173. zaar	S. asser	R. awessar
	174. legor	S. ʕgar	
	191. ama	S. ʕimmi	
	195. soka	S. iziker, asʕun	
	207. izen	S. isem	R. isem

Iruzkina.

(1) oso ahula da: *-i* dugularik 2. pertsonan ere (eta *-u* pluraleko lehen bietan) *n*-hutsa gelditzen zaigu; VC genuke **en-* batekin arituaz (cf. *ene, eni*).

(2) ezerezean gelditzen da (1)en iruzkinaren ondoren: **kbi* batetik abiatuaz ere soilik C- genuke.

(4) kognado segurutzat izatea harrigarria da; aurreko sarreretan esandakoaz gainera, nabarmena da bereberez singularraren gainean eraturia dela.

(24)-an *haur*-etik (< *Kaur*) abiatu behar dugu, honela CVV edo genukeelarik. Alabaina *-ur* amaiera berezi ahalko bagenu CV baino gutxiago geldituko litzaziguke.

(34) itxuraz hobetu egiten da **e-* batetik abiatuaz, baina hori aurrizki bat dugu; VC (*-ul*) baino ez zaigu erroan gelditzen.

(39)an CC garbi garbia genuke euskarazkoaren bigarren silabako bokalismoak (*-in*, *-un*) forma luzeagoa eskatuko ez balu.

(89) CC (txist.-dardark.) itxuraz.

(119)-an euskarazkoa konposatua izateaz landa, *eme-* mailegua dugu.

(120)-an VVC dugu; *haur*-etik abiatuaz ez da ulertzen bereberez zergatik galduko zen hasierako leherkaria edo hasperena.

(121) CC (leherk.-txist.) itxuraz.

(165)ean VC genuke bereberez bokalak kontuan hartu ahal balira ere.

(168) ia CCC (b-l/r-txist.) dirudien arren euskarazko txistukaria atzizkia delarik, CV baino ez da gertsia-hertsian.

(172) C edo ia VC baino ez da gehienez ere; kontua da kognadoa desagertuko litzatekeela euskarazkoa ezingo balitz *bor*-etik berezi.

(173)-an *zabar*-etik abiatuaz gauzak zaildu egingo bide lirateke (cf. 120), batez ere **zandar* < **zan-or* edo balitz (cf. *azkar* < *baz(i)-gor*).

(174) oso ahula da; euskarazkoan bokalarteko herskaria berankorra baita.

(191) ez dirudi oso erabilgarri inongo konparaketatarako eta are gutxiago euskaraz bere *-m* horrekin; bidenabar C bakarra dugu eta bokalismoak ere ez dirudi egoki.

(195) mailegua da, euskaraz bederen.⁷³

(207) orain bereberez da mailegu argi; euskaraz, bestalde, bada *uzen* ere.

Azken finean, dozena t'erdi ustezko kognado hauetarik gutxienean da (89 eta 121.a ?) azterketa zehatzago baten ondoren irauten duena. Halabehar hutsa genuke, beraz, ez % 6tik 11ra bitartean (7.500-10.000 urtetako etena) baizik eta %1en inguruan baino (14.000 urte); VC edo CV onar bageneza 9 kognadotzakok igaroko lukete gure baheketa, Tovaren erdiek eta %3-6 liratekeelarik, gutxienezko 10.000-12.000 urtetako etena suposatuko lukete.

Tovarek eta bere lagunek metodoaren sorlekuan bertan (EEBBetan) hizkuntzalari zientifikoen artean eta modu estandardean antolaturiko hizkuntz familietan eztabai-datzen hasia zenean, 1961ean Euskal Herrira inportaturiko ustezko alternatiba horrek ez du inoiz lortu metodo konparatu klasikoa gainditzea, eta metodo onarga-

(73) Honetan eta aurrekoan ez da ikusten zergatik ez den ematen, hainbatetik hainbatean, Rifeko bereberek forma.

rrien zerrendan ia mende erdi honetan sartzea ere lortu duenik ezin esan:⁷⁴ aspaldi ahaztuxea eta baztertua dugu ofiziokoen artean.⁷⁵

En conclusion, la glottochronologie nous paraît être une technique mal fondée, fause et même théoriquement absurde. Et de par sa facilité même —et superficialité— elle nous paraît représenter un danger pour la linguistique contemporaine. Un danger encore plus grave que ne l'est la glottochronologie en elle-même: c'est celui qu'implique la quantification de ce qui n'est pas quantifiable, la prétention de remplacer la méthode comparative et l'histoire par les mathématiques et le calcul. On a souvent l'impression qu'en employant des symboles et des chiffres, l'on est exact et cohérent. Mais l'exactitude réside en réalité dans la pensée et dans sa correspondance aux faits, et non pas dans les symboles et les chiffres, qui sont de simples instruments, parfois commodes, pour l'expression de la pensée. Si la pensée est fautive ou absurde, les symboles et les chiffres ne nous permettent pas de la rendre exacte et cohérente en elle-même: ils nous permettent seulement d'être d'une fausseté et d'une absurdité mathématiquement parfaites (Coseriu 1972 [1965]: 452).

Ene iduriko, egungo hizkuntzalari historiko gutxi onartuko du gure artean agertu berri den ondoko hau:

Metodo lexiko-estatistikoak bi hizkuntzen artean gaur egun dagoen lotura erakutsi ez ezik, substratu baten osakide inoiz izan ziren ere kalkulatzeko balio du. Lorturiko koerlazio-zifreei (sic) esker jakin dezakegu hizkuntza horien arteko ukipena K.a. 10.000 urte gauzatu izan zela. Zerbaki horrek garrantzi handia dauka, paleolitiko —magdalenieneko, zehazkiago— Europan jartzen gaituelako; artean, gailur-gailurrean zebilen (eta hedatzen ari zen) euskal-akitaniar zibilizazioa. Estornesen arabera, kaukasierarekin izaniko ukipen edo harreman hori, paleolitoko euskal-akitaniarrak Erdialdeko Europa eta Ekialde Ertainera jalgi zirelako da (Martinez 1998: 55).

Nahi genuke metodo lexiko-estatistikoak horrelako boteretik balu! Ez dakit Martinez benetan ohartu den, begibistakoa den arren, metodo hori zenbait asmakizunen gainean eraiki zela: oinarritzko lexikoaren kontzeptua eta bere partaideen iraunkortasuna.

(74) Ikus Coseriu 1965, Haarman (1990)an eta bestek emandako bibliografia eta frogak; Blust-ek (19__) bere iruzkinean garrantzi handia ematen dio Lehman-en linguistika historikoko eskuliburu famatuaren edizio berria gaitzesteko honetan egilea glotokronologiaz lehendabizikoan baino biguñago agertzeari.

Gure artean bada Echenique-k (1987:) ustezko erlazio euskara-uralikoan ikerketa glotokronologiko gehiago beharko liratekeela suposatuz ez ote dion abegi gehiegizkoa egiten pentsatzen duenik (cf. Gorrochateguiaren iruzkina, 1986b:). Bidenabar, Décsy-ren (1990) aitzinuralikoaren berreraiketan ez da inongo hurbilketa ez erreferentziarik euskarak guzti hartan izan zezakeen inongo egitekoz.

(75) Cf. "Lexicostatistics and glottochronology are still practised in a few odd corners of the world (including Russia, where these methods were introduced in the 1980s, twenty years after being discarded by serious linguists in the West). I am sorry to have to report that one of these corners is in Australia" (Dixon 1997: 36, 5. oh.). Halere, amatteurrek eta atzeratuek darabilte gehienbat han ere. Bidenabar, barregarri xamarra da Txillardegiren 1977ko lanaren akabuan agertzen den presa "gure Kaukasoko anaiak" glotokronologiaren berri ona(k) helerazteko; Mitxelena 1979b-n adierazten den bezala, ez da bertan Tovar eta gainerakoek 1961eko lanarekiko aitzinamendu funtsezkorik, ezta aurreko bi hamarkadetako uholdeen berririk ere.

suna onartzean batetik eta hizkuntzen aldakortasun-indizea unibertsal eta iraunkortzat ematean, bestetik (cf. Campbell 1998, beste hainbaten artean). Are gehiago, nabarmena da glotokronologiak ez duela inongo ahaidetasun genetiko *berririk* erakusten; izan ere, ez da horretarako diseinatu.⁷⁶ Gehienez ere lehendik norbaiten sinismenean zen bat neurtzeko asmatua dugu. Hots, “lotura” hori eta beste hainbat gauza aurretiaz onartuaz, zenbakien bitartez frogatu nahi luke.

Bada, ez da soilik bere “oinarrizko lexikoa” uste baino askozaz aldakorrago izatea —mailegaketaren aurkako xertakuntza ahulekin— edota aldaketa erritmoa ez dela bera (% 1,4koa edo) mende, garai eta lurralde guztietan.⁷⁷ Bi horien ahulezia aski izan arren glotokronologiaren oinarri eta asmo eta asmakeriak oro deuseztatzeko, bada oraindik larriagorik: zerk eragin lezake ondoko hirukotean “antzekotasunetan” abiatuak gure erantzuna zuzena izan dadin?

(house) etxe [ece] chez [se] casa [kasa]

Itxura hutsak erdiko biak lotzera garamatza zalantzarik gabe, ez azken biak; egia historikoa, ordea, kontrakoa da, hain justu. Frantsesaren eta euskararen forma *modernoetako* berdintasuna halabehar hutstzat salatzen dute beren historia ezagunek:⁷⁸ frantsesezko morfemaren kasuan badakigu noizbait bokal gehiago eta irekiak zituela eta sabaikaria belarea zela; euskarazkoarenean ere baita, gutxienez, sabaikaria ez dela betidanikoa, bestela bizkaieraz ez bailitzateke /ece/ gertatuko. Baina, eta historia ezagunik ez duten hizkuntzetan edota historia ezagunekoen historiaurrean: zerk saihestuko ditu glotokronologia itsuaren halabeharreko hutsak?

Alderantzizko bidetik, edozein hizkuntzalari historikok —edota hizkuntzaren eboluzioaz artatut— badakike Meilleten adibide klasikoaren berri: “bi”-arentzako latineko *duo* (eta hizkuntz familiako gainerako kideetakoak) eta armenierazko *erku* jatorri bereko dira, antzekotasun material arrastorik izan ez arren; Matissoff-ek (1990) eta Puyllleblanck-ek (1992) erakutsi dute, aldiz, mandarineraz badela *er* “bi”, ez batarekin ez bestearekin inola ere “lotua”,⁷⁹ *lotura* hitzak linguistika genetikoan izan dezakeen adiera hertsia eta, beraz, interesgarritan (cf. Meillet 1925): halabehar hutsaren ondorena dugu euskarazko *alkar* eta holandesezko *alkaar* bezala (cf. Mitxelena 1964).

(76) Ezta “ukipenak” miazteko ere; ustezko kognadoen artean zeintzuk salatzen duten jatorrizko lotura eta zeintzuk mailegaketa ez bereztea da, hain zuzen, metodo honen akatsik larrietakoa. Beste kontu bat da oinarrizko lexikoa erabiltzea jatorri eta erlazio *ezaguneko* morfema eta hizkuntzen artean mailegaketa neurtzeko corpus gisa, Chaker-ek (1984b) bereberaren zenbait dialektorekin egin legez. Martinezek ongi ezagutu beharko lukeen Tovar et alii (1961: 258, 21. oh.)-en argi irakur liteke: “Swadesh *Perspectives* 194 examina con cuidado el problema de la eliminación de los préstamos en la aplicación del método. Pero sólo la historia conocida de la palabra es la que puede darnos seguridad, y la aplicación principal del método, y donde tiene sus plenos valores, es allí donde no sabemos la historia”. “Mass comparison” delakoarekin berdintsu: “Without demonstration that the etymologies are based on cognates rather than borrowings, his conclusions are unsupported” markatzen du E. J. W. Szathmary-k Greenberg, Turner & Zegura-ri egindako iruzkinean (1986: 490).

(77) Euskal testuek, beren urritasunean, 16. mendetik 17.era bitartean gertatu zen aldaketa —aditzaren egituran, demagun— 18.etik 19.era bitartean adinakoa izan zela ote dioskute?

(78) Cf. § 1.4.ean *bogei*-ren kasua.

(79) Ezta, gehi genezake, euskarazko *ber ere (*birur* < *ber-ur; cf. ber-en eta *la(C)-ur).

Behin eta berriz lege fonetikoaren eta egokitasun semantikoaren beharra ikusi da glotokronologia edota beste edozein metodo ezertarako izango bada; hainbat hizkuntzalarik konparaketa lexikoa okulista eskuzabalaren azterketa antzeko izan beharrean segurtasun minimo batekin aritzeko egindako saioren artean ezagunena Bender (1969) dugu. Gainerako erlazio linguistiko guztiak bezala, urrutikoak ere hizkuntzen arteko antzekotasunen menpe direlarik⁸⁰ arazoa antzekotasunen azalpen genetikoa aldeztu duen eta halabehararren, hedakundearen edo unibertsalen bitartezko azalpenak saihesten dituzten kasuak aurkeztea litzateke. Usuko jokabidea hitzzerrendak prestatzea eta hots- eta esanahi-antzekotasunak dituzten hitzak berdintzea izan da, aski den adinako antzekotasun kopurua zenean erlazio genetikoa aldarrikatuaz. Bender-ek (1969) 21 hizkuntza aztertuaz honelako ondorioak atera uste zituen kognado egokiak hautatzeko eraz: 100 hitzetako zerrenda batean bi egokitzapen CVC-k % 94ko segurtasuna eta hiruk % 99koa emango omen liguke, bokalak eta kontsonante pareetarik bat berbera izanik eta beste pareak soilik ezaugarri bateko ezberdintasuna badu edota bokalak albo batera utziaz kontsonanteak berberak badira.

Benderena kuantifikazioaren bitartez halabehararren, hedakundearen eta unibertsalen eragina ezabatzeko ahalegina izan arren, Campbellen ustez (1973: 66), honela ere ez dugu aski erlazioaren froga asebeteko izan dadin.⁸¹ Horren froga gisa, proposatutako urrutiko erlazioetarik bat aztertzen du, ustezko Boliviako uru-chipaya eta hizkuntza mayen artean proposatutakoa, hain zuzen.

Sapir-ek egiteko horietarako proposatu zituen “ezkutuko ezaugarriak” ere ez dira beti halabeharretik, hedakundetik edo unibertsaletatik aske (Campbell 1973: 68-70), eta Campbellek horiek —lehen aipatu baldintzetan— *eta* egokitzapen fonetikoak, biak, ikusten ditu beharrezko urrutiko erlazio genetikoa frogatzeko. Greenberg-en *mass-comparison* metodoa kritikatuaz Campbellek ez du uste onargarria izan daitekeenik gutxi-gora-beherako egokitzapenak eta berauek CV edo VC segida laburretan onartzea. *Matching* eta *sound correspondence* bereziaz,⁸² edozein erlazio-proposamenek egiantzik izan dezan Campbellek oinarrizko hiztegiko hainbat *matching* eskatzen ditu (ibid.). Bestalde, gogoratzen du CV formako *matching*-ak ez direla CVC-enak bezain askeak halabeharretik, onartezin begitantzen zaizkiolarik horietan

(80) Eta hortik inoiz ezin erabaki izana ere, cf. Campbell 1995. Bidebatez, “the syllable structure and morpheme structure largely coincide” diosku (161) kexuera eta aimararenei buruz. Halere, “The combined weight of the grammatical and lexical evidence, while not sufficient to ‘demonstrate’ a genetic relationship between Quechuan and Aymaran languages, is adequate enough to make the hypothesis tempting” (195); cf., aldiz, A. D. Rodrigues & W. Dietrich “On the linguistic relationship between Mawé and Tupí-Guaraní”, *Diachronica* 14, 265-304: “The conclusion points to the probability of Mawé having split from a Mawé/ Aweti/ Tupí-Guaraní branch of the Tupí stock before the dispersion of the Tupí-Guaraní family as such”.

(81) Bouda 1950-ean (eta egileak berak diosku hor bere “perlak” bildu zituela) ez dira Benderen baldintza minimoak ere betetzen; ikus Lakarra 1997 zenbait adibidetakoa.

(82) “A matching is a tentative sound correspondence which becomes a real correspondence only when one is able to reconstruct a valid protoform. Correspondences are assumed to descend from a common source genetically, whereas matchings may in fact be due to a number of other things as well, borrowing, onomatopoeia, etc., not excluded” diosku (1973: 71).

eta luzeagoetan kontsonante soila bat etortzea.⁸³ Azkenik, egokitzapen semantikoa nahita nahiezkotzat du eta onomatopeiak bazterkizun dira hots-kidetasunak ez historiari baizik eta erreferenteari zor baitakizkioke (1973: 72).

Laburtu ditugun gogoetok Olson-ek proposatutako uru-chipaya eta hizkuntza mayen arteko 121 kognadotako zerrindari ezartzean, Campbellek (1973: 85) hoskidetasunak 35 kasutan gutxienez irregularrak direla aurkitzen du, bi hizkuntz familien lotura genetikoaren aldeko proposamena horrela larri ahulduaz. Gainetik, 40 etimologia eman ziren aitzin-mayaren beste horrenbeste berreraiketa okerretarako eta 6 kognadotan Olson-ek mayazko formak chipayako binarekin lotu zituen. Bi ustezko korrespondentzia ezabatu behar dira, mayak jatorriz zapoteketik mailebatuak direlako eta beste hiru susmagarriak dira chipayan (beharbada quechumaranetik hartuak). Olsonen adibideetarik 30etik gora ez dira CVC izatera iristen eta sail horretatik hoskidetasun erregularrak ez dituztenak ere kendu behar dira. Guztira 121 kognadoetarik portzentaia handia da halabeharrari atek itxi ez dizkiona, are handiagoa bederatziz onomatopeia, dozenerdi zatiketa morfologiko oker —gogora, halaber, aurreko oharrean esana— eta berrogeitsuren erlazio semantiko ahulak kontuan izanik.

Bildutako informazio negatiboaren arabera Campbellek (1973: 86) aurkeztutako kasu gehienak proposamen genetikoaren sostengutzakoetarik kanpo utziko ditu. Alde izan daitekeen guztia bilduta ere dozena bat kasu edo baino ez da, eta hauetan ere arazo fonetikoek edo semantikoek beraiekin dakarte Campbellen ondorioa:

I do not deny that there may be a genetic relationship between these two families, but Olson has not been shown that his similarities are indeed to be attributed to some special relationship and not possibly to chance or other factors (1973: 87).

Bestalde, Benderen baldintzak beteaz Campbellek suomieraren, cakchiquelaren eta quechuaren arteko “antzekotasun” haboro aurkeztean haren ondorioak ez direla sinisteko eta areago dena lexiko-miaketan oinarritutako metodoek erlazio genetikoak suposatu bai baina frogatu ezin dituztela erakusten du: “I conclude, therefore, that no method of lexical scanning or counting in and of itself is valid for finding distant genetic relationship” (Campbell 1973: 68).

Alabaina, bide horretatik aitzinatuz —morfologiaren eta korrespondentzia fonetikoaren egitekoa onartuz, alegia—, eta glotokronologiazko ikerketek har zezaketen hoberena dela begibistakoa da aspaldidanik, zein litzateke metodo konparatuarekiko funtsezko diferentzia edota funtsezko aurrerapenik? Bestela esan, hoberenean ere, glotokronologiaren formalizaziorik hertsiena ere ez da iristen (baldintzetan zein horien ezarpenetik ateratako emaitzetan) metodo konparatuaren ariketa arinenaren pare izatera.⁸⁴

(83) Hizkuntza IE-tan CVC baino txikiagoak onartzea zilegi da hor aurretiaz dakigularik hizkuntzok jatorri berekoak direla; alabaina, ez da gauza bera gertatzen beren ahaidetasuna erabakitzeke aztertzen ditugunekin eta hauetan forma laburrekin ez dakigu halabeharra ala erlazio historikoa den.

(84) Ross eta Durie-ren (1996) metodo konparatuaren urratsen formalizazioan (ikus XX oharrean) lehendabiziko puntutik diferentzia larriak dira glotokronologiarekin, (3)-ko lege fonetiko zehatzen beharrari buruzko duten portaera bateraezinerira iritsi aurretik ere. (4)-ko berreraiketa eskakizuna (glotokronologian zein mass-comparison delakoan agertzen ez dena) diferentzia garrantzitsua da eta azken urteetan Greenberg eta bere taldekideen aurkako eztabaidan sarri agertu dena; gainerako puntuetan ere edozeinek dakus metodo konparatuak enparatuei egiteko horietan hartzen dien aldea.

4. Euskara eta makrokonparaketa

Nonlinguists are not always able to distinguish easily between genetic groupings established by the comparative method and those proposed on other grounds. A much-publicized recent example is Cavalli-Sforza et al. (1988), where the very deep macrogroupings the authors assume for languages of the Pacific and New World are treated as the same kind of groupings as Indo-European or Uralic. Another example is Renfrew 1991 [...] Comparative linguists distinguish between genetic groupings established on the basis of the standard comparative method and those not so established, which they generally view as probabilistic or speculative or even fanciful.

Ross eta Durie ere (1996: 4-9) ez dira arestian goxoago izan:

The third misunderstanding⁸⁵ is a more dangerous one. It confuses the comparative method with the technique of 'multilateral comparison', sometimes known as 'mass comparison', used for example, by Greenberg (1987) in his work on the linguistic prehistory of the America [...] The attraction of multilateral comparison and other techniques of 'long-range comparison' is that they claim to reach much further back into time than the comparative method has been able to do. However, if they do not provide evidence of relatedness which could not have arisen by chances, the 'families' they establish must be treated with skepticism.

Campbellek (1998: 312-313) ondokoak zerrendatzen ditu makrofamilia proposamenen artean: "Afroasiatic, Altaic, Amerind, Athabaskan (or Na-Dene) plus Sino-Tibetan, Austric (Austro-Asiatic with Austronesian), Austro-Thai (Japanese-Austro-Thai), Basque-Caucasian, Basque-Sino-Tibetan-Na-Dene, Dravidian-Uralic, Dravidian-Japanese, Elamite-Dravidian, Eskimo and Indo-European, Eskimo-Uralic, Eurasiatic, Hókán, Indo-European and Afro-Asiatic, Indo-European and Semitic, Indo-Pacific, Indo-Uralic (Indo-European and Uralic), Japanese-Altaic, Japanese-Austronesian, Khoisan, Macro-Siouan (Siouan, Iroquian, Caddoan, sometimes Yuchi), Maya-Chipayan (Mayan, Uru-Chipayan of Bolivia), Na-Dene, Niger-Kordofanian (including the very large Bantu family), Nilo-Saharan, Nostratic, Penutian, Proto-Australian (all twenty-six or so of the Australian families), Proto-Wrold, Ural-Altaic, Ural-Altaic and Eskimo-Aleut, Yukagir-Uralic".

Horien aurkezpenen ezarria gaztigu garbia du:

In order to give an idea of what is at issue, the following is a list of some of the better-known hypotheses which would group together languages which are not yet known to be related. None of the proposed genetic relationships in this list has been demonstrated yet, even though some are repeated frequently, for example in encyclopaedias and text-books. Many other unconfirmed proposals of distant genetic relationship (not listed here) have also been made.

Na-dene familiarekikoek merezi dute aipu berezirik azken hamarkadetan: "biltzaileen" (*lumpers*) eta "zatitzaileen" (*splitters*) artean den eztabaidan Greenbergekin (1987) Amerika osorako proposatu hiru familietarik batek lortu du guztien adosta-

(85) Gainerako erruez ikus XX oharrean.

sun orokorra: aleuto-eskimoak, alegia. Alabaina, familia horren proposamena ez zaio Greenbergi zor, joan den mendetik ere aitortua baitzen Siberia iparraldetik Groenlandiara bitartean diren doenerdi hizkuntzen batasun hori. Na-Dene delakoa dugu Greenbergen bigarren familia Ameriketara, Alaska eta Kanada mendebaldeko zenbait hizkuntza eta askozaz hegoalderagoko navajoa (hortik *na*- hori) besarkatzen dituelarik haren ustez.⁸⁶ Egia esan, familia hau ere —familia proposamen hau, hobeto— Greenberg baino lehenagotik ezagun zen, mende hasierako lanak eurak lekuko.⁸⁷ Areago dena, Greenberg baino lehenagokoak dira, orobat, na-denea Ameriketatik atera eta (tonua, isolamendua eta antzeko arrazoi tipologikoengatik) hedadura handiago eman nahi izan ziotenak: hau izan zen —na-denea eta txino-tibeteraren arteko lotura, zehazki— Sapirek burutan izan zuen eta gainerako hizkuntzalariek onartzea lortu ez zuen sailkapen-proposamen famatuenetarik.⁸⁸ Haren ikasle Swadeshek eta bestek hipotesi honen alde egin izan zuten arren berrogeitahamar-hirurogeitahamarretan eta Shevoroshkin eta enparatuek familia hori hedatu guri hurbilago egingo bide litzazkigukeen buruhaskira, Kaukasoko hizkuntzetara eta bestetara,⁸⁹ nekez esan liteke na-dene familia lehen aipatu den adiera hertsienetik kanpo onartu izan denik ofizioko hizkuntzalarien artean.

Campbell *Language*-eko bere iruzkin famatuaren hasieran bertan “Greenberg’s *Language in the Americas* has a detrimental impact on the field; its classification should not be accepted; the record should be set straight” zioen (1988: 591);⁹⁰ horrezaz gain ez zuen hain berritatz aurkitzen (ibid), akritikoa (593), konparaketa lexiko huts ahulean oinarritua (595), bera bezain ahul den glotokronologiaren lagun (596), maileguak ezagutzeko edo kognadoen zehaztasun semantikoaren axola handirik gabe (598-600), azterketa morfologiko okerrekin (605) eta sasiko forma anitzekin (606) ornitua. Azkenik, Greenbergek beti hizkuntzak zein diren ere ez zekiela markatzen zuen, horiek bailiran hartu baitzituen dialekto eta are ikertzaileen izenak ere.

(86) Hirugarren familia, amerindiarra, litzateke hortik eta Tierra de Fuego bitarteko hizkuntza guztiak bilduko omen litzukeena; eraikuntza honek ez du berezilarien adostasunik lortu eta bai hehetasunei eta oinarriari buruzko kritika gogorak jaso. Honetan ere Greenbergek aitzindaririk izan zuen, ortodoxoek ezagutzen dituzten 150 bat familiak Sapirek doenerdi phylatara eraman nahi izan baitzuten (nahiz eta ez frogatuztat baizik eta behinbehinekotzat eman). Hortik aurrera egiten du, bada, Greenbergek, teilatugintzan ari bailitzan, oinarriak basaren gainean izan arren, lehen eta orain ezagun den bezala.

(87) Cf. “Although there are some antecedents (...) the Na-Dene hypothesis is usually attributed to Sapir (1915), who proposed a relationship between Haida, Tlingit and Athabaskan. (Eyak was rediscovered by American linguists in the 1930s).” (Campbell 1997: 284).

(88) Oregon eta Kalifornia aldeko hizkuntzak bilduko omen litzukeen penutierarekin batean, esaterako; ideia honen aldeko izan ziren Sapir, Kroeber eta beste hainbat (Uhlenbeck gure artean) baina ez da frogatuztat eman ahal —are gutxiago berreraikitatz aitzin-penutiera— ezaugarri amankomunak (tipologikoak edota hizkuntz-batasunekoak) beraien artean aipatu arren.

(89) “The more extreme proposals of distant linguistic kinship involving so-called Na-Dene languages —such proposed groupings as Athabaskan - Sino - Tibetan, Na - Dene - Basque (- North-Caucasian)— should be discounted, given the extremely poor quality of current evidence” (Campbell 1997: 286).

(90) “This is a strongly negative evaluation, but necessary. G’s well-deserved eminence draws unwarranted attention to L[anguage] I[n the] A[mericas], as evidenced by frequent positive reports of it in the popular press” gehituaz.

Zylharz-ek behinola Schuchardtekin egin bezala, Campbellek ere Greenbergen kognadoei parra egiten die beste suomierazko batzukin⁹¹ eta dagoeneko bibliografian Greenberg eta jarraitzaileen *reductio ad absurdum* mota klasiko bat —gogora aurreko ataleko Campbellen suomi-amerindiera— agertu da. Hots, haien hatsarri eta metodoak (hobe, horien falta) indoeuropar familiako edo semitiko zein uralikoko historia ezaguneko hizkuntzei ezartzen zaizkie, lehen glotokronologia modatan⁹² zenean haren ahulezia nabarmentzeko egin zen legez. *Reductio* klasiko hau da, demagun, Peter-ena (1992), batetik ingelesa eta suomiera eta bestetik hindia eta suomiera *à la Greenberg*, hindia eta ingelesa taldekidetzat sailkatzeak suomiera eta ingelesa egiteak baino arrazoi gehiago ez duela ondorioztatuz:

After using mass comparison, followed by the comparative method, I arrived at different percentages for the various groupings. Of the 8,3 % correspondence between English and Finnish uncovered by mass comparison, none was due to actual genetic relationship, 28,6 % were attributable to borrowings. Thus, 71,4 % of the items scored as (possible) cognates were due to pure chance. An initial percentage of 19,1 % were uncovered for Hindi and Finnish. None of this 19,1 % was attributable to actual genetic relationship, 12,5% were due to borrowing, and 6,3 % each were due to onomatopoeia and nursery language. In the end, a full 75 % of the 19,1 % were due to the chance (Peter 1992: 339).

Peterek berak (1992: 340) markatu legez, hoberenean ere emaitza (ezagun) zuzenak % 50eko ahalmena duen metodo batek laguntza urria eman liezaiguke munduko hizkuntzak sailkatzeko. Hemen ere —lehen glotokronologian eriden bezala— arazo nagusia oinarrian bertan dugu, kognadoen hautaketan, alegia:

2.1. Selecting affinities. The putative correspondences were established by scanning the list of the English glosses of 84 core concepts taken from Greenberg 1987, and comparing these to Hindi and Finnish equivalents. Selection was made on the basis of rough similarities encountered while visually scanning the list. To the best of my ability, I have tried not to let prior knowledge of cognates affect my judgment. There were, to be sure, difficulties in selecting the groups (pairs or triplets) that should be regarded as ‘bespeaking a common origin’. The question that arises is: how close do words have to be in order to be scored as similar? Are English saliva and Finnish sylki sufficiently close, if they are, are Hindi *pissu* “flea” and Finnish *kirppu* “flea”? I have found nowhere in Greenberg’s work explicitly stated criteria by which to make this judgment (1992: 335).⁹³

(91) Cf. “Many scholars have attempted reductions ad absurdum of megalocomparison by taking any two languages at random and finding large numbers of “cognates” between them, often to very amusing effect” (Matisoff 1990: 112). Berak ere sinotibetera eta amerindierazko zerrenda bat egin omen zuen “List furnished upon request to adults 18 years old or over” dio; Trask-ek (1997: azken atala) ematen digu euskara-hungariera zerrenda ederra ere, hungarieraz —“zorionez”— ezer jakin gabe eta hizkuntza horren ingelesezko hiztegi on bat izanik laupabost ordutan etxean egina. Traskek zuzen dioenez beste hainbat konparazio ez dira sendoagoak ez oinarrituagoak.

(92) Ikusi dugu (cf. xx oharra) Tovar (1977, 1981a), Echenique (1983, 1987) eta Txillardegia (1977) ez direla inolaz ere metodoaren erabat aurkakotzat sailkatu ahal.

(93) Sinestezina badirudi ere, izan da *reductio ad absurdum* hauek horrela hartu ez dituztenak, “erkatutako” hizkuntzen arteko lotura genetikoaren froga legez baizik: “[...] With a correct understanding of macrofamilies and the principle of external comparison, however, Finnish may indeed be “seriously

Izan ere, Greenbergen “alderdi anitzeko hurbilketa” —euskarazko itzulpen honek besterik pentsaaraziko balio ere norbaiti— ez da item lexikoen miaketaren bitarteko hurbilketa ezagunena baizik. Greenberg-ek berak dioenez hizkuntza askotako hitz gutxi batzu aztertzen dira metodo konparatu estandarreko hizkuntza gutxi batzuta-ko hitz anitz aztertzeko ohituraren aurka. Bestalde, azaleko (begizko) miaketaz aurkitutako antzekotasun lexikoak dira erlazio genetikoak onartzeko oinarri. Ez da harritzeko Campbellek (1998: 315) metodo honen egitekoa besteak hasten diren puntu- amaitzen dela esatea:

This inspectional resemblances must be investigated to determine why they are similar, whether the similarity is due to inheritance from a common ancestor (the result of a distant genetic relationship) or to borrowing, accident, onomatopoeia, sound symbolism, nursery formations and the various things which we will consider in this chapter.⁹⁴ Since multilateral comparison does not do this, its results are controversial and rejected by most mainstream historical linguists.⁹⁵

Campbell, azken finean, Meilletek eta Sapirek (ik. 24. oharra) aspaldi aldarrikatuari jarraitzen zaio. Greenbergek, aldiz, korrespondentzia fonologikoak ezartzen ez saiatzeaz landa, ez du bere “grammatical evidence” delakoan gainerako ikertzaileek hizkuntzen arteko lotura genetikoak onartzeko eskatu sakoneko korrespondentzia morfologikorik edota irregulartasun amankomunik bilatzen. Azaleko antzekotasunak dira hor ere: aspalditik (Meilletek berak, demagun) lekukotasun ahultzat jo ohi diren izenordainak, hitz askeak, morfema solteak (ez ablaut sistemak edo paradigmatik)... Eta morfologian ere lexikoan egileak hartu ohi dituen “askatasuntxoak” ahaztu gabe, jakina: erlazio semantiko zalantzakoa, antzekotasun fonologiko eztabaidagarriak edota segmento bakarrekoak, morfologi-analisi oker eta interesatuak...⁹⁶ Azkenik, Greenbergek ez zuen frogetarik frogena ere onartzen:

taken” to be related to many American Indians languages, and its exact correspondence with the reconstructed grammatical forms of Amerind only supports the Amerind hypothesis” (Shevoroshkin apud Campbell 1998: 145). Ez dirudi iruzkin handiren beharrik denik.

(94) Matisoff-ek (1990: 113) berariaz markatzen du Greenberg eta bere jarraitzaileen metodoak ez duela hizkuntz-elkarte (*Sprachbund*) fenomenorik edo faktore tipologikorik baztertu ahal ere.

(95) Hara Campbellen liburuko urrutiko ahaidetasunen ikerketari buruzko atalaren amaiera: “Given the confusion that certain claims regarding proposed distant genetic relationships have caused, the methodological principles and procedures involved in the investigation of possible distant genetic relationships are extremely important. Principal among these are reliance on regular sound correspondences in basic vocabulary and patterned grammatical (morphological) evidence involving ‘shared aberrancy’ or ‘submerged features’, with careful attention to eliminating other possible explanations for similarities noted in compared material [...]. Research on possible distant genetic relationship which does not heed the methodological recommendations and cautions of this chapter will probably remain inconclusive. On the other hand, investigations informed and guided by the principles and criteria surveyed here stand a good chance of advancing understanding, by either further supporting or denying proposed family connections” (1998: 326).

(96) Bati baino gehiagori ekar bide liezaioke guzti honek Boudak konparaketa euskaro-kaukasikoan engindakoaren oroitzapenik; cf. Mitxelena 1950, Lakarra 1996.

If we want to say, with Greenberg, that demonstrating genetic relationship does not require any kind of reconstruction, then I think it's appropriate to ask what the purpose of our genetic classification is. I believe that most historical linguists value the classifications because they help us find out about the histories of the languages in a family. We reconstruct parts of their common protolanguage and then use those reconstructions to study and compare the changes that have occurred in the various daughter languages. In other words, to be useful to a historical linguist, a hypothesis of genetic relationship must be fruitful: a valid genetic grouping will permit reconstruction and thus lead to a better understanding of the member languages and their histories. If a genetic hypothesis does not lead to new insights of these kinds, then it is sterile and, within linguistics, useless (Thomason 1993: 494; *esan gabe doa hizkuntza isolatuetan ere argudiaketa berbera litzatekeela*).

Greenbergen liburu honen iruzkin ugari izan da mundu osoko aldizkari garrantzitsuetan eta, espero zitekeen bezala, *International Journal of American Linguistics*-en: haien artean ez dut bat ere ezagutzen egilearen metodologiaren eta ustezko emaitza orokorren aldekorik eta azkenen artean "Greenberg eta harako hizkuntz familia" sail edo estilo zabaldua aurki liteke. Ez da bakar bat ere delako (iruzkintzailak ezagunen duen) familia horri dagokionean haren oinarri eta sailkapenak gezurtatzen ez dituenik, ezjakintasuna, utzikeria eta faltsifikazio gradu ezberdinak agerian utziaz. Hara zenbait adibide:

When I first saw Greenberg's *Language in the Americas* I turned to the cognate sets which included Yurok and Kalapuya, both of which I have worked on, to see how Greenberg had treated them. The results were disappointing. Nearly every form required some sort of emendation [...] Obviously Greenberg should have gotten the aid of specialists in the various languages. The reader should be warned not to use the forms in *Language in the Americas* without first checking to be sure that they are correct. One wonders whether the low standard of accuracy seen in the Yurok and Kalapuya data is representative of the entire book (Berman 1992: 230, 233).

[...] Unfortunately, it is marred by errors in both methodology and data, which make it essentially useless for its intended purpose. I have experience in only one language family, the Muskogean, and feel qualified therefore to criticize the material in *Language in the Americas* pertaining only to that family [...] This survey of the Muskogean, "Gulf" and Yukian material in *Language in the Americas* has shown that a high percentage of the items quoted contain errors, from the trifling to the severe. Although my experience with other American Indian linguistic families is limited, I would expect that a similar percentage of errors would be uncovered by linguists familiar with those families [...] It is distressing that a work of this nature should be so untrustworthy; no linguistic item can be taken from its pages without checking with a reliable modern source. The saddest fact in that *Language in the Americas* is not necessarily wrong in its insights into the deeper relations of American Indian language families to one another, but without the rigorous application of the rules of comparative linguistics, and the use of accurate and verifiable data, a work such as this cannot be trusted, and should not be used (Kimball 1992: 447, 489).

Kimball-ek (1992) zortzi eratako hutsak aurkitzen ditu:

- (1) Datuen iturriak ez dira ematen (447),
- (2) Datuok zaharkituak dira (448),
- (3) Datuak gaizki transkribatzen dira, hiztegi eta gramatiketarik arin batean hartuaz inongo ezagutza filologikorik gabe (448),
- (4) Hizkuntza bateko eta besteko datuak nahasten dira (448),
- (5) Hizkuntzen arteko konparaketak ez dira explizitoki egiten, zerrenda hutsetarik irakurleak antzeman behar duelarik (449),
- (6) Aitzinhizkuntzak ez dira erabiltzen eskura direnean ere (449),
- (7) Kognadoak ez diren formak erkatzen dira (449), (8) Item bera kognado sare diferenteetan erabiltzen da (449).

Eta ez pentsa hutsak txikikeria batzuk direla:

Thus, out of a total of 268 Penutian sets containing Muskogean, "Gulf", and Yukian material in *Language in the Americas*, 185, or approximately 69%, had errors severe enough to require correction; 106, or approximately 39%, were of such a severity that the Penutian set was weakened or eliminated. The situation is much worse for the proposed relationship of the Yukian languages and the "Gulf" languages. Of the 40 Yuki-Gulf sets published in *Language in the Americas*, only 9 can be considered to have any validity. The number is so small that these resemblances seem to be due entirely to chance, and not to result from genetic origin (Kimball 1992: 488).

Greenbergek bere alde ekarri ohi duen Afrikako hizkuntzen sailkapena ez da berak aldarrikatu bezain onartua eta are gutxiago bere benetako metodoagatik (mass-comparison), hau zein zen argi gelditu denean batez ere; 1963an sailkapenaren zati on bat zaharragoa zelako eta gainerakoa behin-behinekoa zelakoan gehienek pasatzen utzi zuten (CAMPBELL); cf. orain, aldiz, Dixonen iruzkin labur bezain argia (1997: 32-35). Honek beronek zera diosku Greenbergen beste sailkapen proposamen batez:

There is also Greenberg's 'Indo-Pacific hypothesis' (1971) purporting to show that the 60-odd Papuan families from New Guinea, the extinct languages of Tasmania, and the various languages spoken in the Andaman Islands are genetically related (...) This idea lacks any substance, and is perhaps even more fanciful than Greenberg's American Indian work (1997: 33-34, 3. oh.).⁹⁷

Ohar bedi, halaber, kontinente batean ongi atereak (edota gutxi kritikatzek) ez lekarkela bestetan ere nahita nahiez egokia izatea edota metodo onartezina justifikatzea.

(97) Cf. "There is no reputable historical linguist, anywhere in the world, who accepts the claims of Greenberg and the Nostraticists" eta oharrean: "Lest this be thought circular, let me provide a criterion for recognising a large group of reputable historical linguists: anyone who teaches the subject at a leading university in the USA or in an EEC nation" (Dixon 1997: 44). Halere, bada (cf. Baldi 1991) nostratistak (horietariko zenbait, hobe) begikoago duenik.

4.2. Bengtson-ek hainbat lanetan (1995)⁹⁸ eman du euskara (eta iberiera) na-denea-ekin⁹⁹... iparraldeko kaukasiera, sumeriera, burushaskia eta yeniseikoa bitarte.

Joan den hamarkadaren akabuan eta hamarkada honetan *Fontes Linguae Vasconum*-en argitaratutako zenbait lanetan Schumacher-ek eta Seto-k erakutsi nahi izan digute Swadesh, Sapir (honetaz cf. Campbell 1988), Bouda eta beste jarraiki, na-denea, ez bakarrik txinera eta iparkaukasierarekin,¹⁰⁰ burushaskia eta hizkuntza paleosiberiarren batekin, baizik eta euskararekin, Himalayako hizkuntzekin eta are austronesioarekin ere lotua dela;¹⁰¹ zerrenda honi bestek etruskoa, nahalaia, gilyaka, txutxi-kantxatkeria eta almosan-keresiuarra ere gehituko omen lioke (Schuhmacher & Seto 1993: 7). Azkenik, (oraingoz?), euskara eta kikuyua ere askazi direla erakutsi nahi izan dute (Schuhmacher & Seto 1994).¹⁰²

Schuhmacher-ek eta Seto-k (1993) austronesiozko formak biltzen dituzte na-dene-kaukasierarekin 130 kognado, himalayerarekin (?) eta 52 kashmir eta burushaskhi. Euskara eta euskarazko morfemak zerrenda horietan agertzen ez direlarik, pentsatu beharko da jakintzat ematen dela Dene-Kaukasieraren barnean kokatzen dela. Zorigaitzez, ondoko "lekukotasunen" aurrean ezin esan erabat garbi gelditzen denik euskarak zer ikusteko duen guzti honetan:¹⁰³

1. austronesioa: *na-, no, nau, na, nu* "I"
2. id. *wau, v, vu, v, va* "thou"
3. id. *ko, ke, h>u* "thou"
4. id. *e, a* "he"
5. id. *va-, va* "he"
31. id. *age, ab* "not"
32. id. *kapwa, -jka-be* "not"
36. id. *benu-, gini* "below"
38. id. *kenekene, hnb* "girl"
39. id. *kaka, gag* "uncle"
43. id. *ranu, l'an* "water"
46. id. *gabea, jubur* "after"

(98) Michel Morvan (1992), makrokonparatista horietako baten lana aztertzean ondoko ondoriora iristen da: "Au total on émettra un avis très mitigé sur les rapprochements proposés par J. D. Bengtson, qui n'est pas seul en cause bien sûr, étant donné qu'il s'appuie sur une bibliographie omni-comparatiste de bonne qualité. Je le répète, les travaux des omni-comparatistes sont nécessaires et ceux qui ne veulent pas en entendre ont tort. Mais les erreurs sont nombreuses, inévitables. On ne progresse pas sans elles, ou alors on fait du surplace, on n'avance pas. Il reste que, afin de ne pas trop prêter le flanc aux critiques des négativistes systématiques, les omni-comparatistes devront rectifier certains défauts par trop évidents" (365).

Morvanek Bengtsoni egiten dizkion kritika gehienak oso arrazoizkoak dira; halere, oraindik gogortsoago edo hertsiago izan zitekeen, *mibi* < **bini* (< **bi* + *-ni* ?) dela gogoratuaz eta horrela bere ustezko kognadoetarik are urrutiago dela markatuaz.

(99) *Sensu stricto* (67): haida, tlingit, eyak, athapaskan.

(100) Dirudienez, orain kartvelikoa nostratikorako utzi beharra dago, cf.

(101) Austronesioarekin egia esan, jai dutela dirudi, aspalditik —joan den mendearen akabutik— garatua baita hizkuntz familien atzerteta konparatuaren barnean (cf. Dahl 1976, Blust 1990a, etab.).

(102) Zilegia begitantzen zait irakurlea gogoratzea hizkuntzalaritzan ere multzo teoriaren propietate trantsitiboak indarrean dirauela. Eta Greenbergek berak ere onartzen duela; cf. Matisoff XX oharrean.

(103) Egileentzat eta argitaratzailearentzat ez bide da horrela, ohar bakar bat ere ez baita eransten formen egitekoaz.

48. id. *gee, gay* "grandmother"
49. id. *raka-, laka-, lako, legam, rutsas* "to go"
50. id. *kori, qul* "top"
51. id. *-rasi, rata* "palm, hand"
52. id. *katu, ketui, kad* "small"
53. id. *karu, kbel* "rain", etab.

Goian aipatu dugun kikuyuaz lehen-lehenik bantu familia ezaguneko 500 bat hizkuntzetarik dela esan behar... eta familia horren sailkapen eta berreraiketa ere aski aitzinatua dela metodo ortodoxoen barnean, aitzinatuegia gure makrokonparatisten zorigaitzerako.¹⁰⁴ Halere, ikus bedi bi hizkuntzen arteko ustezko kognadoen zerrenda antologiko bat ezjakintasun, ausardia eta amarruen adibidetzat (k. = kikuyu, e. = euskara):

1. k.	<i>itboni</i> (=source, spring)	:	e. <i>iturri</i> (id)
2. k.	<i>iria</i> (=lake)	:	e. <i>ura</i> (=water)
3. k.	<i>-andûku</i> (large)	:	e. <i>andi</i>
4. k.	<i>-nini</i> (=small)	:	e. <i>ñimiño</i> (id)
5. k.	<i>guoko</i> (=hand)	:	e. (esku-) <i>xoko</i> (=palm)
6. k.	<i>mbegû</i> (=seed)	:	e. <i>bikor</i> (=grain)
7. k.	<i>aria</i> (=to speak)	:	e. <i>erasi</i> (id)
8. k.	<i>aka</i> (=to build)	:	e. <i>egin</i> (id.)
9. k.	<i>ura</i> (=to rain)	:	e. <i>uri</i> (=rain)
10. k.	<i>-kuî</i> (=short)	:	e. <i>gutxi</i> (id) ¹⁰⁵

(1)-ek okulistaren froga agian gaudituko du —eskuzabala edo itsua balitz harako hura— baina bestetan sartu aurretik jakin beharko genuke euskaraz zergatik (4)-n ere ez den *-r-* (edota honetan *-n-*).

(2)-n euskarazkoaren 3. fonema artikulua delarik ezin kontatu; bestalde, zergatik hemen *i-*: *u-* aurrekoan *i-*: *i-* genuelarik?

(3) Orain ere *-u-*: *-i(-)* dugu; alabaina, euskarazkoan *h-* segurua izateaz landa, amaiera ez ote atzizki ezagunen bat? (cf. Lakarra 1996).

(4) Forma hipokoristikoeak eta onomatopeiek ez dute konparaketan balio; are gutxiago *-m-* duen euskarazkoak. Cf. Trask (1996, 1997) fonema honek euskararen berreraiketan (ez) duen egitekoaz.

(5)-eko euskarazkoaren semantika aski urruti gelditzeaz kanpo, kikuyua hor joatekotan ere erromantzearekin eta arabierarekin lihoake bat.

(6)-ren hasierako "antzekotasuna" oso polita litzateke Martineten (1950) aitzineuskarazko kontsonanteen teoriarako; damurik, kognadoen "antza" urria izateaz landa, euskarazkoan konposaketa garbia dugu.

(104) Besterik da bantua onartzea edo ez azpifamiliatzat, Greenberg 1963 jarraituaz, "Niger-Congo" delakoaren barnean; cf. XX oharra.

(105) Schuhmacher & Seto 1994: 435-6ko lehen hamar adibideak dira (guztira 42 dira, gainerakoak ez nik iruzkinduak baino nabarmenki hobeak); bidenabar, 3 orrialde eskasetako "lanaren" —laburpenaren itzulpenak luzeago dira lana bera baino— azpi-izenburuan honela datza idatzia: "Examples for grammatical and lexical parallels of the basic vocabulary between the Bantu Kikuyu language and Pyri-nean Basque, dating from the beginning of the ancient Egyptian "Dynastic" period" (435).

(7) eta (8)-n ohar gutxi egin behar zaio euskal morfologiaz zerbait dakienari: morfema bat baino gehiago denez, ba ote bertan “grammatical parallel”-ik bi hizkuntzetako formen artean? (8)-n, bidenabar, “antza” ere zalantzan jar liteke; bokal korrespondentziaz hobe ezer ez esan.

(9)-n *uri*-k ez du “Egyptian Dynastic period”-eko aitzineuskararen izateko aukera handirik; bestalde, ez ote horren morfologiazko analisi sakonagorik?

(10)-eko *gutxi*-k badu beste aldaerarik eta *guti*-k, demagun, zaharragotzat jotzeko eskubide gehiago izateaz landa, bere *-ti* horrek ez ote digu urrutiago jotzeko eskurik ematen?; cf. (3).

Laburtuaz, maileguak, onomatopeiak, esanahi okerrak, analisi morfologiko gaiztoagoak, forma dialektalak eta berriegiak, gutxi-gora-beherako inspektzio- (okulista- / otorrino-) irazkinak, lege fonetikoak eraikitzeke edozein saioaren falta... Honela ez goaz inora, jakina, erreka jotzera ez bada. Hori bai, norbaitentzat *à la page* egoteko forma bat bada, bejondeiola...¹⁰⁶

5. Aitzineuskararen berreraiketan sakonduaz

5.1. Mary Haas-ek eta bestek behin eta berriz arrazoiz markatu duen legez, aitzin-hizkuntza bat ez da benetako hizkuntza bateranzko hurbilketa baizik, eta inoiz ere prototipo horretara erabat iristen ez den hurbilketa, gainera, nahiz eta hainbat berrikuntzak usu berreraiketa hori hobetzera eraman. Honela, errealitatearekiko hurbiltasuna areagotuaz doake, baina ikertzailea inoiz ere gutzizkoa lortzera iritsi gabe:

A reconstructed protolanguage is an approximation to a real language but it always falls short of being identical with the actual prototype language. The phones of a real language and the morphs of a real language ARE as they have been recorded at a given moment was the record made by a trained fieldworker yesterday or by a scribe in ancient times. The reconstructed phones and the reconstructed morphs of a protolanguage are of course expected to represent the best efforts of scholars in approximating the reality of these entities. But more evidence, or different evidence —the discovery of a new daughter language, for instance— can bring new insights which may at any time make necessary to change the reconstruction of a phone or a morph. And when this happens the reconstruction of MUST be changed. In this way the approximation to the reality can be increased even if never reached (Haas 1969: 45).

Haasen ustez ondokook izan daitezke berreraiketa bat aldatzeko arrazoiak:

“(1) A new interpretation of the material on hand”,¹⁰⁷

“(2) The discovery of a new daughter language”,

(106) Metodo orokorrenekin eta amerindiarren egindako aplikazioarekin bigun agertu arren ene aburuz (cf. Trask 1996), euskara eta ustezko familia horren arteko lotura erakustera zetozen lanei Traskek (1997: azken atala eta aurreko lanetan) egindako kritika zorrotza eta zuzena da oso.

(107) Bernabé-ren gogoetek (1988: 357) lagun lezakete berreraiketarak (IE fonologiarenak bere kasuan) hizkuntz-teoriaren arabera nola aldatu ohi diren ikusteko; haren ustez IE ikerketetan eragina berantiarra litzateke, hizkuntzalaritza teorikoak beti lehen emaitzak hizkuntza modernoekin izan ohi dituelako. Bidenabar, Ivan Igartuaren lanean aurki liteke lanabesik teoria glotalikoaren inguruan Bernabérena gaurkotzeko.

“(3) Evidence from old loanwords” eta

“(4) The comparison of one protolanguage with another” (1969: 46-51).

Ikusi dugunez (§ 2) euskara genetikoki isolaturik —eta egoera aldatzeko itxaropen gutxiarekin— izaki, ezin Haasen bigarren eta laugarren bideetatik historiaurrean aurrerago jo. Hirugarren bidean aipatutako latinetik eta erromantzetiko maileguk laguntza ederra eman digute (cf. Mitxelena 1957, 1974 eta *FHV*) fonologiaren eta gramatikaren alderdi anitzetan. Izan ere, gutxienez Schuchardten garaitik datorren maileguen azterketa zehatzak euskal lexikoaren zati handi baten etimologia eskuratu digu.¹⁰⁸ Alabaina, honela euskal lexikoaren zati handi baten —are *begiratu* bezalako lehen behealdiko sasi-jatorrizkoen (cf. Mitxelena 1964: 102)—¹⁰⁹ berri eman arren, eta nahita aitzineuskararen berreraiketa batez ere maileguen azterketan oinarritu arren, zer egin hizkuntzaren historiaurrea aztertzeko berebiziko dugun jatorrizkoarekin, hots hizkuntza indoeuroparren edota ez-indoeuroparren batetik ez datorren lexikoarekin?¹¹⁰

Ez dirudi hatsarriko ezinik denik lehenagoko barne berreraiketa batetik abiatu eta aurrera jotzeko, atetiko lekukotasun berririk ez izanik ere, nahiz eta, ezagun denez, handiak izan zailtasunak hizkuntz egoera berreraiki batean aurreko egoera batera halabeharrez jotzera garamatzen barne-kontraesan aski aurkitzeko.

Gure ikerketa-asmo orokorra hizkuntzaren egitura zenbaiten (mailegatu ez diren morfemen egitura, distribuzio eta konbinaketaren) azterketaren bitartez ohiko ikerketak erdietsi sakontasun diakronikoa baino haratagokora jotzea litzateke. Zeinnahi hizkuntz-berreraiketatan bezala, gurean ere pausu eta ondorio anitz kontu handiz eta usuenik egiantzekotasun-maila hutsa gainditzen den epaituaz baino ezin har daitezke. Helburu hori, edota metodologoentzat oraindik onargaitzago izan daitekeen aukera horren justifikazioa da, nik uste, ene aitzineuskararen erroari buruzko lanaren (ik. Lakarra 1995 eta ondokoak) azken helburua, baina alferrik modernistatzat geure buruak ez azaltzearren,¹¹¹ on da atal hau Fox-en aitorrarekin amaitzea: “Interestingly, however, although this application —morfemen egiturarekin egindakoa, alegia— of the method can be seen as a logical extension of the basic procedures, chronologically it antedates these procedures”.

Edozein hizkuntza IE-ko zeinnahi hitzen etimologiak lehendabizikoz hizkuntza beraren elementu ezagunen bitartez hitz horren egitura azaldu nahi luke, gero —

(108) Tovarek hasi eta M. Agud burutzen ari den euskal hiztegi etimologikoak latinaren eta erromantzearen hedadura euskal lexikoan zenbaterainokoa izan den argiro erakusten digu. Baitchura-k (1987: 169) dioenez “Comparativistics usually operates only with half of the vocabulary of the languages under investigation, because the other half is attributed to borrowings and left out of sight”. Alabaina, ondoren datorrena jatorrizko lexikoaren eta mailegatuaren arteko bereizkuntza aldarrikatzeraz dator, Meilletek (1918-19) eztabaida famatu batean Schuchardti aurpegitatu bezala.

(109) Antzeko arazoa dugu *aizkora* eta aldaeren etimologiarekin: *aizto*, *aiztur*, *aiztur* etab., bezala *baiz*-en eratorri iruditu arren lat. *asciola* (cf. *FHV*) jatorria asebetekoa dugu.

(110) Ikus Lakarra 1998a-ko (§ 8.4.) oharrak erroaz eta etimologiaz.

(111) Dagoeneko baliteke —Kurylowicz-en eta Ventries-en aurkikuntzetarik hainbat hamarkada igaro ondoren— barne-berreraiketaren metodoaren aurkako aurreiritzia (edota metodoa bera denik ere ahanzte Bengtson-ek *Word* aldizkarirako Hualde et alii-ren iruzkinean egin legez) gure edozein ausardia baino barregarriago suertatzea; cf. Foxek (1995: 181) Lindeman-ez dioena.

guztiak hizkuntz egoera amankomun iragan baten (IE-ren) oinordeko diren alde-tik— elementu ezagun horiek hizkuntza ahaideetan ere kideak dituztelarik. Euskarari dagokionez, *gizarte*, *gizaxo*, *gizontxo*, etab. edonork bana ditzake beren morfema-osagaietan eta *gizon* guztien oinarritzko osagai zatikaezina dela ondoriozta.

Banaketak aurrera egiteko elementu berberak edo lotuak aurkituaz jarraitu behar-ko dugu, euskara historikoan morfema autonomo biziak izan ezarren aurreko garai-
ren batean segurtasunez emankorrak izandakoen bila.¹¹² *Beltz* (mend. *baltz*),¹¹³ dugu kolore ezagun baten izena; alabaina, noizbait **bel* forma sinpleago bat izan zela supo-
sa dezakegu, historikoki konposatu zenbaitetan mugatua ikusi arren: *harbel*, *horbel*,
goibel, *ubel*, *ospel*¹¹⁴ non oraindik garbi antzeman dezakegun kolorearen erreferentzia
barri, *horri*, *goi* eta *ur*-i gehitutako osagaian. Bestalde, *gibel* organu baten izena nahiz
'atze, oste' dugu; kasu honetan banaketa hor bertan amaituko litzateke, baina goiko
adibideotan isolatu dugun *bel*-ekin erka bageneza, gibela organuaren koloreari dago-
kion elementu batez osatua dela pentsatu ahal dugu. Ez da zer esanik, **gi*- ez da eus-
kara historikoaren osagai autonomoetarik eta *gibel*-i buruzko gogoeta beharbada
antzua litzateke hau balitz *gi*- baten adibide bakarra. Zorionez *gibarre* edo *gizen* —
beharbada baita *giberri* ere— aurkez genitzake, agian **gi* 'haragi' oinarri bat defen-
datzeko eskura ematen digutelarik.

5.2. Hari berri bat? Erroaren azterketaz

5.2.1. Silabaren egitura murriztuaz

Zalantzarik gabe, Mitxelenak (ik. § 2.2. akabuan) proposatutako (C)V(W)(R)(S)(T) silaba-eskemak historikoki euskaraz lekukotutako guztiak biltzen ditu:¹¹⁵

V	: a-rin
VW	: oi-han
CV	: lo, ge-ro
CVW	: sei, neu-rrri
CVR	: gal-du, gar, han-di
CVS	: baz-ter, las-ter
CVWR	: laur, soin, sail
CVWS	: gaiz-to, goiz
CVRS	: hartz
CVWRS	: geurtz

(112) Cf., besteren artean, Haas 1969 hizkuntza amerindieortako adibideekin, Blust 1988 austro-nesioekin edota Lipinsky 1997 hamito-semitikoekin. Blust 1977 ere interesgarria da "konparazio paradigma berria" ren kontzeptua hizkuntza austronesioei ezartzeko egin saio legez.

(113) *beles* iberiarr elementu antroponimikoa euskal berbarekin eta akitanierazkoareekin lotua dela pentsatu ohi da; cf., aldiz, Lillo 1992-n emandako bestelako azalpena.

(114) Bide batez, *sa-bel* (cf. *sa-min*, *sa-kon*) ere gehi dakieke hor aiparuei; Paliga-ren (1989: 328) proposamenek ez dute bere sustrato teoria laguntzen. Ikus Lakarra 1998b.

(115) Jatorritzko nahiz mailegututako lexikoan agertzen diren silaba "normalez" ari naiz, ez zenbait nafar hizkeratako *zren*, *gra*, etab. edota muta cum liquida (*drauko*, *atra*) berankor eta bazterrekoiez.

Ez dirudi aitzineuskaraz geroztik sailen bat galdu denik ere eta ez genuke, beraz, gehiagoren beharrik aitzineuskararako. Baina astiroago begiratzan badugu eskemak ez soilik silaba eredu horiek baizik eta beste batzu ere aurreikusten dituela ohar gaitzke; hor zerrendatuen aldamenen peitu diren beste batzu ere aurkitu beharko genituzke, batez ere leherkariz (-T) amaituak, Mitxelenaren eskematik ateratzen baitira VI, VWT, CVT, CVRT, CVST, CWRT, CVWST, CVRST eta CVWRST ere.¹¹⁶ Euskaraz zenbait (C) V (W) (R/S) T izan arren (*dut, bart, bost*), ez da (C) V (W) R S T-ren ordezkorik. Hortaz, Mitxelenak bere formulari jartzen zion bigarren oharra zuzena da eta eskema, oro har, zabalegia aitzineuskararako.

-T duten morfemak, dakidanez, berriak dira guztiak: mailegu (*blok, tiket*, etab.), konposaketa eta eratorpeneko aldaera ezagunak (*erret- < errege, ot- < ogi*) edo aldaketa fonetiko erregularren ondorio (*dut < *duda, bart < barda*), etab., forma “adierazkorrak” edo onomatopeiak ez direnean (*zut, et, ok egin*). Eman ditudan adibide guztiak hitz amaierakoak dira, koda silabikorik zabalena hor baita: ez dirudi, bada, —T#V— edo —T#C— espero genezakeenik hitz barnean ere.

Hau guztia kontuan izanik proposatu izan dut (Lakarra 1995) aitzineuskarak aski zuela Mitxelenak proposatu baino silaba-eredu hertsia goarekin:

(C) V (W) (R) (S).

Silaba-eredu teorikoa betetzeko orduan, are Mitxelenarena soilduaz nik proposatu dudanean ere, badira zenbait “hutsune” bibliografian artean aipatu ez arren. Hutsune horiek morfemek edo erroek aitzineuskaraz zituzten zenbait murriztapeni zoz zaizkiola dirudi eta hortik haiek askatzeko erroa aztertu beharra.

5.2.2. *Euskal erroaren azterketak*

IE-z, semitikoz edo austronesioz eta beste zenbait familia eta hizkuntzatan gertatzen denaren aurka ez da erroari buruzko lan gehiegi euskal linguistikazko lanetan, ez sinkronia ardatza hartzen dutenetan eta ezta diakronikoetan ere, alderdi honen garrantzia argiro gutietsirik.¹¹⁷ Azkueren ehundaka orritako morfologiako lan mardulean, esaterako —eta aski esanguratsua begitanzan zaigu— oso gutxi da erroari dagokiona. Izan ere hitzaurrean azaltzen duenez, euskaltzain lagunek eskaturik afijoei buruzko aurkezpen bat prestatzen ari zen eta horretaz oharren bat baino ez dugu eriden ahalko. Azkuek aintzinako izenkietako erroa monosilaboa zela suposatzen zuen (1923-25: 40-41) (kasu guztietarako frogatuezinezkotzat bazuen ere) eta oinarri guztiak erroa gehi atzizkiak osaturik zirela uste zuen, horrela azaltzen zelarik jatorrizko euskal hitzetan hainbat disilabo aurkitzea.

(116) Horrelakoak badira beste zenbait hizkuntzatan, indoeuropeaz eta europera zaharrean, demagun; cf. bigarreneko Vennemannek proposatu (1994: 237) bokal gabeko leherkariak atzizkietan. Ez dirudi antzeko ezer onar daitekeenik ez beharrezko denik aitzineuskararako; ik. Lakarra 1996a.

(117) Darricarrère-k (1903, 1912) badu erroari buruzko lanik, jakina, horren bitartez euskara hizkuntza IE dela frogatu nahi baitu. Harentzat erro monosilabikoak eta disilabikoak lirakeke bi familietan; Vinson-ek, aldiz, hizkuntza guztietan monosilabo txiki, simple eta abstraktuetarik (“un verbe à l’infinitif”) abiaru behar dela deritzo. Aditz abstraktuen teoriak ikus Gómez 1998. § 2, zabalago eta zehaztasun gehiagorekin, Lakarra 1997-n.

5.2.2.1. Uhlenbeck

Uhlenbecken euskal erroarekiko hurbilketa (1942, 1947) euskarak omen lituzkeen estrato-osagai ezberdinak erakusteko ahaleginaren barnean kokatu behar da.¹¹⁸ Egileak argiro aldarrikatu bezala, euskara "hizkuntza mixto"tzat hartzea ez zen apartekoa harentzat.¹¹⁹ Sinetsirik euskara Kaukasoko hizkuntzetarik ezin bereiz zitekeela alde batetik, eta, beranduagoko eragin iberikoari zor omen zitzaizkion Afrika iparraldeko elementu lexiko eta gramatikalak zituela bere barnean, bestetik, kaukasieraren fonetika konparatuaren peitu, euskara-kaukasierazko konparaketa sistemati-koa iritsi bitartean, interesgarri zeritzon euskarazko izen- eta aditz-erro analisatugabe ugariak sailkatzeari, ondoren haien artean Auiñamendi-mendebaleko zaharrak eta, eliminazioz, atetiko eraginez (kaukasikoa, hamitikoa, zelta, ilirioa, latinetikoa, etab.) azal zitezkeenak banatzeko.

Bere arrazoi eta metodoak egun onargarriak begitandu edo ez, kontua da dugun euskal erroen sailkapenik osoenetariko eman zigula. Hara hemen laburturik:

a) erro monosilaboak:¹²⁰

- 1) bokalez amaituak: *kbe, lo, so, su*, etab.;
- 2) diptongoz amaituak: *gai, gau*, etab.;
- 3) kontsonantez amaituak, "askozaz ere ugariagoak": *bar, gar, hil, lan...*;
- 4) afrikatuz amaitu ugariak: *baitz, antz, bartz, hats, gaitz...*;
- 5) forma erreduplikatuak, ez oso ugariak: *konkor, gogor, garagar*; etab.

b) erro bisilaboak:

- 1) VCV eta CVCV, "ohikoak eta euskarak berezkoago dituenak" (Uhlenbeck 1942: 559): *habe, aho, ale, harri, begi, behi, beso, xori, eme*, etab.;
- 2) VCVC eta CVCVC "usukoak oso": *abar, adin, bebor, behar, gizon, sagar*, etab.;
- 3) VCCV eta CVCCV "usukoenetarik": *albo, argi, garbi, zaldi*, etab.;

(118) Lakarra 1986-n (eta lehenago Mitxelena 1964 eta 1981-n) ondoko hipotesiari erantzuten zitzaion: "Si nous faisons attention aux particularités individualisantes du biscayen par rapport aux autres dialectes basques, nous avons plutôt l'impression qu'il nous faut partir de deux dialectes pyrénéens occidentaux anciens qui, pendant une certaine période, n'étaient pas immédiatement voisins, mais qui, entrés plus tard en contact immédiat, se sont rapprochés de plus en plus. De l'un serait donc issu le biscayen; du second, tous les autres dialectes en territoire espagnol et français. Le rapprochement entre le biscayen et le guipuzcoan, en d'autres mots l'effacement graduel des limites indubitablement nettes autrefois, est un procès en cours depuis longtemps et qui se poursuit toujours" (Uhlenbeck 1947: 544). Egia esan, hau guztia bidenabar eta inongo zehaztasunik gabe jaurti zuen eta Tovarek aspaldi egindako ihardespeneko filologi-gaitasun ezak ekarri zuen ondokook honelakoetan aritu beharra... beharbada lanean ziren arazo morfologiko interesgarriagoei kasu handirik egin gabe.

(119) De Josseling de Jong-ek Uhlenbecken nekrologikan dioenez (1952: 252-253), honek ez zuen neogramatikoen *erlazio genetiko, aitzinbizkuntza, jatorrizko lotura* eta beste hainbat oinarriko kontzeptu onartzen; euskara bezala, IE, uralikoa, eskimoa eta beste hainbat familia aztertu zituen, baina ez bakoi-tzaren hasierako homogeneotasunaren banaketaren bitartez, jatorri diferentetako isoglosa eta estrato konbinaketaz sortutako akulturazio prozesu gisa baizik. Antzeko jarrera da Baitchurarena ere (ikus 1987: 169 bereziki).

(120) Schuchardtengandik datorren (eta Boudarengan ere aurkitzen dugun "euskararen bokalen geminatze (ustezko) joerak" azalduko edo luke atal honetan sailkatzea zenbait bisilabo; Mitxelena 1950-en eta FHV-n bada aski ustekizun honetaz.

- 4) VCCVC eta CVCCVC “ohikoak, orobat”: *argal, azkar, bazter*, etab.;
- 5) diptongoarekin (DCV, CDCV, DCVC, CDCVC, VCD, CVCD, VCCD, CVCCD, VCDC, CVCDC, VCCDC, CVCCDC): *aita, leiho, oihu, aihen, leizar, etsai, garai*, etab.
- c) erro trisilaboak: arrarotzat du bai VCVV zein CVCVV: *egia, herio, lehia*.

Disilabikoez ohar orokor batean dioskunez (1947: 65), behin eta berriz desinentzia berberak —antzinako atzizkiak, beharbada— eta inoiz hasierako kontsonanteak (noiz ondoko bokalarekin konbinaturik, noiz bakarrik) aurkitzen ditu, aurrizki fosildu eta agortzat dituelarik azken hauek... Uhlenbeckentzat bada sail disilabiko bitxi bat, oinarriaren bi silabetan bokal bera duena, hain zuzen: *adats, apal, arrats, azkar... bele, xebe, eder, elbe... bibi, idi, ibintz, mibi... mo(s)ko, odol, olo, oro... buru, sudur, zubur*; aditzen artean ere badakuski eredu fonologiko bereko erro zenbait: *ahantz, atzar, etben, isil, leber, nahas*. Bokalismo bereko eredu hau uralo-altaikoan ematen den armoniaz oso bestelakotzat eta Kalifornia eta Oregoneko hizkuntzekiko paralelismo osokotzat du¹²¹ eta on deritzo behin-behinekoz “Añamendi-mendebal zaharreko” gisa sailkatu eta hizkuntza kaukasiarrekiko erkaketetan oso kontuan hartzeari. Oinarri disilabikoak noiz edo noiz baino ez dira aditz erroetarik ateratzen eta orduan ere —baina ez dakar adibiderik— atzizki fosilduen bitartez. Horregatik Uhlenbeckentzat (1947: 67) eredu disilabikoa euskal hiztegiaren estrato oso zaharra genuke, errazki banatzen diren atzizki bizi eta emankorrez eraturiko izenki-eratorri aditzetikoak ez bezala.

Euskal lexikoiaren “esentzian” barneratzeko bidea behin eta berriz agertzen diren amaierena dugu harentzat. Artean aztertugabeko alorrean sartzen dela eta ezagun direnak ez dituela aipatuko aurreratuz, ondoko amaiera hauek zerrendatzen ditu:

- tz / -ts: *adats, bagitz, ahats, ahuntz...* (ehunetik gora adibide).
- ar: *abar, adar, azkar, behar...* (zenbait dozena).
- er: *akber, bazter, bider, eder* (“moins nombreux”).
- or: *agor, alhor, behor* eta beste dozena bat.
- ur: *ahur, aitzur, barur, beldur* eta beste dozenaren bat.¹²²
- el: *gibel, igel, sabel, ubel* eta besteren bat.
- il: ia guztiak berriak *bil*-ez landa.
- an: *aran, buztan*, baina ez omen Añamendi-mendebal zaharrekoa.
- en: *aihen, auben, gizen, izen...* eta beste zenbait, jatorri diferentekoak baina inoiz ere genitiboarekin nahasi behar ez direnak.
- in: *adin, hagin, aitzin, arin* eta beste batzuk; horien artean *berdin* edo *urdin*, gero Mitxelenak (1971) aztertuak edota *samin* (cf. XX. oharra).
- un: *alhargun, asun, bigun, egun*, etab.
- rri (?): *bebarri*.
- ba: ahaidetasun berbetan.

(121) Cf. M. Swadesh “Problems of long-range comparison in Penutian” (*Lg* 32, 1956, 17-41 [batez ere 25-26] eta Lakarra 1997, zeinen laburpen den zati hau. “Familia” penutiarraz eta Ameriketako hizkuntzen sailkapenaz, oro har, ikus bedi orain Campbell 1997.

(122) Azterkizun diren enborrotan *-ur* inoiz atzizkia dela uste du baina besteren batean baita aurrizkidun erro baten zatia ere. “Mais il y aura aussi des mots importés et, peut-être, comme tels, des composés qu’il n’est pas possible de reconnaître” (Uhlenbeck 1942: 570).

5.2.2.2. Lafon

Gehienbat bere tesian (Lafon 1943) eta Uhlenbecken bi artikulu (1942, 1947) garrantzitsutan esana gogoratzen bazuen ere, Lafonek euskal erroari buruz argitara zituen ohar laburretan (Lafon 1950) erro hori zehazteko oztopoak gaintitzeko, berarentzat *ultima ratio* zen konparaketa euskara-kaukasikoaz (cf. Lakarra 1998b) landa,¹²³ bada bertan arretaz miatu beharrekorik. Esaterako, erroa ez dela abstrakzio hutsa erakusten du:

Dans nombre de cas, la racine, en basque, n'est pas une abstraction, mais une réalité: elle peut s'employer à l'état nu, sans préfixe ni suffixe. Au nominatif indéfini, un nom (substantif, adjectif ou pronom) se présente sous la forme du thème nu, et, si ce thème ne contient aucun suffixe de dérivation ni préfixe, la racine y apparaît à l'état nu. Il en est ainsi, par exemple, de *ur* 'eau', de *lo* 'sommeil; dormant', de *su* 'feu', de (*h*)*uts* 'vide', de *gor* 'sourd', de *gu* 'nous' (Lafon 1950: 303).¹²⁴

Aditzetan legez, *ur*, *su* edo *gogo* "qui est un mot à redoublement (rac. *go*)" (1950: 305) bezalakoetan ez da zail erroa ezagutzen. Beste zenbait kasutan esanahiz lotutako zenbait hitzetako zati amankomuna bana daiteke: horrela bide dagokio **bel-i bele*, *beltz*, *belatz* eta *arbel-en* (ibid.). Zailagoak, baina litezkeenak deritze **bar* 'fond', **aun* 'abondance, grandeur', *ber* (cf. *berrogei*, *bertzelbeste*, *berri*) edo *go-ri* (cf. *goi*, *igo*). Badira, azkenik, historikoki lekukotutako euskara hutsez ezin aska daitezkeenak (Lafon 1950: 306-308): *irazi*, *ibes* eta aldaerak, ahaidetasun izenetako *-ba-z* amaituen forma eta esanahia, *aun-*, *abun-* ala *a-(h)un-* ahuntzaren izenean, gorputz zati askoren izenean *b-* aurritzia den ala ez... Lafonen ustez metodo konparatua (hizkuntza kaukasiarren laguntza) izan daiteke euskararen barnean analiza ezin daitezkeen hitzak argitzeko bidea:

Un nom basque, s'il ne contient aucun préfixe ou suffixe connu et dont la valeur soit nette, ne se laisse généralement pas analyser; ou, plus exactement, on ne possède aucun moyen direct de l'analyser. Mais on peut essayer de recourir à un moyen indirect, qui consiste dans l'emploi de la méthode comparative. Il faut chercher des mots appartenant à la même racine dans des langues apparentées génétiquement à la langue basque, c'est-à-dire dans les langues caucasiennes (Lafon 1950: 508).¹²⁵

Hori litzateke *gider*, *gidar*, *kider*, *kidar-en* kasua: euskaraz Uhlenbeckek aurkitutako *-ar / -er* atzizkia izan arren *g-/kid-* hor ezerekin ere ezin lot daitekeelarik, Lafonek georgieraz, mingrelioz eta svanoz 'prendre, saisir' esanahia duen *kid-/ked-* batez azaltzen digu.

(123) Zuzenean egindako ikerketa kaukasikoez kanpo, ugari dira Lafon 1943 eta beste lanetan euskararen egitura edo eboluzioaren hainbar alderdi argitzeko aipatu paralelo kaukasiarrek. Ez dirudi, ordea, ohitura hori emankorra gertatu denik euskararen azterketa historiko konparatuaren azalpen bote-rearentzako edota bata zein besteen historiaurrearen ikerketarako, "aitzin-euskara-kaukasiera"ren ahultasunaz hitzegiteak dagoeneko merezi ere ez duelarik; ikus soil-soilik Mitxelena 1964 eta 1969. Geroztik, izan, bada aldekoen lan optimistagorik, baina ez da jarraitzen horregatik arrazoi haboro dutenik.

(124) Ohar bedi Lafonen adibide gehienak monosilaboak direla artikuluan erro zaharren forma kanonikoarekiko berariazko iruzkin ez ondorioz izan ez arren.

Lafonek euskara eta Kaukasoko hizkuntzen arteko “konkordantzia morfologiko” ugari aipatu zituen: 35 bere 1951-52ko lanean; alabaina, konkordantzia horien balioa epaitzeko indoeuropeoz, uralo-altaikoz edo hamito-semitikoz gertatzen zena- ren aurka tipo morfologiko kaukasikorik ez zela aitortzen zuen (1951-52: 92). Egileak berak onartu legez, kaukasikoan ez egitura eta ezta adabakiak ere ez dira berdinak; zenbait elementu morfologiko ez ditu hizkuntza bakar batek baino, eta horietarik bat ere ez da ezer frogatzeko modukoa (1951-52: 94).¹²⁶ Ikusi izan da, gainera, euskara eta hizkuntza kaukasikoak biltzeko ziren frogak morfologikoak fonologikoak bezain ahul zirela. Mitxelenak gogoratu zuen marka gramatikalak oro har (eta baita Lafonen saioko gehienak ere) oso laburrak direla, halabeharri aukera zabalegia utziaz; horrelakoetatik dator, esaterako, belarea izatea IE hizkuntza baten (armenieraren) zein euskararen pluralgilean. Besterik litzateke ez desinentzia hutsak baizik eta txandakatzek edota morfema egiturari buruzko legeak amankomunean izatera, baina ez da honelakorik Lafonen eta kideen lanetan.¹²⁷

Desinentziak utzi eta inoiz erroaz mintzo denean, Lafonek aitzineuskararenaz zuen ikuspegia ere ez da egokiegia. Aditzetako aurrizki eta atzizkiak baino ilunago izanik izenkietakoa, horiek argitzeko metodo konparatura jotzea aldarrikatzen du. Baina bere euskal erroari buruzko lanaren gailur gisa aurkezten duen adibideak ez du bi hizkuntz familien ahaidetasuna sendotzen, batean eta bestean erro eta atzizki berberak eta konbinaketa berekoak direla erakutsiaz: euskarazko *g-/kider*, *-ar* georgierazko *Kid-* ‘suspendre, saisir’ (mingrelieraz “prendre dans sa main, saisir, se saisir de”) eta svanoko *Ked-* “prendre” erroarekin erkatzean eta euskarazko formarentzat, Uhlenbeckek beste izenki batzuetan aurkitu uste zituen *-ar*, *-er* atzizkien bitartez, “on peut penser qu’il en est ainsi dans le mot précédent et que la racine est *kid-*, *gid-*” (Lafon 1950: 307) dioelarik, euskaraz silaba eta erro akabuan ezinezko den herskaria proposatzen du,¹²⁸ berreraiketa erraza eta gainerakoen bermekoa ez baina teoria osoaren ahuleziaren erakusle egiten delarik.¹²⁹

5.2.2.3. Ikerketa gehiagoren beharraz

Izatez erro zaharra monosilabikotzat zuen Azkuek ez bezala, Lafonek eta —batez ere— Uhlenbeckek euskal erro ñabarra aurkeztu dute (cf. Lakarra 1998a): aditz-erro gehienbat monosilabikoaren alboan, izenki-erro disilabikoa (nahiz eta monosilabo eta

(125) Halere, bizirik eta emankor diren atzizkien azterketaren eta soilik kanpoko laguntzaz ageriko lirarekeen lekukotasunaren artean barne-berreraiketaren metodoa eskura geldituko litzaigukeela dirudi.

(126) Deklinabideko gutxietarik bat, *-rantz* / *-rontz* / *-runtz*, Ricardo Gómezek latinaren eta erromantzearen eredura azaltzea proposatu du (cf. fr. *vers* < *verto*: eusk. *ontzi*) lan argitaragabe batean.

(127) Traskek (1997: 392hh) erakusten duenez, ondoko 40 urteotako lana ezin da gehienetan aitzinamenduztat izan.

(128) Hortzetakoa gainera! Ez da hau inork (aitzin)euskal morfotzat emango lukeena, nik uste. Ez dirudi Morvan-ek (*Lapurdum* 2.ean) proposatutako CVT etimologia euskara-uralikoek ere inora garamatzenenik. Honetaz eta Morvanen tesiaz beste toki batean mintzatuko naiz astiroago, cf. Lakarra presatzen-c.

(129) Boudaz ikus Lakarra 1998b non gehitzen diren beste zenbait erantzuki erroaren alderdi honetatik Mitxelenak 1950ean beste batzutatik haren aurka bildu dossiererako.

polisilaboekin) erakutsi digute, batzuen eta besteen barnean ere egitura fonematikoari dagokionez azpizail anitz direlarik.¹³⁰

Mitxelenak gorago emandako ahapaldian gogoratu legez, anomalia historikoak berreraiketan interesgarri direlarik lehenagoko erregela eta baldintza zaharragoetarik abiatuaz azal daitezkeen neurrian,¹³¹ begibistakoa dugu euskarazko erroaren egiturak, historikoki dituen irregularitateak kontuan izanik, iraganean urruti eraman gaitzakeela azalpenik emateko gai garen neurrian. Kontrako aukera, hots erro eredu sailkatze eta zerrendatze soila erosoago eta seguruagoa bide da; izan ere, ez ginatete bakarrik hortik jo bageneza eta, aurki ikusiko dugunez, euskara ere ez litzateke hizkuntza bakarra zeinarentzat forma kanoniko anitza proposatu izan den. Uste dut, ordea, bai hizkuntza horien historiaurrearen garai zaharragoen berreraiketarako eta baita euskararenetako ere bide erraza bide agorra gertatu dela.¹³² Erro teoriak edozein berreraiketa eta konparaketatan duen betebeharrak garrantzitsuaren aldarrikapenean datza ondoren datozen gogoetaren oinarria.

5.3. Aitzineuskararen erroa mugatuaz

Euskararen fonologiak zerbait dakienak badakike *r*, *R*, ahoskabeak —ezta *d*, *tz*, *ts*, nahiz *x*- / *tx*- ere zenbait euskalkitan— ezin erabil daitezkeela lehen silabako C- bete-tzeko,¹³³ eta gogoratzen baditugu ingurune horretan sudurkarietara eta likidek dituzten arazoak, berehalakoan jabetzen gara posturako hautagaien zerrenda benetan labur bilakatzen dela.

Guzti honetatik landa marka bide liteke monosilaboetan C- (*gaR*, *bil*, *goR*, *zur*, *luR*) ez dugunean *b*- ia beharrezko dela: hVS (*botz*, *hats*, *bitz*, etab.) edo hVR (*bor*, *hon*, *bel*, *bil*, etab.). Bada orobat hVRS (*hartz*, *hartz*, *hertz*), baina ez VRS. Zenbait hVR+-S desinentzia bide dira; cf. *hor*: *hor-tz* eta (beharbada) *har*: *har-tz*.

Silabaren egitura ikusi bezala, ez da -T ez monosilaboetan ez polisilaboetan, baina bai T- (TVR, TVS) *gor*, *gatz*, **bel*, **baR* monosilaboetan.

(130) Traskek (1997: 172hh) badu hainbat ohar interesgarri aitzineuskararen fonotaktikaz eta morfema egituraz; horietako zenbait (euskarazko V- aniztasuna, esaterako) Lakarra 1998b-n ikertu dut eta prestatzen ari naizen zabalago batean ukitu gogo ditut gainerakoak hobeto. Nolanahi ere den, Trasken erro kanonikoaren formula —(C1)V(C2)C3V(C4)— Uhlenbecken zerrendak baino murriztago bada ere, zabalegia dela eta haboro zehaz daitezkeela eta zehaztu behar dela uste dut.

(131) Hautatutako adibidea teoria laringalarena da: kasu ezagun batean “conseguió el triunfo mostrando que la irregularidad histórica no era otra cosa que el reflejo de una regularidad prehistórica” (ibid.).

(132) Berreraiketaren mugak jakitea ere beharrezko gertatzen da, ezagun denez. Bomhard-ek bere nostratikoen berreraiketaren aitzinean garbiro azaltzen duena edozein hizkuntza familiarren berreraiketari heda dakiokela deritzot: “It is necessary to be quite clear concerning my assumptions regarding root structure patterning in Proto-Afroasiatic, because the assumptions I have made here are critical to the viability of the lexical comparisons I have made between Afroasiatic and the other language families considered in this paper” (1991: 58).

(133) Bai barneko zenbaitetan, cf. *e-ra-man*, *e-rran*, *e-tzan*, *e-tsi*, *e-din* (guztiak polimorfemikoak, bes-talde) eta horietarik zenbait (*R*, *ts*, *tz* baina ez *d*, *r* (erronkarietaz salbu)) koda silabikoan edota amaiera absolutuan koka daitezke (*lebeR*, *saiβets*, *zubañtz*). Txistukari afrikatu / frikarietara oposaketa eta distribuzioak eta orobat dardarkari soilak eta anitzaz ikus Mitxelena 1957 edo FHV. Gorrochategui 1984an (Mitxelena 1954ean esana zabalduaz) akitanierari buruzko antzeko lekukotasunik aurki daitezke.

Aitzineuskaraz lekerkari bat hasperenarekin, txistukariekin zein ozenekin gonbina zitekeen morfema barnean, beti ere haiekin talderik egin gabe. Hots, ez dira ageri **babe*, ***babi*, ***babo*, ***babu*, ez ***bada* (bai *ba-da* 'izan'), ***bade*, ***badi*, ***bado*, ***badu* (bai *ba-du* '**edun*'), ez ***baga*. Ez da lehen kontsonantea belarea eta bigarrena ezpainetakoa edo hortzetakoa duenik ere: **gaba*, **gada*, ez **gaga*. Bi leherkari dituzten bakanak etimologia ezagunekoak dira gehienbat: *bide* eta horri lotutakobider, *baba* edo *bago* mailegatuak, *bada* 'pues' *ba-da* 'izan'-en gramatikalizazioa dugu, *gabe* bageren metatesia eta hau **bade-ge* edo. Azkenik, *biga*, *begi* eta beste zenbaitetan aspaldidanik egitura morfemiko haboro ikusi ohi da; cf. *b(i)*- eta lehen dualak izan bide ziren gorputz zatiak: *b-eso*, *b-elarri*, *mibi* < **b-ini*, etab.

Bisilaboetan bada hVTV, VTVR, VRTV, CVRV (*habe*, *haga*, *hagin*, *abar*, *apur*, *egur*, *eten*, *atal*, *aldi*, *ardi*, *arte*, *garo*, etab.), baina markagarria begitantzen zaigu izan zitezkeen 450 TVTV erroetarik (ahoskabez hasitakoak kanpo uzten ditut, jakina) oso gutxi agertzen direla.¹³⁴

Guzti honetatik ondoko baieztapen deskriptiboa egin daiteke:

Aitzineuskaraz silaba berean zein aldamenekoetan ere ezinezko dira bi leherkari morfema beraren barnean; ez zen, hortaz, TVTV eredurik.¹³⁵

Baina zergatik? Eta, gainera oraindik erro aukera ugari gelditzen dira Uhlenbecken eskeman; guztiak ote dira betidaniko edo batzuk besteren aldaera izatetik eredu berri izatera igaro ote ziren? Ondoko ataletan egin nahi nuke horri buruzko gogoe-taren bat.

5.4. Aitzineuskarazko ****TVTV** azalduaz: indoeuroperazko kidesasuna

Indieuroperaren erroko kontsonanteen agerraldi-murriztapenak azaltzeko asmoz sortutako teoria anitz izan da;¹³⁶ alabaina, saio orok puzzle heterogeneo batekin egin du topo. Iverson eta Salmons-ek (1992)¹³⁷ erro egituraren murriztapenak (EEM) azal zitzakeen arrazoi fonologiko askeak bilatu dituzte silaba eta koda zilegiztatzearen teoriatik abiatuaz.

Ezer baino lehen, EEM ez dira bestela ere aitzinindoeuroperaz (AIE-z) —berre-raiketarik laburrenako herskari guztiak kontuan izanik— oso agerraldi eskasa duten¹³⁸ erro-herskari-bikoitzen murriztapen orokorren zati txiki bat baino. Erro-herskari-bikoitzen urritasuna markagarria delarik, badira, AIEko kontsonanteen dis-

(134) Bisilaboetan, dakigunez, ez da ***suzen*, ***satz*, ***solaz* baizik eta *zuzen*, *sats*, eta —adierazgarria— *solas*, *sasoi* / *zazoi*.

(135) Ez dugu hemen TVCTVC (*berdin*, *bazter*, etab., tarteko ozen edo txistukariarekin) ugaria kontuan hartzen; halere horietako hainbait ez direla morfemabakar Mitxelenak (19__) dagoeneko erakutsi zigun.

(136) Farnatuen glotalikoa, beharbada; oinarrizko ohar eta bibliografia-laguntza baterako ikus § 8.4.

(137) Ik. halaber Iverson & Salmons datagabea; honetan bada ohar laburren bat ere kodagabeko erroak berreraikitzeak nostratikoarekin eta besterekin erkatzeko dakartzan aldaketez.

(138) + / - % 3,5 (71 2000tatik) Pokorny-ren lexikoian dialektalak kendu ondoren (cf. Iverson & Salmons 1992: 296).

tribuzioan erabakitzaile gertatzen dena ez EEM baizik eta bestelakorik dugula pentsatzera garamatzaten arrazoiak. Dena dela hasierako kontsonantea, ozenez (66,01 %) edo laringalez (17,32 %) amaitzeko joera du AIE-k, bukaerako herskariak soilik % 14 direlarik (ahostun, ahoskabe nahiz hasperendun ere barne), horren ugari izan arren hizkuntza horrek bere inbentario fonologikoan duen herskari kopurua.¹³⁹ Iverson & Salmonsek (1992: 301) markatu bezala, erro-herskari-bikoitzen eskasia erro-amaiera-herskaridunen eskasiaren ondorio naturala da. Bestalde, amaiera-herskaridun erroen falta AIE-n hizkuntza honen ozentasun (*sonority*) handiko amaieren aldeko joeratik dator; erro hasieran, aldiz, herskariak osoaren % 51 inguru dira, azken proportzio hau hobeki egokitzen zaiolarik AIE-aren sistema kontsonantikoaren konposizioari.

AIE-ren erro-lekerkari-bikoitzean litezkeen bederatziti osaketetarik, ohiko hiru EEM guztiz ezagun direlarik ere, ez da gauza bera gertatzen gainerako guztien urritasunarekin. Halere, murriztapenak dituzte gainerako konbinaketa guztiek ere, Iverson & Salmonsek (1992) erakutsi legez; halaber, munduan diren eta izan diren hizkuntza askok amankomunean dituen silaba egitura-ereduetarik jalgitako murriztapenatarik dator gertakari hau: hizkuntza guztiek dute CV silaba; zenbaitek badu CVC ere, eta hizkuntza hauetarik batzuetan zeinnahi kontsonante zilegi da, dela hasieran, dela amaieran. Badira beste zenbait hizkuntza, ordea, silabaren kodan murriztapenak dituztenak baina ez silaba hasieran.¹⁴⁰ Orobat, ez da ez IE-z eta ezta handik kanpo ere, amaieretan ahostun nahiz ahoskabe baina hasieran soilik ahoskabeak, edota hasieran neutralizatuak baina amaieran tinko eusten dituen oposizio fonologikodun hizkuntzarik. Honengatik guztiagatik —Goldsmith, Prince eta enparatuak jarraituaz— Iverson & Salmonsek (1992: 306) silabarekin batera koda ere bigarren zilegiztatzaila dela aldarrikatzen dute. Aipagarri da kodan kontsonante konbinaketari buruzko ozentasun murriztapenak direnean, murriztapen horiek beti laguntzen dituztela kontsonante ozenenak, gertakari hau Vennemann-en “egitura silabikoaren lehentasun legeekin” bat datorrelarik: herskariak izaki apalenak ozentasun hierarkian (bokal > glide > likido > sudurkari > frikari > ozen), horiek dira unibertsalki beste edozein baino lehenago kanpo gelditzeko hautagaiak, baldin eta delako hizkuntza batek ozentasun-behar nimitzina ezar baleza. Badirudi hau dela AIE-ren kasua.¹⁴¹

(139) Iverson eta Salmonsek, puntu honetan neutral agertu arren, artikulazio hirukoitzarekin jokatzen dute; Brugmann-en lauukoitzarekin emaitzak are larriagoak lirateke. Izan ere, soilik txistukariz amaitutakoak dira urriago (% 2,81) eta ohar bedi zeinen txistukari gutxi diren IE-n eta, jakina, bai batzuen eta bai besteen ozentasuna ozen eta laringalena baino txikiago dela.

(140) “In Mandarin, the only consonants to appear in the coda are the nasals; at the end of the word in (Modern) Greek, generally only [n] or [s] occur, and in Spanish also only nasals or continuants. In the Bantu language Luganda, on the other hand, or in the Austronesian language Selayarese, or even in Japanese, an obstruent stop may appear in the syllable coda, but only if it is homorganic with a consonant in the onset of the following syllable” (Iverson & Salmons 1992: 306).

(141) Bidebar, “Obligatory Onset Condition” delakoa jarraiki, malayalamak ez du bokalez has ten den silabarik. Historikoki malayalamak asko mailegatu du sanskritotik. Ondorioz asimilazioa hainbestekoa izan da non malayalamak sanskritoaren zenbait talde kontsonantiko onartu dituen, bidebar sanskritotik hartutakoan kodak oro desagertaraziaz, lekat *m* eta *n*-ez amaituak. Beste hizkuntza dravidiko batean, tamilez, euskara zaharrean bezala kontsonante taldeak hautsi egiten dira bokal epentesiaz (Mohanani 1989: 616).

Konpara bedi malayalam hizkuntza dravidikoaren kasua. Hizkuntza hau silabakoda gabekoa da. Hitzunei *bhakti* 'devotion', *campa* 'jasmine' eta *dabba* 'tin can' ahoskatzeko eskatzen zaienean *bha-kti*, *ca-mpa* eta *da-bba* eman ohi dute, beren aldameneko hindian *bhak-ti*, *cam-pa* eta *dab-ba* egiten duten bitartean (Mohanani 1989: 591). Silaba egitura bi hizkuntzotan diferentea dela oso erakusteko adibideak biltzen ditu Mohanani hitzjokoetan eta antzekoetan (1989: 592, 4. oh.). Hitzamaieran, eta salbuespen bezala, soilik *m* eta *n* kontsonanteak onartzen dira eta hitzen batek beste kontsonanteren bat balu gune horretan ∂ -epentesia pairatzen du, are ingelesetiko eta beste hizkuntzetatik mailebuetan ere: *maas* + *ewite* > *maasewite* baina *kaat* + *kutti* > *kaat ∂ kutti* edo *maas* + *pooyi* > *maas ∂ pooyi* eta ing. *belt* > *belt ∂* , *power* > *pawar ∂* . Kodaren aurkako argumentu gehiago dator geminatuetik hiztunen ulerpenetik: *amma* 'mother' eta *kutti* 'child'-en malayalam-hiztunentzat hurrenez hurren 3 eta 4 segmentu dira, 4 eta 5 hindi-hiztunentzat, aldiz. Malayalam-hiztunek geminatuak segmentu bakartzat hartzen dituzte; hindi-hiztunek ez, silaba baten akabuko eta hurrengoaren hasierako bi ezberdin baizik; gehi bekio hindi-hiztunek ez dituztela bereizten malayalameko geminatuak soilatarik.

Lehenagoko CV egoera batetik abiatuaz, Benvenisteren teoriak azaldu egituraren gailurrera iristen den IE-zko erroaren garapen-kronologia aurkezten dute Iverson & Salmonsek (1992), hau da: CVC hedatugabea, I. enborra CVC-C, II. enborra CC-CV (zero gradua edo ablauta erroan — gradu arrunta [e] luzapenean). Egileon ustez, AIE-ren erro egitura C V C(+ozen) litzateke, honako hau erantsiaz:¹⁴²

Though this supports positing a stage of (P)IE where roots were overwhelmingly, if not strictly, CVC, it is possible to suppose that at some prior stage PIE was a predominantly open syllable, CV language, and that the prevalent CVC root in PIE came about because a set of consonantal augments, now largely obscured affixed themselves to the earlier CV syllables. The final consonants would then later have undergone word-, stem- or root-final weakening, resulting in the pattern of sonorant-final preferences noted here. Lenition of earlier, less sonorant root-final segments [...] thus offers a direct reconciliation of the coda restrictions described in section 2 above with the classic, Benvenistean pattern of CVC root structure for PIE: CVSon < CVC < CV + C (Iverson & Salmons 1992: 309-310).

Bestalde, CVTT amaierako herskari-bikoitzeko errorik ez izatea kodako ozentasun murriztapenetik ateratzen da; izan ere **dekt* ezinezkoa da **dek* lehenago ez izaki.

This is precisely the result that will obtain if double-stop CVC roots actually were as rare as we have calculated them to be. In particular, taking the source for CVCC roots to have been CVC plus extension, as per Benveniste (1935), then the fact that the postvocalic C in CVCC is always a consonant of relatively high sonority derives automatically from the general preference at the CVC stage of PIE for high sonority codas, i.e. CVC was actually CVR, hence "extended" CVC+C equates with CVRC (Iverson & Salmons 1992: 312-313).¹⁴³

(142) Austronesiotik polinesiora egindako kontrako aldetaz, hots, koda galeraz eta silaba irekien aldeko joeraz ikus Kruppa 1971.

(143) Benvenisteren eskema lehenagoko CV garai batera eramanaz Szemerényi-rentzat oso arkaiko diren eta egitura hori hartzeko joera handia duten izenordain, partikula eta afijoak sailkarzea lor daiteke.

5.5. Zenbat forma kanoniko?¹⁴⁴ Erroa semitikoz

Fezko Hayyudj-k X. mendean horrela aldarrikatu zuenetik, uste erabat orokorra izan da erro semitikoak hiru kontsonantez osatzen zirela (Lipinski 1997: 201); hara gramatika konparatu famatuena hamar mende beranduago horretaz dioskuna:¹⁴⁵

The Semitic languages present a system of consonantal roots (mostly triconsonantal), each of which is associated with a basic meaning range common to all members of that root: e.g. *ktb* 'to write', *qbr* 'to bury', *qrb* 'to approach', etc. These roots (root morphemes) constitute a fundamental category of lexical morphemes (...). The linguistic reality of consonantal roots is shown not only by their lexical implications but also by the laws governing the compatibility or otherwise of radicals (which do not concern the vowels) (...) and in the transcription of foreign words. Only the pronouns and some particles lie outside this system of roots (Moscati 1964: 71).

Tradizio semitikotik landa ere hizkuntzalaritzan aspaldi hartutako ideia dugu:

En hebreo, lo mismo que en otros idiomas semíticos, la idea verbal en cuanto tal se expresa mediante tres consonantes características (con menor frecuencia dos, o cuatro). Por ejemplo, el grupo *sh-m-r* expresa la idea de 'guardar', el grupo *g-n-b* la idea de 'robar', el grupo *n-t-n* la idea de 'dar'. Naturalmente, estas series de consonantes son abstracciones de las formas que se emplean en la realidad. Las consonantes están vinculadas entre sí, en formas diferentes, por vocales características que varían de acuerdo con la idea que se desee expresar (...) (*El lenguaje*, FCE México 1977, 7. berrarg., 71-72. or.).¹⁴⁶

(144) Benvenistek (1939) hitz-hasiera eta -amaierako kontsonante gonbinaketari begira hizkuntza "arinak" eta "pisuak" berezi zituen, latina eta grekera (hasiera pisua, amaiera arina) bereziki, baina baita beste hainbat hizkuntza ere (persera, finougrioa, altaikoa, burushaskia eta beste hasiera arina eta amaiera pisua) kontuan harturik. Horrezaz landa, bada ohar interesgarririk hasierako *r*-kontsonantearen faltaz hainbat hizkuntzatan, euskara barne.

(145) Ikus Amimi & Bohas 1996 (eta lehenago Galand 1984) hizkuntza semitikoetan erro-eskemak izandako aldaketek eta, era berean, gorde duen iraunkortasunaz. Aurreko zenbait ikertzaileen lanez "nous allons montrer que l'inefficacité de ces traitements provient de ce qu'un élément morphologique n'a pas été pris en compte: le schème, dans la terminologie traditionnelle, ou le squelette, dans la terminologie contemporaine" dioskute (1996: 1); hara beren ondorioak: "Notre étude montre au contraire que sous la diversité apparente, toutes les variations de la position de la voyelle sont des manifestations actives de la position de la voyelle des anciens schèmes et nous amènent donc à motiver leur persistance, tandis que le timbre de ces voyelles est strictement prédictable, vu la réduction de toutes les voyelles périphériques à schwa (...). La persistance du schème sur tant de siècles ne manquera pas d'étonner le linguiste peu familier avec le domaine sémitique"... halere artikulu argudioek sako-neko egitura iraunkor horiek proposatzea beharrezko egiten dutela markatzen dute.

Bidenabar, arabieraren barne-azterketa batez Bohas-ek ateratzen duen ondorioaren arabera "erro trilateroa" ez da lexikoaren erlazio semantikoak azaltzeko behar bezain abstraktua, eta abstraktuegia dugu morfologiaren abiapuntu izan dadin (Bohas 1997: 193).

(146) Martinet laburragoa da: "La forma normal de los lexemas de una lengua se llama a veces forma canónica. La forma canónica en chino es el monosílabo y en las lenguas semíticas tres consonantes, con o sin vocales intermedias. Estas son lenguas en las que esta noción tiene un sentido evidente. Es más difícil hallar una forma canónica para el francés, por ejemplo. Sin embargo, hay que tener en cuenta que en el lenguaje corriente las palabras largas tienden a reducirse a disílabos del tipo *métro*, *vélo*, *téle* o *té-vé*" (*Elementos de lingüística general*, Madrid, Gredos, 2. arg., 1978, 124-5. or.).

Moscatti-k (1964: 72) adierazten duenez, historikoki erro hirukontsonantedunek gehiengo handia osatzen dute; askozaz gutxiago dira bi edo lau kontsonanteko erroak eta oso urriak batekoak edo bostekoak, hiru kontsonante baino gehiagokoetan bigarren graduko eraketak aurki daitezkeelarik. Markagarri da, esaterako, Sabar-ek (1982: 149-150) eta bestek semitiko modernoan eta klasiko-ondorengoan erro lau-koitzak, dela jatorrizko erroen hedakundez, dela hizkuntza ez-semitikoetarik maile-batuaz, dela onomatopeiaz eta mimetismoz sortutako berriez, ugalduez doazela esatea.

Badira, ordea, erro-kontsonante bi amankomunean izaki, esanahi bera edo berttua dutenak ere. Horrela, adibidez, hebraieraz *prđ* 'to separate', *pr̄m* 'to tear', *pr̄s* 'to split', *pr̄s*. 'to break down', *pr̄q* 'to pull apart', *pr̄r* 'to dissolve', *pr̄s*[^] 'to distinguish', etab. Aditz hauek guztiek amankomunean dituzte *pr* erro-kontsonanteak eta 'banatu' oinarritzko esanahia. Lexikoi semitikoan hedaturik den fenomeno honek erro trikontsonantiko asko ez ote den bikontsonantedunetarik eratorria galdetzeraz garamatza, eta are sistema bikontsonanteduna ez ote zen hirukontsonanteduna baino lehen semitikoan (Moscatti 1964: 72).

Moscattiren erantzun ezaguna ezezkoa da. Nahiz eta aitortu (a) adierazten dituzten kontzeptuengatik (cf. *dam* 'odol', *yad* 'esku' edo *yam* 'itsaso') izenki bilitero zahar eta hirukontsonantedunetara ezin eramanak diren arren hizkuntzotan eta (b) aditz ahuletan hainbat erro bikontsonantedunak direla non gehiago diruditen —bereziki beste bilitero batzuekin semantikoki bat datozenetan— beranduko hedakundeak ezen ez antzinako kontrakzioak¹⁴⁷ eta nahiz eta guzti honi lotu lehen erakutsi hainbat erro ustez hirukontsonantedunen zati bikontsonantedunetan ematen diren berdintasun semantikoak, hara zein den bere ondorioa:

There is, however, no sufficient reason for maintaining, as some have done, that the entire Semitic stock of roots was originally biconsonantal. It is a more likely supposition that originally there existed roots with either two or three consonants (as well as a smaller number with one only or with more than three) and that at a certain stage in the development of the Semitic languages the triconsonantal system prevailed —extending by analogy and thus bringing into line biconsonantal roots through the adoption of a third radical (Moscatti 1964: 73-74).

Konparaketak ematen zion laguntzaz landa Frajzyngier-ek (1979: 3-5) azterketa sinkronikoak eta barne-berreraiketak emandako argitasunak erabili zituen kontrakoa frogatzeko. Hasteko, segidan diren bi kontsonante (dela C1 eta C2 zein C2 eta C3) ezin izan daitezke homorganikoak; alabaina, bada salbuespen garrantzitsu bat, C2 eta C3 erabat berdinak (geminatuak) zilegi egiten dituen, alegia. *xyy*-erroak azaltzeko ez erro singleak baizik eta eratorriak direla eta goiko erregela soilik oinarrian betetzen dela baina ez eratorrian litzateke azalpen naturala eta bestelako (inflexio zein deribaziotiko) lekukotasun askea duena, gainera. Bestalde, Frajzyngierrek argudiatzen duenez, erregela soil batez iturri beretik atera daitezkeela erro guztiak: hots, geminatuak ez lirateke jatorriko, lexikoian soilik erro mota bat dugularik, gainerakoak erregela batez sorturik. Honela R1R2 > R1R2R2 eta R1R2R3 > R1R2R2R3 gehi

(147) Hirugarren argudioa hamitiko eta kuxitikoaren konparaziotik datorrenez, ikus bedi § 6.1.

bokalizazioa aski litzateke hizkuntza semitikoetan agertzen diren erro-sail guztiak azaltzeko. Norbaitek deribaziorako beste forma edo erregelaren bat suposatu arren, geminatuak eratorriak lirateke eta ez oinarrikoak edo soilak.¹⁴⁸

5.6. Aitzineuskararen erroaren azterketaren ondorioak (Lakarra 1998a)

Eztabaida morfologiko diakronikoan pilpilean diren gaiez, ondorio bikote honek baduke zeresanik: Erdi Aroko *-zaha* amaiera toponimikoa ezin izan liteke morfema soila (pluraleko alomorfo zaharrena, demagun), baizik eta bi morfemaren segida (*-za + -ha*).¹³

Bestetik, *-eta* (hobe, *heta*) mailegatua ez bada —eta ez da erraz horrelakorik izan dadin, cf. Manterola (2015)—, eboluzio gradu ezberdinetan diren bi morfema ditugu hor, *-(C)e* [hots, *he*] eta *-ta* [< *da*] (ikus Lakarra 2013a).

¹² Ikus §6.7 *-ats*, *-ar* C- galdutako erroez eta §6.4 morfemetako ***CVC* murriztapenaz.

¹³ Izan ere, pluraleko marka (eta sozietibo zaharrekoa, bat eta bera baititugu) ezin da **CVC > CVCV* bilakatu; erakuslea ere CVC-tik soilik CV-ra iritsi liteke lehen gramatikalizazioan.

6.2. *Ez dago CV lexikorik*

Erro Monosilabikoaren Teoriaren hasieran bertan (Lakarra 1995 eta hh.) baliatu genuen erregulartasun hau (eta **VC¹⁴) erro lexiko autonomoetan gutxieneko tamaina CVC zela aldarrikatzeko: *lan* (ez ***la*, ez ***an*), *hotz* (ez ***ho*, ez ***otz*),¹⁵ etab.; aldiz, CV (edo VCV) dugu izenordainetan eta beste zenbait partikulatan: *ni*, *hi*, *ha*, *gu*, *zu*, *eta*, *edo*, *ote*...

Salbuespen dira —eta oso urriak gainera—, *su* (cf. *sur-ta-n*) eta *k(h)e(e)*¹⁶ eta baita *jo* (non *j-* horrek aurrizkia jarraitzen duen, ez erroa) eta *lo* ere (azken honi, aurrekoari bezala *-n* falta zaio).

Alderantziz, ez dago berandu arte erro bisilabo edo polisilaborik: *hots*, *bake*, *begi*, *buru*, *bazter*, *susper*, *sumatu*, etab. edo konposatu-eratorri edo mailegu ditugu zaharrak badira.

6.3. *CV morfemak CVC lexikoetarik datoz*

Honetan euskara beste edozein hizkuntza bezala da: *da-* kopula eta aspektu burutugabearen marka dugu Traskek (1977) erakutsi bezala eta **dar* (= *jarri*) ‘SIT’ aditz nagusitik dator, cf. Lakarra (2013a). Bidenabar, SIT gainerako hainbat hizkuntzatan aspektu burutugabe bezala gramatikalizatzea —eta ez denbora marka bezala— arrazoi bat gehiago gense De Rijken *da-* aurrizkiarekiko teoriaren aurka (cf. Lakarra 2006b eta 2008b).

De (eta Traskek berriagotzat *jo te* eta *e*) halabeharrez **deC* batetik datorke. Bere semantika eta funtzioagatik (Aspektu burutua eta Pluraleko marka) FINISH-en kide batetik dator eta euskal fonotaktikaren arabera *-C* bat bete dezaketenen artean (*-l*, *-n*, *-r*, *-s*, *-z*), bigarrena (**den*) dugu hautatua.

Orobat, Lafonek (1948) ablatibo-prosekutiboko *-ti* eta *-ti* adjektibogileak jatorri bereko zirela ikusi arren, ez zuen jakin atzerago eramaten, eta ezta esanahi bikoiztasuna azaltzen ere. Dakigularik adjektibogileak baduela *-di fase sparita* bat —ekialdean *handi da*, ez ***hanti* eta baita *hordi* eta *geldi* ere, *zaldi*, *idi*, *ardi* eta *ahardi-z* landa—, eta TO COME aditzaren gramatikalizazioak bi funtzio horiek garatzen dituela hainbat hizkuntzatan, batez ere adjektibo kategoria askerik gabekoetan, **din*-era (*jin*, *dadin*, etab.) iristen gara; cf. Heine & Kuteva (2002: s.u.) eta Lakarra (2013a).

¹⁴ Ikus §6.7. ustezko *-VC* atzizkien jatorriaz (eta markatu han ez dagoela *-VC* errorik).

¹⁵ /h/ gorde duten lekukotasunetan, jakina; honegatik beragatik —baina badira arrazoi haboro, cf. Lakarra (2009b)— ez da egiantzekoa Mitxelenak egin bezala *hon*, *hor* eta *hur* Z-ren berrikuntza berankor hutstzat hartzea.

¹⁶ Neogramatikoez geroz, salbuespenak ez dira estaltzeko baizik eta azaltzeko: bi hauen kasuan ez litzateke harriztekoa fonosinbolismoak izatea beste hizkuntza batzuetan bezala, nahiz horrelakoetan euskaraz (onomatopeiek bederen) ez erroa baino egitura txikiagoa baizik eta handiagoa eta markatuagoa izan ohi duten: cf. *dzaust*, *braust*, etab.

Ez herskariz, baizik eta txistukariz edo ozenez hasi morfemetan ere RVC > RV eta SVC > SV gertatu denez, pentsatzekoa da pluraleko *-za* zein konparatiboetako *-so* **zaC* [*zan*] eta **soC* [*son*]-etik datozkeela.¹⁷

6.4. Ez dago CVC morfemarik

Ez morfema soilik, bederen (cf. *-kin* < *-kien* < **-kiden*, *-zun* < **-zu* + *-n* etab.). Izan ere, CVC oraindik morfologizazio bidean urrats fonologikorik eman ez duen erroa genuke.¹⁸ Hemendik jarraitzen da Jacobsen-De Rijk-T-rasken (baina ez Mitxelenaren) **-gan* ez zela alderdi honetatik ere (badu beste akatsik oraindik), hautagai ona inesibo mugatuaren alomorfo zaharrerako, hots, ez zela **mendi-gan* > *mendi-an* bilakabide egokia, cf. Manterola (2015).

Halaber, Manterolak (2015) arrazoi du erakuslea **ha* berreraikitzean, ez **har*; gainerako guztiok egin dugunaren aurka; gertakari hau ezin interesgariago da *-r-* epentetikoaren (*beste-r-e(n)*, *beste-r-i*, *beste-r-a*, etab.) hedaduraz argi egiteko: cf. *ha-r-i*, *ha-r-a*, etab. → *hark*, *hartan* eta *nor*, *zer*, etab.; ikus Lakarra (prest.-b).

Horago *jo* eta *lo-n* ikusi dugun *-n* falta aurrekoari lotuaz *eho* eta *joan-en* erroa (**non*) eta izenordainetako *no-* familiakotzat analiza ditzakegu (cf. Heine & Kuteva 2002: s.u. GO TO); gogora *egu* (eta *eguzki/eki*) ~ *egun*, beste-ren artean.

6.5. *V-*, *-V* < *-CV*

TV > V Traskek deskribatu zuen *de/te/e* hirukoteari dagokionez baina RV eta SV ereduak ere horrelatsu dira. Bi datibo-marka ezberdinetan baduke zeresanik: *-i* < **-ni* (< **nin*), dugu lehena; cf. *indazu* / *iguzu*, *di-* laguntzailea, etab. Bitxia da gramatikoeak **-i(n)* legez berreraikitzea aditz hau —seguraski *indazu* horrengatik edo RS *dinden* bezalakoengatik—, baina CVn aditzetan *-n* > \emptyset ezaguna denez, horietako *-n* ez da C₂, baizik eta lekualdatutako C₁: cf. *egon* → *dago*, *edun* → *dut*, *dugu* (ez ***dunda*, ***dungu*), etab. **zani* > *zain*, *lucanica* > *lukainka* bezala.¹⁹

¹⁷ RV den *le* egiletzakoaz ez ahaztu **d-* > *l-* gertatua zela AEMn eta baita zenbait aurizki > atzizki erregela horren aurretik zein ondotik (cf. Lakarra 2006b); *-ra*, *-re*, *-ri* deklinabidekoetan *-r* + *-V* segidaren berranalisia izan dugu (cf. Lakarra prest.-b) eta hemen §6.8.

¹⁸ Aski zabaldua da galera fonetikoak morfologizazio prozesuaren akaburantz gertatzen diren ustea.

¹⁹ Bestalde, emaitza bera lortzen dugu partizipioetan: *emaiten*, *izaiten*, etab. (< **e-man-i-te-n*, **e-i-zan-i-te-n*, etab.); bizkaieraz ere *emote-* bezalakoak 1731ko Arzadunekin hasten dira agertzen eta are beranduago bilakatzen nagusi. Gehi bekio argudioari *-n* infinitiboen ugaritasuna: *joan*, *izan*, *edun*, *edan*, *eden*, *edin* vs. *ebili*, *ekharri* eta gainerako *-C* askoz urriagoak.

Beste datiboa 3.p. singularrekoa dugu (ikus §7.4)²⁰. *Ni- > i- aditz jokatu-geetan (cf. *i-rabazi*, **i-ron*, etab.) eta **he* (< *her*) > *e*- aditz zaharretan gehi zenbait partikulatan —**e-ze* ezeztapenean, **e-ta* zein **e-do* koordinatzaileetan...— izan litezke CV > V- bilakabidearen adibideak; ikus Lakarra (prestatzen-b).

6.6. C-, -C < CV

-C atzizkiek gramatikalizazio sekundarioa pairatu behar izan dute, CV > C, > C-ren bitartez, ez baita *CVC > C zuzenean gertatu. Hari honen egitura honetako morfemen historia aberatsagoa zirriborratzea baimentzen digu.

Euskaraz silabaguneak «V» behar duenez, C hutsak ezin du inoiz silaba oso bat izan eta lehenago V bat behar zuen eskubitara; ezkerreko V-dunaz ikus hurrengo ahapaldia. Dagoeneko hatsarri hau erabili zuen Artiagoitiak (1990) Mitxelena-ren (C)V(W)(R)(S)(T) luzea CVC-C laburragora eramateko; -C hori extrametrikotzat jo zuen gainera, hurrengo silaban -V galtzean gordea eta ezinbestean ezkerrekoari lotuaz.

Honenbestez, konpli da -z instrumentalekoa, -k ergatibokoa (zein pluralakoa; ikus §7.3), -t 1. pertsonakoa (zein alatibokoa), *zV, *gV, *dV berreraikitzea eta, are gorago, baita *zVC, *gVC, *dVC ere, hurrenez hurren. Euskarazko bilakabide ezagun eta gramatikalizazioaren fonetikan ohiko ditugun hauek, bermatzen digute beste hizkuntza batzuetan kausitu gramatikalizazio kate eta katebegiak gurean ere izan zirela eta aztarna garbiak utzi zituztela:

1. instr. -z < za (soziatibo zaharra)
2. 1.p.sing. -t < da (kopula lokatiboa)
3. -k (erg.) < -ga (bizidunen lokatibo orokorra)

Ez da esan beharrik CVC lexikora iristeko ez liguketela kalterik egingo Heinek eta Kutevak (2002) eta bestek soziatiboaz eta lokatibo mota ezberdinez eskeini paraleloek.

CV > C- ezagunenak aditz komunztadurako *ni-*, *hi-*, *gu-*, *zu-* > *n-*, *h-*, *g-*, *z-* bide dira.

6.7. -VC < (C)V-C(V)

**CVC > VC morfologizazio bilakabide gisa eriden ez delarik, dakidanez, (6.5) [V < CV] eta (6.6) [C < CV] lotuaz, -VC atzizkiak *CV#CV-ren amalgamatik baino ezingo lirarteke atera. Horrela, -at 'destinatiboa' < **a-datik* eta azken hau (lehen parteari Trasken legea ezarriaz), **da-da* are zaharragotik; cf. *du-t* < *duda-* eta CV > V-rekin -a (*hon-a*, *Zarautz-a*, etab.).

²⁰ Bidebatez, ikus (*lepo*, *orpo*, *adapo*, *albo*, **bor* > *bo*)-ren kideak gainerako hizkuntzetan Heine & Kuteva 2002: s.u. CIRCLE < AROUND (SPATIAL)

Orobat, *-ak* (abs.pl./erg.sing.)²¹ **ha-ga-tik* datorke. Gutxienez Uhlenbeckengandik hasi eta (cf. [1942] 1947) datorren ustea —euskaraz *-ats*, *-ar* eta antzekoetan atzizkiak ikustearena—, okerra da eta hor konposaketak ditugu, ez atzizkiekin, erro higatu zaharrekin bazik (*abar*, *aldats*, etab.).

6.8. *Berranalisia: CV < r + V*

CV bat C + V segida gramatikalizatu batetik ateratzea ezin justifika liteke orain arte ikusitakoaren arabera, CV-ren jatorri bakar eta hurbil CVC baita. Alabaina, kronologikoki berandu xamar eta bestelako bide batetik (berranalisiaren bidez) lor liteke CV, edo zehatzago *-rV*: hori da, hain zuzen, deklinabideko *-re(n)* (genit.), *-ri* (dat.), *-ra* (destinat.) atzizkien jatorria. Ohar bedi alomorfo hauek bokalez amaitu enborrekin erabiltzen direla eta kontsonantez amaituekin *-e(n)*, *-i*, *-a* direla.²²

Hortaz, jatorrian *-r-* epentesi zaharra²³ dugu horietan guztietan, gero kontsonante hori atzizkiaren hasierako zaharra bailitzan (CV) hartu delarik. Ordea, hau —atziki zein aurrizki bat /r/ batez hastea— ezinezko da euskaraz eta ezinezko bide da euskaraz bezala **rVC murriztapena duen edozein hizkuntzarako erroentzat.

Berranalisiaren erakusgarri argiak dira *Joneri* edo *honeri* (cf. *honi*) bezalakoak, *-e-* kontsonante arteko epentesia garatu dutelarik. BZ eta AZko ablatiboak ere badu zertzelada jakingarririk: *-rean* du bere forma ezagunena (-V ondotik) baina badu *-erean* ere (-Cren gibeletik); hori baino lehen ere bazen hor hazkunderik, *-r-* dagoeneko ikusi enbor bokalikoetako epentesia berranalizatua baitzuen (hortik *-erean*-en *e-*). Are gorago *-ean -e* ‘lokatiibo orokorra’ + **ha* ‘artikulua’ + *-n* inesibokoa genituen; gogora bedi *etxerean* bezalakoak mugatuak direla, *etxetik* bezala, baina lehenago (eta oraindik BZ eta AZean) prosekutiboan zen *etxeti-k* ez du artikulurik.²⁴

²¹ Manterolak (2015) ikusi bezala, ekialdeko lekukotasun zaharrenetan ez da erg./nom.pl. bereizkuntzarik erakusleetan (*hek etorri dira/hek egin dute*), *haiek* eta *hurak* bezalakoak berantiarizat jo daitezkeelarik; horrenbestez, dialekto horietako deklinabidean den nom.pl. *-ak/* erg.pl. *-ek* bereizkuntza ere ezin izan liteke aitzin hizkuntzakoa (euskaraz batu zaharrekoa, alegia; cf. Lakarra 2014) eta, hortaz, «ergatibitate hautsia» hemen aditzean baino argiagoa genuke.

²² Gogora bedi, erro egitura kontsonantez amaitua zela eransletasunerako bidean silaba irekiak hitz amaieran ugalduta bitartean, uralikoz eta, batez ere, japonieraz bezala (cf. *Oceanic Linguistics* 1995 eta 2004 polinesieraz).

²³ Ikus Lakarra (prestatzen-b) deklinabideko kontsonante enborretako *-e-ri* buruz; bistakoa da ez dela sortzez epentesi arrunt bat eta baita genitiboko *-e-*, lokatiibo ezberdinetako «epentesia» —izatez, lehenagoko lokatiibo orokorra— eta aditz zaharretako gehi zenbait partikula hasierako *e-*ren arteko «antza» ere ez dela halabehar hutsa.

²⁴ Beharbada honek badu zerikusirik *-rean*-en izaera defektiboarekin: alegia, soilik leku-izen arruntekin erabil zitekeen (*etxerean*) baina ez propioekin (***Bilborean* → *Bilborik*); orobat, ezin ager zitekeen bizidunekin (***gizonarean*, ***gizonaganerean* → *gizonaganik*); cf. Lakarra (1984). Haatik, hauek hiru hutsune nagusietarik bi dira eta «denborazkoen» (***atzean* → *atorik*, etab.) faltaren azalpena beste nonbait bilatu beharko bide dugu.

6.9. *Zergatik ez dago CVV gramatikalizazio primarioarik (ezta VV sekundarioarik)?*

Burura datorkidan erantzunik errazena zera da: ez delako CVVC errorik zeinetarik ohiko prozeduraz morfema gramatikal bilaka litekeen delako diptongodun hori; arrazoi erantsi bat dugu hemen, niketz, diptongoen zahartasunaren aurka. Bai, badira *gaitz*, *gau*, *goi*, *haur* eta besteren bat, *geurtz* esaterako, baina —gehienek erro monosilabikoaren teoriaren barnean bestelako arazoren bat dute eta zenbaiten etimologia (*geurtz*-ena, demagun) Mitxelena *FHV*-n argitu zuen (<*gero urtez).

Baliteke (??) horietarik bat edo beste ez izatea egoki edo usuko gramatikalizazio sareetan eta beste guztietan halabehar hutsa izatea eta hizkuntzari edo euskaldunei diptongodunak arrazoi ezezagunen baten gatik ez gustatzea morfemak eratzeko, beste hizkuntza batzuetan kontrakorik gertatzen den arren. Baina, horrelakorik ondorioztatu baino lehen, seguru ote hitz horien etimologia-azterketa bukatua dela? Diptongo falta modernoak ez ote lexema horietarik abiatu behar zen gramatikalizazio-katea sortzeko zenean horietan diptongorik ez zelako? Horrela *goi*-ren kasuan, demagun: *-ago* konparaziozkoa, erakuslea gehi hitz horri lotu *-go*-ren bidez sortua dugu (ik. Lakarra 2013a, etab.), *igo* eta *irago/igaro*, horren kausatiboa bezala; *goi*-ren diptongo modernoak ezer esan aurretik, ordea, ohar bedi hauetan ere ez dela diptongorik ez diptongoren arrastorik.

Baditugu, bai, *-k(h)oi* eta are *-koitz* ere, baina ez dira arazo gabekoak: bi garrenak erroek eta hortik gorakoek (ez morfemek, cf. §6.4) izan ohi dituzten C- eta -C ditu. Lehendabizikoari dagokionez, Mitxelena aspaldi markatu proportzioa luza genezake:

-do.i : lohi :: -k(h)oi : ohi

Hau onartzeko, jakina, *-k(h)oi*-k noizbait bi silaba behar zituen izan, ez bakarra, *-do.i*-k eta *ohi*-k legez; ez dirudi gehiegi eskatzea, halere: aski genezake **hon-i > *hohi > ohi*; azentueraz, cf. *FHV* 419.

6.10. *Bereiz bitez postposizioak eta hizkiak*

Postposizioak CVC baino egitura handiagoko («pisuago») ditugu, hizkiek CV edo are gutxiago (V/C) ikusi dugunez. *Aurre*, *aitzin*, *eta*, *edo*, *buru*, *begi*, *gibel*, *oste*, etab. hartzen ditugularik, bi eta hiru silabatako (cf. *aurre* < **ahurre*) partikulak ditugu, ia erabat autonomoak eta gramatikalizazio gutxikoak Hualdek markatu legez, gardenak oro har semantikoki eta formalki, hainbat konposatu-eratorri mailegutzat (*oste* < lat. *post*) aspaldixko salatuak (cf. Mitxelena 1971), nahiz aurrerago ere jo litekeen: *aurre* < *ahur* < **aho-hur*, *begi* < **bi-hegi*, seguruenik; ikus Lakarra (2013a eta 2015).²⁵ Horrezaz landa, diptongo-

²⁵ Lehendik ere baziren susmoak Schuchardtek eta (oraintsu baita *Revista de Filología Española*-k ere) aldarrikatu *eta*-ren jatorri latinoaz; cf. Lakarra (2013a).

dunak postposizioetan ez ditugu hizkietan bezain bakan: cf. *aurre, aitzin, gain*, etab. Gardentasun horrek eta gainerako ezaugarri guztiek garamatzate (oso) berankortzat hartzera, funtzio gramatikalean bederen.

7. Morfologia diakronikoaz forma kanonikotik argudituz (zenbait adibide)

7.1. Genitiboa

Eztabaidatu izan da ea *-e* ala *-en* den zaharrago (*FHV* 1/2. arg.). *Fase sparita* dira izenordainak (salbu *zuek*) eta horiek *-e* dute. Horrela aurkitzen dugu deklinabideko zenbait kasutan (*horrekin, beretzat*) eta beste arkaismo lexiko batzutan (*hobe, jabe, are* partikulan). Morfemen forma kanonikoaren bilakabideak esaten digu VC soilik bi morfemaren gramatikalizazio sekundariotik atera litekeela (VC < *CV-CV) eta, beraz, *-en* alomorfo modernoena dugula; itzarotekoa den bezala (gogora Kurylowicz-en esanak) berak hartu du aspaldi erabilera zabalena.

7.2. Ablatibo/prosekutiboa

Eztabaidatu izan da ea *-tik* ala *-ti* den zaharrago (Lafon 1948 vs. *FHV*). Morfemen forma kanonikoaren bilakabideak esaten digu CVC soilik le-xema bat izan litekeela; kasu honetan, gainera, *-k* batekin hori ezinezkoa da (cf. *FHV*, Artiagoitia 1990, etab.) eta balitz ere, ondoko *-k* > \emptyset ez da euskaraz lekukotzen). Bestalde, ezaguna da *-tika* agertzen dela *fase sparita* bezala ia Euskal Herri osoan (Etxepare, Landucci, Iruñeko 1609ko poesiak...); horrenbestez, soilik bi morfemaren gramatikalizazio sekundariotik atera liteke (CVC < CVCV < *CV-CV: *tik* < *-tika* < *-ti-ka*).

7.3. Ergatiboa

Ergatiboaren *-k* (nahiz absolutibo pluralekoa) soilik -CV batetik etor liteke (ez *-g hutsetik), eta hori CVC zaharrago (gramatikalizatugabeko) batetik. Hortaz, beste hizkuntza batzuetako ergatiboaren jatorriaz dakigunaren arabera, euskaraz ere ergatiboaren marka aurreko lokatibo batetik letorke, «bizidunen markatzat» hartu ohi den [baina gogora toponimiako *-a-ga* ugariak] *-ga* horretatik, hain zuzen (cf. Lakarra 2006a). «Bizidunen marka» deizio bitxia da, leku kasuetarik kanpo ez baita horrelakorik: bistakoa da leku-kasu espezifikoak hartzeko bizidunek behar duten «lokatibo -orokorreko» marka dela, horrela nolabait «bizidun» izateari utzi eta gaitu egiten dituelarik leku-kasuetan ere jokatzeko bizigabeek bezala, ez soilik nom.-dat.-gen. sortzez zilegiztatuak diren moduan. *-k* ergatiboa, beraz, ez

litzateke *-ga* lokatiboaren hurrengo pausua baizik, gramatikalizazio prozesuaren barnean; horren beste gramatikalizazio-kate bat litzateke pluralekoa ere (cf. Manterola 2015).

7.4. Hirugarren pertsonako *-o-* datibo marka²⁶

$-V < CVC$ zuzenean ezinezko delarik, 1) $CVC > CV$ eta 2) $CV > V$ izan bide ditugu. Atzekoz aurrera hasita, C- hori soilik herskari ahostuna edo *h* izan litezke, gero $-C- > \emptyset$ egingo badu; nola CVC-ren kategoria arruntena aditza den, *h* ez da hautagai egokia, *hVC errorik ez baita dakigularik (*eho* < **e-non* landa). Beraz, **boC*, **doC*, edo **goC* bezalakoetara jo behar dugu. Azken bietarik ken ditzakegu —bestelako esanahi eta bilakabidearekin lehenagotik ezagunak baitira— *egon*, *egotzi*, *egosi* eta **edon* (> *idoki*, etab.), eta **boC* formularen kabitzen den ezer ez da lekukotzen, hemen egokitzen ez den **bor* (> *-bo*, *-po*) landa; ik. 20. oharra. Horrenbestez, zer berreraiki? Amaierako $-C > \emptyset$ gramatikalizazioan edozein kontsonanterekin gerta daitekeen arren (cf. **dar* > *da-*, *-da*), badirudi *-n* dela kokagune horretan erorketa gehien izan duena (eta baita, halere, historikoki gehien agertzen dena). Horrenbestez, **bon* proposatuko genuke.

Lehendabiziko ondorioa zera dugu, datibo hori «GIVE» bietariko batek datorrela; bigarrena, *-a-* izan arren aditz honen alomorfo ezagunena argudio erantsi bat dugula *emon*-en zahartasunaren alde (beste bat, lehenik genuena, **emon* > *emun*, baina ***eman* > *emun* ezinezko da); hirugarren ondorioa, $CVC > CV$ **b-n* > *m-n* baino lehenago gertatu zela. Ez dakigu bata eta bestea noizkoak diren zehazki, baina akitanieraz eta, beharbada AEMn ere **b-n* > *m-n* bazelarik, AEM baino lehenagokotzat hartu behar dugu **bon* > **bo* eta, beraz, $CVC > CV$ ere. Azken honi dagokionez, gogora bedi CV aurrizkiak ere bazirela (*sa-*, *la-*, *gi-*, *da-*, *ra-*, *le-*, etab.) eta, beraz, egitura horretako aurrizki eta preposizioak ere AEZean sor zitezkeela (itxaroten genuen bezala); orobat $CV- \rightarrow -CV$ AEM baino lehenago hasi zela (hau ere ezaguna genuen cf. Lakarra 2006b), baina iraun, aldiz, bilakabide horrek AEMn ere iraun zuen, **d-* > *l-* ondoren (cf. **da-* > *la-*, **de-* > *le-*), ez jakin zenbat.²⁷

²⁶ *-o* eta ez *-o/-a* Schuchardtek lehen eta De Rijek gero (1981) aldarrikatu bezala. Mitxele-nak 1954ean erakutsi zuen BZeko *deutso* / *deutsa*- bikoiztasun erkaigarria, azkenik konposizio eta eratorpeneko (*baso*/*Basauri*, *luze*/*luzatu*, etab.) fenomenoak aski zirela hau azaltzeko eta ez zela beharrezko austriarrak nahi eta holandarrak eman 1. eta 2. graduko artikuluren arrastorik, hizkuntza kamitosemitiko, ustezko gure izterlehengusuetan bezala.

²⁷ Nolanahi ere, latindar mailegu zaharrenetan ere ez da ondare zaharreko aurrizkirik; zeltatikoko seguruak nahiz are lehenagotikoak hain dira gutxi non sail horretan ez aurkitzea ez den ezertarako esanguratsu.

8. Azkena

Lan honetan, gramatikalizazioaren bilakabidea oinarri harturik, euskal morfemen (eta, partez, postposizioen) historiarako lanabes zenbait aurkeztu nahi izan ditut eta, beharbada, baita berreraiki litekeen morfosintaxi zaharrenaren oinarri batzuk ere. Morfemen historia edo istoriook CVCTik hasten dira eta gramatikalizazio primariotik (CV) barrena, sekundarioetara (V, C aurizki nahiz atzizki) eta amalgamatar (VC) hedatzen; CVCtik gora, erro soilak baino abiapuntu konplexuagoetarik, garatzen dira postposizioak, inoiz morfemekin ere konbinatuaz. Horrenbestez, aspalditik (ikus Lakarra 1995 eta hh) garatzen ari naizen Erroen Forma Kanonikoa osatzen hasi nahi izan dut Morfemen Forma Kanonikoaren egitura eta aldaketen azterketaren bitartez. Nago, Erro Monosilabikoaren Teoria lehen ukitu gabeko hurbilketa honen hainbat aldetatik sendoturik ateratzen dela saio honetatik.

Badakit aurreko orrietako oharrek garapen gehiagoren beharra dutela eta nahi nuke egiteko horri heldu hurrengo lan batzuetan. Halere, uste dut hor badela edo bertatik atera daitekeela hainbat gogoetagai euskararen morfologia diakronikoaz, haren bilakabideaz eta jatorriaz. Esaterako, morfema primario bisilabo eta polisilaborik ez izatea erro bisilabo eta polisilaboen faltarekin lotua da eta, horrenbestez, konposatu-eratorri edo mailegu gisa beharko ditugu hartu horrelakoak berreraiketan.²⁸ CV morfema primarioen egitura delarik, ez da gisa horretako erro lexikorik —hauek -C beharrezko dute— baina bai *ni, hi, gu, zu, ha-, no-, ze-...* bezalako partikula gramatikalak; gertakari hau arrunta da —horrela indoeuropean (cf. Gamkrelidze & Ivanov 1984), uralikoan (Bakrò-Nagy 1992) eta gainerako askotan—, Forma Kanoniko ezaguneko hizkuntza guztietan erro lexikoenaz oso bestelakoa izan ohi baita forma gramatikalena edo fonosinbolismoena.

CVC > CV dugularik gramatikalizazio primarioa eta *urdin* eta *handi*-ko 2. zatiak kate bereko urrats, bata erroa dugu —eta, beraz, konposizioaren aurrean gaude— eta atzizkia (eratorpena) bestea. Eskubiko -CVCak (-*gaz, -gan, -zun...*) erroak ez badira, ezta morfema soil ere, baizik eta -CV + -C(V) amalgama sekundarioak. Jakina, CVC hizki (aurrizki zein atzizki) gramatikalizatuturik izan ahalko genukeen baldin eta erro egitura CVC baino handiago balitz (CVCV, CVCVC...) baina ez dirudi horrelakorik zenik berreraiki genitzakeen garairik zaharrenetan gutxienez; postposizioak, aldiz, bai badira CVC baino handiago (VVCV, VCV, VVCVC...) baina horiek ez datoz erro soiletarik, konposatu, eratorri, mailegu eta sintagmetarik baizik.

CV > C eta CV > V gramatikalizazio sekundarioak ditugu eta are berankorrago -VC [*< *-(C)V + -C(V): -ak*] eta -CVC [*< *-CV + C(V): -zun*] edo (C)VCV (-*toki, -aga*) gisakoak. Azkenik, oraingoz, -VC amalgama se-

²⁸ Baita, jakina, Mitxelenak bere lanaren gailurtzat eman **enazur, *ardano, *anez/*aniz* eta beste asko ere.

kundarioaz gainera, CVC > -VC eta VC- tankerakoak erro higatuak ere izan litezke; halaber, CV- (eta are V-) gramatikalizazio primarioaz (eta sekundarioaz) landa, konposizioko ezkerreko erro higatuetan ere aurki ditza-kegu: *zigor*; *ogi*, etab.

Forma Kanokikoa, Tipologia Holistiko Diakronikoa eta Gramatikalizazioa ohiko (eta aspaldiko) Barne Berreraiketa osatzeko garatzen saiatu naiz euskal alorrean (cf. Lakarra 2013a). Metodoek, onargarri izatekotan ez *ad hoc*, hizkuntza edo familia batentzat, baizik eta guztientzat izan behar dute baliagarri. Horiek hirurak dira lehenagotik (badira hamarkada aski) beste hizkuntzalaritza diakroniko garatuagoetan sortuak eta landuak gure alorrera ekarri aitzin. Teoria linguistikoaren hurbilketa emankor zenbait baliatzen dituzte hizkuntzaren hainbat alderdiren bilakabidea sakonago eta aberatsago argitzeko asmoz.

Ikusi ahal izan dugu, halaber, lehen EMT eta THD beren artean lotuak baziren, ez direla urrutiago bi horiek eta Gramatikalizazioa; areago dena, hau bere izatez Forma Kanonikotik abiatzen dela eta hura osatzen. Guztiak beharko ditu diakronistak euskalaritzan dituen baldintza eta baliabideekin aitzinatuko badu.²⁹

9. Bibliografia

- Aikhenvald, A.Y., 2006, «Serial verb constructions in typological perspective» in id & R.M.W. Dixon (arg.), *Serial verb constructions. A cross-linguistic typology*. Oxford U.P.: 1-68.
- Artiagoitia, X., 1990, «Sobre la estructura de la sílaba en (proto)vasco y algunos fenómenos conexos», *ASJU* 24:2. 327-349.
- Bakro-Nagy, M.Sz., 1992, *Proto-Phonotactics. Phonotactic investigation of the PU and PFU consonant system (On the basis of the Uralisches Etymologisches Wörterbuch)*. *Studia Uralica* 5, Harrassowitz Verlag.
- Benveniste, É., 1935, *Origines de la formation des noms en indo-européen*, Maisonneuve, Paris.
- , 1954, «Problèmes sémantiques de la reconstruction». Berrarg. in É. Benveniste, *Problèmes de linguistique générale*. Gallimard, Paris: 289-307.
- Campbell, L., (arg.), 2001, *Grammaticalization. A critical assessment. Language Sciences-en zerbaki berezia* (23/2-2).
- , 2010, «Language Isolates and their History, or, What's Weird, Anyway?». *36th Meeting of the Berkeley Linguistic Society* (2-1/II/2010) [Hawaiko Unibertsitateko eskuizkribua].

²⁹ Hori bai, ez bide gara ofizioko txarrenak ere, Campbellek mundu osoko hizkuntza isolatuen ikerketarako eredutzat aipatzen gaituelarik (ikus Berkeley Linguistic Society-rako bere 2010eko txostena); egile berak mundo osoan zabalduko *Historical Linguistics* eskuliburu bikainaren 2013ko 3. edizioan euskararen ikerketatik ateratako adibideak biltzen ditu soilik barnebereraiketari dagozkion atalean bizpahiru orrialdeetan, gai horretaz nornahik jakin behar dituenak euskalariak (Mitxelenak eta honen ondokoek) egindakoaren bitartez azalduaz.

- , 2011, «La investigación histórica de las lenguas aisladas, o ¿es raro el vasco?», in Lakarra *et al.* (arg.), 23-40.
- , 2013 (1998), *Historical linguistics. An introduction*. Edinburgh U.P.-MIT Press, 3. arg., zuzendu eta zabaldua.
- & Janda, R., 2001, «Introduction: conceptions of the grammaticalizations and their problems» in Campbell (arg.), 93-112.
- Fischer, O., M. Norde & H. Perridon, arg., 2004, *Up and down the Cline - The nature of grammaticalization*. John Benjamins: Amsterdam/Philadelphia.
- Frajzyngier, Z., 2002, *Studies in Chadic morphology and syntax*. Peeters, Louvain-Paris.
- Gamkrelidze, T.V. & Ivanov, V.V., 1995, *Indo-European and the Indo-Europeans*. Mouton de Gruyter: Berlin & New York. 1. edizioa errusieraz 1984an.
- Haspelmath, M., 2004, «On directionality in language change with particular reference to grammaticalization», in Fischer, Norde & Perridon, (arg.), 17-44.
- Heine, B. & T. Kuteva, 2002, *World lexicon of grammaticalization*, Cambridge U.P.
- Hualde, J.I., 2003, «Postpositions» in J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*. Mouton de Gruyter: Berlin-New York, 187-190.
- , J.A. Lakarra & R.L. Trask, (arg.), 1995, *Towards a history of the Basque language*, John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia.
- Joseph, B.D., 2001, «Is there such a thing as «grammaticalization»?» in Campbell (arg.), 163-186.
- , 2004, «Rescuing traditional (historical) linguistics from grammaticalization theory», in Fischer, Norde & Perridon, (arg.), 45-71.
- & R. D. Janda, 2003, *The handbook of historical linguistics*. Blackwell.
- Krajewska, D., 2015, Monumenta Linguae Vasconum-en II. Jardunaldietako Txostena (Gasteiz, 2015eko txostena). Inprimategian.
- , prestatzen, Doktorego tesia. UPV/EHU.
- Lafon, R., 1948, «Sur les suffixes casuels -ti / -tik en basque». Berrarg. in R. Lafon, *Vasconiana*, *Iker* 11, Bilbo 1999, 199-207.
- Lakarra, J.A., 1984, «Bizkaiera zaharreko ablatiboaz», *ASJU* XVIII-1, 161-194.
- , 1995, «Reconstructing the root in Pre-Proto-Basque», in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 189-206.
- , 2005, «Prolegómenos a la reconstrucción de segundo grado y al análisis del cambio tipológico en (proto)vasco», *Palaeohispanica* 5, 407-470.
- , 2006a, «Protovasco, munda y otros: reconstrucción interna y tipología holística diacrónica», *Oihenart* 21, 299-322.
- , 2006b, «Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo vasco», in Lakarra & Hualde (arg.), 561-621.
- , 2008a, «Hacia un nuevo paradigma etimológico vasco: Forma canónica, etimología y reconstrucción en el campo vasco», *ASJU* 37 [2003, baina 2008an argitaratua], 261-391.
- , 2008b, «Aitzineuskararen gramatizarantz malkar eta osinetan zehar». In Artiagoitia & Lakarra (arg.), 451-490.
- , 2008c, «*Vida con/y libertad*»: sobre una coordinación arcaica y la autenticidad de «Urthubiako Alhaba», *ASJU* 42, 83-100.
- , 2009a, «Adabakiak /h/-aren balio etimologikoz», *ASJU* 43/1-2, 565-596.
- , 2009b, « $*h_3 > h_p$, $*h_2 > h_l$ eta horiei datzekien zenbait fenomenoz», *Lapurdum* 13 (2009 [baina 2013an argitaratua]), 247-271.

- , 2011a, «Erro monosilabikoaren teoria eta aitzineuskararen berreraiketa: zenbait alderdi eta ondorio», *FLV* 113, 5-114.
- , 2011b, «Aitzineuskara: egindakoak eta eginkizunak», in A. Sagarna, P. Salaberri & J.A. Lakarra (arg.), *Pirineotako hizkuntzak: lehena eta oraina* (= Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarra, Iruña 6-10/X/2008), Iker 26, Euskaltzaindia, Bilbo, 617-694.
- , 2012, «Maileguak eta berreraiketa euskararen historiaurrearen ikerketan», in I. Igartua (arg.), *Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 17-74.
- , 2013a, «Euskararen historiaurrearen berreraiketa sakonagorako: forma kanonikoa, tipologia holistiko diakronikoa, kronologia eta gramatikalizazioa». In R. Gómez, J. Gorrochategui, J.A. Lakarra & C. Mounole (arg./eds.), «Koldo Mitxelena» Katedraren III Biltzarra - III Congreso de la Cátedra «Koldo Mitxelena» - 3rd Conference of the Luis Michelena Chair. UPV/EHU: Gasteiz, 275-324.
- , 2013b, «Root Structure and the reconstruction of Proto-Basque». In M. Martínez Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque. Language-Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction*. Peter Lang: 173-221.
- , 2014, «Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berre-raiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz». In I. Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*, ASJU-ren Gehigarriak LXIX, UPV/EHU: 155-241.
- , 2015, «Bi-ren askaziaz». Inprimategian. Omenaldi liburu batean.
- , prestatzen-a, «Irregularidades radicales, fósiles y antiguas extensiones verbales vascas». UPV/EHUko eskuizkribua.
- , prestatzen-b, «Del protogenitivo al protolocativo y reconstrucción de la morfología sintaxis protovasca». UPV/EHUko eskuizkribua.
- & B. Ariztimuño, 2015, «Advances in the (internal) reconstruction of Proto-Basque: typological comparison and the grammaticalization theory». International Congress of Historical Linguistics-eko hitzaldia (Napoli, uztailaren 28)
- Manterola, J., 2015, *Euskararen morfología historikorako. Artikuluak eta erakusleak. Towards a history of Basque morphology: articles and demonstratives*. UPV/EHUko doktorego tesia.
- Michaud, A., 2012, «Monosyllabicization: patterns of evolution in Asian languages», in Th. Stolz, N. Nau & C. Stroh (arg.), *Monosyllables. From phonology to typology*. STUF, Studia Typologica, Akademie Verlag, Berlin: 115-130.
- Mitxelena, K., 1954, «Nota sobre algunos pasajes de los *Refranes y Sentencias* de 1596». Berrarg. *SHLV*, II, 792-798.
- , 1961/1977, *Fonética histórica vasca*, 2. arg. zuzendu eta emendatua, ASJU-ren Gehigarriak 4, Donostia.
- , 1963, *Lenguas y protolenguas*. Berrarg., ASJUren Gehigarriak 20, Donostia, 1990.
- , 1971, «Toponimia, léxico y gramática». Berrarg., *PT* 141-167.
- , 1974, «El elemento latino-románico en la lengua vasca». Berrarg., *PT*, 195-219.
- , 1977, «Notas sobre compuestos verbales vascos». Berrarg., *PT*, 311-335.
- , 1987, *Palabras y Textos*, [PT], J. Gorrochategui (arg.), UPV/EHU, Bilbo.
- , 1988, *Sobre historia de la lengua vasca*, [SHLV], J.A. Lakarra (arg.), ASJU-ren Gehigarriak 10, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 2 lib.
- De Rijk, R. P. G., 1981, «Euskal morfologiaren zenbait gorabehera», in ZZEE, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, 83-101. Berrarg. De Rijk 1998, 211-224.
- , 1992, ««Nunc» Vasconice», *ASJU* 26: 3, 695-724. Berrarg. 1998, 347-376.
- , 1998, *De lingua uasconum. Selected writings*. ASJU-ko Gehigarriak, Bilbo.

- Sagart, L., 1999, *The roots of Old Chinese*, John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia.
- Trask, L.R., 1977, «Historical syntax and Basque verbal morphology: Two hypotheses», in W.A. Douglass et al. (arg.), *Anglo-American contributions to Basque studies: Essays in honor of Jon Bilbao*. Reno, 203-217.
- , 1995, «On the history of the non-finite verb forms in Basque», in Hualde et al. (arg.), 207-234.
- Uhlenbeck, C.C., [1942] 1947, «Les couches anciennes du vocabulaire basque», *Eusko-Jakintza* 1, 543-581. Nederlanderazko orijinalaren itzulpena (G. Lacombe).
- Watkins, C., 1990, «Etymologies, equations, and comparanda: types and values, and criteria for judgement». In Ph. Baldi (arg.), *Linguistic change and reconstruction methodology*, Mouton de Gruyter, Berlin-New York: 289-304.

Galdera motzak: C eredua.

1. Lege fonetikoak eta analogia zein korronterren oinarritzko analisi-bideak dira?

Neogramatikarenak.

2. Zer dira aldaketa mota erregularrak?

- Batez ere fonetikoez dihardugu. Testuinguru, garai, geografia... jakin batean modu erregular batean (ia salbuespenik gabe) ematen direnak dira (esanahia alde batera utzita).

- Baldintza egokiak dauden hitz guztietan gertatzen den aldaketa mota da (vs. noizbehinkakoa = irregularra).

3. Emaidazu kronologia erlatiboaren adibide bat.

- Zubereraz “u” > “ü” /y/ aldaketa, “o” > “u” aldaketa baino lehenago gertatu zen, besteala “o”-ak ere /y/ bihurtuko ziren eta.

- 1) “-n-” > “-h-”

2) *h3 > h1

“arena” > “areha” > “harea”.

4. Zergatik dira hain interesgarri irregularitateak?

Garai zaharrago bateko gramatikaren isla direlako.

5. Analogiaren euskarazko adibide pare bat.

Egitura fonetikoan faktore ez-fonetikoen eraginez gertatzen den aldaketa irregularra da. Adibidez:

(a) “*da-tor-z” > “datoz”, eta ez “**datos”; “rz” > “s” aldaketa erregularra den arren, “doaz”...-en analogiaz.

(b) Ekialdean “dira”-rekiko analogiaz “gira” eta “zira” formak sortu dira.

6. Berranalisiaren adibide bat euskaraz.

7. Berreraikitzailearen etsai nagusia morfologian.

Analogiak.

8. Zer da barneberreraiketa?

Hizkuntza batek berak eskaintzen dituen datuetan (maileguetan zein bestelakoetan) oinarritutako berreraiketa (konparazioaren bidezkoa) da. Hizkuntzaren historiaren gertakariak aztarnak uzten dituzte geroko hizkuntzan. Honegatik ahaidegabeko hizkuntzetan ezinbestekoa da barneberreraiketa, zerekin erkatu ez dagoenean.

9. Definitu AEZ.

Ditugun datuen (lekukotasunen) bitartez berreraiki dezakegun euskararen gugandik antzinakoen (urrutiagoen) den garaia da.

10. 50´etako Mitxelenaren lanik garrantzitsuena AE-z.

“Las antiguas consonantes vascas”.

11. Nola gauzatzen dira bortitzak hitz hasieran? Eta bokalarlean?

Beti ahoskabe: hitz hasieran hasperendun, eta bokalarlean hasperenik gabe (˘ goxo˘).

12. Hiru argudio [bortitz / ahul] oposaketaren alde AE-ko herskariaren sisteman.

- 1) Geminatuen bilakabideak adierazten du orduko euskaldunek hotsen indarrari begiratzen ziotela eta ez haien ahostuntasunari: lat. “BB” > eusk. “p”. “abbas” > “apaiz”.
- 2) “f”-aren lekukotasunek erakusten dute nola “b” eta “p”-ren arteko bereizketa ez zen ahostuntasunaren arabera, baizik eta ahoskera ahula edo indartsua izatearen arabera.
- 3) Lekukotasun zaharrenetako datuak ere alde. Akitanierazko <TT> eta <CC> grafiak indartsuen adierazpide ditugu (vs. <TH> hasperenduna).

13. Nola igarotzen gara sistema karratutik erronbora herskarietan?

Neutralizazioaren bidez.

14. Ba ote soinu sabaikaririk AE-n?

Alofono gisa behintzat bai.

15. Zenbat bokal, diptongo eta irristari zen AE-n?

- 5 bokal (“a”, “e”, “i”, “o”, “u”) [6, zubererazko “ü” kontuan hartuko bagenu].
- 5 diptongo (“au”, “eu”, “ai”, “ei” eta “oi”) [6, “ui” diptongo bakuna kontuan hartu ez gero].
- Irritaririk ez. Diptongo zenbaiten hondar zati gisa besterik gabe maileguetan.

16. Ondoko formak ezinezkoak dira AE-n. Zergatik?

- (a) **“tarrat”**: Hitz bukaeran herskaririk ez zegoelako (**-T), eta hitz hasieran ahoskabea.
- (b) **“greba”**: Muta cum liquida. Euskaraz hitz hasieran kontsonante talderik ez.
- (c) **“basalore”**: “lore” beranduago sortutakoa da, eta “baso-” > “basa-” Akitaniera ondoko fenomenoak.

17. Zein da zaharrago, “zelü” / “zeru” ala “gela”? Zergatik?

1. “gela” da zaharrena, latin garaian sartu zelako euskarara eta ez zuelako pairatu erromantzeetan pairatutako aldaketa (euskarazkoa bai, “k” > “g”).
2. “zeru”. Erromantzetik hartutako maileguk belarearen ordeztatik txistukaria dute. Gero, “l” > “r” aldaketa Erdi Aroan pairatu zuen.
3. “zelü”. Ez du “l” > “r” aldaketa egin Erdi Aroan; beraz, beranduagokoa da.

18. “-h” > Ø ala “*h3” > “h1”: zein zaharrago eta zergatik?

Lehendabizikoa zaharragoa da. Kronologia erlatiboa. Lehenik bi “h”-tatik bat erortzen da hitz berean ezin direlako bi /h/ egon, eta gero geratzen denak ezkererako mugida egin du.

19. Erronkarian zenbait berrikuntza berantiar.

“gra”, “zra”... 1616. urtea baino beranduago gertatuak.

20. Non (zein hizkeratan) dira soinu sabaikari gehiago / gutxiago? Zergatik?

- Gehiago mendebaldean.
- Gutxiago BN, N eta L-n, despalatizazioaren eraginez.
- Hizkuntza eransleetan ohikoa da soinu sabaikariak topatzea, sistemak gehitu egiten direlako hizkuntza mota hauetan.

21. Emaidazu fonosinbolismoetako [+ markatu] → [- markatu] bilakabidearen adibide pareak.

22. Fonosinbolismoen ezaugarri formal zenbait.

- Zenbat hizkuntzan bakanago den hots bat, hainbat eta balio fonosinboliko gehiago izango du hots horrek. Onomatopeia, oihu, umeen hizkuntza eta antzekoetan diptongoek duten ohiz kanpoko maiztasunak erakutsi du diptongoak ez direla oso zaharrak. Bestalde, muta cum likidoak onartzen dira (kontsonante taldeak).

- Askozaz diptongo gehiago, hitz amaieran normalean posible ez diren kontsonante taldeak posible dira (**-T), soinuak eta gramatikak zerikusi estua dute, eta muta cum liquidoak. Adibidea: “braust”.

23. Hitz hasierako herskari ahoskabe modernoak: jatorriak.

(1) Mailegu modernoak.

(2) Barneko asimilazioak (sekundarioak): “kalte”, “koipe”...

(3) Fonosinbolismoak.

(4) Arrazoirik zehatzik gabeak, denetarikoak.

24. Hitz bukaerako herskari jatorriak.

(1) Fonosinbolismoetan (“eup”).

(2) Mailegu oso modernoetan (“blog”).

(3) Hitz elkarketetan lehendabiziko osagaiak elementu bat galtzean, erortzean (“ogi” > “ot”).

25. AEZ-eko “*d-” hasierakoaren zenbait froga.

- “latz” / “ardatz”, “lats” / “aldats” txandakatzak.

- Erreduplikazioak: Hitz hasierako “*d-” falta: “*do-dol” > “odol”, “*da-dar” > “adar”...

26. Zergatik ez dugu “lulur” (< “lur”), “**lalats” (< “lats”), ez “** leleku” (< “leku) eta ez “**lelehoi” (< “lehoi”)?**

27. Atzizki hasierako herskari / Ø alternantziak. Zer esan liteke horien jatorriaz?

Herskari gabeko formak zaharragoak direla. Adibidez: “-eria” vs. “-keria”.

28. Eta /f/-aren jatorriaz?

Hots hau gurean berria dela (Markinako idazleek, Mogel, frai Bartolome... aldarrikatu bezala). Gaur egun Euskal Herri ia osoan /f/ fonema arrunta da, bai hitz hasieran, bai hitz barnean ere. G, B eta GN-n, maileguetako “f” > “p”, eta baita erdialdeko eremutik kanpo ere. Mitxelenak ez zuen AE-ren fonologiaren berreraiketan fonema bezala sartu.

29. Bokal sudurkariak: nondik datoz? Lehen lekukotasunak.

30. “ü”: non lekukotzen eta nondik dator?

31. Bokal ixteen zenbait adibide. Zein testuingurutan gertatzen?

32. Amaierako bokalak: sailkapen nagusia.

33. Hitz hasierako bokalak: zer diote euskararen bilakabideaz?

34. Ba ote ezer esatekorik “j-” ondoko bokalismoaz? Zergatik ote?

35. Ba ote /h/ etimologiko gehiago Mitxelenak eman /h/-aren sail etimologikoez landara?

36. Zergatik “hire” baina “eure”? Eta “han” baina “anartean”?

37. Hasperena Antzinatean eta Erdiaroan: non?

38. “saihets” / “sahets” / “saiets”: /h/ etimologikoa ote? Eta “hor”, “hon”-en?

39. “onherran”, “ilhun”: zergatik “-h-” ez da halabeharrezko edo erantsia?

40. Gaskoiaren lekukotasuna /h/-aren balio etimologikoaz.

41. Mitxelenaren 4 azentuera-eremu nagusiak.

- (1) Erdi-mendebaldekoa (B, GN).
- (2) Zuberera eta Erronkaria (Z + E).
- (3) Goi-nafarrera (GN).
- (4) Bidasoa aldekoa.

42. Ba ote modurik Martinet-en eta Mitxelenaren azentuarekiko helburu edo abantailak bil ditzakeen proposamenik egiteko?

43. Bisilabo batean aurrizkia azentuduna ote? Eta atzizkia?

44. Bizkai iparraldeko tonuak izan litezke AE-koak? Zergatik?

45. Zein da bateragarriago hizkuntza eransle batekin: lehen silabako azentua ala azkenekoa? Zergatik?

46. Zer dakigu euskararen gramatika kategorien bereizkuntza zaharrez?

47. Adjektiboaren irregulartasunak, egitura eta jatorria.

48. “eure” eta “zeuen”-en jatorria.

49. Artikuluaren bilakabidea.

50. Hiru zenbakiaren etimologia.

- (3) “*her” (cf. “hertsi” < “*hertz-(te)i”) + “ur” > “hirur”.
- (4) “laur” < “labur”
- (5) “bost” < “bortz” < “*bor-tz”
- (6) “sei” < “*sehi”.
- (7) “zazpi” < “*(bor)zaz + bi”.
- (8) “zortzi” < “*zorrotz-i” (cf. Ukabileko mendixkak).

(9) “bederatzi” < “*beda” (cf. “bederen”, “bedera”) + “eratz” (cf. “jantzi”).

(10) “hamar” < “*han-bor”.

(11) “hamaika” < “*hama(r)-be(da)-ka”.

(12) “hamabi” < “*hamar-bi” → “amai” (B, XIX. mendea).

(15) “*han-bor-bor-tz”.

(20) “*(b)o(r)-gen-i” > “*ogehi” > “hoge”.

(100) “ehun” < “*hen” (cf. `enbor, zuhaiska´) + “hun” (cf. `hiedra´).

51. Ergatiboaren jatorria.

- “-k” < “*ga”? Lakarrak bizidunetako “-ga”-rekin lotu du.

- Leku atzizkian bizidunengan du jatorria. “aitaren-gan”. Hortik sortua, -ga horretatik.

52. Datiboaren jatorria.

Pl. E-Z “-ér” < “*-ag-e-ri” (Azkue 1923) / “-ai”, “-ei” < “*-agi” (Jakobsen-ek proposatu eta Mitxelenak onartua).

Gaur egun “-i” < “*nin” (Lakarra 2008).

53. Zein da zaharrago: “-e”, “-en”, “-re”, ala “-ren”. Zergatik?

54. Ablatibo zaharra mendebalean.

55. Ba ote preposizioen aztarnarik?